JENIS JOPLIN

UXUE ALBERDI



Uxue Alberdi

Jenisjoplin

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.

Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

http://susa-literatura.com/ebook

© 2017 Uxue Alberdi
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2017ko urria
Edizio hau: 2017ko urria

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.eus
Webgunea: http://susa-literatura.eus

–1–

Astelehen goiza zen eta Artxandara gindoazen autoz. Azken egunak zituen 2010eko udak.

– Azkuna alkatea bezala, Bilbo gu gabe nola dagoen ikustera!

Umorea zuen Irantzuk larritasunean ihesbidea. Autoaren atzealdean bi neskok, aurrean mutilak: Karra txofer eta alboan Luka. Lau gazte genirudien, mendibuelta egiteko ideiarekin; Lukak prestatutako patata-tortillaren usainak areagotu egiten zuen sentipen hura.

– Bat ezin dute atxilotu patata-tortilla tupperra orkatilen artean duela, antiestetikoa da –mendiko boten artean zeraman Irantzuk fardela.

– Saiatu tupperwarea eta atxiloketa esaldi berean sartzen. Saiatu, saiatu! Tipularik jarri al diok?

– Pixka bat.

– Seguru gaituk, orduan.

Musikaren bolumena igotzeko aprobetxatu zuen Karrak.

– *No pasarán! Los venceremos, amor, no pasarán!* –Carlos Mejía Godoy kantari koruan jarraitu genion denok–: *aunque no estemos juntos, te lo juro: no pasarán!*

Lukaren saioko sintonia zen, egun hartan ohi baino erresonantzia sakonagoak eragiten zizkiguna. Kantuan iritsi ginen Artxandara. Hantxe geunden Libre irratiko kideok, eguzkiak hiriari zangosagarrak berotzen zizkion bitartean. Zain egoteko modu bat da hostoaren dardara irailean.

Hitz egin beharreko guztiak hitz eginda geneuzkan. Preso eramaten nindutenean Karrak hartuko zituen ostera nire programaren ardura eta irratiaren zuzendaritza, eta Irantzuren ordezkoa ere prest zegoen tertulia politikoa gidatzeko. Asanbladan erabaki genuen ez ezkutatzea eta kazetari-lana egiten jarraitzea.

Lukak zortea izango zuen akaso, bazitekeen fitxatuta ez egotea. Lauzpabost hilabete zeramatzan gurekin, sarean abian jarri genuen telebistan euskal gatazkaren inguruko informazioa atzerrirako lantzen. *Transatlantikoa* deitzen genion hibrido poliglota lotsati bat zen. Hirian nora ez eta, etxean hartu nuen apopilo, trukean irratian kolaboratzekotan. Egongelako sofaohea eskaini nion, neuretzat hartua baineukan gonbi-

datuen gela, ama bere azken harreman hondoratutik “sasoi baterako” etxera etorri zitzaidanetik.

Denbora oso laburrean, inori axola ez zitzaion bazterreko hedabide minoritarioa izatetik “Segiren irratia” izatera igaro ginen Espainiako egunkarietan eta, jauzi bakar batean, ETArekin kolaboratzen zuen hedabidea izatera. Entzuleak eta jazarleak ugaritu zitzaizkigun. Karisma handirik gabeko zutabegile batek terrorismoaren goraipamena egiteaz akusatu gintuen. Azken asteetan zelatan geneuzkala sumatzen genuen, Irantzuk eta biok kalez jantzitako polizien jarraipenak jasan genituen. Argiak eta itzalak gauean.

– Biharko erosi dut autobus-txartela –esan zigun Lukak.

Madrilen lehengusu bat bisitatu eta Habanara itzultzekoa zen, zain zeuzkan ama eta neska-laguna.

– Zakurrek dohainik eramaten ez bahaute! –izterrean txaplaka egin zion Karrak.

Igandezaleentzako mahai batera atera genituen garagardoak eta patata-tortilla.

Kideei begiratu nien. Irudipena, atxiloketaren hurbilak edertu egiten ote zituen, lehendik ere hala neritzen arren.

Karra eta Irantzu ohaide izanak nituen, urte luzetan noizbehinka bata eta bolada labur baina intentsu batez bestea; eta sinetsita nengoen horrek ahaidetasun moduko bat ematen zigula. Ez nuen seme-alabarik espero larru-truk; neba-arrebak bilatzen nituen, ahalik eta gehien. Niretzat sexua bazen itun moduko bat, ohetik kanpo ere elkar zaintzen jarraitzekoa. Elkarrekin binan-binan esklusiboki partekaturiko gauetan zubiak jasotzen genituela egiten nuen, nigandik amorante bakoitzarengana eta alderantziz, guk beste inork zapaldu ezinekoak: Salbekoa, Mesedeetakoa, Erriberakoa. Zubi konplizeak. Zubi beti binakakoak. Izatez, endogamiko samarra zen gure erredakzioa.

– Hire erruz, bistan da –baieztatu ohi zuen Karrak.

Bera zen anaia nagusia, irratiko lehenengo liberatua, denon artean zaharrena, urtebete atzera aita egin zenetik soldatapeko lanak albora utzita zituena. Aldika baino ez zen azaltzen estudiora. Bilbora aldatu nintzenetik ezagutzen nuen.

Luka, argazki-kamera hartuta, behatokira aldendu zen. Laster, argazki hura oroitzapen urrun bat izango zen Habanako logela sargori batean.

Irantzu eta Karra korrika hasi ziren; autoko atea zabaldu berri zaien zakur urduriak ziruditen, norabide

guztietan eta batere logikarik gabe lasterka. Zigarro bat biltzeari ekin nion haiei begira. Irantzu, Karraren sorbalden gainean zutik jarrita, haritz zahar batean gora egin nahian ikusi nuen; bi eskuekin adar bati heldu eta besoen indar hutsez igotzea lortu zuen. Karrak, haritzaren gerria besarkatu eta jauzi txiki bat egin zuen, oin-zolak enborraren alde banatara finkatuz lurretik gutxira, eta mugimendu azkar bat entseatuz, goragotik besarkatu zuen haritza, oinekin beste salto bat egin eta, zangoak igel, lurrari beste hogei bat zentimetro irabaziz.

– Arrivederci! –oihu egin zigun adarretik Irantzuk–. Gu hemen goian geratuko gara bizitzen!

Errealitatearen erantzuna bailitzan, brau erori zen Karra belartzara. Zapo.

– Lasai al hago? –galdetu zidan nigana itzulita.

– Zuek tximuok baino lasaiago –adarra jo nion.

– Ez ditun indarrezko atxiloketak izango, Nagore.

– Bazagok bestelakorik?

Ez zegoen sosegurako arrazoi objektiborik batere; azken boladan atxilo eraman zituztenen ehuneko handi batek salatu zituen torturak; irratian bertan lekukotza lazgarriak jaso genituen birrin-birrin egindako gazteen ahotik. Jipoiak. Bortxaketak. Umiliazioak. Ha-

rrigarriki, ez nuen beldurrik. Seguru sentitzen nintzen kideen artean, aitari eskua emanda doan umeak bezain irrazionalki, uste nuen haiekin nengoen bitartean ezin zitzaidala ezer larririk gertatu.

Ardo-botila zabaldu eta tortilla zatitu zuen Irantzuk.

– Jan ezan –agindu zidan–, desagertu egingo haiz eta!

Medikuek luzaz antzeman ezin izan zuten hestegorriko infekzio baten erruz sukarrak jota eta ia mokadurik irentsi gabe igaroa nuen hilabete eta erdi. Lehendik argalduta banengoen, gaixoaldiaren ostean ni halako bi kabitzen ziren galtzetan. Bizkortzen hasi orduko lurrindegian lanean hasteak eta Aste Nagusian txosnetan gaueko txandak bata bestearen atzetik kateatzeak ez zidaten gerri-bueltan mami askorik pilatzen lagundu, ezta sarekadaren itzalak eta filtrazioek ere, seguru asko.

– Datozela gaur bertan –esan nuen erabat konbentzituta–. Ea tramite hau igaro eta normaltasunera itzultzen garen.

Atxiki bat egin nion zigarroari. Isilune baten ostean, barrez hasi ziren hirurak.

Begiratokian taldeko argazkia ateratzea proposatu zuen Lukak, tripodearekin. Airean dantzan zebiltzan hauts-pinportak argitzen zituen eguzkiak. Haurtzaroko oroitzapena zekarkidan, nola saiatzen nintzen trenbidearen ondoko kale desolatuan distira haiek harrapatzen, eta nola ihes egiten zuten nik eskua itxi orduko.

Lurrindegira iritsi nintzenean zimurren aurkakoak paketatzen aurkitu nuen ama. Kosmetikoak saltzeari ekin berri zion tabernaria zirudien. Zerbitzari-erreflexuekin mugitzen zen dendako salmahaiaren atzean: azkarregi, zakarregi, sofistikaziorik gabe. Musika ozenegi jartzen zuen. Izatez, erantzian-erantzian, konplexuz beteriko baserritar bat zegoen estetizistaz mozorroturiko tabernariaren azpian, simaur-kiratsa estaltzeko azken saiakeran, baldar.

– Itzuli egingo ditinagu.

Salmentak ez ziren txar-txarrak, baina ez ziguten zorrak kitatzeko adina ematen. Amaren ezkortasunari egozten nion nik bururik altxa ezina, baina ez nion ezer esaten. Ohituta nengoen soka lepoan bizitzen: patrika bete antzean eta kontu korrontea hutsik izaten duen jende-tipoa ginen, eguna aberats eta urtea

pobre igarotzeko programatua, desastre samarra baina fidatzeko modukoa.

Atseden hartzera bidali nuen. Bostetan tratamendu esfoliatzailea egitera etortzekoa zen bezero bat, eta zazpietarako denda ixteko asmoa nuen. Kalera atera aurretik piztu zuen zigarroa amak. Errieta egin nion.

– Ospitaletik deitu dute –esan zidan, eskuarekin keari kalerantz bultza egiten zion bitartean–. Hamaiketan pasatzeko probak egitera.

– Bihar?

– Gaizki al datorkizu?

Oso ondo zetorkidan, Lukari Madrilerako autobusbidaia bezain.

Aurpegi porotsua zuen tratamendua egitera etorri zen emakumeak. Berria zen. Bezeroa ohatilan etzanarazi eta buztin berde, aloe vera eta argan-oliozko maskara prestatu nuen. “Eguraldia?”, bidali nion Karrari mezua, emakumearen laranja-azalezko aurpegian buztina lehortzen utzita. “Itsasoa bare”, erantzun zidan.

Hogei minuturen ostean maskara erretiratu nion, eta amak hornitzaileari itzultzeko prestatu zituen zimurren aurkako bi krema-poto saldu nizkion.

Mezu bat iritsi zitzaidan telefono ezezagun batetik: “Txakurrak”.

– Datorren astean beste saio bat egitea komeni zaizu –esan nion–. Gero, etxean jarraitu ahal izango duzu.

Hitzordua apuntatu nuen agendan. Hurrengo egunetako orriak zenbat eta beteago, orduan eta gertagaitzago ziruditen atxiloketek. Eramaten baninduten, amari ondo etorriko zitzaion okupatuta egotea ni itzuli arte. Telefonoz hots egin nion, gaua beste nonbait igaro ote zezakeen galdetzeko.

– Planak ditut –esan nion.

Ez nuen poliziek atea eraisten bazuten ama barruan egoterik nahi.

– Eskegi egin behar dizut, bezeroak dauzkat.

Zazpi eta erdiak jo zuten denda ixterako. Badaezpada, kontabilitatea eguneratuta utzi nahi izan nuen. Afaritarako erosketa batzuk egin eta etxera joango nintzen.

Azken orduko bezeroz goraino zegoen supermerkatua. Arrautzak, urdaiazpikoa, ogia, bi ardo-botila eta, prezioagatik zalantza egin ostean, Iratiko gazta hartu nituen. Kutxatik pasatzeko ilara egiten ari nintzela, dendako ate automatikoen bestaldean zelatan

neuzkala iruditu zitzaidan. Bi gizon ikusi nituen niri begira. Orgatxoa utzi eta begiratua itzuli nien. “Zer?”, galdetu nien keinuz, burua eta bekainak goratuz. Erosketa ordaindu eta kalera atera nintzenerako desagertu ziren. Hasi zen, beraz, jolasa. Etxera berrehun metro eskas nituen aldapan gora, eta hiru bider utzi behar izan nuen lurrean erosketa-poltsa. Oraindik ez nengoen osasun beteko, segituan jotzen zidan flakiak. Atseden hartzeko gelditu nintzen aldi haietako batean jo nuen begiz kalearen beste aldean: metro eta laurogeita hamarreko zakurtzarra, gaztea, sekreta bat, etxepe bateko atarian. Erosketa garraiatzeko laguntza eskaini behar zidala iruditu zitzaidan. Hark nire txakalaldiari antzeman izanak barrutik irakiten jarri nin-duen. Poltsa hartu, zutitu, eta haren aurrean gelditu nintzen. Mandatuen fardelak eszenari gehitzen zion domestikotasun erridikuluaren jabe, tinko begiratu nion. Ez zuen keinua zirkinik mudatu. Egonarriz eutsi nion burlaizezko behako harro hari, eta alde egin nuen.

Hallean zutik aurkitu nuen Luka.

– Gainean ditinagu.

– Bazakiat.

Sukalderaino jarraitu zidan. Ardo-botilari kortxoa atera eta bi kopatan zerbitzatu nuen. Gazta mozten laguntzeko eskatu nion, kopa hurbildu nion topa egiteko:

– Tratu bat egingo diagu.

– Bota.

– Telefonoak itzaliko ditiagu eta lasai-lasai hustuko ditiagu bi ardo-botilok.

– Bakarrarekin nahikoa izango dun, gorde ezan bestea okasio bereziren baterako.

Tabakoa atera nuen. Neska-lagun kubatarraz galdetu nion.

– Lilian izena din. Lili.

– Laster izango haiz Habanan.

– Faltan hartuko ditinat gure telesail-gauak.

Etxean apopilo eman zituen lau hilabeteetan *Mad Men, Breaking Bad* eta *Carnivale* irentsi genituen bata bestearen atzetik. Iluntzeetan elkarrekin laketzen ginen sofan, sozialista izanagatik telesail amerikarrekiko zuen filia erraz kutsatu baitzigun amari eta bioi. Handik aurrera telenobela kubatarrarekin etsi beharko zuen.

– Hemengo martxara ohituta, aspertu egingo haiz Kuban.

– Ez pentsa, poliki ibiltzea gustatzen zaidan.

Kopak bete genituen berriro.

– Eta hi, zer moduz Igorrekin?

Ukabilaz bularra kolpatu behar izan nuen ez aurrera ez atzera gelditu zitzaidan ogi-pusketari pasatzen laguntzeko.

– Igorrekin?

Donostian bizi zen kolaboratzaile bat zen, analista politikoa, itxura guztien arabera nik uste baino modu agerikoagoan erakartzen ninduena.

– Tamalez, monogamo zurruna duk –trago egin nion ardoari–... oraingoz.

Banekien denbora-kontua zela, baina luze iritzita nengoen. Asteak generamatzan Bilboko edo Donostiako tabernetan bilera zentzugabeak hitzartzen hurrengo kolaborazioetako gaiak eta ildo politikoa adosteko aitzakian. Bikoteduna bera zenez, lehen urratsa ematea berari zegokiola uste nuen, nahiz eta ez nengoen itxarotera ohituta. Tentsio sexuala eta tankerako gerra guztiak berehala ebatzi ezean, duintasuna galtzen nuen pixkanaka. Trebeagoa nintzen gudu-zelaian biziraute eta suaren edozein albo-ondorio onartzen, tregoaren ziurgabetasuna kudeatzen baino. Igorrek, aldiz, estoikoki zeraman itxaronaldia.

– Arte bat dun zain egotea –kopa altxatu zuen Lukak–, beste plazer modu bat.

– Gerta dadila gertatu behar duena; baina gerta dadila oraintxe –esan nion, atxiloketaz edo Igorrekiko enkontruaz ari ote nintzen zalantzan utziz.

Biek ala biek antzeko gorputzaldia sortzen zidaten. Uda hasieran Zarautzen egin genuen kolaboratzaileen bazkariaren ondoren, beste guztiak etxeratutakoan, gauez itsasoan erdi biluzik bainua hartzen amaitu nuen Igorrekin, toallarik ez eta gau epelean etzan ginen lehortzera. Ez genuen elkar ukitu eta ez genuen hitzik egin. Ezpainetan eta hatzetan eutsi genion irrikari, bi orduz egon ginen elkarri begira, zigarroak erretzen, soka hura noraino tenka zitekeen entseatzen.

Kafea egin nuen afalostean, ardoarekin erdi mozolotuta baikeunden.

– Dutxa hartu behar diat –esan nion Lukari.

Ilea garbitu eta kale-jantziz atondu nintzen. Tartetxoa pasatu nuen arropa hautatzen. Gauerdia zen ordurako. Sofa-ohean etzaten ikusi nuen Luka, bakeroak eta kirol-jertsea soinean. Ez zen ohartu begira ari nintzaiola. Belaunek dar-dar egiten zioten.

– Nahi al duk nirekin lo egin?

Eskutik heldu eta amaren ohera eraman nuen. Oinetakoak prest utzi genituen atearen aldamenean. Ez zen eroso gertatzen kale-jantziz oheratzea, gogaikarria zen izaren marruskadura galtza bakeroen kontra, baina etzan eta tira egin genien tapakiei. Eskua eman zidan.

– Ez da ezer gertatuko.

Bere buruari ari zitzaion. Besarkatu egin nuen, eta bizkarra laztandu nion jertsearen gainetik. Kitzikatu egiten ninduen gizonezkoen beldurrak.

Pixkanaka biluzi ginen, goitik behera larrubizirik amaitu genuen izarapean, atxiloketa-momenturako hautaturiko galtzak eta kamisetak, galtzerdiak eta kuleroak lurrean sakabanatuta. Ez dakit zein momentutan hartu gintuen loak, baina esnatu gineneraको egun argi zen.

Iratzarri egin nuen.

– Ez dituk etorri!

Norbaiti kontu hartzeko gogoa sentitu nuen. Adarra jo ziguten. Zorutik nire arropak berreskuratu eta presaka jantzi nintzen. Atzetik etorri zitzaidan Luka.

– Kafea egingo dut?

Ez nion erantzun, telefonora mezu mordoa sartzen ari zitzaidan.

– Karra eraman ditek.

Leihoa zabaldu nuen, etxepean ez zen txakurrik. Operazioa lau ordu lehenago izan zen, Luka eta biok lo geunden bitartean.

Kaleak ohiko martxa zuen. Atso bat sartu zen pareko atarian, egunkaria eta ogi-barra besapean.

Goiz absurdo bat zen, heriotza baten edo maitemintze baten biharamunaren antzekoa. Norbera hain zirraratua eta zeru-lurrak hain arrunt, dardarari sorgor, errealitate propioarekin diskordantzia erabatekoan, itsuski talka eginez, egitate batek bestea –egunsentiak heriotza eta heriotzak egunsentia– ukatu nahi balu bezala.

– Gertu izan ditinagu –esan zuen Lukak.

Aske ginen eta amorruak giharrak tenkatzen zizkidan. Atxilotua izateko prestatu nintzen, indarrak neurtzeko. Alferrik xahuturiko adrenalinaren beheraldia laido bat zen. Inola ere ez zegokidan pribilegio baten jabe sentitu nintzen. Itzuli zen, ostera, ume-garaitik jarraitzen zidan inpunitatearen lasta: nire ingurukoak zigortzen zituzten bitartean, nik ahal nuen bezala kudeatu behar nuen zigorgabetasunaren pribilegioa.

“Joango al gara arropak begiratzera?”, idatzi nion Irantzuri.

Hamarretan elkartu ginen Zarako atean. Musu eman nion, barrura egin genuen. Alkandora loratu batzuen ondoan gelditu ginen.

– Karra bakarrik eraman diten –airean eutsi zion pertxa bati–, atxiloketa liskarrik gabea izan dun.

– Irratia?

– Miatu egin diten. Hankaz gora zagon.

Jaken sailera jo genuen.

– Han izan haiz?

– Auzokoekin hitz egin dinat.

– Ordenagailuak?

– Eraman egin ditizten.

– Denak?

– Baietz uste dinat.

Oinetakoak begiratu genituen.

– Prentsaurrekoa eman beharko dinagu –esan nion.

– Heu arduratuko haiz testuaz?

– Konforme.

Hamar eta erdiak ziren.

– Joan egin behar dinat –esan nion.

– Nora?

– Medikuarengana.

Eskailera mekanikoetan gora joan zen Irantzu. Ni inoren arretarik piztu gabe igaro nintzen alarma-detektatzailearen paretik, segurtasun-agenteak ez zidan begiratu ere egin. Autobusa hartu ahal izateaz erru-dun sentituz igo nintzen ospitalera, Osakidetzarekin zordun, goiza nolabait betetzeko ordezko tramite bat eskaini zidalako. Ez nekien zer proba egin behar zizki-daten zehazki, ezta inporta ere, ordu batzuetan burua engainatzeko balio bazidaten. Apur bat pausatuz gero, azken gertakizunak euren kasa ordenatuko zirelakoan nengoen. Une hartan ez ninduen osasunak ardura-tzen, banuen lehenagoko kezkarik.

Lukaren mezua jaso nuen: “Madrilera bidean”. Bezperan erantzi nizkion arropak soinean imajinatu nuen. Bueltan igorri nion: “Medikutara, goiz-pasa”.

Marranta, eztul eta neke kolektibo bat zen autobu-sa. Izerdi usaina zerion jende-saldoari. Haiengandik aparte sentitzen nintzen, gazte, garbi, osasuntsu.

Urrun nekusan abuztu hurbila. Hogei egun sukar-tsu izan ziren, egun bakar, oso luze baten gisan oroi-tzen nituenak. Amarekin gelditu nintzen oporrik gabe-koen hirian. Hura ere makalik zegoen, eroriko baten

erruz lepauztaia hautsita, elkar zaindu nahi eta ezinean genbiltzan.

Hasierako gorputzaldi txarrak eta eztarriko minak sukar eldarniotsu bilakatuz joan zitzaizkidan egunez egun, eta biriketako oinazeaz kexuka hasi nintzenean anbulatoriora joan behar genuela erabaki zuen amak. Nik ez neukan kontra egiteko kemenik. Hark gidabaimenik ez, nik ohetik altxa ezin, anbulantzia bati deitu zion azkenean. “Nor artatu behar dugu?”, galdetu zuen erizainak, ama, esku bakarrarekin, nola hala, pijamaren gainetik kaleko arropak janzten laguntzen ari zitzaidan bitartean.

Hiru aldiz egin genuen anbulatoriorako jira, eta, zenbait probaren ostean etxera bidali gintuzten hiru aldietan, ama hebaindua eta pasa-pasa egindako alaba, *la extraña pareja*. Aitak etorri behar izan zuen –berandu baina presaka– ni Gurutzetara eraman eta, hango mediku bati mehatxu eginda, aurrez txandarik hartu gabe, hark bakearen izenean, halako batean, ahoa zabalarazi eta kandidak nituela esateko. Hamabost egunean eztarritik hestegorriraino hedatu zitzaizkidan onddoak, infekzioak eragiten zidan biriketako mina zela uste nuena. Tamainako infekzioa nolatan

sortu zitzaidan egiaztatzeko, proba gehiago egin nahi zizkidaten.

Jendez betetzen ari zen autobusa.

Atxiloketa eta Libreren behin-behineko itxiera salatzeko prentsaurrekoa prestatu behar genuen. Medikutatik irtendakoan idatziko nuen testuaren lehen zirriborroa.

Mediku-papera sarrerako mostradorean aurkeztu, eta gaixotasun infekziosoetako unitatera bidali ninduten. Odola atera behar zidala azaldu zidan erizain batek.

– Zorabiatu egiten zara?

– Autoan bakarrik.

– Zain onak dituzu. Bi ordu barru etorri behar duzu emaitzen bila.

Ospitaletik atera eta gaixo-usainik gabeko taberna bat aurkitzen saiatu nintzen. Irlandar estiloko bat topatu nuen handik gertu. Ohituta nengoen testuak taxutzen, hitzak ia nahi gabe zetozkidan, burutik bainoago eskutik, automatikoki. Zigarro bat piztu nuen. Udako hondar-eguzkiak bizkarra berotu zidan larruzko txuparen gainetik, halako ongizate-sentsazio hedakor batek hartu ninduen, haizea alde izatearen sentipenak. Plazer une hark eragindako erruduntasuna uxatu

nahian, arnasa hartu nuen sakon. Amaitu zen atxiloketaren zain egotea, akabo zen larritasun estali hura; itxura guztien arabera, Karra laster askatuko zuten: ez zuten deus ere haren kontra. Bizpahiru egun, eta kito izango zen dena. “Ari naun erreklamazio-testuarekin”, bidali nion Irantzuri.

Kalean behera zetorren mutil batek irribarre lotsatia egin zidan; kaier batean idazten ari zen neskaren irudiak xarmatuta, antza. Erromantiko bat, pentsatu nuen, eta irria itzuli nion. Pozik nengoen. Azken batean, larrua jo osteko astearte goiz bat zen.

Esandako ordurako hurbildu nintzen ospitalera. Ez zegoen beste inor itxarongelan. Medikua behar zuen sartzeko keinua egin zidan gizon bizardunak. Paperen artean zokomiran hasi zen, niri bizkarra emanda. Analitiken emaitzak atera zituen mahai gainera.

– Nagore Vargas.

– Bai.

– Adina?

– 28.

Zerbaiten bila ari balitz bezala begiratu zidan.

– Zer?

– Positibo eman duzu.

Zain gelditu nintzen.

– Ez dizute ezer azaldu?

Ez nekien zertaz ari zitzaidan.

– GIBaren proba egin dizugu.

– Zer?

– GIBaren proba egin dizugu eta positibo eman duzu.

– Adarra jotzen ari zara.

– Ez dut gai hauekin txantxarik egiten.

Modu ordenatuan oroitzen dudan azken esaldia da. Desegin beharrean alderantzizkoa gertatu zitzaidan, kontzentratu egin nintzen, nire baitako puntu zehatz batera bildu, eta adimenaren antzaldatze moduko bat jabetu zen nitaz: xehetasun guztiak arretaz erregistratzeari ekin nion. Bizarra urdintzen hasia zeukan hegaletan, barailezurraren parean, eta ile beltz eta zurien artean gorrixkak tartekatzen zitzaizkion. Sudur kakotuaren gainean urre-koloreko betaurreko txikiak zeramatzan. Orein-begiak, kaio-bekainak. Zimur oraindik diskretuak betertzetan. Kokospean, aurpegi argalarekin kontraesanean zirudien papoa. Arnasak poliki hanpatzen zion bata almidoiztatua. Hark ohartarazi zidan epaile baten aurrean ez, mediku baten aurrean nengoela. Lurrinaren usaina ezagutu nion: *Bleu,* Chanel.

– Gaur egun... gauzak asko aldatu dira; ez kezkatu, ondo egongo zara.

Kontzentrazioa galdu nuen. Medikuaren aurpegia eta usaina galdu nituen. Nire inguruko koloreek eta formek ez zuten jada errealitate bat osatzen. *Hiesa* entzun nuen. Izeba. *Adiós lucerito mío.* Horma papereztatuak, lore okreen segida, sintasola. Zopa-usaina. Amama Rosa. Umetako euria asfalto gainean lehertzen. Ibaia handi, lodi, zikin. Aldiriko trena. Aita. Ama. Angel. Margo eta lerro galduek medikuaren soslaia osatu zuten ostera.

– Baina seropositiboa naiz ala hiesa daukat?

– Gaixorik etorri zara.

– Ni ondo nago.

– Hiesa duzu. Kandida-infekzioa horrexek eragina zen.

Horman haurrek egindako marrazkiak zeuden itsatsita.

– Ezin liteke nik hiesa izatea!

Pixka bat lasaitu nintzen arte itxaron zuen. Aulkian hondoratu nintzen.

– Ez zara hilko.

– Denok hilko gara.

– Hiesa gaixotasun kroniko bihurtzea lortu dugu. Hori bai: gaixotasun kroniko kutsakor batek dakartzan konplikazio guztiekin. Kutsakorrak zaretela onartzea gogorra egiten zaizue.

Poltsa jaso eta alde egiteko jaiki nintzen.

– Aholku bat emango nizuke: eraman ezazu diskrezioz.

Bostekoa luzatu zidan.

– Etorri berriro bihar hamaiketan, beste proba batzuk egingo dizkizut.

Nire izeba Karmen Vargas hiesak jota hil zen 1987ko maiatzean. Hogei urte zituen. Zazpi urte lehenago, 1980ko goiz batean, Rosa Morenok, nire amamak, xiringa bat aurkitu zuen etxeko aterki-ontzian. Garbiketa egiten ari zen, guardasol koadrodunaren hagaxken artean trepeta hura ikusi zuenean. Eskuetan hartu eta begiratu egin zion, xiringa bat aterki-ontzira nola iritsi zen asmatu ezinda. Sukaldeko mahaiaren gainean utzi zuen, frutaontziaren aldamenean, nire aita, Rafa Vargas, lanetik itzuli zen arte. Semearen ahotik entzun zuen lehen aldiz hitz hura: heroina.

Eskolako porlanezko futbol-zelaiko ate zuri-gorriaren atzean hasi zen Karmen zainak ziztatzen, jolasordu galdu batean, amamak oraindik trapuzko panpinak josten zizkion garaian, hamaika urterekin.

Panpinekin jolasten zuen neskatila garrasika eta ate-danbadaka komunikatzen hasi zen. Ahotik lerdea zeriola hitz egiten zien gurasoei, amama beldur zen egunen batean hozka egingo ote zion.

Aitita-amamek ez zuten gainera zetorkienaren susmo-zipitzik. Jonkiak zer ziren arrastorik ez zuten. Nire aitak xiringa haren funtzioa azaldu zionean “nik ekarriko diat hori bide onera”, esan zuen amamak. Baina haren ezjakintasuna gorabehera, Karmen kalezuloren batean zegoen etzanda, sorbalda lagunen baten sorbaldaren kontra, otserri galduren batean.

80a zen, Karmenek bazeramatzan bi urte drogari lapatuta. Nire aita izan zen aieru gaiztoak hartzen aurrena: arreba jende zaharragoarekin ikusten zuen kalean, elkarrekin zerikusi gutxi izan zezakeen jendearekin, ez bazen hurrengo txutearen kezka. Ez zien gurasoei ezer esan, ordea. Heroinak ez zuen oraindik kutsu derrotistarik; geroago lotuko zitzaion galtzaileari, bazterrekoari, heriotzari. Artean *dama zuria* deitzen zioten eta Lou Reeden, Janis Joplinen eta Jimmy Hendri-

xen ahotsa zuen, maitatzeko eta sexualki harremantzeko era berriak zekartzan, bakezaletasun-aireak, sistemaren eta burgesiaren aurkako aldarriak. Amerikako Estatu Batuetako parkeak, adats luzeak, loreak, musika; Londresko mugimendu kontrakulturala.

Amamak sentipena izan omen zuen tarte batean Karmeni begiratzea ahaztu zitzaiola, eta erreparatu zion hurrengo aldian beste bat zela, bridatu ezineko basapiztia bat. Soa goibeldu eta ukigarria zen guztitik urrundu zitzaion.

Lehen lapurretak etxean egin zituen: erloju bat, belarritako batzuk, pitxar bat... Ez zuten baliozko gauza handirik, soberan baino gehiago zeukaten faltan. Karmenek saldu egiten zituen heroina erosteko. Erraz engainatzen zuen ama, ez zuela berriro egingo agintzen zion, belauniko jartzen zen. Barkamena eskatzen zuen, hurrengo aldira arte. Denbora aurrera, gezurrak esateari utzi, eta aitorpen gordinetara igaro zen. Amamarentzat eraman errazagoak ziren gezurrak.

Heroinaren mundura esnatzea jipoi galanta izan zen harentzat. Alabak esaten zion makina batek funtzionatzeko erregaia behar duen bezala behar zuela berak heroina. Ezin zela ohetik jaiki txuterik izan

ezean. Xiringarekin gosaltzen, bazkaltzen, afaltzen eta oheratzen amaitu zuen.

Zigorrak, giltzapetzeak, mehatxuak, maitasun-aitorpenak, erreguak amaitu zitzaizkionean, amama izebari zaldia erosteko dirua ematen hasi zen. Bazekien sosik ematen ez bazion etxetik kanpo hasiko zela lapurretan, Maritxuren farmazian, Joseren estankoan, eskura zuen edozein poltsatan. Poliziarekin arazoak izango zituen eta droga pasatzen ziotenek jipoitu egingo zuten garaiz ez ordaintzeagatik. Amore eman zuen, beste ezeren gainetik, ezin zuelako Karmenen mina jasan. Hutsmina, heroinak ez beste ezerk bete ezin zezakeena.

Alferrikakoak izan ziren amamaren ahaleginak. Polizia behin baino gehiagotan etorri zen Karmenen bila hura ohean abstinentziak jota intzirika zetzala. Lapurretak leporatzen zizkioten, jabetzaren kontrako kalteak. Hamabost urte gorriko, amamak ume bat ikusten zuen oinazetan; poliziek, jonki bazter-nahasle bat. Alaba biharamunean bertan komisariara eramango ziela agintzen zien, goizeko bederatzietarako entregatuko ziela, baina, arren, ez eramateko horrela.

Hiru hilabetean Madrilgo erreformatorio batean giltzapetu zuten Karmen, eta, adin nagusiko bilaka-

tzean, bi aldiz sartu zuten kartzelan. Baina indarrak ahitu zitzaizkion lapurretarako ere. Ozta-ozta altxatzen zen dosiaren bila joateko. Gero eta denbora gehiago igarotzen zuen etxean, ohean, mantapean. Altzoan hartzeko erregutzen zion amari. Eta hark altzoan hartzen zuen, kantatu egiten zion, oinak laztantzen zizkion.

– Hain zen gaztea heroinari lapatu zitzaionean, jonki zela hamar zentimetrotik gora hazi baitzen... –esaten zuen amamak.

Amama Rosa izeba Karmeni heroina injektatzen laguntzera iritsi zen. Besoak egunero ziztatu beharraz, gero eta zailago zitzaion zainak aurkitzea; ziztatzeko erabili izan zituen gorputz atal guztiak blokeatuta zituen, pultsuak dar-dar egiten zion. Alabak azaldu zion droga nola urtu, nola xurgatu xiringan airerik sar ez zedin, nola garbitu orratza, nola sartu zainera. Erizainarimaz artatzen zuen amamak.

Etxean behea jo zuten. Aititak Karmen etxetik botatzeko eskatzen zion amamari, amamak alabarekin batera joango zela egiten zion mehatxu.

Amamak pertsianak beheratu zituen, eta hiru hilabetean ez zion inori aterik ireki, ez telefonorik hartu. Infernu harekin alabak eta biek batera amaitzea zen

gogoa baretzen zion pentsamendu bakarra. Azken dosia hartzetik hamabi ordu baino gehiago igarotzen baziren, izerditan eta oka hasten zen izeba, begi-niniak irisa erabat belzteraino zabaltzen zitzaizkion, hotzikara zakarrak izaten zituen, konbultsioak, kalanbreak beso-zangoetan, takikardiak. Beste denak lo zeuden bitartean, butanoa ireki zuen amamak gau batzuetan, eta ohean sartu, hotzez dardarka eta aieneka ari zen alabaren ondora. Gogor besarkatzen zuen izeba Karmen, baina amaren gorputzak ez zuen jada alaba baretzeko balio. Alabaren haragiak min egiten zion amarenari. Beranduegi zen. Karmeni gorputzak heroina eskatzen zion; ordurako ezinezkoa zen samurtasunak haur haren azala zeharkatzea. Minutu gutxi batzuk igaro orduko, damututa, ohetik jaiki, sukaldera joan, aire pozoituaren azken ahokada arnastu, butanoa eta begiak itxi, eta balkoiko atea irekitzen zuen.

1979an iritsi zen herrira nire ama, Arantzazu Alkorta. Jatorriz, Goierriko zoko galdu batekoa da, Bernarats izeneko baserrian familia pobre batera deskuiduan munduratua. Hamaika senidetan gazteena, bere amaren sabelean beranduegi sortua. Jaio zenerako, haren

gurasoak zaharrak ziren. Aita ez zen ohetik altxatzen zangoek kito esan ziotenetik eta amak nahikoa bazuen baserria gobernatzen. Anai-arreba nagusiak gelditzen ziren haur txikiaren zaintzan. Lan gogorrak eginarazten zizkioten, oraindik bistan dauzka hurritz-makilaren laztanak bernetan. Menpeko eta esaneko izaten ikasi zuen, barnekorik ezer ez adierazten.

Egunkarian herri hartako Zirimiri tabernan zerbitzaria behar zutela irakurri zuenean baserritik alde egin zuen parean tokatu zitzaion lehen autobusean, eta ez zen gehiago itzuli. Herri industrialaren herdoila, kolore grisa, koipe eta zoko-kiratsa, fabriketako zarata, sirenak, mingain erdaldunen kalaka, elkarren gainean pilaturiko etxebizitza-ilarek osaturiko paisaia itoa... arnasa berria izan ziren landa-girotik ihes egindako emakume gaztearentzat.

Zirimiri tabernan ezagutu zuen aita. “El sindicalista” deitzen zioten. Tornularia zen bailarako tailerrik handienean, eta langile-komiteetan afiliatua zegoen. Kartsuki hitz egingo zuen greba orokorrei, itxialdiei, bilerei eta asanbladei buruz, baxoerdiak edaten eta zigarroak erretzen zituen bitartean. Ama xarmatu egingo zuen proletalgoa, langile-klasea eta gisako hitzak ahoratzen zituen mutil beltzaran txima-luze hark,

menpekoaren keinu idealizazioz beratuarekin begiratuko zion pluralean eta iraultzaren doinu mailukarian hitz egiten zuenean.

Bikote polita osatu zuten: biak garaiak eta beltzaranak, barregarriki gazteak, begi-bistako orbanik gabeak, ederrak. Ama serioa eta argala, aita irribarretsua eta axolagabea. 1980an ezkondu zirenean, ez zuten txakur txikirik patrikan, izeba Karmenek ezteietarako gordetako 50.000 pezetak ostu baitzizkien ospakizuna baino hilabete lehenago, eta aita berriki tailerretik kaleratu baitzuten protesta batzuetan nahastuta egoteagatik. Ezkontza-argazkian irribarrez ageri dira denak: aita eta ama erdian; amama Rosa eta aitita Manuel amaren ondoan; Karmen nebari besotik helduta. Sosik gabe, aitita-amamen etxera erretiratu ziren, Lasalde auzoko 21.era.

Nire ama haurdun gelditu eta gutxira ekin zion Karmenek desintoxikazio-prozesuari. Jabetzaren aurkako delitu bategatik atxilotu zuten. Auzo herriko bitxidenda batean lapurreta egiteagatik hiru hilabeteko kartzela-zigorra ezarri zioten. Dendan bertan atzeman zuen Poliziak, txupa barruan ahaztu eta bila itzuli zenean. Martutenen giltzapetu zuten. Amama bisitan joan zitzaionean bere onetik irtenda aurkitu zuen,

kale-zakur bat bezain ihar, dardarti eta izu. Barruan heroina gehiago kontsumitzen zuen, txarragoa eta garestiagoa.

– Oso nekatuta nago –esan zion.

Norabait eraman zezala erregutu zion. Baina aita-amamek ez zeukaten desintoxikazio-zentroa ordaintzeko dirurik, laurogei mila pezeta ziren hilean, eta lehendik ere zorretan bizi ziren. Amamaren anaiarrebek Granadan zituzten lursail idor batzuk saldu behar izan zituzten El Patriarcako tratamendua ordaindu ahal izateko.

Valentziako Cortijo de Santa Elenara eraman zuten. Handik idatzi zizkion amamari lehen gutunak. Gorputz guztian mina zuela esaten zion, sarri egiten zuela oka.

“86 lagun gaude. Ez dugu besterik egiten: jan eta behar egin. Goizeko seietan ateratzen gaituzte ohetik eta segituan jartzen gaituzte lanean: lurra aitzurtzen, eskorgak garraiatzen, adreiluak deskargatzen eraikitzen ari garen dutxa-gela baterako. Etxea nahiko utzia dago eta konponketa asko behar ditu. Lanik egin ezin dutenak, abstinentziak jota oso gaizki daudelako, “maratoia” egitera eramaten dituzte: harriz beteriko motxilak jantzi, eta ibilarazi egiten diete akituta lurre-

ra erori arte. Arduradunak gure moduko pertsonak dira, jonkiak, baina jada droga utzia dutenak. Dirua gobernatzen dute, tabakoa kentzen digute, egunean bost zigarro bakarrik ematen dizkigute. Ez zait hau gustatzen”.

Izeba Karmen Cortijo de Santa Elenan zegoela jaio nintzen ni, 1982ko martxoaren 15ean. Nitaz galde egiten zuen gutunetan. Argazkiak bidaltzeko eskatzen zion amamari. Nire pisuaz kezkatzen zen, hotzeririk harrapatu ote nuen eta apetitu onekoa nintzen jakin nahi izaten zuen, hortzik atera zitzaidan. Urte eta erdian egon zen Cortijo de Santa Elenako komunitatean eta, osasunez indartu bakarrik ez, heroina uztea ere lortu zuen.

1984ko abuztuan itzuli zen, osatuta, itxura batean behintzat. Eder zegoen, distiratsu, polit eta irribera. Bi urte nituen nik.

Etxera sartu eta berehala besoetan hartu ninduen. Nirekiko atxikimendu berezia izan zuen hasieratik eta, nire gurasoak tabernan lanean aritzen zirenez, Karmenek bere burua eskaini zuen ni zaintzeko. Bera arduratzen zen ni elikatzeaz, lokartzeaz eta egurasteaz. Paseatzera ateratzen ninduen. Ezagunek ongietorria emateko gelditzen zuten kalean, niri buruzko komen-

tario atseginak egiten zizkioten. Bere antza nuela esaten zioten.

Bizimodu arrunta egiten zuela dio amamak, lasaia, bizitzea beste helbururik gabea. Ez zuen urrutira joan nahi izaten, ez zuen ezer berezirik egin nahi izaten. Bizi baino ez. Jan, paseatu, lo egin... Pertsonekiko eta naturarekiko maitasun biziberritua zuen, batere eskakizunik eta destainarik gabea: uda udazken bihurtzen den momentuaz ohartzen saiatzea, euriari azala bustitzen uztea, beste gorputzen epela sentitzea, guraso-en urratsak hurbil aditzea, aurpegia ume baten masail bigunen kontra estutzea, arnasa hartzea... Ez zion bizitzari apartekorik eskatzen.

Amamaren etxean betikotuta gelditu ziren garai hartan elkarrekin atera zizkiguten erretratuak. Bazen bat 1985eko elurtean auzoan eginikoa: izeba elurretan etzanda aingeruarena egiten. Uda-sasoiko argazki batean trenbidearen ondoan ageri ginen biok kamerari mingaina ateratzen, hiru bat urterekin ni eta hemeretzirekin izeba.

Erretratu haiek egin eta ez askora pisua galtzen hasi zen. Masailak zurbildu eta mamiz hustu zitzaizkion. Begizuloak sakondu. Hurrengo neguan zangoek huts egin zioten. Halako batean gonbitoka bota zuen

bazkaritako lehen mokadua... Afaritan gauza bera gertatu zitzaion.

– Ezin dut ezer irentsi –esan zion amamari.

Familia-medikuarengana joan ziren, eta bitamina batzuk errezetatu zizkion. Okerrera egiten zuela ikusita, Donostiako Erresidentziara bideratu zuten. Hango medikuek ez zuten zalantzarik egin diagnostikoan: hiesa.

Hil egingo zela esan zioten, eta ez omen zuen negarrik egin. Eskualdeko hemezortzi urteko neskatila bat hiesaz hil berria zen. Herriko hiru mutil eramanak zituen zomorroak. Barkatzeko eskatu zion amamari.

Gaixoaldian, ahal izan zuen heinean, nitaz arduratzen jarraitu zuen. Antirretrobiralen tratamenduak pasa-pasa eginda uzten zuen, hainbesteraino, hiesak edo medikazioak, lehenago zerk eramango ote zuen zalantza egin baitzuten etxean. Botikak hartu eta gero ozta-ozta izaten zen ibiltzeko gauza. Besoetan eraman behar izaten zuten komunera.

Nire ama gaitzitu egin zen Karmenekin denbora gehiegi pasatzen nuelako. Izututa zegoen izebarenganako erakusten nuen gehiegizko atxikimenduagatik. Herrian nahasmen handia zegoen hiesaren transmisio-bideen inguruan, zurrumurru asko aditzen ziren:

arriskutsua zela gaixoarekin igerileku berean bainatzea, edalontzi beretik edatea, zapatila berak janztea... Amak gogor kritikatzen zituen kaleko txutxu-mutxuak; jendeak errazegi hitz egiten zuela esaten zuen, baina ez zekien, bere alabaren kasuan, zentzuzko distantzia zein zen. Karmenek ni laztantzea, musukatzea, gela itxi hartan egunez egun aire bera arnastea... gehiegizkoa egiten zitzaion. Aitarekin behin baino gehiagotan liskartu zen horregatik. Amamarekin ere izan zuen tirabiraren bat. Amamak bazekien egoera berean zeuden beste ama batzuek prebentzio-neurri zorrotzagoak hartzen zituztela, gaixoaren mahai-tresnak eta baxera apartatzea edo haren arropak bereizita eta lixibarekin garbitzea bezalakoak; jakin bazekien ahalik eta gutxien hurbiltzen zirela haiengana, baina uko egin zion alaba izurriak jotakotzat tratatzeari.

Aitita Manuel izeba Karmenen gelako ohe txikira aldatu zen izebak amamarekin lo egin zezan. Ama-alabek, 1987ko urtearen hasieran, lau hilabetez egin zuten elkarrekin lo ohe berean. Izebak hotz ikaragarria izaten zuen, amamak mantak eta berogailu elektrikoa jartzen zizkion arren. Amamarekin eta nirekin bakarrik egon nahi izaten zuen ia denbora guztian. Aitita etxean sentitzeak lasaitu egiten zuen, baina ez zen

hari deitzera ausartzen. Manuel ere ez, alabarengana gerturatzera. Ohean berarekin sartzeko erregutzen zigun amamari eta bioi, etengabe uki genezan behar zuen. Besoekin ingura nezala eskatzen zidala gogoratzen dut.

Azken hilabeteetan denbora asko igaro nuen izebarekin. Musika jarri eta sevillanak imitatzen nituen, barre eragiten nion. Izeba eta aitita nik adiskidetu nituela dio amamak. Arratsalde batean, aititari dei egin omen nion Karmenen ohetik. Bere abestietako bat kantatzeko eskatu nion, nik dantza egin ahal izateko. Alkondaratik tiraka sarrarazi omen nuen logelara. Sukaldetik arrastaka aulki bat ekarri eta ohearen aurrean muntatu nion oholtza flamenkoa. Aitita Manuelek, zalantza une baten ostean, txalo batzuk jo zituen, eztarria garbitu, eta kantuan hasi zen. Ordurako hondatuta zegoen Karmen. *Adiós lucerito mío* abestu zuen, nik etengabe bueltak ematen nituen bitartean, besoak gora jasota eta zapatekin lurrean kinki-kanka joz.

Amamak eta izebak ez zuten inoiz heriotzaz hitz egin. Hil-hurren, Arantzazuko Ospitalean sartu zuten. Osasun-langileek festa txiki bat antolatu zioten urtebetetze-eguna ospatzeko: 1987ko maiatzaren 5a zen, hogei urte bete zituen. Opariak eta tartak eraman ge-

nizkion, irribarrea eragin genion. Ordurako, ordea, kandelak itzaltzeko kemenik ez zuen. Izutu egin nintzen. Festa hartan ikusi nuen azkenekoz izeba. Ohi baino gutxiago hurbildu omen nintzen harengana, izebak ni erakartzeko ahalegin guztiak egin bazituen ere.

– Goazen hemendik –eskatu nion amari.

Karmen lau egunen buruan hil zen, astelehen arratsaldez, aititari eta amamari eskutik helduta.

–Jenisjoplin, esnatu.

Orduak neramatzan ohean, egunak akaso. Saretak igo eta leihoa zabaldu zuen aitak. Zoko usaina zegoen gelan. Kanpoan, iluna.

– Laster argituko din. Jaiki hadi.

– Baina... Nola etorri zara?

– Bost orduan sartu gaitun Coruñatik Bilbora. Hiru radarrek harrapatu naiten, gutxienez.

– Zurekin ekarri al duzu Josune?

– Lo zagon autoan, bidaia luzeek txikituta uzten diten.

– Zer esan diozu?

– Zer esan behar nion? Lehenengo aldia zunan elkarrekin hotel batean mantenu osoan geundela. Afal-

tzeko buffet librera sartzera gindoazenean maletak hartu eta martxa egin behar izan dinagu.

– Joder, aita.

– Nire neska-laguna dun.

– Ez dugu apenas harremanik. Ez daki nor naizen.

– Egiazalea izan naun beti.

– Sintzerizida bat.

– Heuk nahi dunana, baina hoa dutxara.

Diagnostikatu nindutenetik nire gorputza biluzik ikusten nuen aurreneko aldia zen. *Mujer alunarada, mujer afortunada* esaten zidan amamak umetan.

Txabusinan bildurik eta burua bustita atera nintzen egongelara. Besaulkian eserita zegoen aita, Ducadosa ketan. Ilea atzerantz orrazteko keinua egin zuen eskuaz.

– *Bitxoa* daukan.

– Hori diote.

– Beraz, oraindik bizi dun putakume hori.

– Non dago ama?

– Sukaldean.

– Nola dago?

– Pasa-pasa eginda, disgustuka akabatuko dinagu. Atzo ospitaletik bueltan dendara sartu hintzenean

mundua erori zitzaionan. Dena zekinan hik esan aurretik. Lepoa jarriko niken zerbait susmatzen zuela.

Zigarroaren kearekin irudi bat egin zuen airean, ezeren antzik ez zeukana, ez bazen absentziarena.

– Gogoratzen izebaren komunioko argazkiaz?

Gogoratzen nuen, amamaren etxeko hallean zegoen. “Bai ondo ematen dizula abituak!”, esaten zidaten lagunek bisitan etorrita, ondotxo zekiten arren jaunartzea egin gabea nintzela.

– Begiratzeko modua dun.

– Zer?

– Kamerari begiratzeko moduak egiten zaituzte hain igualak. Irribarre erdiz lotsatia erdiz desafiatzailea, eta begirada ere erdibitua: begi batean galderak eta bestean erantzunak bazenituzte bezala. Janis Joplin eta Amy Winehouse.

Kezko bi zirkulu egin zituen, bata bestea baino txikiagoa, hirugarren bafadarekin desitxuratu zirenak.

– Hi ez haiz hilko. Ezin haiz hil.

– Ez.

– Aurrera egin din medikazioak.

– Kaka bera izaten jarraitzen du. Nola daude antirretrobiralak hartzen dituzten zure lagunak?

– Hartzeko aukerarik izan ez zutenak baino hobeto.

Tinko begiratu zidan.

– Izebaren ninia hintzen.

– Kafea egingo dut, aita.

Sukaldera joan eta martxan jarri nuen italianoa. Irratian baratzeko aholkuak, itzali egin nuen.

– Badakin zer esaten zuen? “Ume honek eta nik erreka berbera daramagu barruan”.

Sukaldeko atearen kontra jarri nuen bizkarra. Aita besaulkian etzanda zegoen, botak eta zigarroaren kea baino ez nizkion ikusten.

– Zizarea –esan nion; hala deitzen genion amamaren etxeko leihotik ikusten zen ibai marroiari.

– Beti gainezka egiteko zorian. Beti garbia izateko zorian. Eta beti zikin.

– Aita...

– Egia dun.

– Aita.

– Euskal lunpena gaitun.

– Ez exajeratu.

Pozik zegoela iruditu zitzaidan, edo minaren barruan bazegoela harengan gozamen puntu bat. Erretzeko moduan igartzen nion.

– Batzuetan gauzek zentzua diten, eta zer nahi dun esatea: errazak eta zentzugabeak baino, hobe zailak eta zentzudunak direnean. Hi beti izan haiz koherentea.

– Nik hiesa izatea *koherentea* dela esan nahi didazu?

– Ez itzan gauzak bere onetik atera.

– Nik? Joder, aita, konturatzen al zara zer esaten ari zaren?

– Ez ninan halakorik espero. Ez dun halakorik merezi...

– Orduan?

– Konturatu behar ninan. Ez haiz berrogeita hamar kilo.

Borborka ari zen italianoa. Ez nuen aitaren aurpegia ikusten, baina imajina nezakeen: pipatzen ari zen eskuari begira, ispilu baten aurrean bezala.

– Hik beti borrokatu nahi izan dun honen alde. Orain heure larrutik mendeka dezaken izeba. Agian aukera bat dun hiretzat. Eta guretzat ere bai. Burgesten ari gintunan, badakin? Oporrak, hipoteka, lurrindegia... Honek geure lekura ekarriko gaitin. Lokatzetatik egingo dinagu borroka. Eta irabazi egingo dinagu.

– Azkenean eskerrak emango dizkidazu.

Ke-bafada bat atera zen besaulkiaren bizkar grisetik gora: balea zahar bat.

– Krudelegia ez balitz, nitaz harro zaudela esango nuke.

Eseri egin zen, niri lepoa emanda. Beste Ducados bat piztu zuen.

– Zer plan daukan gaurko?

Sukaldera sartu nintzen. Ahotsa goratuz hitz egin nion.

– Prentsaurreko bat eman behar dut. Zer iruditzen?

– Ezin hobeto.

– A, eta gero Puertas doktorearen kontsultatik pasatu behar dut. Ezer garrantzitsurik ez. Tramite bat: defentsak eta birus-karga neurtuko dizkit.

– Sarkasmoa txarra dun.

– Eta hori zuk esaten didazu?

Besaulkitik jaiki eta nigana etorri zen azkenean.

– Ez didan kaferik eskaini. Usain ona zaukan.

– Kafe bat hartu nahi al duzu?

– Ez, eskerrik asko.

– Azukrerik gabe orduan.

– Banoan. Inguruan ibiliko naun. Deitu egidan ezer behar izanez gero.

– Ados.
– Deituko al didan?
– Baliteke.
– Eta zin egidan burua ondo goian ibiliko haizela.
– Bai, noski.
– Egidan zin, Jenisjoplin.
– Zin egiten dizut.

Lehenengoz atera nintzen kalera diagnostikodun gorputzean, poltsikoan lehergailu bat daramana bezala. Kaleak, jendeak, egunaren argiak tindu berria zuten. Abortatu nuen goizaz oroitu nintzen: nola ibili nituen kaleak sabelean bizi-printza bat garraio, munduaren ezkutuan eta laster desegingo zela jakitun. Heriotza-printza bat nuen orain, identifikatu ezin zen gorputz atalen batean.

Goiz izanagatik ospitalerako autobusa hartu nuen. Bezperan baino gertuago sentitu nintzen ibilgailua betetzen zuen itsustasun orokorretik. Leihoz bestaldean jende osasuntsua lanera bidean zihoan. Lukarekin hitz egiteko premia sentitu nuen.

– Nagore!
– Luka.

On egiten zidan izen hura ahoskatzeak.

– Auzitegiaren aurreko tabernan nagon abokatuaren zain.

– Ikusi al du?

– Oraindik ez. Baina berarekin deklaratuko duela ziurtatu zioten.

– Gaur bertan?

– Ezin jakin. Bitartean korridoreetan zabilen: han ebazten ditun kasuak.

– Karraren argazkia zatorrek egunkarian.

– Aurrean zaukanat. Hi zer moduz hago?

– Ondo, ondo.

Deia eten zela iruditu zitzaidan.

– Luka?

Bat-batean itzuli zen ahotsa.

– Gau ederra izan zunan.

– Nola?

– Gau ederra izan zela.

– Poliziakoa.

– Samurra.

Aldameneko eserlekuko agurea eztarria libratu ezinean zebilen. Eztula eragiten zion bere buruari behin eta berriz. Ez zidan ondo entzuten uzten.

– Irantzuk deitu zidan: desagertuta omen habil atzotik.

– Egongo nauk berarekin.

Hotzeridun agureak urruntzeko keinua egin zidan eskuaz, begiak arranpalo. Dominiskiku zaratatsuak gorputza aurrerantz propultsatu zion.

– Ez dinat ezer kutsatu nahi, ume! –esan zidan musuzapia ahoaren parean jarrita.

Zutitu egin nintzen.

– Non hago?

– Medikutara bidean.

– Berriz?

Autobusa gelditu egin zen eta jaisteko aprobetxatu nuen. Ez zegoen inor geralekuan. Zinema-dekoratu bat zirudien, protagonistaren esaldiaren zain. Zigarro bat piztu eta kearekin utzi nion joaten:

– Zomorroa zaukaat, Luka.

Isilik gelditu zen.

– Hiesa.

Ez zuen ezer esan, edo autobusaren burrunbak estali zuen haren ahotsa.

– Ez nekian ezer, zin dagiat. Proba egin beharko duk.

Sentsazioa, norbaitek niretzat idatzitako gidoia jokatzen ari nintzela. Egia kontatzearekin aski ez, sinesgarri azaldu nahi nuen.

Emakume bat hurbildu zitzaidan, presaka.

– Autobusa?

Bazihoala seinalatu nion. Markesinako aulkian eseri zen purrustaka.

– Orain ezin diat hitz egin, Luka. Gero deituko diat.

– Bilbora itzuliko naun.

– Ez.

– Benetan ari naun.

Sinesgarri azaldu nahia, berriz:

– Karrarekin egon behar duk hor.

– Ba, etor hadi hi, orduan.

– Ezin diat.

– Zain izango naun.

Eskegi egin zidan.

Neoizko hizkietan: Ataka. Gurasoek beren kargu zuten hirugarren taberna zen; Zazpi eta Media Lunaren atzetik. Lau urte atzera, izeba hil osteko udan, 87koan, hartu zuten herriaren bihotz ugerrean zegoen porlanezko plazatxoko ertz batean.

Beren gisako beste bi lagun gazte, hankamehe eta ezkertiar kontratatu zituzten, eta bi pisuko taberna jarri zuten martxan egunez ere gautarra zen kalezuloan. Behe-solairuan barra nagusia, musika-kabina eta dantzarako pista; lurpean billarra, pinballa eta barra txikia. Hasieran Angelek eta aitak eramaten zuten goiko barra. Zipi eta Zape deitzen zieten. Angel aitaren lagunik onena zen, madrildarra, musikaria. Bekaitza eragiteko moduko ile horail leuna zeukan, eta mutil-onaren itxura, adiskide *enfant terrible*arekin kontrastean. Ordezko baxu-jotzailea zen *movida*-ko zenbait taldetan, bere ametsa Euskal Herriko rock talderen batekin fitxatzea zen arren.

– Madrilekoa fatxada hutsa dun! –esaten zuen.

Aitak managerrarena egiten zion, elkarrekin jaisten ziren Madrilera Angelek kontzertua zuen bakoitzean. Irribarrez eta begizulotsu itzultzen ziren. *Ondo jota* laburbiltzen zuen Angelek, Espainiako hiriburuan baitzeuzkan, kontzertuez gain, maitaleak ere. Laugarren kideak “katakonba” eramaten zuen, baina kutxako dirua speedetan xahutzeaz gain eskailerapean trafikatzen ari zela ohartu ziren bezain pronto, hura haizea hartzera bidali eta hiruren artean moldatzea erabaki zuten.

– Maitea! –amak egin zidan diosala.

Hertzainak-en kamiseta tarratatua zeraman soinean.

– Bazkaldu duzu?

– Arratsaldeko seiak dira –erantzun nion.

– Merienda ere eman diot –esan zion amamak.

Angelek limoizko freskagarri bat atera zidan.

– Zer da hori? –galdetu nuen hormei begira.

Argazki-erakusketak egiten zituzten hilero eta, ordukoan, gorputz atal biluzien instantaneoekin forratuta zegoen barraren atzeko pareta: bularrak, zakilak, bizkarrak, ahoak, zilborrak, mingainak, hatzak, izterrak, aluak eta ipurdiak. Haragia eta ileak.

– Hire aitaren gauzak! –barre egin zuen Angelek–. Ezetz asmatu nor den nor!

Lotsa disimulatzen ahalegindu nintzen. Baziren zazpi edo zortzi zakil diferente.

– Zuenak dira?

– Tabernako langile eta kolegenak. Jateko modukoak gauden, e?

– Alproja eroa! –kargu hartu zion amamak.

– Zer, billarrean jokatzera jaitsiko gaitun? –galdetu zidan Angelek.

Nire billar-irakasle partikularra zen.

Zigarro bat piztu zuen amak.

– Eskolako lanak?

– Gero egingo ditin! –moztu zion Angelek–. Goazen!

Katakonbara jaitsi ginen. Kaña eta limoizko freskagarria atera genituen billarreko mahaiaren gainera. Angelek hiru bola zuloratu zituen kolpe bakarrean. Artista hutsa zen. Ni 13 zenbakidun bola marratua nondik kolpatu erabaki ezinda nenbilen.

– Zuloan sartu nahi dunan bolaren aldamenean beste bola ikusezin bat imajinatu behar dun, justu zuloarekin lerrokatuta, eta bola zuria bola ikusezinerantz apuntatu behar dun.

Mahaiaren bestaldera pasa, eta irudizko bola marraztu zidan hatzaz. Hara apuntatu nuen.

– Bete-betean!

9 zenbakidun bola horiarekin saiatzea erabaki nuen.

– Gaztetxoentzako karaoke bat antolatu diten kultur etxean.

Entzun nuen zerbait. Afixa batzuk itsatsi zituzten eskolako korridorean, eta irakasleak herriko euskaraelkartearen abisua eman zigun.

– Ba! –esan nion, axolagabe–. Gauza horiek ikastolakoentzat izaten dira.

– Ez dun parte hartu nahi?

Mahaian trabeska utzi zuen takoa. Nik sorbaldak goratu nituen.

– Hiru abesti zauden aukeran: Itoizen *Lau teilatu*, Hertzainak-en *Aitormena* eta Zaramaren *Iñaki, ze urrun dagoen Kamerun.*

Ez nuen bakar bat ere ezagutzen.

– Zein da onena?

– *Aitormena.*

Gorakoan, kabinara eraman ninduen zuzenean. 2.000 binilo baino gehiago zituzten, estiloka sailkatuta. Herrian musika-kabina zuen taberna bakarra zen. Euskal musika beheko apalean egoten zen, Angelek binilo bat atera zuen handik.

– Ikasi ezan –agindu zidan–. Eta, bide batez, kontaidan zer esaten duen.

Kaligrafiako ariketak atera nituen barraren gainera. Hizki-lotuan idazteko fitxei ekin nien. Atea ireki zen, eta kaleko argia sartu. Arratsaldea aurrera zihoan, eta ahultzen hasia izanagatik, tabernako ilunarekin kontrastea egiten zuen. Aita zen, izaren marka

aurpegian. Gerritik heldu zidan taburetearen atzealdetik.

– Zertan ari haiz?

Eskuak altxa nituen, ebidentzia seinalatuz.

– Apaizek, mojek eta umeek bakarrik idazten diten horrela –sumindu zen.

Hizkiak banaka egin behar nituela azaldu zidan, letra bakoitzaren ostean arkatza paperetik altxatuta. Eskua gidatu zidan, aitaren bular beroa sentitu nuen bizkarraren kontra, “karramarroa” hizkiz hizki idazten genuen bitartean.

– Hi ez haiz ume bat.

Egia esan, dotore geratu zen hitza. Pertsona heldu baten karramarroa zen, zalantzarik gabe. Biharamunean errieta jasoko nuen eskolan, baina bost axola niri. Larruzko txupa janzten ikusi nuen ama.

– Bukatu dut, maitea. Goazen etxera.

Fitxak motxilan sartu, eta amarengana salto egin nuen taburetetik.

– Bihar arte! –esan nion aitari.

– Agur, guapa! –diosal egin zidan Angelek biltegitik, eta bi esku ahurrekin belarriak estali zituen, kanta entzun nezala gogorarazteko.

Amamak eskuzapi eta mantar zikinez beteriko poltsa hartu zuen, etxean garbitzeko. Hurbiltzeko keinu egin zidan atzamarraz.

– Zure aitarena horko itsusi hori da –esan zidan instantanea bat seinalatuz.

Ospitaleko ate automatikoaren aurrean nengoen, poltsan bezperan medikuak emandako paperaren bila. Prentsaurrekorako oharren eta lurrindegiko albaran batzuen artean aurkitu nuen. “Diagnostikoa: GIB”. Udazkeneko haize-ufada batek eskuetatik erauzi zidan ia. Neure burua diagnostikoaren atzetik korrika imajinatzeak abaildu egin ninduen.

Gizon gazte bat ikusi nuen nigana hurbiltzen. Bizkarra zuzendu eta begirada zorroztu nuen, inertziaz. Tolestu eta gorde egin nuen papera.

– Surik?

Neronek piztu nion ezpainetan zuen zigarroa.

– Norbait bisitatzera?

Segundo hori: aurrekoarekin oheratuko zinatekeela erabakitzen duzuna.

– Bai.

Istant hori: baietz esango lizukeela badakizuna.

Momentu hura luzatzen ahalegindu nintzen.

– Nola izena dun?

– Nagore.

Ezezagun haren ondoan zigarroa errez itxaron nuen harrera hutsik gelditu arte. Zigarroa zapaldu eta begiradaz agurtu nuen gizona. Bizkarrean itxi zitzaidan ate automatikoa: apenas zurrumurru bat. Mahaira hurbildu eta papera erakutsi nion harreragileari.

– Erizaindegia. Beheko solairua. C blokea.

Lepo zegoen itxarongela. Libre zegoen aulki bakarrean eseri nintzen. Nire ondoko emakume makillatuak magalean erdi zabalik zeukan poltsan txiza-tutu bat begiztatu nuen.

– Odola ateratzeko zain?

Bospaseik altxa genuen eskua. Paperak eskatu zizkigun auxiliarrak. Nirea apartatu egin zuen.

– Egun on –agurtu ninduen erizainak.

Mahaian, odola ateratzeko tutuetan “birus-karga” irakurri ahal izan nuen. Nire aurrean utzi zituen tutuak, pegatina gora begira.

– Jaso mahuka, mesedez.

Besoa luzatu nion. Nire aldameneko gizon lodiak ere alkandora koadrodunaren eskumuturreko botoiak

askatu eta izterra halako besoa eskaini zion beste erizain bati.

– Kolesterolaren kontrako dieta zorrotza jarraitu dut, ikusiko duzu!

Barrez jarri zuen erizaindegia. Gizon moztakaren aurpegi gorrituari eta soin konprimituari begira geunden denok: biguna eta errugabea zen; odolkizalea bezain kaltegabea.

Besondoak gomaz estutu zizkiguten.

– Zain onak dituzu.

Erizain gazte bati deitu zion.

– Zuk aterako diozu?

Aurrean eseri zitzaidan nire adintsuko erizaina.

– Kontuz zeure burua ziztatu gabe! –ohartarazi zion lankide beteranoak, diagnostikoa disimulu juxtuarekin seinalatuz.

Odolkizaleak begiratu egin zidan. Sudurrean eta masailetan kapilar hautsiak ageri zituen.

– Ordubete barru deituko dizu medikuak.

Ez nuen ziztada sentitu. Odolez beteriko tutuak ikusi nituen.

Mahuka jaitsi eta alde egiteko presatu nintzen. Gizon moztakak itxi zidan bidea; aulkia arrastaka

atzeratu eta, besoekin indar eginez, zarataka eta nekez zutitu zen nire aurrean. Txapela jantzi zuen.

– Zaindu zaitez! –esan zion erizainak.

– Aupa Athletic! –erantzun zuen gizonak, pozik.

Igogailua hartu nuen 11. solairura. Ezinegona sortu zidan ispiluan nire buruarekin topo egiteak: ezagun zahar bat, urrutitik aztertzen ninduena. Ia solairu guztietan gelditu zen igogailua; sartu-irtenean zebilen jendea. 11. pisuan ni bakarrik jaitsi nintzen.

Jonkiz beteriko gela bat, jende eroria, ijito haurdunen bat... Marjinalitatearen lagin gutxi-asko bilbotar bat espero nuen. Korridore huts batekin egin nuen topo. Ospitaleko gainerako eremuetan ez bezala, eritasun infekziosoen unitatean itxarongela ezkutuan zegoela ohartu nintzen; aulkirik ez pasilloan. Poliki zabaldu nuen atea, nor ikusiko nuen eta nork ikus nintzakeen beldurrez. Hogeita hamarren bat urteko mutil bakarra zegoen gelaxka argitsuan eserita. Amerikana soinean, tabletarekin kontzentratuta lanean ari zen. Nire aurretik sartu zen kontsultara. Hamar bat minuturen buruan atera zen, Puertas doktorearekin batera, irribarrez. Ezagun zaharrak ziruditen.

– Hurrengora arte. Zaindu –agurtu zuen medikuak–. Nagore –dei egin zidan, atzetik jarrai niezaion.

Idazmahaiaren bestaldetik begira nituen Puertas doktorearen orein-begiak.

– Zer moduz zaude?

Burutik pasa zitzaizkidan erantzun posible guztiak baztertu nituen. Medikuaren lurrina ez zen bezperakoa. Jean Paul Gaultier. Nire klaseari ez zegozkion usainak ezagutzen nituen.

– Emaitzak ez dira onak.

Kanpoan euria ari zuen.

– Atzo ia 700ean zeneuzkan CD4 linfozitoak, eta gaur ez dira 500era iristen.

Hatza paperean mugitzen eta zenbakiak goraki esaten jarraitu zuen.

– Immunitate-sistemari dagozkion markagailu guztiek egin dute behera.

Begirada apartatu nuen leihoan elkar harrapatzera jolasten ziren ur-tantetatik.

– Egun bakar batean?

– Gertatzen da diagnostikoaren ostean.

Zifra bat borobildu zuen boligrafoz, eta txostenari buelta eman zion niri erakusteko.

– Birus-karga altua da. Une honetan handia da kutsatze-arriskua.

Betaurrekoak kendu zituen.

– Izan duzu arrisku-praktikarik?

Eskua Lukaren kirol-jertsearen azpitik irristatu nuen unea oroitu nuen. Haren azalaren tenperatura zehatza. Neurea izan zen iniziatiba.

– Ez dakit.

Sabeleko mina jarri zitzaidan.

– Garrantzitsua da.

Infektatuta nengoen. Kutsakorra nintzen.

– Zurbildu egin zara.

Eskuak sabelpera eraman eta uzkurtu egin nintzen.

– Ondo zaude?

Oroitzapen baten ertza uxatu nuen: usain bat.

– Zergatik dago itxarongela ezkutuan?

Betaurrekoen gainetik begiratu zidan.

– Zuen intimitatea babesteko.

Zer ezkutatu bagenuela erakusten zuen arkitekturak berak.

– Kontsulta honetara zatozten gaixoen % 90 gauza berera zatozte.

Amerikanadun mutilarekin gogoratu nintzen.

– Ezin dut sinetsi.

Ez nion esan burua iragan zidan esaldi zehatza: ezin dut sinetsi sexua amaitu denik niretzat. Ziztada bat izan zen, pentsamendua eta haren erreflexu fisikoa, baginan, eta oinazea, genitaletan kontzentratua. Medikuari begiratu nion polizia bati, epaile bati, funtzionario bati bezala. Esateko gogoa: bazeneki! Esateko beharra: hain ongi pasa dut. Ulertarazi nahia: hain ongi maitatu dut. Negar egiteko baimena eman nion neure buruari.

– Hartu behar dituzun botikei buruz hitz egin behar dugu.

Idazmahaiko tiraderetatik liburuxka batzuk atera zituen. Argitalpen koloretsuak ziren, azalean kirolaritxurako gazte irribarretsuak ageri zituztenak. “Jarraipen-fitxa”, irakurri nuen. “Tratamendu antirretrobiralaren kontrola”; “Sintomen kontrola”. “A farmakoa”, “B farmakoa”, “C farmakoa”, “D farmakoa”...

– Medikazioa ahalik eta gehien atzeratu nahi nuke.

Banekien ez zeukatela antirretrobiralen epe luzeko kalteen informazio fidagarririk. Harrituta begiratu zidan.

– Lehenbailehen hastea gomendatzen dizut.

– Ez dut nahi.

– Ez zaigu komeni infekzioa zabaltzea.

Uxatu nahi izan nuen kiratsaren gomuta.

– Zugatik eta besteengatik egin behar duzu.

– Goragalea daukat.

Poltsa bat eman zidan. Gonbitoka hasi nintzenean zutitu eta paperezko zapiak ekarri zizkidan. Bera arduratu zen gonbito-poltsa desagerrarazteaz. Kontsultatik atera zen.

Zutik itxaron nion.

– Nora zoaz?

– Egitekoak dauzkat, etorriko naiz beste batean.

Eseri egin zen.

– Harrokeriak ez dizu zipitzik lagunduko.

– Sumisioak ere ez.

– Oker zaude.

– Hori nire arazoa da.

– Argi dago: zeu zara arazotan dagoena.

Jaka eta poltsa jaso nituen. Irtetear nengoela, medikuari begiratu nion.

– Egin diezazuket galdera bat?

– Horretarako nago.

– Jakin daiteke noiz kutsatu nintzen?

– Zure kasuan bai. Berria da.

Ikusi egin nituen autoa, ohea, mutila. Zakil bigun hura. Usaina.

– Nola dakizu?

– “Positibo ahula” eman duzula esango genuke; serokonbertitzen ari zara.

Aitortza bat bezala murmurikatu nuen.

– Duela bi hilabete izan zen.

– Bai, baliteke.

– Nire errua da.

Igogailuak harreran utzi ninduenean heriotzaren mamua nirekin zetorren, baina ospitaleko ate automatikoek bizitzara jaurti ninduten. Su eske hurbildu zitzaidan gizona aienatua zen. Ospitale-atariko zoruan, zigarrokin bustiak. Bakarrik erre nuen. Mutxikinari erortzen utzi, aterkia ireki eta oinez hasi nintzen.

Noizean behin aitak libre hartzen zituen astearte arratsaldeak. Amamarenean bazkaltzen ari nintzela deitu zidan, eguraldi ona zela-eta Mutrikuko portura joan nahi ote nuen galdezka. Postrea amaitu gabe altxa nintzen mahaitik.

Hantxe zegoen Ford Escort beltza, sabaiko leihoa zabalik.

– Kaixo, Jenisjoplin!

Lasalde begi-bistatik galdu orduko, atzeko eserlekuan zutik jarri eta burua kanpora aterata egin nituen Mutrikurainoko kilometroak, ilea haizetan. Semaforoetan, atzeko leihoaren kontra belauniko jarri eta gurearen ostean gelditutako autoko txoferrari begirada agoantatzera jolastea gustatzen zitzaidan. Beti irabazten nuen.

Forda herriaren sarrerako taberna baten aurrean gelditu eta une batez itxaroteko eskatu zidan aitak. Presa nuen itsasoan sartzeko. Kilometrotan gertu samar izanagatik, gutxitan eramaten ninduten hondartzara. Amak etxea eta itzala maite zituen, aitak nahiago izaten zuen inguruko herrietako festetara joan. Ez zuen niretzat tiropitxoiko panpinarik handiena eskuratu arteko onik izaten. Bospasei urterekin, hirietako jaietara joaten ginen, barraketara, eta aitak atrakziorik garaienetara eramaten ninduen, nagusientzako mendi errusiar, *balancé, águila* eta bestelakoetara. Barrakeroekin sesioan aritzen zen hain haur txikia bertara igo nahi izateagatik, baina umearen aita bera zela eta bakean uzteko erantzuten zien fermuki, eta ni seguru sentitzen nintzen aitak gerritik heltzen zidan bitartean, baita lurra gainean eta zerua azpian

baldin bazeuden ere. Amak izututa itxaroten zigun behean. Hondartzan izan ginen apurretan ere, banderaren kolorea gorabehera, ur sakonetara sarrarazten ninduen aitak, beraren eskutik beti, elkarrekin egiten genuen aurrera, olatuen aurka, arnasa estutu arren, olaturen batek azpian harrapatu eta zilipurdika urertzera itzularazten gintuen arte, bainujantzia, ilea eta ahoa hondarrez beteta.

Berehala itzuli zen aita. Oinez jaitsi ginen portura, igerileku naturalaren ertzean arropak eranzten ari ziren haurrak ikusi genituen. Korrika abiatu nintzen haien atzetik, baina txistu jo zidan.

– Segi beste haiei!

Igerilekua atzean utzi eta kai-muturrerantz zihoazen gazteez ari zen. Banuen haren aditzea, baina “danborrean” sekula izan gabea nintzen. Itsasbehera zen, tentuz egin nuen bidea moila ertzetik, nasa baino puskaz beherago ikusten nuen itsasora erortzeko beldurrez. Danborrera iristeko azken eskailerak igo genituen. Lurrean eseri zen aita, zigarroa ahoan hitz egin zidan:

– Egin salto!

Izututa begiratu nion.

– Nagore, egin salto! –errepikatu zidan, serio.

Arropak eranzteari ekin nion poliki. Bi pauso eman nituen moila ertzerantz eta, zorabio txiki bat hasi nintzen sentitzen behera begiratu orduko. Ikusmena lanbrotu zitzaidan: nire pareko bi kai-muturrak elkarrengana hurbiltzen ari zirela iruditu zitzaidan lehenbizi, elkarrengandik urruntzen ari zirela gero. Urrats bat egin nuen atzera. Jira egin, eta aitari ezin nuela jauzi egin esatekotan nengoenean, esku handi batek atzetik bultza egin eta neure burua erortzen sentitu nuen. Zangoak eta besoak astinduz jausi nintzen, eternalak egin zitzaizkidan nola erorketa-aldia hala urpetik ateratzeko behar izan nuen denbora. Begiak zabal-zabalik atera nintzen azalera, izuak jota, baina segundo gutxiren buruan, negar egiteko gogoa halako poz txoro moduko bat bilakatu zitzaidan, ozen hasi nintzen ur azalean algaraka, ez hondoratzeko beso-zangoei eragiten nien bitartean. Goian aitaren burua ikusi nuen niri begira. Txaloka ari zen.

Harro egin nuen atzera danborrerako bidea; eskaileretan eta hormaren kontra eserita zeuden gazte erretzaileen miresmena usaindu nezakeela iruditu zitzaidan. Arnasestuka eta aita ikusteko irrikaz igo nituen kai-muturrerako mailak. Nire zain egongo zen goian, toalla zabalik, ni bildu-bildu egiteko prest.

– Tira, berriro! –agindu zidan iritsi orduko.

Bigarren aldian bultzakadarik gabe egin nuen salto. Txikiagoak iruditu zitzaizkidan moilaren altuera, erorketa-denbora eta jauziaren osteko aitaren txalo-zaparrada. Eskaileretako gazteek ez zidaten begiratu ere egiten. Han urrunean, igerileku naturalean, baloia-rekin jolasean ari ziren haurrak. Etxera itzultzeko gogoa nuela esan nion aitari.

– Jakina –erantzun zidan, bost edo sei aldiz jauzi eginarazi ondoren.

Lasalde auzoa, Zizarearen eta trenbidearen artean luzetara barreiatua, gerraostean eraiki zuten herriaren iparraldean, presaka, Espainiako hegoaldetik bailara-ko lantegietara zetorren behargin oldeari erantzuteko. Herritik gertu, baina, aldi berean, aparte zegoen. Tren-bidea igarota, mendia ber-bertan zegoen; belar zaka-rreko zelaiak, katazuloak, harriak eta zuhaitzak, zein bere izenarekin: zaldikoa, sorgina, urpekontzia. Erre-karen ertzeko sasietan masustak hazten ziren ikastur-te hasieran, eta ahateak umatzen, ikasturte-amaie-ran.

Etxebizitza balkoiduna zen aitita-amamena, bigarren solairuan kale aldera kokatua. Han bizi ziren denak ni jaio aurretik. Bizimodua ateratzeko, gurasoek Zazpi izeneko taberna hartu zuten errentan bailarako herri nagusian, amak han lan egin zuen haurdunaldi osoan. Lagun batzuen etxean bizi izan ziren zenbait hilabetez, apopilo. Garaiko taberna-zuloa zen Zazpi, lizun-kirasduna eta hogeita lau orduz gautarra, leihorik eta aireztatze-sistemarik gabea, besaulki luzeak zituena horma-kontra. Zulo hitsa behar zuen, heroinazaleen plazerezko *bidaien* ohiko abiapuntua eta lurreratze-pista. Ama, mastin baten babesean joaten zen lanera. Normalean, tabernako bezeroak adeitsuak izaten ziren berarekin, baina abstinentziak jotako gazteak baretzea, etengabe diru-kutxa zaintzen aritu beharra, okadak garbitzea, komunean kordea galdurikoak suspertzea... Horiek ere lanaren parte ziren. Komuneko zoruan koloka zegoen lauza bat konpontzera joandakoan ohartu zen haren azpian ezkutatzen zutela auzoko heroinazaleek partekatzen zuten xiringa bakarra. Ez zen ausartu handik erretiratzen.

Jaio nintzenean, gurasoek Zazpi utzi eta auzoko taberna hartzea erabaki zuten. Lokalak etxebizitza txiki bat zuen hormaz horma, hara aldatu ginen. Ba-

rrioko taberna apala zen Media Luna: barra, sukaldea, pintxoak, ahozapiak eta oliba-hezurrak zoru zikin-estalian. Zalaparta, plateren hotsa eta txorrotaren marmar etena. Gizon-ahotsak, kea, telebista. Taberna etxearen luzapena zen, edo zehatzago zen alderantziz: etxea zen tabernaren luzapena. Gurasoak lanean ari ziren bitartean ni atalondoan kokaturiko moisesean edukitzen ninduten, barraren eta hallaren artean. Ez omen nuen protesta handirik egiten; tabernako burrunbak lagundu egiten zidan nonbait loak hartzen, eta siesta luzeak egiten nituen. Gurasoak txandaka aritzen ziren: aitak gauez lan egiten zuen, eta goizekoak lo-orduak zituen, amak Media Luna zabaltzen, garbitzen eta pintxoak egiten zituen bitartean. Deskuiduan negar egiten banuen, barra une batez bezeroren baten kargu utzi, eta bularra ematen zidan atalondoan bertan.

– Historiako tabernaririk gazteena, hauxe! –adarra jotzen zioten.

Karmenen heriotzatik hilabete eskasera, ekainaren hasieran, amamak bere jaioterrira eraman ninduen, La Esperanzara. Herritik urruntzeak eta bilobaren kargu egiteak dolua pasatzen lagunduko ziotela pentsatu zuten nire gurasoek. Orduan aprobetxatu

zuten haiek Ataka hartzeko eta hirugarren taberna-eta etxe-aldaketa egiteko.

Amamaren neba gaztearen etxean hartu genuen ostatu. Tío Paco PCEko zinegotzia zen apenas ehun biztanleko udalerrian. Gaintxo batean, asfaltatu gabeko bide baten bi ertzetan hedaturiko etxebizitza koxkorren multzoa zen herria, paisaia menditsu eta lausotuan lurraren kontra zanpatua; zoruan hautsa, hormetan arrakalak eta inguruan pinudiak eta olibondoak zituena. Ekainetik irailera arte egon ginen entretenimendu handirik gabeko herrixka hartan. Amamak soineko berriak josi zizkidan, amak prestaturiko arropak beroegiak baitziren uda andaluziarrerako. Ez dakit zer egiten genuen egunean zehar. Amamaren ondoan egongo nintzen, lurrean klarionaz marrazkiak egiten edo harri-koskorrekin jolasean. Hilabete haietan ateratako argazki gehienetan ataurrean bertan ageri naiz, urez betetako konketa baten barruan sandia jaten edo petril gainean eserita, ijito-mozorroarekin. Irudi argiegiak dira, erreta daude. Lehen planorik ez, urruti samarretik ateratakoak dira, eta bakarrik ageri naiz denetan.

Nire gurasoen bizimoduak, ostera, erritmo bizian egiten zuen aurrera. Izeba hil eta berehala, aitak lana-

ri ekin zion deblauki. Inork arrebaz galdetzen bazion, hitzik gabeko irri batekin erantzuten zuen. Taberna erosi, etxea alokatu, eta bateko hozkailuak eta besteko logelak bete zituen.

Irailaren erdialdean itzuli ginen amama eta biok Andaluziatik, herriko festak amaitu berritan. Aitak, Atakako ate aurrean makurtuta, beso zabalik egin zidan ongietorria, nik ez nuen amamaren eskua askatu. Bazkari-legea egin, taberna itxi eta Lasalderantz abiatu nintzen.

– Orain ez gaitun han bizi!

Besotan hartu eta Altzadira eraman ninduten, errekaz bestaldeko auzora.

– Hauxe dun gure etxe berria!

Etxe hartaz gogoratzen dudana da ezagutzen ez nuen auzo batean zegoela, ez zuela egongelarik, ez eta jangelarik ere: marmolezko barra amerikar batek mugatzen zuen sukaldea, neure kabuz igo ahal izateko altuegiak ziren hiru tabureterekin.

Hiriaren irteeran, altuera-maila diferenteko errepide-amarauna, Bilboren bihotz herdoilduak ponpaturiko txatar-odola garraio. Ezin izan nuen alboko bidaia-

riaren egunkariak atxiloketaren berria azalera ekarri ote zuenetz egiaztatu, kirolen sailean baitzeukan irekita. Burua kristalaren kontra bermatu eta, ordu askoan lehen aldiz, loak hartu ninduen.

Ford Escort beltzaren atzeko eserlekuan txikia eta epela zen mundua. Luzetara etzanda nindoan, losuma. Pisu arin bat sentitzen nuen besagainean, eta amaren usaina asmatzen, estali berri ninduen berokian. Irrati-kasetean Billie Holidayren *Strange fruit* artegagarria. Euri-tantak haizetakoan. Aitaren ahotsa eta, apalago, amarena. Barreak.

Jaka zakar antzean astintzen ari zitzaidan norbait.

– Odoletan zaude.

Aldameneko emakumeak musuzapi bat atera zuen berokiko patrikatik.

– Tori.

Lo nengoela sudurretik odoletan hasi nintzen. Nahasita, leihotik begiratu nuen. Pancorbo. Espainia. Segundo batzuk behar izan nituen azken gertakariak harilkatzeko. Agontzean bi tanta erori zitzaizkidan, lodi, paparrera. Paperezko zapiak bilatu nituen motxilan, ezkerreko eskuarekin hemorragia eteten saiatzen nintzen bitartean.

– Zaude, utzi garbitzen.

Zapi heze batekin jertseko orbana igurzten hasi zitzaidan andrea.

– Lehortzen bada ezingo duzu atera.

Izutu egin nintzen.

– Utzi, mesedez.

Ustekabean alboko bidaiariaren eskua nire odolez zikindu zela ohartu nintzen.

– Garbitu hori.

– Lasai, neska.

Jertseari eragiteko erabili zuen zapi heze berarekin eskua arin igurtzi eta aurreko eserlekuaren bizkarreko hautsontzian sartu zuen.

– Lekutan gelditu zen autobusetan erretzen genuen garaia!

Paperezko zapi baten ertzarekin pilotatxo bat egin, sudurzuloan sartu eta atzerantz bota nuen burua.

– Ez da ona odol-jarioa taponatzea.

Lepoa eman nion. Telefonoaren dardara sentitu nuen jakaren patrikan. Irantzu.

Autobusean hotz egiten zuen. Belaunak harrapatuta neuzkan aurreko bidaiariak eserlekua etzan zuenetik. Ezerosotasunak negargura eman zidan. Begiak itxita, gurasoen autoko atzeko eserlekura itzultzen saiatu nintzen, alferrik. Irratian Shakiraren *Waka-waka*

ari zen. Lekutan zeuden 80ak. “Madrilera noan. Barkaidan. Kontatuko”, idatzi nuen. Itzali egin nuen telefonoa.

Madrilera iristerako iluna zen. Autobusetik jaitsi nintzenean arroztasun-sentimenduak inarrosi nindu en. Ingurura begiratu nuen. Ez nuen Luka ikusi. Agian zurikeria dotorea baino ez zen izan haren gonbidapena, konpromisozko hitz batzuk une kritiko batean. Azken finean, apenas ezagutzen genuen elkar.

– Hire aurpegia ezaguna egiten zaidan.

Elkarrekin azkenekoz egon gineneko arropak zeramatzan soinean. Izerditakoaren txanopean, kalpar nahasia. Ez nuen hurbiltzen sumatu.

Nigandik urrats bat urrundu eta begiak ñarrotu zituen.

– Elkar ezagutzen dugu?

Bustita zeuzkan zapatilak.

– Nagore Vargas –esan nion.

– Luka Moretti –sonbreroa kentzeko imintzioa egin zuen–; urte askoan.

Ez zen abizenetik zirudien bezain italiarra. Ama veneziarra zuen, baina halabeharrak Irlandako Done-

gal konderri isolatuan munduratu zuenetik hara-hona ibili zen, askapen borroken tripak azaleratzea ofizio zuen amaren kazetari-lanaren atzetik.

– Kapeluak ez zaudek modan.

– Ezta iraultzaileak ere. Bahator?

Besoa eskaini zidan. Heldu egin nion. Metroaren ahoak irentsi gintuen.

– Ez nian sekula pentsatuko Madrilen errefuxiatzerik.

– Infernuaren eta Madrilen jabe izanez gero, nahiago Madril alokairuan utzi eta infernuan bizi.

Ziztuan iritsi zen metroa. Jendeak bultza egin zigun barrura. Mugimenduak tristeziatik urruntzen ninduen, erruduntasunak izurik sakonenetik. Lurpean geunden. Bizirik. Lukari begiratu nion: gazte argal eta txiki bat, hazpegi arruntekoa. Erakargarria bainoago, abegikorra zen *Transatlantikoa*. Salbamendu-txalupa.

– Noiz daukak Habanarako hegaldia?

– Beldurra zienat abioiei.

– Akabo duk jolasa, Luka.

Leporaino bete zen metroa. Zutik gindoazen beste hamaika gorputzen artean zanpa-zanpa eginda. Gizaberoa. Eskutik heldu zidan.

– Bizkor, linea aldatu behar dinagu.

Jende-multzoarekin batera egin genuen kanpora. Besarkatu egin nuen.

– Sentitzen diat, benetan.

Lurrak dar-dar egin zigun oinpean. Eskaileretan behera gidatu ninduen. Beste bagoi batean sartu ginen, hustuxeago zihoan.

– Gustatzen zaizkin kaneloiak?

– Asko.

Kalera atera ginenean aire hotzak inpresioa eragin zidan. Jendea azkarregi zihoan. Zorabiatuta sentitu nintzen.

– Ez zakiat zertara etorri naizen.

Lukak oinez jarraitu zuen.

– *Calle del desengaño* –irakurri zuen kale hasiera-ko seinalea–. Zorionez, aurreraxeago dun.

Eraikin zahar bateko bigarren solairua zen. Nekez igo nituen eskailerak.

– Gaixorik nagok, Luka –jaka askatu nuen–. Ez nian etorri behar.

– Ba, nik baietz uste dinat.

– Nire erruz kutsatuta egon haiteke.

Atea ireki eta argia piztu zuen. Apartamentu txiki bat zen, soila baina txukuna.

– Norena duk etxea?

– Lagun batzuena, amari eta bioi uzten ziguten Madrilera gatozenetan.

– Bakarrik al gaude?

Logelara gidatu ninduen. Ezagutzen ez nion erabakimenez erantzi zidan jaka eta, garondoan musu eman ostean, kamiseta.

– Lotsatia hintzela uste nian.

– Etzan.

Bizkarrez etzan nintzen ohean, eta orinak ukitu zizkidan hatz-mamiekin.

– Kasiopea.

Hatzekin ilea nahasi zidan.

– Oso argal nagok.

– Ederra haiz.

Zutitu eta begira gelditu zitzaidan.

– Hotz egiten dik.

Maindireak igo zizkidan leporaino.

– Egin ezan lo.

– Ezin diat.

– Saiatu.

– Esnatzean beti okerrago duk.

– Nagore, ez naun joango.

Farolen argia sartzen zen leihotik. Euri-hotsa.

– Ukitu nazak.

Ohazalaren gainean etzan zen, nire aldamenean ahoz gora.

– Ez izan ezertarako presarik.

Izuari bakarrik aditzen nion.

– Hau ez zunan atzo hasi, eta ez dun bihar bukatuko –esku bat pausatu zidan bizkarrean–. Egin ditzagun gauzak poliki.

Saihetsak ferekatu zizkidan. Uzkurtu egin nintzen.

– Kontuz.

Izarekin estali ninduen berriro.

– Maindirearen gainetik, mesedez.

Ehunaren beste aldean sumatu nuen Lukaren biluztasun urduria. Maitasuna egin genuen elkarri azalik ukitu gabe.

Sukaldean zebilen Luka. Jantzi eta bertara jo nuen. Bideo-kameraren objektiboa garbitzen ari zen.

– Hitz egin behar diagu.

– Hemen haiz.

Tentuz gorde zuen kamera poltsan.

– Egunon.

– Ez dik funtzionatuko.

Laranja bat erdibitu zuen.

– Fatalista jaiki haiz.

– Ez diat bikote-harremanetan sinesten.

– Kaferik nahi dun?

Eseri egin nintzen.

– Ezin duk ezer gertatuko ez balitz bezala jokatu.

– Ados.

– Errukiz ari haiz.

Mahaira atera zituen zukuak.

– Ez dun nire estiloa.

– Lastima ez, beste zein motibo izan dezakek hik nirekin gelditzeko?

– Itxuraz, ez zain bat bera ere okurritzen.

Kameraren mikrofonoaren kablea bildu zuen. Kuban zinemagintza ikasi eta ikasketa-beka batekin itzuli zen Euskal Herrira, gazte mugimenduei buruzko dokumental bat egitera. Habanan muntatu behar zuen grabaturiko materiala.

– Ez duk batere aukera praktikoa, Luka.

Barreari ekin zion.

– Lehen pertsonan esan behar huen: *ez naun batere aukera praktikoa.*

– Maitasuna ez duk gauza misteriotsu eta arrazionalki kontrolaezin bat.

– Maitasuna esan dun?

Lotsatu egin nintzen.

– Neurtu eta negoziatu daitekeen zerbait duk.

– Aja.

– Hori hala duk.

– Eta niri irrazionalki aritzea egozten didan, ezta?

– Bai.

– Pasio ulertezinek eramana...

Leihotik begira gelditu zen une batez. Gero, biratu, eta esan zidan.

– Tuntunagoa bahintz, lasaiago biziko hintzateke.

– Azkarragoa bahintz, isilik hengoke –erantzun nion.

Nire aurrean eseri zen.

– Entzun: bizitza osoa eman dinat emakume baten atzetik. Amaren destinoetan bizi izan naun: Irlandan, Bogotan, Bartzelonan, Bilbon, Habanan. Ez dinat sekula ohe berean lo egin hiru hilabete baino luzaroago. Pausatu egin nahi dinat eta ordezko emakume bat behar dinat nire bizitzan.

– Ordezko emakume bat.

– Horixe bera.

– Hori praktikoa duk, erabat.

– Guztiz. Hi orain ez haiz urrutira joango. Etxe bat daukan Bilbon eta nik ez zaukanat alokairua ordaintzeko dirurik.

– Oso erromantikoa.

– Lurralde gatazkatsuetan bizi izan naun beti, territorio egokia haiz niretzat.

Aulkia biratu eta haren bizkarraren kontra zangalatrau eseri zen.

– Hitz egin dezagun orain hitaz.

– Nitaz?

– Zertara etorri haiz?

– Ez zakiat.

– Nahi dun nik esatea?

Zigarro bat piztu nuen.

– Abandonatuko ez hauen gizajo baten bila.

– Faborez! –sumindu nintzen.

Ogi-xerra bat tomatetan busti eta mahaira atera zidan.

– Hori hala dun.

– Hitaz aprobetxatu nahia egozten didak?

– Ni hitaz adina. Maitasunari buruzko teoriak gustatzen zaizkin, ezta?

– Asko.

– Ba, tori bat: maitasuna inoiz ez dun *zergatik;* beti dun *zertarako.*

Zutitu eta bideo-kameraren poltsa bizkarreratu zuen.

– Banoan.

– Nora?

– Abokatuak deitu zidan: oraintxe deklaratuko din Karrak.

Zorigaitzari buruz pentsatzea eta minarekin jolastea erakargarria zitzaidan neska kozkorretan. Azazkalak iltzatzen nituen izterretan edo besaurreetan, ahalik indartsuen, neure buruari kontzienteki eragiteko kapaz nintzen minaren neurria ezagutu nahian. Gero, askatu, eta azazkalek haragian utzitako markari eta minaren baretzeari beha egoten nintzen, miretsita. Batzuetan hozka egiten nion neure buruari, besoan edo eskuaren gainaldean. Behin, eskolan, atzamar txikia txorroskiloaren zuloan sartu eta, irakaslea azalpenak ematen ari zen bitartean, hatza biratu nuen. Garrasi egin nuen, ez dakit minez ala harriduraz.

– Zergatik egin duzu hori? –espantuka hurbildu zitzaidan irakaslea.

Ez nuen erantzuten jakin.

Gustatu egiten zitzaidan halako esperientziak aitarekin konpartitzea. Horrelakoak kontatzen nizkionean adi entzuten zidala iruditzen zitzaidan. Tabernako tabureteen talaiatik, gezurrezko zoriontasunari buruz gogoetatzen nuen aitarekin, haren esaldiak barrundatzen nituen bakarka, eta lagunen aurrean errepikatzen nituen harro:

– Zorigaitza askoz interesgarriagoa izan liteke zoriontasuna baino.

Txorroskiloarena kontatu nionean esan zidanak, ordea, nahasita utzi ninduen.

– Badakin nik ezin dudala hire mina sentitu, ezta?

Ilusio faltsuen aurka borrokatzen irakatsi zidan.

– Zopa hotza badago, alferrik sinetsiko dun bero dagoela.

Bost urte nituela kontatu zidan Olentzero eta Erregeak ez zirela existitzen, eta xeheki azaldu zidan zergatik egon behar nuen ospakizun haien kontra. Motibo ideologikoak eta praktikoak tarteko, gure etxean ez ziren Gabonak ospatzen. Urtez urte, gogor entseatu nintzen koloretako argien, gabon-kanten, oparien eta familia zoriontsuen aurkako gurutzada intimoan. Hala ere, Gabonak iristean, lotsaz, baina Olentzerori gutu-

na idazten nion azkenean, tentuz, aitak harrapa ez nintzan, eta gauza bakarra eskatzen nion, ez oso handia.

Eguberri bezperan gurasoek berandu amaitzen zuten tabernako lana; zer esanik ez Urtezahar gauean, ozta-ozta libratzen baitzuten ordu-parea, afaldu, eta berriro Atakara jaisteko. Eguberri eta Urteberri egunez, berandura arte lo egin ondoren taberna garbitzera jaisten ziren.

Abenduaren 24an taberna irekita egoten zen iluntzeko txikiteoa amaitu arte, bost edo sei zerbitzari behar izaten ziren egun hartako jende oldeari buelta emateko. Leporaino betetzen zen taberna, hainbeste ze langileei ezinezko suertatzen baitzitzaien komunera irtetea bera ere, eta sukaldean bertan egiten zuten txiza, gizonek zuzenean harraskan, eta amak palankana batean. Ni ere, presoen aldeko iluntzeko kalejirara joan ordez, Atakan gelditzen nintzen laguntzen: edalontzi hutsak barrara eramaten eta “kaskoak” egiten.

Langile-taldearen erretratua ateratzen zuten urtero egun hartan. Zazpi-zortzi urterekin zerbeza-kaxa oinpean eta piztu gabeko zigarro bat eskuan ageri naiz gurasoekin eta haien lankideekin batera eginda-

ko argazki batean. Amak ile beltzaren atzean estalita du aurpegi erdia, serio, triste eta eder, beti bezala.

Gaueko hamaikak aldera erretiratzen ginen tabernatik Altzadira. Angel gurekin etxeratzen zen, eta zerbezak edaten, berriketan eta zigarroak erretzen egoten zen gurasoekin sukaldean, mahai bueltan. Kanutoa bildu eta txandaka erretzen zuten. Tarteka balkoiko atea irekitzen zuten sukaldea aireztatzeko. Ni ere haiekin esertzen nintzen, eta han egoten nintzen nekeak eta ke gozo hark bentzitu eta mahaiaren kontra errenditzen nintzen arte. Aitak eramaten ninduen ohera desordutan; gorputza bigun, besoak zintzilik. Modu hartan bakarrik hartzen nuen lo lasai: nekeak eraitsita eta oharkabean, gainerakoaz aita arduratuko zen segurantzarekin.

Handik tarte batera, loaren erdian, esku batek sorbaldatik heldu eta poliki inarrosten ninduela sentitzen nuen.

– Olentzero etorri dun –xuxurlatzen zidan Angelek.

Begiak irekitzen nituen orduan, eta gelaren ertz batean opari bat aurkitzen nuen. Isilka jaikitzen nintzen ohetik, kaleko arropak oraindik soinean.

– Lasai, ni gelldituko naun zelatan.

Tentuz, papera kentzen nion opariari.

– Asmatu al du? –galdetzen zidan.

Neukan indar guztiarekin besarkatzen nuen nire aingeru guardakoa.

Zortzi urterekin, gogoz kontra, musika-eskolan matrikulatu ninduen aitak. Nire gelako inork ez zuen izenik eman, eta ez nuen bakarrik joan nahi. Bidean nire beldurra azaldu nion aitari, baina agiraka egin zidan kakatia izateagatik. Altzadira aldatu arren, Lasaldeko eskolan matrikulatu ninduten, Urruzunon. Auzoan ezagutzen genuen familia euskaldun bakarrarekin konpontxo egin eta eskolak euskaraz jaso ahal izan genitzan borrokatu zen aita. Neu nintzen gelako haur guztien artean gurasoetako bat behintzat euskalduna zuen bakarra, baina errezeloa nuen horrek ez ninduela lerro-lerro eseritako neska-mutil haien zepotik libratuko. Atariraino lagundu zidan aitak.

– Tira, hoa!

Eskailera pila bat igo behar ziren: eraikin zahar bateko azken solairuan zegoen musika-eskola. Erabat kikilduta nindoan. Bigarren solairutik hirugarrenerako tartean gorpuztu zen nire beldurra: ikastolakoek korridore bat osatzen zuten eskaileraren bi aldeetan eseri-

ta, nahitaez haien erditik igaro behar nuen ikasgelara iristeko. Poliki hasi nintzen korridorea zeharkatzen, lurrera begira. Barre txiki bat aditu nuen atzean. Pausoa azkartzen saiatu nintzen, baina Adidas galtzadun zangoak luzatzen zituzten niri pausoa oztopatzeko. Mutil bat puzker-soinuak imitatzen hasi zen. Beste batek, eskuak bozgorailu "*Urruzuno, no se salva ninguno*" oihukatu zuen, eta atzetik jarraitu zioten koruan: "*Urruzuno, ocho petas fumo*", "*Urruzuno, maquetos y morunos*", "*Urruzuno, del sida me vacuno*"... Hainbat errimaren artean egin nuen bidea, musikalitatearen bertuteak neure larruan sentituz.

– Ez nagon klase borroka hau galtzeko prest, Jenisjoplin.

Aitak urteak zeramatzan gitarra jotzen ikasi nahian. Lagunarteko otordu guztietan ateratzen zuen zorrotik, baina ez zen kanta bat osorik jotzeko kapaz, eta argi zeukan gitarrarekin zuen harreman traketsak zerikusi zuzena zuela klase diferentziarekin.

– Inteligenteen eta intelektualen artean –esan zidan– eskailera bakarra zagon: dirua.

Eta, jakina, gu inteligenteak ginen. Oso inteligenteak. Berdin gertatzen zitzaion poemak idazten edo erreflexio sakonak egiten hasten zenean: hasieran,

isuri-isurian ateratzen zitzaizkion hitzak, baina, bat-batean, zalantza egiten zuen *digresión* eta *regresión* hitzen esanahiaren artean; edo *diabetis* esaten zuen *diabetes* esan ordez, eta goitik behera erortzen zitzaion ordura arte eraiki zuen diskurtsoa, sinesgarritasunarekin, poetikarekin eta lilurarekin batera. Haren zapatilak ez zeuden zidor haietarako prestatuak. Auzokoak engainatuko zituen intelektual-plantak egiten, baina hortik aurrera, nekez.

Musika-eskolak eskaintzen zituen adar guztietan matrikulatu ninduen: solfeoan, gitarran, koruan... Zegokidan gela aurkitu, eta atzeko mahaietako batean eseri nintzen, leihoaren ondoan.

Irakasleak zerrenda irakurri zuenean ozta-ozta altxa nuen begirada mahaitik, bertan nengoela adierazteko. Lekutan gelditu zitzaidan vargastarren urguilua, aitak sutsuki goratzen zuen abizen ijitoaren kasta. Guztion bina abizen irakurri izan balitu erdira jaitsiko zidakeen lotsa, baina inork ez zuen jakin Vargasen atzetik Alkorta nintzenik, ez jakingo ere, nire ahotik behintzat.

Melodia ponposo bat jarri zuen irrati-kasetean, txaloekin erritmoa eramateko agindu zigun.

– Zer da, Mozart ala Vivaldi? –entzun nuen neska apain bat beste bati galdezka.

Camarón eta Manzanita bereiziko nituzkeen nik, bi nota entzun orduko. Erabateko erridikulua sentitu nuen gela hartan txaloka, markako arropaz jantziriko gainerako haurren artean. Zorionez, ez nintzen ni izan irakasleak arbelera kortxeaerdi bat marraztera atera-razi zuena, eta lasai samar igaro ahal izan nuen kon-tserbatorioko lehenengo eguna.

Eskola amaitu orduko, ziztuan atera nintzen gela-tik; aurreneko egun hartan behintzat, ikastolakoen zangotrabak eta purrustadak saihestea lortu nuen.

Aita zain neukan atariko eskaileretan.

– Zer moduz? –galdetu zidan neurriz kanpoko pozaz.

– Ondo.

– Esan ninan.

– Aita, gu maketoak gara?

Matrailezurra estutu zuen.

– Hi horiek bezain euskalduna haiz, aditu? –esan zidan eskaileretan behera zetozenak seinalatuz.

Ez nintzen kontra egitera ausartu, baietz egin nion buruaz, nire baitan taxuzko euskaldunak nor ziren argi neukan arren: ikastolakoak, arratsaldeetan solfeora,

euskal dantzara eta ingeleseko partikularretara joaten zirenak, azoka txikiko arroparik ez zutenak, eskolarteko kiroletan makinaz inprimaturiko letra dotoredun elastiko eta galtzamotz uniformatuak zerabiltzatenak; ez guk bezala, errotuladorez apaintzen baikenituen banketxeak opari emandako *klujubenileko* kamisetak. Aitarentzat ez beste guztientzat, euskaldunak haiek ziren: Lasalden bizi ez zirenak, besteak.

– Jenisjoplin, hire hurrengo urtebetetzean gitarra elektriko bat oparituko dinat, gorri distiratsua.

Badabilkit zainetan erruduntasun-sentimendu zahar bat, zigortua izateko antsia bat, borreroarekiko dialektika intimo bat. Bizitzarekin daukadan jolas bera da: zigor nazazu, diotsat, baina indarrak neurtuko ditugu. Jar ditzagun haragia, izerdia, odola jokoan. Borrokan bizirik sentitzen naiz; bakean, hilda. Horregatik bilatzen dut biolentzia; baketzetik, gelditzetik, isiltasunetik libratzen nauelako. Gorputz bat dudala eta nirea dela oroitarazten didalako.

Jende gehiena egoera biolentoak saihesten ahalegintzen da, indarkeria itsusia iruditzen zaionez. Kosta zait horrekin ohartzea. Niri alderantziz gertatzen zait:

erakarri egiten nau. Interpelatua sentitzen naiz, neure izenez deitzen dit. Askotan, neuk sortu izan dut enfrentamendua: irakasleekin, tabernako bezeroekin, Poliziarekin, medikuekin, eta neure buruarekin. Autoritateari erronka jotzea neure-neurea dut. Manifestazioetara bidean, zain egoten naiz kontrola non topatuko, autotik noiz jaitsaraziko. Baina ez naute inoiz gelditzen. Beldurrik ez diedala erakutsi nahi nieke ikusezintzat naukatenei. Nire atxiloketa-unearekin fantasian aritu izan naiz, trantze hori desiratzeraino: atea botatzen irudikatu ditut, eta ni egongelan zutik. Zain. Nire gorputza polizia baten parean, epaile baten aurrean, begietara begira haien galderei erantzuten, banan-banan.

Biolentzia niretzat ez da zerbait arrotza eta arbuiagarria, komunikatzeko modu bat gehiago da. Hor dagoen zerbait: gugan, gurekin. Ez zait mespretxuraino nazkagarria iruditzen. Ulertu egiten dudala esango nuke. Okerragoa deritzet gutxiespenari, erdeinuari, arbuio isilari.

“Zeuk ikusi”, erantzuten zidan aitak umetan, edozertarako baimena eskatuz gero. Obeditzen ez banion, isiltasuna jasotzen nuen ordainetan. Auzoko lagunak zigortu egiten zituzten gaiztakerian harrapatuz gero.

Telebistarik gabe. Afaldu gabe. Oparirik gabe. Ni, ez. Izan nuen garai bat aitari ni zigortzeko eskatzen hasi nintzena; egindako okerrak hari aitortzen eta, halakorik ezean, zigorra merezi ahal izateko gaizki eginak puzten eta, are, asmatzen. Baina aitak hitz beste egiten zuen, axolagabe, eta neure gain uzten zuen kulparen zama osoa. Ama, mutu. Erruduntasunaren lasta. Zigorrik ez, barkamenik ez. Horregatik hasi nintzen, egun batetik bestera, neure burua zigortzen: zerbait oker egin nuela uste banuen, logelan giltzapetzen nintzen, eta lagunek kalerako deituz gero, ezin nuela erantzuten nien, zigortuta nengoela. Hala irauten nuen, asperraren asperrez, zigorra amaitu zela erabakitzen nuen arte. Ez zigorrik, ez baimenik, ez debekurik. “Zeuk ikusi”.

Aurrez aurreko biolentzia ez da beti makurrena. Ez ote da ankerragoa urrutiko bortxa? Soraio begiratzen diogu biolentziarik bihozgabeenari, eserita eta bolumen baxuan. Inor ez da esplotazio ekonomikoaz mintzo indarkeria insurgentearen aurkako adinako higuinez eta konbentzimenduz. Pobrea ez da biktima. Behartsuak ezin du inor salatu pobre izate hutsagatik. Inork ez du adiskidetzerik proposatuko aberastuen eta apalduen artean. Terrorismoa errotik eragotzi behar

den lasta den bitartean, bulego aseptikoetan idazten dira zapalkuntza ekonomikoa desenkusatzen duten txostenak. Aurrez aurreko biolentzia ez da dioten bezain gaiztoa. Enfrentamenduan bestearekiko kontaktua dago beti; bestearen begietan bazaude, bazara. Eta ni bizi-bizirik sentitzen naiz egoera biolentoetan, gorputzen talkan, garrasietan, minaren eta justiziaren erdian. Jakin nahi nuke lau txapelokerrek gauez autotik atera eta bultzaka mendira eramango banindute, ausardiari eutsiko niokeen edo galtzetan kaka egingo nukeen; zer usain leukakeen lokatzak, zakurren hatsak. Desafiorako bulkada erraietatik datorkit, sexua datorkidan toki beretik. Erronka jo pikoloei; larrua, neure buruari. Eutsiko diozu?

Eta zorte handia izan dudala uste dut. Beti atera naiz onik ataka gaiztoetatik. Askotan egon naiz arriskuan, itzuri egin diet kristal hautsiei, ukabilkadei, pilotakadei, pistolei, labanei, borrei, bortxatzaileei. Etxeatariraino jarraitu didate gizonek, eta ez naiz korrika hasi; haien pausoak aditzean gelditu egin naiz, bira egin dut, aurpegia eman, bebarruko atea haien muturretan itxi. Eta joan egin dira. Arriskuari dei egin diot, seguruago sentitzen nintzelako hark ni ezustean harrapatuta baino. Immunitate-sentsazio sendoa izan

dut urteetan. Bizitzak, etorri, eta esan didan arte: oker zeunden, Nagore, ez zara immunea.

Somosierra. Beroak eta hotzak arrakalaturiko errepidea. Bazterretan, arte batzuk eta zuhamuxka barreiatuak: txilarra, erromeroa, elordi lakarrak.

– Nagore.

Leihatilatik eta pentsamenduetatik apartatu nuen burua.

Karraren begiak atzerako ispiluan.

– Isilik hoa.

Ez ziren bi ordu Auzitegi Nazionaleko atetik irteten ikusi genuela. Kalea zapaldu orduko lepora jauzi egin zion Irantzuk, arnasa hartzeko ere betarik eman gabe. Ikara eragin zidan Karraren erreakzioak. Sotila izan zen, doi-doi keinu baten hasiera: laguna gainera etorri zitzaionean besoekin bere burua babesteko imintzioa egin zuela iruditu zitzaidan. Kolpez geldituriko urratsa eta besoen goranzko bulkada ia antzemanezina, segituan kontrolatu zuena. Urrunetik bilatu nuen lagunaren begirada. Irribarre barea egin zidan, eta baiezko keinua buruaz. Interpretatzen asmatu ez nuen xehetasun bat: faltan zituen Martens botetako lokarriak. Luka

bideo-kameraren atzetik ari zen momentua erregistratzen.

Guztiok besarkatutakoan ingurura begira gelditu zen.

– Etxean dauzkak zain.

– Ez dira etorri?

– Liherrek barizela harrapatu dik eta sukar altuarekin igaro ditik azken bi gauak. Larritu egiten zian umeari hain bidaia luzea eginarazteak, badakik autoan nola jartzen den...

– Nahikoa egin din.

– Bazkaltzeko eramango haugula zin egin zioagu.

Sabela ferekatu zuen.

– Kafetxo bat nahi duk? Jaten eman diate?

Auzitegiaren aurreko Riofrío taberna seinalatu nion.

– Eztaaa...! Goazen hemendik derrepentean! –esan zigun.

Besotik heldu zion Irantzuk.

– Autoa arrankatuta utzi diat.

– Nahi duzuenean –gehitu zuen Lukak.

Begira gelditu gintzaizkion denok.

– Hi ez al hindoan Habanara?

– Ni?

Bideo-kamera biltzen amaitu zuen. Karrak Irantzuri eta bioi heldu zigun lepotik.

– Zer moduz bidaia?

Irantzuren zehar-begiratuari eutsi behar izan nion.

– Bakar-bakarrik etorri nauk.

Kontu eske ari zitzaidan. Buruari eragin zion Karrak, nahasita.

– Kapituluren bat galdu dudala uste dut.

– Baita nik ere –Irantzuk.

Lukari begiratu nion. Keinu egin zidan. Motxila eta kameraren poltsa sorbaldatik zintzilikatu zituen.

– Irantzu, hire Corsak ahalko al du laurokin?

Berriz errepidean. Cerezo de Abajo. Aldealcorvo. Cantalejo. Kazetariak bidean: Irantzu txofer, Karra kopilotu eta, atzean, Luka eta biok.

– Zer moduz tratatu haute? –Lukak ilea laztandu zion atzeko eserlekutik.

– Ezin nauk kexatu.

– Gogorra izan da? –Irantzuk autoaren abiadura moteldu zuen.

– Ez dun oporretara joatea bezala, baina tira.

– Asko mareatu haute?

– Ez zitunan isiltzen.

Karra, leihatilatik begira, mutu gelditu zen une batez.

– Gezurra gezurraren atzetik, seguru.

– Hori dun okerrena: kontrakoa aginduta ere, gezurren artean egiak apartatzen saiatzen dun burua.

Ordulariari begiratu zion.

– Jarri ezan irratia.

– Radio Maria bakarrik hartzen dik.

Barre egin zuen Karrak.

– Aparta ezan egia bat hor!

Pardilla. Fuentenebro. Euri-tantak.

– Lasai egon haiz?

Telefonoez galde egin zigun erpurua belarrian eta hatz txikia ahoan jarrita. Lasai hitz egin zezakeela adierazi genion.

– Epailearen aurretik pasatu arte ez nekinan ni bakarrik eraman nindutenik. Alboko kalabozoan Nagoreren ahotsa aditu uste izan ninan.

Begirada altxa nuen.

– Abokatuak ezeztatu didan arte erabat sinetsita nengonan.

Lukak izterra laztandu zidan. Erabat nire baitaratuta nindoala ohartu zen. Eskua eman nion.

– Eta hori? –jiratu zen Karra brastakoan.

– Zer? –Irantzuk.

Eskua askatu nion, izututa.

– Ostia puta. Barruan eduki nauten bitartean larrutan aritu zarete!

Irantzuk atzera begiratu zuen. Eskuinera okertu zitzaion autoa.

– Begira ezan aurrera!

– Eta ni hirekin kezkatuta! –kargu hartu zidan Karrak.

Irantzuri hitz egin zion.

– Hik bahekien?

– Zertaz ari zarete? –haserretu zen Irantzu.

– Atzean bi traidore zeramatzanagu, bero-bero eginda.

Bi orduan lehenengoz ireki nuen ahoa.

– Ez da uste duzuena.

Bolantea askatu eta eskuak gora jaso zituen Irantzuk.

– Honek hankartea zupatzeko utzi nindunan kolgatuta?

– Irantzu, egon hadi isilik –sumindu zen Luka.

– Gelditu hor.

Nire aginduari obeditu eta bide ertzeko restopean gelditu zuen Irantzuk autoa. Euria ari zuen. Zigarro bat piztu nuen leihatila ireki gabe.

– Badakit ez dela nitaz hitz egiteko momentu egokia. Kalabozotik atera berria haiz, baina gauzak okertu egin zaizkidak.

Serio begiratu zidan Irantzuk.

– Atxiloketaren egunean analisi ustez arrunt batzuk egitera joan nintzen ospitalera.

– Zer daukan?

– Hiesa diagnostikatu didate.

Lagunen aurpegiak ikusi nituen desitxuratzen.

– Lukari kontatu nionean Madrilera gonbidatu nindu en eta bi aldiz pentsatu gabe autobusa hartu nuen. Barkatu, Irantzu, ez nindunan prentsaurrekoa emateko gauza.

Isilik gelditu ziren hirurak.

Kamioi batek bozina jo zigun, bidea ixten ari gintzaizkion.

– Beraz, egia zunan... –Karrak buruari eragiten zion.

– Zer?

– Txakurrek esan zidatenan.

Tinko begiratzen zidan Karrak.

– Nola?

– Bazekitenan. *Zomorroa* heukala esaka aritu zitunan. Ez nienan sinetsi...

– Baina... ezin daitekek...

Irrealitate-sentsazioak inarrosi ninduen. Lukari begiratu nion, izututa.

– Nola kontatu hion Lukari? –galdetu zidan Karrak.

– Joder –esan zuen Lukak.

Ni erabat galduta nengoen.

– Telefonoa, Nagore. Zulatuta daukan.

Autotik atera nintzen. Arnasa behar nuen.

– Nagore!

Oinez aldendu nintzen. Laster itzuli nintzen, blai eginda.

– Zer esan ziaten zehazki?

– Ez zakinat...

– Esadak egia, Karra.

– Ba, atxiloketaren egunean etxera bidean ikusi hindutela eta erabat zargalduta hengoela...

Erosketa garraio nindoala atari hartan ikusi nuen zakurtzarrarekin oroitu nintzen.

– Lasaiena zirudienak atera zinan kontua: *la pobre parecía un esqueleto...*

– Zer gehiago.

– *Claro, con la enfermedad de las putas y los yonquis...,* edo horrelako zerbait bota zinan beste batek.

– Kabroi zikinak –Luka sutan zegoen.

– Eta zer gehiago?

– Besterik ez.

– Esadak egia.

– Pozoia besterik ez dun.

– Entzun egin nahi diat.

– *Ya tiene lo que se merece la muy zorra.*

– Laster hilko nintzela esango zitean.

Isilik gelditu zen.

– Primeran. Ba, orain badakizue denok: medikuek, Poliziak, zuek. *Nothing to declare.* Goazen etxera.

Isilik egin genituen hurrengo kilometroak. Quintanilla de la Mata. Villafruela. Eta aurrerago Burgos, Atapuerca. Armiñon parean Euskadi Irratia sintonizatu zuen Irantzuk. Ordu bateko albistegian jakin genuen, Karra askatu bazuten ere, Libre prebentiboki ixteko agindua eman zuela Pablo Ruz epaileak.

Zerua behe-behean zegoen. 1994ko iraileko egun lainotsu eta heze bat zen. Hamabi urte nituen.

– Joango gara buelta bat ematera? –galdetu zidan aitak telefonoz.

Zumaiara eraman ninduen. Marea biziak barraren ertzeraino arrastatzen zuen itsasoa.

– Sartuko al gara?

Nik ez nuen bustitzeko gogorik.

– Udako azken bainua! –esan zidan animatuta.

Aitarentzat sakratuak ziren “azken” guztiak: azken zigarroa, azken abestia, azken aukera. Zapatilak askatzeari ekin zion.

– Goazen!

Ez genuen bainujantzirik. Toalla zahar bat aurkitu genuen maletategian. Aitak larrugorritan zeharkatu zuen hondartza hutsa, eta azpiko arropak soinean jarraitu nion nik. Uretan sartzerako, izterrak eta gerria kolpatu zizkiguten olatuek, apartsu; itsas tirainak arrastan eramaten zigun oin azpiko harea, zorua erauziz, eta hankazpiak zuloan hondoraraziz. Ibaiak ekarritako mukur bat begiztatu genuen hogei bat metrora.

– Ezetz haraino!

Urpean sartu nuen burua, eta olatu bat pasatu nuen azpitik. Beste bat. Igeri egin nuen aurrera, lehertu gabe zetozen olatuekin gora, eta zuri eta braustaka zetozenekin behera murgil eginez. Mukurrari heldu

nion. Eskuarekin jaso eta aitari erakustera nindoan, ezustean harrapatu ninduen olatutzar batek atzetik jo eta enborrak buruan kolpatu nindunean. Burua urpetik ateratzen saiatu nintzen, baina aire-ahokada bat lortzerako estali ninduen hurrengo bagak. Urpean geldirik irautea erabaki nuen, olatuen barealdiari itxarotea, itsasoaren aurka borrokatu beharrean. Azaleratu nintzenean, itsasertzetik lehen baino metro batzuk urrunago nengoela ohartu nintzen. Tirainak itsas zabalerantz ninderaman. Aitari deitu nion. Egonarria galduta, lehorrerantz hasi nintzen igerian, besakada indartsuak saiatuz. Beste olatu batek irentsi ninduen. Zuria. Arnastea lortu nuen. Hondarra. Aitaren burua han urrunean. Zuria, beltza eta, gero, gorria. Zeru zati bat, grisa. Urrunera, hondora arrastatua nintzelako sentipena... Eta, bat-batean, errendizioa. Isiltasuna. Besoak eta burua uraren mende. Izatearen kulunka barea. Itsasoaren musika neure erraietan. Sehaska. Logura.

Aitaren besoetan esnatu nintzen, toalla zaharrean bilduta.

– Nora hindoan, Jenisjoplin?

Dardarka nengoen. Besoetan hartu eta autora eraman ninduen, sofatik ohera bezala. Manta batekin ta-

patu ninduen eta berogailuari eragin zion. Burrunba abegitsua. Halako barne-poz batek hartu ninduen, hain zen gozoa epeltasun hura, eta lasaigarria, aitaren eskua buruan.

Jantzi egin zen.

– Nagore... –esan zidan.

Irribarrez begiratu nion. Kokotsetik heldu zidan leun.

– Amak eta biok banatzea erabaki dinagu.

Isilik gelditu nintzen aitari begira. Itsasoak oihartzun egiten zidan oraindik belarrietan. Txistu moduko bat aditzen hasi nintzen.

– Beste edozein hauturen antzeko erabakia dun...

Geldialditxo bat egin zuen.

– Hik solfeoa uztea erabaki dunan moduan, guk gure artekoa uztea erabaki dinagu.

Kaioen karraka baino ez zen aditzen. Beste auto batek aparkatu zuen gurearen aldamenean, mutiko batzuen zalaparta. Berogailuaren burrunban jarri nuen arreta. Barruko arropa bustiekin manta laukidun batean bilduta egotearen absurdoa. Elbarritasun-sentipen astuna. Malko traidore batek ihes egin zidan, epel eta lodi, masailean behera.

– Agian hasiko naiz berriz gitarra jotzen.

Ile bustia apartatu zidan aurpegitik.

– Printzipioz, Madrilera joango naun. Gero, ikusiko dinat.

Gorputza sentitu nuen zurruntzen. Itsasoa izozten den geografia hori. Lehen euri-tanta haizetakoan. Mutu, buruan azken hilabeteak errepasatzen saiatu nintzen. Ez nuen gurasoen arteko musurik edo besarkadarik oroitzen, ezta errietarik ere.

Itsasbehera zen Itzurungo hondartzan. Tirainak ura indarrez zeraman kanporantz, itsas zabalera. Autoaren motorrak martxan jarraitzen zuen, eta geldirik eta ilun zegoen han, urertzean, enborra, neureganatu uste izan nuena.

Gurasoak banandu zirenean etxez aldatu ginen, laugarren aldiz. Aspaldiko auzokide batzuek alokairuan jarri zuten eurena; prezio onean utzi zioten amari, eta Lasaldera itzuli ginen. Angelek lagundu zigun mudantzarekin. Ni pozik nengoen Altzaditik gure barriora itzultzeaz.

Lasaldeko bizileku berria etxabe bat zen, atetik bezala sartu eta irten nintekeen logelako leihotik. Aldamenean Maritere Kortaberria izeneko emakume zar-

pail bat bizi zen. Auzoan erotzat zuten, beti txabusina soinean ibiltzen zelako eta dozenaka katurekin bizi zelako eta, batez ere, bere perikitoarekin, Pakitorekin, hitz egiten zuelako.

– Nola arraio lortu duzu perikitoak hitz egitea? –galdetu nion.

– Garrantzitsuena da kaiolan ispilu bat jartzea. Perikitoek ez dute hitz egiten konpainia dutela sentitu ezean. Eta gero, ordu asko. Konfiantza egin behar da txoriarekin, aizu. Goizean goiz entrenatzea da onena, kaiola estalgabetu berritan. Hitzak errepikatu behar zaizkie, errepikatu, errepikatu, errepikatu. “P”, “t”, “k” eta “d” soinuak dira onenak. *Pakito, pakito, pakito.* Eta, ttak, apio pixka bat.

“Pakito, Pakito!”, jarraitu zuen perikitoak txilioka.

– Horrekin zailagoa da.

Neska mardul bat igaro zitzaigun aldamenetik, ni baino urte batzuk zaharragoa, eta Maritereren etxean sartu zen. Bertan inor ez balego bezala zeharkatu zuen bebarrua. Bizilagunak berak kontatu zidan alabak eskizofrenia zuela. Seme bat ere ba omen zuen, baina kartzelan.

– Bortxaketa batzuengatik –esan zuen, keinua apenas mudatu gabe.

Ez zuen ez alabaren ez semearen izenik aipatu. Argazki bat seinalatu zidan etxeko hallean: 30 urte inguruko morroi argal bat.

Arratsalde dezente eman nituen Maritereren etxean, katuak zaintzen eta Pakitori hitz berriak erakusten: *Konpota! Konpota! Konpota!* Halako batean, Korta askatu zutela zabaldu zen auzoan. Bortxatzailea suelto zebilela eta, neskei bakarrik ez ibiltzeko eta mendi aldera ez joateko ohartarazi ziguten gurasoek eta irakasleek. Patioan neskak izutzen dibertitzen ziren mutilak: “violador!” oihukatzen zuten, eta neskak motxilak, panpinak, harriak, txotxak edo dena delakoak utzita, herio batean hasten ziren korrika, txantxaz jabetu eta, purrustada batzuen ostean, berriro jolasari ekiten zioten arte.

Ez nuen mugimendurik sumatu auzoan, txutxumutxuak baino ez zirela esaten nien lagunei, jaramonik ez egiteko berriketa haiei. Kieto gelditzen nintzela ikusita, kontraerasora igaro ziren mutilak.

– Begira nola loditu zaizkion titiak –aditu nion Mikel izeneko auzoko mutil bati esaten.

Gu neurtzen hasi zirenean hasi ginen geu ere geure burua neurtzen. Hilabete gutxian nabarmenki hazi zitzaizkidan titiak, ez kiloak irabazi nituelako ba-

karrik. Bularretako bat hartu nion amari barruko arropen tiraderatik, eta txikiegi neukala egiaztatu nuen. Mutilen txantxak eta erronkak areagotu egin ziren, baita geure buruarekiko erdeinua ere. Azal gogorreko liburu bat hartzeko, bularraren parean zabaltzeko eta ixten saiatzeko eskatzen ziguten. Titiak elkarren kontra zanpatzen zitzaizkien haragi pixka bat zutenei, eta burla egiten zieten. Beste batzuei erabat ixten zitzaien liburua, eta horregatik ere barre egiten zieten. Ikastolakoek “surfeko taulak” deitzen zieten titibako neskei. Lasalden txapakumearekin konparatzen zituzten. Neska bakoitzaren titiak mendiekin alderatuz rankingak egiten zituzten arbelean klarionaz. Handienak Everest ziren; txikienak, Xoxote. Animaliekin, mendiekin, objektuekin, janariekin, materialekin... konparatzen gintuzten.

Eskolatik irten eta etxerantz nindoan arratsalde batean Mikelek, atzetik etorri, bularretatik heldu eta gora eta behera astindu zizkidan. Jiratu eta sekulako belarrondokoa eman nion bueltan, baina Mikelek barre-zantzoka jarraitu zuen mutilez osaturiko zirkulu baten erdian. Gaztetxo-kuadrillaren ondoan zutik zegoen maisua ere barreari ezin eutsita zegoela ohartu nintzen. Amorrua sentitu nuen zangoetatik gora heda-

tzen, irakasle hari ukabilkada bat emateko bulkada, baina paralizatuta gelditu nintzen. Etxean, elastikoa erantzi eta logelako ispiluaren aurrean jarri nintzen zutik: non arraiotik atera ziren bularrok? Ez zitzaizkidan nireak iruditzen. Ez nituen ezagutzen, ez nekien deus haiei buruz, min egiten zidaten, mugitu egiten zitzaizkidan. Begiratu, neurtu eta konparatu egiten zizkidaten. Bi haragi-puska haien erruz nonbaitetik betiko egotzi nindutela sentitu nuen, baina ez nekien esaten zehazki nondik.

Maritererekin egoten jarraitu nuen, hark bake-bakean uzten ninduen behintzat. Mandatuak egiten nizkion, kontserba-latak gehienbat, eta potoak apalik garaienetan kokatzen laguntzen nion, ordurako bera baino puskaz altuagoa bainintzen.

Eskolan birziklatutako materialekin musika-tresna bat egiteko agindu ziguten, eta arratsalde batean ikaskide batekin trenbideaz bestaldeko zabortegira abiatu nintzen, material bila. Trenbidea zeharkatu eta hartxintxarrezko kaminotik gora gindoazela, Korta ikusi nuen. Ez nuen zalantzarik izan. Aldapan behera zetorren pauso baldarrez.

– Bera da –esan nuen.

Korrika hasteko imintzioa nabaritu nion lagunari, baina gogor heldu nion besotik, eta aurrera tira egin. Oinez jarraitu genuen, poliki baina etenik gabe. Gizonaren aldamenetik igaro ginen, metro-erdi eskasera, kontrako norabidean ikusi genuen urruntzen. Zabortegira iritsi ginenean, gelakideak eskua askatu eta bultzakada gogor bat eman zidan, haserre.

– Eroa!

Handik egun batzuetara, gauez, amarekin telebista ikusten nengoela, zarata lehor bat aditu genuen. Atezuan jarri ginen besaulkian, eta leihora hurbildu ginenean, sugarrak ikusi genituen Maritereren etxean. Bebarrura atera ginen korrika. Han zegoen bizilaguna, betiko txabusina soinean eta ilea sutan, garrasika. Amak toalla bat bota zion buru gainera, kea eta ustelusaina zabaldu ziren atalondo estuan. Semeak, harri batekin etxeko kristala hautsi, eta logelara koktel molotov bat jaurti zion. Katu guztiak desagertu ziren, Pakito ere bai.

– Kaiola ireki diot, erreta edo itota hilko zen bestela –esan zigun Mariterek.

Maritereren alabak etxe barruan jarraitzen zuela ohartu ginen orduan; ohe ertzean eserita, hormari be-

gira, geldi. Hiruron artean indarrez atera behar izan genuen, ez baitzuen ohetik mugitzeko intentziorik.

Ertzainei deitu zien nire amak, baina ez zituzten bost minutu ere egin Maritererekin. Auzokideek gurean lo egin zuten gau hartan. Handik egun batzuetara, katuak etxera bueltatu ziren. Pakito ez.

Bilbora iritsi ginenean etxeraino lagundu genion Karrari. Pikorta gorriz beteriko umea negarrez ari zen amaren besoetan. Bazkaltzen gelditzeko gonbita egin zigun Karraren neska-lagunak, baina familiaren intimitatea errespetatu nahi izan genuen.

Telefonoan goizeko notiziaren irudiak erakutsi zizkigun: Libre irratiko atea prezintatuta.

– Korreoa ere blokeatu ziguten –jakinarazi zidan Irantzuk.

– Berriz hasi beharko duzue.

Atxuritik barrena, Arriaga antzokiaren bizkarralde borobildua ikusi nuen haizetakotik. Semaforo gorriaren aurrean gelditutakoan besoak buruaren gainetik jaso eta gerria atzera luzatu zuen Irantzuk. Lepoari eragin zion bi aldeetara. Nekatuta behar zuen Madrilerako joan-etorriaren ostean. Orain lanik gabe zego-

en. Berriz curriculumak bidali beharko zituen, kolaborazioak egiten hasi, lau sosen truke kazetaritzaren gelaurrea igaro: enkarguzko erreportajetxoren bat *Argia*n, lorezaintzari buruzko gehigarri bat *Berria*n... Ongi idazten zuen, zehatz eta trinko, baina ez zuen zorte handirik izan. *Berria* egunkarian telebista- eta agenda-sailetan aritu zen karrerako azken urtean, eta ezin izan zuen talentu-erakustaldirik egin.

Areatzan urriko liburu-azokarako etxolak muntatzen ari ziren. Udaletxe aurreko biribilgunera iritsi ginenean, ibaiertzean paseatzeko gogoa sentitu nuen.

– Gelditu momentu batean –eskatu nion Irantzuri.

Taxi-geltokira baztertu zuen autoa.

– Emango dugu osteratxo bat?

Biei galdetu nien, egiaz Irantzurekin bakarka egotea desio nuen arren. Ez genuen tarte bat hartu zurrunbiloa hasi zenetik. Zortez, intuizio zorrotza zuen Lukak.

– Zoazte biok, nik aparkatuko dinat autoa toki onean –esan zion Irantzuri.

Laino ilunen artetik eguzki-izpiek distira keinukariak sortzen zituzten Ibaizabaleko uretan. Lukak, galtzadara irten eta gidariaren lekua hartu zuen. Irantzu eta biok espaloira baztertu ginen.

– Etxean itxarongo dinat –esan zidan.

Gustatu zitzaidan esaldiaren oihartzuna.

– Esan amari ondo nagoela.

Oinez hasi ginen ibaian behera, Zubizurirantz.

– Zer egingo dun orain? –galdetu zidan.

– Irratia berriro martxan jarri beharko dinagu.

Lurrera begiratu zuen.

– Nik ez dinat indarrik. Nekatu naun prekarietatearen xarmaz. Hi ez?

Ez nuen sekula pentsatu prekarietatea hautu pertsonala izan zitekeenik.

– Ez zakinat.

Ataka saldu berri genuen lurrindegia erosteko eta zorretan nengoen bankuarekin eta aitarekin; Somerako herrikoan txanda batzuk egiten hastekoa nintzen sos batzuk ateratzeko; agian, Lukak lanen bat topatuko zuen eta etxeko alokairuarekin lagunduko zidan. Pixka bat antolatutakoan irratia berriro martxan jartzeko moduan izango nintzen. Lasaigarria zitzaidan "gauzetan" pentsatzea. Nigan pentsatzea baino askoz errazagoa zen.

– Honekin zerbait egitea baloratzen ari naun.

– Diagnostikoarekin?

Baiezkoa egin nion.

– Hitzaldiak?

– Hitzaldiak, ikerketa-lanen bat, dokumentalen bat... Ez nagon seguru.

– Bazagon zer kontatua.

– Agian hor bazaukanat bide bat.

Aitak ere adierazi zidan izeba mendekatzearen ideia.

– Kontuz ibili –ohartarazi zidan Irantzuk.

– Zer ba?

– Heure burua salbatu beharrean mundua salbatzeko joera daukan.

– Badakin?, hau guztia aspalditik ezagutzen dinat –esan nion Alde Zaharra eta ibaiertza seinalatuz.

Gelditzeko keinua egin zuen, baina tira egin nion aurrera. Errazagoa zen ibilian hitz egitea.

– Umetan amamarekin etortzen nindunan Bilbora. Amama Rosak Hiesaren Aurkako Batzordean parte hartzen zinan.

Buelta eman eta Areatzara luzatu nuen hatz erakuslea.

– EHGAMen egoitzan egiten zitiztenan bilerak, Alde Zaharrean. Amama astero etortzen zunan eta nik noizbehinka laguntzen nionan, udan batez ere, Lasalde hutsik geratzen zenean. Trenez etortzen gintunan

Atxurira, eta zubipeetako jonkiekin hitz egiten zinan amamak.

– Hire aurrean?

– Bai.

Oinez jarraitu nuen.

– Bidaia osoan amama irakurtzen etortzen zunan. Nik lo hartzen ninan trenaren kulunkarekin, eta haren gona beltzezko magalera etzanda egiten ninan bidaia. Heroinazaleei xiringak eta kondoiak banatzen zizkienan, ogitartekoren bat ere bai batzuetan, eta eskutik helduta eramaten nindinan EHGAMen egoitzara. Orri batzuk eta margoak ematen zizkidatenan bilerak iraun bitartean entretenitzeko eta, asanbladaren ostean, txokolatea eta txurroak jatera gonbidatzen ninditenan –biratu egin nintzen, berriro– hango kafetegi hartan.

Amama Rosaren magalaren usainarekin oroitu nintzen.

– Gurutzetako ospitalean protesta bat egin geninan 88an.

– Hik...

– Sei urte.

Eskua zabaldu nuen ahurra zerurantz.

– Euria?

Irantzuk aterki tolesgarri bat atera zuen motxilatik, eta haren besoaren kontra estutu nuen gorputza.

– 1988an elkarretaratzeak antolatu zitiztenan Gurutzetako ospitalearen aurrean, bertako haurtzaindegiak haur bati sarrera debekatu ziolako GIBaren eramailea izan zitekeelakoan. Kasuak errebote-efektua izan zinan, liskarrak sortu zitunan Durangoko, Basauriko eta Markinako beste ikastetxe batzuetan. Amama erabat suminduta zegonan. Gurasoek mehatxuka deitzen zitenan zuzendaritza-bulegoetara, kutsaturiko haurrak kanporatu ezean euren seme-alabak ikastetxetik atera egingo zituztela mehatxu eginez.

– Ni ez nindunan ezertaz jabetu.

– Horixe dun normalena.

– Hi horrekin hazi hintzen.

– Larunbatetan amamarekin gazteei kondoiak banatzera ateratzen nindunan kalera.

– Gogorra izango zunan.

– Ondo pasatzen ninan.

– Eskerrak hire amama hila den.

– Bizi balitz ez niokenan nire buruari barkatuko.

– Bi aldiz infernu bera...

– Egunero gogoratzen naun harekin.

Aterkipean zigarro bat biltzeari ekin nion.

– Nahi dun bat?

Ezezkoa egin zidan.

– Ez liken sinetsiko.

– Aditu egin zezakenat esaten: *hija, con todos los condones que yo te he dado*.

Kezko hasperen bat utzi nuen airean.

– Izan, ez sinestekoa dun. Hiesa... orain, 2010ean.

– Iraganeko kontua zirudin.

– Bai.

– Nik beti izan dinat beranduegi jaio izanaren sentipena.

– Beranduegi? Zertarako, ordea?

– Arima *otxenteroa* zaukanat.

– Hori egia dun.

– Hik ere hala uste dun?

– Ni ez naun batere sineskerien zalea, baina, joder, destinoaren jukutria zirudin.

Oinez jarraitu genuen euripean.

– *Argia*k publikatu zuen Esther Ferrerren elkarrizketarekin bueltaka ari naun egunotan. Hementxe izan zitekenan –esan nion zubia seinalatuz.

Irantzuk ez zuen gogoan.

– Garai batean, Ferrer Parisen Pont Neuf inguruan bizi zenean, gau batean etxetik irten eta euripean ibili

zela kontatzen din. Negua omen zunan, eta ez zebilenan inor kalean. Zubira iristean, oina zubian jarri behar zuen istant berean, pareko espaloian gizon bat ikusi zinan oinez abiatzen, kontrako norabidean. Eta pentsatu zinan: “gurutzatu egingo gara”. Berak ahalegin guztiak egin zitinan zubiaren erdian gurutza zitezen: pausoa gizonarenari egokitu, erritmo zehatza kalkulatu...

– Eta?

– Zubiaren erdi-erdian gurutzatu zitunan. Gizona, jakina, ez zunan ezertaz ohartu.

Zubizuriri begira gelditu zen Irantzu.

– Oraintxe gurutzatu garela iruditzen zaidan.

– Nortzuk?

– Izeba eta biok.

Zubiaren eskaileretara iristen ari ginen. Poliki igo genituen.

– Irantzu, eta ni izan banaiz haren enkontrura atera dena?

– Ez hadi kausalista jarri.

– Zer dela-eta ari da gertatzen hau guztia? Esanahiren bat izan behar din.

– Nagore, ez dun sekula heure burua babestu, autosufiziente hutsa izan haiz beti. Agian iritsi zain hire ahultasuna onartzeko ordua.

– Beraz, hire ustez, bizitzaren lezio bat dun.

– Zenbat aldiz jarri dun heure burua arriskuan?

Salbeko zubia geneukan aurrez aurre. Gehiago pisatzen zidaten nik arriskuan jarritakoek, neuk hartutako arriskuek baino.

– Edozertarako prest omen hengoen, baita torturei eusteko ere... Ba al dakin zenbat lerdokeria esan dunan?

Zubizuriren beirazko zorua labainkor zegoen.

– Bizitzaren aldeko atxikimendu faltatik zatorren sarri ausardia.

– Heuk nahi dunana.

Oinez hasi zen, ni atzean eta aterkirik gabe utzita.

– Gauzak ez ditun batere sinpleak –erantzun nion.

– Ez zakinat. Lagundu egin nahi dinat, baina ez dun erraza.

Biratu eta ibaiaren beste ertzerantz jo zuen bizibizi. Amorratu egiten zuen nire harrokeriak. Euripean, zubiaren amaieran beherantz makurtzen zen kurban irristatzen ikusi nuen, eta ondoren lurrera ziplo erortzen. Korrika hurbildu eta altxatzen lagundu nion.

Aterki tolesgarriaren hagatxoak erabat desitxuratuta gelditu ziren.

– Tuntuna! –haserretu egin zen bere buruarekin.

– Zubia azkarregi zeharkatu nahi izan dun –zirikatu nuen.

– Joan hadi popatik hartzera.

Ozen hasi eta apal-apal, ia ahapeka amaitu zuen esaldia. Irainaren erreferentzia sexualak deseroso sentiaraziko ninduela pentsatuko zuen. Besoarekin lepoa inguratu eta musu eman nion.

– Honetatik ere aterako dinagu zer edo zer –esan nion.

Guardasol hautsia zaborrontzi batean utzi eta, euripean, ibaiaren kontrako ertzetik desegin genuen ibilitako bidea.

–2–

Madrildik itzuli berritan hots egin nion. Ezagun komun baten bitartez lortu nuen haren telefono-zenbakia, eta erdibideko herri batean egin genuen hitzordua. Bi hilabete atzera baino are umeagoa iruditu zitzaidan. Keinu axolagabearekin iritsi zen hitzartutako tabernara, sorbaldatik zintzilik kirol-poltsa bat zeramala.

– Ez dut gau hartaz ezer gogoratzen.

Fardel txiki bat atera zuen galtzen patrikatik.

– Honexegatik dakit nirean egon zinela.

Fardela ireki eta nire lepoko gorria ezagutu nuen. Ez nuen oroitzen kendu izana.

Kafeak ekarri zizkiguten.

– Hiesa diagnostikatu didate –esan nion.

Bere eskuei begira gelditu zen. Sendoak eta beltzaranak zituen. Atzazal inguruetako magnesio-hondarretatik deduzitu nuen, nirekikoa amaitu bezain pronto, Atxarte ingurura eskalatzera joateko asmoa izango zuela.

– Haurdun zaudela esango zenidalakoan nentorren.

Ezin izan nion ahotsean antzeman bi berrietan asaldagarriago zein iruditzen zitzaion.

– Zuk kutsatu ninduzula uste dut.

Isilik gelditu zen despistatu aurpegiarekin. Elkarri begira egon ginen hitzik ebaki gabe.

– Proba egin behar zenuke.

Bost minutuko elkarrizketa izan zen, asko jota. Handik egun batzuetara mezu bat bidali zidan telefonora: “positibo eman dut”. Saiatu nintzen berarekin harremanetan jartzen, baina ez zien deiei erantzun.

Diagnostikoa jaso osteko hilabeteetan alderrai ibili nintzen egunerokotasun arruntaren barruan. Besteren begietara betikoa nintzen arren, noiznahi jartzen zitzaidan dena kolokan. Diagnostikoak errepika txikiak ekarri zituen atzetik eta, batez ere, ziurgabetasun sentimendua: zoruak plataforma segurua izateari utzi zion. Goitik behera eraitsitako arkitektura nintzen, hondakinen artean inbentarioa egiten. Egun eguzkitsuak izan ziren. Harrien azpian espero gabeko poz txi-

kiak aurkitu nituen eta zenbait gorpu, identifikaezinak.

Luka etxera itzuli zen eta logela nagusia hartu genuen geuretzat, ama gonbidatuen gelara aldatuz. Ez zigun galderarik egin.

– Gogorra egiten zaidak ama zoko horretara konfinatzea.

– Hire amaren ama izateari utzi behar hioke.

Gauetan hirurok elkarrekin esertzen ginen sofan telesailak ikustera. *Twin Peaks* klasikoari ekin genion. Amak eta biok zigarro bana pizten genuen eta Lukak, liburu bat eskuetan, jauzika jarraitzen zituen buruz zekizkien seriea eta saiakera politikoa. Erdian esertzen nintzen ni, normalean. Bigarrengoz ari nintzen etxea aldi berean amarekin eta bikotekidearekin partekatzen, eta ez zitzaidan bereziki deserosoa egiten. Plantak bai, egiten nituen, ama gogaikarria zitzaidala itxuratzeko. Batzuetan, diskretuki, pijamaren galtzaren azpitik zangosagarrak laztantzen zizkidan Lukak, eta irribarre konplizez erantzuten nion. Nire baitan, ordea, eskertu egiten nuen amaren presentzia, Lukaren sexugrinaren amortiguatzailea izateaz gain, nire presentziaren hedapen moduko bat ere bazena, trinkotasuna ematen zidana.

Beste bi kontsulta izan nituen Puertas doktorearekin, kontraesanez bete nindutenak. Ezarritako medikuntzari nion eszeptizismoari datu nahasgarriak gehitzen zitzaizkion. Lukarekin konpartitzen nuen nire ezinegona.

– Ez diat ulertzen: lehenengo kontsultan oraindik serokonbertitzen ari nintzela esan zidaan, baina dagoeneko hiesa neukala. Nola da posible seropositiboa izan aurretik hiesa garatzea?

Laburrak izaten ziren kontsultak, eta medikuaren orein-begiek ez zidaten konfiantzarik ematen ernatzen zitzaizkidan galderak egiteko. Baina harengandik tantaka jasotzen nuen informazioa nire esperientziarekin kontrastatzean inkoherentziak aurkitzen nituen.

Kontsultaren aurreko egunetan ez nuen goserik izaten, urduritasunarengatik; eta osteko egunetan apetitua kentzen zidaten zalantzek. Medikutatik bueltan nentorrenerako Lukak prestatu zidan entsaladatik mokadu pare bat egin eta hozkailuan gorde nuen atzera.

– Gauean jango diat.

– Jan orain, Nagore.

Hozkailuko atean okerka zegoen Mona Lisaren imana zuzendu nuen.

– Kutsatze-modua ez zatorrek bat Puertas doktoreak dioenarekin.

– Zer esan nahi dun?

Zalantza egiten nuen zer kontatu eta zer ez. Ez zitzaidan gustatzen Lukarekin aurreko harremanei buruz hitz egitea, are gutxiago harreman *hari* buruz. Gustu txarrekoa iruditzen zitzaidan.

– Ez zakiat zer pentsatu.

Luka ez zen saiatzen kontatu nahi niona baino gehiago konta niezaion.

– Ez genian txortan egin –esan nion.

– Hain seguru hago morroi *harekin* kutsatu hintzela?

Ez nion sekula izenik aipatu.

– Mutila zunan, ezta?

– Bai.

– Baina seguru hago? Ze, hi...

– Ni zer?

– Ezer ez.

– Seguru nagok.

Espero ez nuen zerbait esan zuen orduan Lukak:

– Agian, kontu honetan ere, bertsio ofiziala ez dun erabat fidagarria.

Zirrara eragin zidan esaldi hark. Nire baitan tokirik egin nahi izan ez nion ideia ahoratu zuen Lukak. Ilusioa eta ilusionatzeko beldurra.

– Zertaz ari haiz?

– Gai guztietan jartzen dinagu kolokan bertsio ofiziala.

– Baina gai hau nire gorputzean ari duk gertatzen.

– Ez dun zertan dena irentsi.

“Dena irentsi” horrek narda eragin zidan.

– Bazauden teoria disidenteak.

Ikertzen aritua zen. Aulkitik jaiki eta logelara joaten ikusi nuen. Liburu batekin itzuli zen.

– Christine Maggiore –irakurri nuen autorearen izena.

– Dena jartzen din hankaz gora: positibo faltsuez hitz egiten din, proben fidagarritasun faltaz, GIBak hiesa sortzen duenik ere ez din ziurtzat jotzen...

Martxan jarri nuen kafetera.

– Burutazio bat zebilkidak egunotan, Luka, baina ez diat zakur-ametsik egin nahi.

Erne begiratu zidan.

– Ni ez nauk gaixo sentitzen.

Zutitu, besoak ireki eta sakon hartu nuen arnasa.

– Orain dela aste batzuk baino askoz hobeto hago.

Kafeterari sua jaisteko bere aurretik igarotzean ipurdiko leun bat eman zidan.

– Haragi pixka bat falta zain oraindik baina...

– Ez nauk medikatzen ari eta, hala ere, nire defentsek nabarmen egin ditek gora. Azken analisietan 1.000tik gora neuzkaan CD4ak, pertsona osasuntsu askok baino altuago. Kandidiasia izan nuenean ere defentsak 800ean neuzkaan. Beraz, ez zuan eritasun oportunista bat izan.

– Ez din zentzurik.

– Zer pasatuko zen onddo-infekzioa sendatzeko botika errezetatu zidan medikuak beste probarik eskatu izan ez balu?

– Eskatu egin zinan, ordea.

– Zer pasatuko zen?

– Ez zakinat.

– Bestelakoak lituzkek orain gauzak.

– Seguru asko, bai.

– Momentu honetan kandidiasia sendatuta izango nikek eta defentsak kopuru normaletan.

– Eta diagnostikorik ez.

– Batez ere, hori. Medikutara duela bi hilabete joan beharrean gaur joango banintz, gehien-gehienera seropositiboa izango nindukek.

– Edo ezta hori ere.

– Probarik ere ez lidaketek egingo.

Mahai gainean utzi zuen liburua.

– Badakin? Jateko modukoa hago.

– Hiri ez zaik apetitua joan.

Kafe-makina sutatik apartatzera jaiki nintzen. Lukak nire atzean zutitu eta elastikoaren azpitik ferekatu zizkidan bularrak. Gogortzen sentitu nituen titiburuak.

– Goazen gelara.

Ohean etzan ginen. Luze laztandu ninduen. Begiak itxi nituen. Diagnostikoaren egunetik ez nintzen sexuan iniziatiba hartzeko gai izan. Ferekak erresistentziarik jarri gabe hartzea bera erronka bilakatu zitzaidan. Egiten utzi nion. Sabela musukatu zidan. Orinak.

– Kasiopea –xuxurlatu zidan.

Kuleroaren ertzak miazkatu zizkidan. Agian orgasmora irits nintekeela pentsatu nuen. Unibertsoa nire hankartean kontzentratzeko ahalegina egin nuen. Izterraren barrualdeko oreztak listuz busti zizkidan.

– Andromeda.

Kuleroaren ehun beltzaren gainetik miazkatu zidan alua, poliki, arnasa emanez bero. Buruari plazerean eusteko agindu nion. Izarei heldu nien.

– Oraintxe natorren.

Begiak ireki nituen. Mesanotxearen aldamenean zutik preserbatiboa jartzen ikusi nuen Luka. Begiak itxi eta lehengo puntura itzultzen saiatu nintzen. Hatzak eraman nituen alura, lehen aldiz dena aldatu zenetik. Malkoak atera zitzaizkidan.

Luka sentitu nuen aldamenean. Malkoak edan zizkidan eta ahoa bilatu zidan ahoaz. Kuleroak erantzi nituen. Nik ere gogoa nuela adierazi nahi nion. Nire izter artera itzuli zuen burua. Usaindu egin ninduen, musu eman zidan, mihiaz ferekatu zidan alua behetik gora, tartean azpiko arroparik eta maindirerik gabe, estreinakoz.

– Kontuz.

Nire gainean etzan eta lepoa eta belarria jan zizkidan. Tximetatik heldu eta musu eman zidan. Lukaren zakila sentitu nuen nire kontra.

– Geldi.

– Lasai.

– Ezin diat.

Baginako giharrak tenkatu zitzaizkidan bat-batean, eta presiorik txikienak oinazea eragiten zidan.

– Poliki-poliki egingo dinat.

Saka egin zidan pixka bat.

– Kentzeko!

Bultza egin nion. Izutu egin zen. Niregandik apartatu eta ohe ertzean eseri zen.

– Barkatu, Luka.

– Ez dun ezer.

– Denbora behar diat.

– Lasai.

Bere atzean belauniko jarri eta bizkarra laztandu nion.

– Zergatik ez duk hik jarraitzen?

Musu eman nion lepoan, errudun sentitzen nintzen gure sexu-saiakera bakoitza sabotatzeagatik.

– Ez, etzan hadi –eskatu zidan.

– Hi ikusi nahi haut gozatzen.

Elkarrekin geundenetik nire plazer elbarrituaz arduratzen zen.

Bera ohe ertzean, ni atzean belauniko, bularra eta sabela ferekatu nizkion. Zakila sumatu nion berriro zutitzen.

– Egidan hik –eskatu zidan.

Listua irentsi nuen. Ez nion zakila ukitu atxiloketen gau hartatik. Burua bere sorbaldan etzan eta, begiratu gabe, Luka masturbatzeari ekin nion. Azkar bizkortu zitzaion arnasa. Askatu egin nuen.

– Segi! –erregutu zidan.

Korrika atera nintzen gelatik. Komunean sartu eta giltzaz itxi nuen atea. Ezpainak hozkatu nituen. Mina sentitu nahi nuen. Negarrez, nire zotinen artean aditu nuen Lukaren hasperen laburra.

Larunbatetan Lasaldetik herriaren erdigunera jaistea benetako abentura zen guretzat.

– Kontuz xiringekin –abisu ematen ziguten kalerakoan.

Nire adineko neska gehienek nahiago izaten zuten nerabezaroa betiko etxarteetan katigatu, trenbidearen eta errekaren arteko espazio egunerokoan zedarritzen zituzten gorputz ernatzen hasiak, baina nik irrikaz eta artega itxaroten nituen zapatuak, eta auzoko mutil zaharragoekin jaisten nintzen herrira. Niretzat ohiko lekuak zirenak, Ataka, gaztetxea eta bien arteko porlanezko eremu hondatua, gudu-zelai bilakatzen ziren zazpi egunean behin: gaztetxeko kontzertuetara hurbiltzen ziren punkiek ingurua osorik betetzen zuten gandorrez, txupaz, edalontziz eta azantzaz. Atakara eta gaztetxera joan-etorrian ikusten genituen gorputz haiek besteak ez bezala mugitzen ziren, bestelako

esanahiak sortzen zituzten: pauso luze eta astuneko ibilera, bankuen bizkarraldean esertzeko modua, hormaren kontra bermatuta zigarroak erretzeko era...

Pipak erosi eta ibaiaren ondoko petrilean esertzen ginen Lasaldeko neska-mutilak, oinetakoekin zerbeza-katxi hutsak ostikoz jotzeko moduan. Sudur-zuloetara iristen zitzaigun kea usaindu eta zigarroak eta porroak bereiztera jolasten ginen. Bazen taldean usainetik marihuana eta haxix-kanutoak ezberdintzen zekienik. Bat-batean, gaztetxearen atzeko errepidetik zetozen sirena-hotsak entzuten genituen, edukiontziren bat sutan hasten zen; oihuak entzuten genituen, polizia-furgoien argiak etxe-aurreak etenka tindatzen, norabide guztietan korrika gazteak, zapiz estalirik aurpegiak. Lasterka urruntzen ginen su-zelaitik eta, tiro- eta kolpe-hotsak hasterako, erretagoardiako posturen bat hartzen genuen txiklea mastekatzeari utzi gabe. Inork ezer azaldu aurretik jakin nuen ni gerra hartan zein alderditan nengoen, eta, ume-umetatik aitaren laguntzaz nire hiztegiaren parte ziren manifestazio, pintada, barrikada, *madero* eta antzeko hitzei beste hainbat gehitu nizkien –koktel, borra, beltz, pilotakada, zipaio, *conejera*...–, eta baita, hitz berri bakoitzarekin, nire

buru barruan lurralde bat konkistatu izanaren sentsazio zirraragarria ere.

Gero igandeak iristen ziren, bezperako guztia inoiz existitu ote zen zalantza sortzen zuten egun motelak. “Geure buruaz beste egiteko egunak”, deitzen genien txantxetan. Suizidioa ez zen kontu arrotza. Gogoan ditut euren burua trenaren azpira botata akabatutako bi edo hiru –haietarik bat emakumea, seme-alabei eta senarrari bazkaria mahaian prest utzi ondoren suizidatu zena 11:23an–; bere etxearen aurreko orubean eraikitzen ari ziren etxe-blokeko garabitik zintzilikatu zen gizona, zangoak emaztearen balkoiaren paretsuan gelditzeraino dilindan; ehizako eskopetarekin bere burua lehertuta auto barruan aurkitu zutena; bederatzigarren solairutik jauzi egin zuena, eta beste hainbat, jolas-orduetako gure hizketagai bihurtzen zirenak biharamunean.

Iraganeko igande gehienak igande bakar eta lodi bat balira bezala oroitzen ditut, baina badut bat apartatzekoa: domeka zen gaztetxera sartu eta barran baso bete ur eskatu nuen eguna. Atakara bidean, aspaldi buruan nerabilena egitea erabaki nuen. Norakoa aldatu eta gorriz margoturiko eraikinera sartu nintzen ur eske. Gaztetxea barrutik ikusten nuen lehen aldia

zen. Espero baino argitsuagoa iruditu zitzaidan, errekaren soinua hain garbi aditzeak harritu ninduen. Lurra lika zegoen, sudur-zuloetara zapatak lurrera baino gogorrago itsasten zen usaina giroan. Musikarik ez. Gizon bakarra zegoen barra ertzean, argala eta ileluzea, bularra agerian eta txaleko bat soinean.

– Ura emango didazu?

Zaharra iruditu zitzaidan, apenas izango zituen arren hogeita hamar urte. Zer esan ez nekienez, ura edan, eta kanpora abiatu nintzen segituan. Orduan entzun nuen nire bizkarrean:

– Karmenen iloba?

Hamalau urterekin hasi nintzen Atakan lanean, amarekin eta Angelekin batera txandak egiten. Amari pintxoak prestatzen laguntzen nion, baina nahiago nuen barra. Zigarro bat piztu, gustuko musika jarri, eta haren erritmora lan egitea, barraren atzean gu, eta beste aldean erdipurdiko mundua.

Institutuko lehen urtea zen. Urruzunoko neska-mutilak Herri Eskolakoekin, mojen ikastetxekoekin, ikastolakoekin eta inguruko herrietatik etorritako gaztetxoekin elkartu gintuzten. Lehen begi-kolpean bereizi

nituen zintzoen saldoa eta errebeldeen bazter multzoa, eta ukaldi bakarrean ulertu, bietatik zein zegokidan niri. Errebeldeen multzoan ere baziren bi bando: grebak, bilerak eta manifestazioak antolatzen aritzen ziren kapusaidunak batetik, nik errebelde ideologikoak izendatu nituenak; eta bakalaoaren eta elektronikaren mobidan murgilduta zeuden galtzazabalak bestetik, ikasgai guztiak suspenditzen zituztenak, A eredukoak, emigranteen seme-alabak, Lasaldetik ezagutzen nituenak, bazterreko errebeldeak. Segituan ohartu nintzen bi taldeen arteko ezinikusiaz, baina niri biak zitzaizkidan erakargarri eta gertuko: zapalkuntzak eragindako amorruaren aldakiak iruditzen zitzaizkidan. Ke artean ezagutu nuen Peru. Ideologikoetakoa zen. HBko politikari baten semea.

– Hi ez haiz ikastolakoa –esan zidan–. Ez haut ezagutzen.

– Urruzunokoa.

Peruren gurasoek herriko tabernan lan egiten zuten, eta arratsalderen batean hara agertzeko gonbita egin zidan. Institutuko motxila bizkarrean sartu nintzen lehenago sekula zapaldu gabeko tabernan. Berriketan aritu ginen garagardo bana edaten genuen bitartean, gurasoak aurkeztu zizkidan.

– Ezagutzen al ditun? –galdetu zidan barraren gaineko argazkiak seinalatuz.

Lotsatuta sentitu nintzen; ez hainbeste aurpegi zurbileko gizon-emakume haiek ez ezagutzeagatik, ezpada erabat ezjakin sentitu nintzelako Euskal Herriaz eta borroka armatuaz hitz egiten zidan gaztearen eta haren familiaren aurrean.

– Aita ere sasian eta kartzelan egon zunan.

– Sasian?

Izaki bitxi bati bezala begiratzen zidaten, kuriositate abegikorrez. Tabernako dekorazioa arrotza zitzaidan: arrano beltzarekiko bandera horia; izarrak, aizkorak, nor zen ez nekien gazte betaurrekodunaren silueta. Nire durduzak Peruri grazia egiten ziola zirudien.

– Baina, hi non bizi haiz?

– Lasalden.

Eskola-orduetan piper egiten eta institutu atzeko poligonora joaten hasi ginen. Belar zakarreko zelai batetik behera jaisten ginen industrialdera. Urte gutxi lehenago jonkiek habitatzen zuten zubipe batetik igarotzen ginen. Tailerren teilatuetan bizi ziren arrain laranjei begira egoten ginen. Euri-putzuetan askatzen zituzten langileek arrain industrialak.

Porroak erretzen genituen bitartean Peruk eskuorriak eta artikuluak pasatzen zizkidan irakur nitzan, eta nire hiztegia zabaltzen eta antolatzen hasi zen berriro. Testuak azpimarratzen nituen, zalantzak argitzeko eskatzen nion Peruri. Amnistiaren giltzaren pina oparitu zidan eta unean bertan ezarri nuen paparrean, aitak oparitutako *Mili* KK txapa antimilitaristaren eta han-hemendik jiraturiko Egizanekoaren, *Nuklearrik ez!*-ekoaren eta Che Guevararenaren ondoan. Zenbait arratsaldetan, nire kabuz liburutegira joaten nintzen marxismoaz, ETAren historiaz eta Euskal Herriko zein mundu zabaleko iraultzez, bibote eta bizardun liderren bizitzaz irakurtzera. Ez nintzen irakurle diziplinatua: jauzika igarotzen nintzen liburu batetik bestera, hango eta hemengo txatalekin josiz nire mapa ideologikoa; izenak, lekuak, datak pilatuz desordenan.

Peruren ahotik ezagutu nuen Jarrai. Militantzia, herria, borroka armatua, iraultza, sozialismoa, gerra zikina, sasia, ekintzak, preso politikoak, gutarrak, vis a visak...

– Nire izeba ere kartzelan egon zuan –aipatu nion behin.

Interesa eta irrika nabaritu nizkion aurpegian, pixkanaka itzaliz joan zirenak, nik izeba Karmenen istorioaren xehetasunak aletu ahala.

– Hori desberdina dun.

Gaitzitu egin nintzen.

– Hik “komunak” deitzen dituan horiek ikaragarri politikoak iruditzen zaizkidak, ba, niri. Hire aitak ez al dik azaldu heroina helburu politikoetarako erabili zela?

Industrialde hartan bertan zulatzen zituen zainak Karmenek. Hantxe aurkitu zuten herrian gaindosiz hildako lehen gaztearen gorpua.

– Goxokiak baino errazago lortzen zitean hemen, permisibilitatea erabatekoa zuan. Haxixaren kontrako operazio txikietan entretenitzen zituan poliziak, zaldiak bridarik gabe korritzen zuen bitartean. Aitak guardia zibilak ikusi zitian Deban droga banatzen. Drogak ez dituk jendeak uste duena. Drogen aurkako operazioak falazia hutsa dituk. ETAk zerbaitegatik akabatu izan ditik trafikanteak. *Amonal o metralleta, traficante a la cuneta.* Belaunaldi oso bat garbitu zitean, hain justu, trantsizioaren ipuina irentsiko ez zuena. Informatu hadi.

Rolak itzulikatu genituen. Arretaz aditu zidan Peruk.

Arratsaldean barkamen eske etorri zitzaidan etxera. Lasalde zapaltzen zuen lehenbiziko aldia zela aitortu zidan; gure auzoan sekula izan gabea zen.

– Hemen ere baduk sasia franko.

– Arrazoi dun, ez ninan hire izeba gutxietsi behar.

Amamari fotokopiatutako zenbait artikulu pasa nizkion, Poliziaren jokabide interesatuak salatzen zituztenak heroinarekiko. Amerikako Estatu Batuetan crackarekin gertatuaz mintzatu nintzaion:

– Beltzak mendean hartzeko jukutria izan zuan. Kokaina eraldatu eta crack harri bihurtzen zitean, koka baino 15 aldiz merkeagoa. Beltz pobreek huraxe kontsumitzen zitean, Poliziak atxilo hartzen zitian. 5 gramo crack edo kilo erdi kokaina edukitzeagatiko zigorra berbera zuan. Ondorioa: kartzelak crack kontsumitzaile beltzez bete zitiztean, kokainomano zuri aberatsek literalki sudurraren puntan jartzen zitzaiena egiten zuten bitartean.

Harrituta begiratzen zidan.

– Amerikarrak gerran hasten diren herrialde guztietan egiten dik gora droga-kontsumoak.

Mutila liluratzea lortu nuela ohartu nintzen. Graduz igo ninduen pertsonak sailkatzeko bere eskalan, begiradan antzeman nion.

Ni ere pentsatzen aritua nintzen, eta Peruri Jarrain militatu nahi nuela esateko asmoa neukan. Ilusioa egiten zidan auzoan abertzaletasunaren eta, batez ere, sozialismoaren alde lan egiteak. Baina aurrea hartu zidan.

– Hirekin maiteminduta nagon.

Zur eta lur utzi ninduen, ekarri berri zidan *Manifestu komunista*ren alea eskuan. Bion artean erretzen ari ginen porroa amaitu genuen eta, ezer esaten ez nionez, alde egin zuen. Ni ez nintzen Jarrain sartu eta Lasaldera ez zen, denbora luzez, aldarri abertzalerik iritsi.

Goizerdian Iurrindegira bila etorri zitzaidan Irantzu. Kazetari-lanik topatzen ez, eta enkarguzko itzulpenlanak egiten hasia zen, prezio nahiko miserablean. Alde ona: bere kasa antolatzen zuen lan-ordutegia eta ia beti zegoen libre kafe bat hartzeko. Hitz batzuk egin zituen amarekin Alemaniatik iritsi berri ziren esentzia-lurrungailuen inguruan.

– Hurrengoan hartu behar dut bat etxerako –esan zion–. 50 euro zenbat karaktere diren kalkulatzen dudanean.

Xentimo-erdira ozta iristen ziren karaktere haiek pilatu beharraren pilatu beharraz, nahita esaldi luze-bihurriak osatzen zituela aitortu zion.

– Gero jendeak ez omen ditin euskarazko itzulpenak entenditzen.

Arratsaldera arte jai eman zidan amak.

– Nora joango gara?

– Toki diskreturen batera.

Azken aldian Bilbo ezagunak enbarazu egiten zidan.

– Sanfran?

Erriberako merkatuaren pareko geltokirantz nuen nahiago.

– Tranbiaz?

Ez genuen sekula tranbia hartzen.

– Merezi din okasioak.

Guggenheimeko geltokian jaitsi eta oinez abiatu ginen Indautxurantz. Erdaldunagoa, aberatsagoa eta hiritarragoa zen han jendea.

– Zer iruditzen?

Harrituta begiratu zion Silken Indautxu hotelaren etxaurre konbinatuari. Estilo bilbotarreko jauretxea eta beirazko eraikin distiratsua bat eginda XXI. mendehasierako “tradition and modernity” joerari erantzu-

ten zion. Nortasun-bilaketa akonplejatua eta antzua, baina salgarria.

– Utziko al digute sartzen?

Ateari bultza eta, marmolezko eta egurrezko harrera zabalean barrena, kafetegira jo nuen.

– Hemen izana haiz lehenago?

– Aspaldiko maitale baten kortesia.

– Ohean ere sozialista hintzela uste ninan.

Besaulki gorrien eta kristalezko mahaien aldameneko pasabidetik aurrera gindoazen.

– Ia beti.

Kafetegian, bufeterako beranduegi esnatu ziren adultero itxurako bikote pare bat baino ez barran. Txokoko mahaia hautatu genuen, kalera ematen zuen atearen aldamenekoa.

– Bi ebaki deskafeinatu esne hotzarekin eta sakarinarekin, mesedez.

Algara bat ito zuen Irantzuk.

– Beti izan dinat esaldi hori bota ondoren zer sentitzen den jakiteko gogoa.

– Bat olo-esnearekin egiteko esatea ahaztu zain.

Mahaira ekarri zizkiguten kafeak.

– Ez daukan zertan kontatu, nahi ez badun.

– Horretarako deitu ninan.

Kikara bi eskuekin bildu eta adi jarri zitzaidan.

– Uda hasieran izan zunan, Kaietekin amaitu eta gutxira. Ez ninan uste hain erraz ahaztuko ninduenik.

– Ez al huen, ba, heuk utzi?

– Itzuliko zelakoan.

– Ez hadi umea izan.

– Kutrea dun, bazakinat.

– Erabat.

– Norberaren kutretasunaren kontzientzia dun giza garapenaren maila gorena.

Feminitatea galdu gabe hura doiki zedarritzeko momentuko modari jarraituz larru-narras ebakita zeukan belarri gaina seinalatu nion.

– Zirauna.

– Harira: Kaietek alde egin berritan Mizeli deitu nionan.

– Nor da Mizel?

– Duela ia hamar urteko maitale bat.

– Gogoratzen naun, denontzako gosaria prestatzen zinan pisura etortzen zenetan. Aita izan zela entzun ninan.

– Bost urteko alaba din.

– Eta?

– Sexu nostalgikoa izan geninan pare bat aldiz. Itzela dun, baina aje txarra uzten din.

– Bihotzerrea.

– Emaztearekin leial izan nahi zuela esan zidanan.

– Ezkonduta dago?

– Orain haurrengatik egiten diten.

– Gustukoa huen mutil hori?

– Nire sexu-bizitzako gailurra, zalantzarik gabe.

Esan ahala konturatu nintzen benetan hala zela. Ez nuela sekula inor mutil hura adinako intentsitatez eta bestelako interferentziarik gabe desiratuko: pultsio hutsez, kontrolik gabe, erruduntasunaren, etsipenaren edo nekearen lastatik salbu.

– Badakin nire harrokeria nire gainbeherarekiko proportzionala izaten dela beti, ezta?

– Esponentzialki proportzionala.

– *Femme fatale* bat izatea erabaki ninan.

– Beti izan haiz apur bat *femme* eta definitiboki *fatale*...

– Fatxada hutsa. Azkenean beti maitemintzen nindunan, eta ia beti lagunekin.

– Edo lagunen lagunekin –zehaztu zuen.

– Gutxi-asko, maite nuen jendearekin.

– Orduko hartan kontrara izan zunan.

Kutsatzea gertatu zen gaua koagulu desatsegin bilakatzen ari zitzaidan.

– Badakin lurrindegia zabaltzeko Ataka saldu behar izan genuela uda hasieran. Di-da egin geninan. Momentuan, jaioterriarekiko zilbor-heste sendoena eten izanak ez zidanan zirrara berezirik eragin. Akaso ez nindunan ohartu erroak erauzten ari nintzela. Baina handik gutxira herriko lagunekin mozkortzeko gelditu nindunan aspaldiko partez, eta ezin ninan aukeratu zer edan ere.

– Identitate-krisia.

– Mirenekin akordatu nindunan: irratia utzi eta ama izan berritan esan zigunarekin.

Ez zen akordatzen.

– Haurra motxilatxoan paparraren kontra zeramanean babestuta sentitzen omen zunan. Lehenago biolentoak zitzaizkion egoeretan, mutil erakargarrien begiradaren aurrean adibidez, seguru sentitzen zunan umea garraio.

– Balen aurkako txalekoa?

– Kuadrillakoekin ere, aspaldi ikusi gabeko lagunekin, lekuz kanpo sentitzen zunan ama izan arte. Haurrarekin ez omen zunan inon arrotz sentitzen.

– Kuriosoa.

– Ba nik oso ongi ulertzen dinat: niri barrarekin gertatzen zitzaidanan.

– Ordezko identitate ohikoa dun, amarena –esan zuen pentsakor.

– Ordezko identitateak nahi adina zauden.

– Ataka gozotegi-kafetegi bihurtuta zegonan frankizia baten eskuetan. Atsoak eta gurditxodun emakumeak ari zitunan terrazan kafea hartzen.

– Kafetegi amatiarrak.

– Gorputz atal bat ebaki izan balidate bezala sentitu nindunan. Erabateko identifikazioa ninan tabernarekin.

– Hi Atakako alaba izango haiz beti.

– Bat-batean nobiorik, amoranterik eta tabernarik gabeko Nagore nindunan; deus gutxi.

– Arriskutsua dun identitateei atxikitzea.

Harritu egin ninduen Irantzuk halako zerbait esateak, ez nuen uste identitate-modu guztiez hala pentsatzen zuenik. Aberriari atxikia sumatzen nuen nik. Hizkuntzari. Ezkerreko ideologia zenbaiti. Hizketan jarraitu nuen:

– Herria huts-hutsik zegonan. Exodo totala. Zaharrak, elbarriak, zaintzaile hegoamerikarrak eta familia pobreetako seme-alabak bakarrik gelditzen gintunan.

– Far west.

– Ibai ertzeko tabernak korritu genitinan: desagertzeko arriskuan dauden azken zulo beltzak.

– Benetako tabernak.

– Katakonbak.

– Tabako- eta leize-usainekoak. Han bai, han oraindik posible dun intimitate zikina.

– Lurpeko galeriak giza zizareontzat.

– Zorionekoak.

Taberna gautarrak defendatzea nire burua defendatzea zen. Ron txupito bat eskatu nion zerbitzariari, *on the rocks*. Ipurdi zabaleko edalontzi pisutsu batean ekarri zidan, baso-azpiko dotore baten gainean.

– Etxean nengonan, zenbat eta mozkorrago, etxekoago. Kanpoan ibai errakitikoa hezurrak bistan, heroinari biziraundako barmanak kañeroetan, speed-arrastoak konpresa-edukiontzietan...

– Hire habitatean.

– Eta bafleetan Tina Turner: *rolling on the river.*

– Brutala.

– Dantza-pistan jende berria zegonan: herritik alde egin genuenean oraindik umeak zirenak. Z belaunaldia. Gu, barran. Zerbezekin hasi, konbinatuekin segi eta tekila txupitoei ekin nienan. Zer erabaki ez nekie-

nez, dena nahastu ninan. Nacha Pop jarri zutenean neskak pistara atera gintunan. Ze kristo, *La chica de ayer* jarri zitenan eta antzinatasun-plusa kobratu behar geninan. Eta han zegonan bera.

– Herrikoa al da?

– Ez.

– Tipo gazte bat, ni baino hiru edo lau urte gaztea-goa, bistaz ezagutzen ninan tabernatik, sekulako ai-tzurrarekin. Esku bat sabaira luzatuta, balantza egiten zinan pistaren alde batetik bestera. Ez zunan bereziki ederra, erakargarria izan zitekeen edo ez. Atzetik hur-bildu zitzaidanan, dantzan hasi gintunan. Herriko ta-bernak itxitakoan kostaldeko dantzaleku batera joan gintunan. Taxia hartu genuela pentsatu nahi dinat, ez naun gogoratzen. Dantzan jarraitu geninan eta musu eman zidala uste dinat. Dantzalekua zarratutakoan ez zakinat nola itzuli ginen herrira, han nik kotxea hartu ninan, etxera neuk eramango nuela esan nionan tipo-ari. Ez zunan urruti bizi. Garbi neukanan ez nintzela haren pisura igoko, nekatuta nengonan, total egina... Baina igo egin nindunan, auskalo zergatik. Lardaskan hasi gintunan, normal, tira, izugarrizko aitzurrarekin... eta txortan hasi orduko –geldialdi bat egin zuen– tipoa lokartu egin zunan.

Gutxitan lotsatzen nintzen nire abentura sexualez.

– Imajinatu nolako kolpea niretzat.

Garrantzia kendu zion.

– Oso mozkortuta zeundeten.

– Aurpegira listua bota izan balit ez nindunan okerrago sentituko.

Gaitzespen-keinua egin zidan.

– Tu egiten dinanari muturreko bat ematen dion; baina ze arraio egiten zaio seko gelditu denari?

– Bakean utzi.

– Ba, nik, idiota naizenez, nire buruari erronka jo behar nionez, nire buruaren gainetik pasa behar naizenez beti..., alde egin beharrean musuka hasi nintzaionan, miazka, pixkanaka jaisten... zakila murtxatzen hasi nintzaionan, esnatuko nuelakoan. Luze jardun nintzaionan, hilak suspertzeko moduko xurgaldia egingo niolakoan. Baina morroiaren zakilak xixarea baino bigunago jarraitu zinan. Eta momentu batean, joder... nire burua ikusi ninan kanpotik: ni tipo mozkor hari zakila jaten eta hura lo, eta orduan izan zunan, usain higuingarri bat etorri zitzaidanan, izugarrizko nazka sentitu ninan, zapore txarra eta goragalea.

Gogoratu nuen Irantzuk behin aitortu zidala berari ez zitzaiola zakilak miaztea gustatzen.

– Handik apartatu, nire gauzak hartu eta arrastaka atera nindunan, inoizko gutxiagotasun-konplexu handienarekin.

– Nagore.

– Usainarekin eta zaporearekin gogoratzen naun.

Ezin izan nuen nazka-keinua saihestu.

– Momentuan sentitu nuen balio-galera ez zagon azaltzerik. Inoiz ez naun hain umiliatuta sentitu.

– Erotuta hago? Tipoaren mozkorrak zer zerikusi zaukan hirekin?

Kanpora irteteko keinua egin nion, zigarro bat erretzera. Hoteleko tabernako ateak kale-kantoi argitsu batera ematen zuen.

– Egoa ukitu zidanan, eta autoestimua, eta dena.

– Ezin dun heure burua gizonen desiraren arabera neurtu.

– Beranduegi.

Kafetegiko bezeroetako bat gure atzetik atera zen; emakume tutu-gonadun bat, gorriz tindaturiko ile lisatu berriarekin. Xanpu usaina zerion. Sua eskatu zigun. Zigarro mentolatuari bi atxiki eman eta itzali egin zuen.

– Nazka izan zunan gakoa. Handik gutxira hasi nindunan eztarriko kandidekin.

– Harreman haren ondorioz izan zela uste al dun?

– Ez dinat sekula aho-sexurik izan gau bateko txortaldietan, beroaldietako larru-pasaretan apaingarririk gabe egiten dinat txortan. Larru-jotze inpertsonalak izan ditinat, baina niretzat aho-sexua zerbait intimoa dun... Ez zakinat zergatik egin nion. Bai: lo gelditu zelako. Baina usaina, usaina izan zunan... Medikuak diagnostikoa aipatu orduko berritu zitzaidanan kirats hura... biriketaraino sartu zitzaidanan.

– Orduan kutsatu hintzen?

– Bai.

– Baina tipoak, lo zegoela, isuri egin zuen?

– Ez dinat uste.

Nahastuta begiratu zidan Irantzuk.

– Baina tipoa seropositiboa da?

– Bai.

– Nola dakin?

– Berak esan zidan.

Irantzuk ez zuen galdera gehiago egin, eta eskertu nion, akituta sentitzen bainintzen. Kontua eskatu nion zerbitzariari.

– Gelara kargatuko dizuet –esan zidan–. Zenbakia?

– 304.

Eguerdiko eguzkitara irten ginen.

Aitak Madrilera alde egin zuenean, Lasaldera itzuli ginen 94ko udazkenean eta amaren tristurak etxe osoa bete zuen. Nik fisikoki jasan nuen abaildura haren presioa: hormetatik gertu ibiltzen nintzen, ahalik eta espazio gutxien okupatuz. Zeinahi ordutan, zeinahi toki eta jarreratan ikusi nuen ama negarrez: sukaldean zutik, komunean eserita, ohean etzanda, korridorean belauniko, lurrean deseginda... Nire tristurarentzat ez zen tokirik gelditu. Aitak telefonoz deitzen jarraitu zuen, eta amaren ahotsaren aldaerak ezagutu nituen: marruka, erreguka, irainka, arrastaka, mutu. Batzuetan, aitak amari nirekin hitz egiten utz ziezaiola eskatzen ziola iruditzen zitzaidan, gelan giltzapetzen nintzen horrelakoetan.

Amarekiko harremana aldatu egin zen. Izan erruki niolako, izan haren premia nuelako, hurbiltzen saiatu nintzen. Haren gorputzari beldurra niola egiaztatu nuen orduan: amaren haragira hurbiltzeari eta hartatik urruntzeari beldurra.

Elkarrekin lo egiten hasi ginen. Goizetan ohean uzten nuen, neure gosaria prestatu eta gosaldu ostean eskolara joaten nintzen. Udazkenaren honda-

rrean lanera itzuli zen, eta, Atakatik etxeratzerako, afaria pronto edukitzen nion. On egiten zidan ama zaintzeak. Garai hartan hasi ginen elkarrekin erretzen. Bera beti zegoen goibel, ez zion bere buruari beste aldarterik onartzen, eta harentzat alternatiba bakarra tristura zela sinestera etsi nuen nik.

Konpartitzen genituen afaloste abaildu haietako batean hartu nuen erabakia: Atakaren kargu egingo nintzela iragarri nion, bion artean banatuko genituen ardurak. Ez nuen ezeri eusteko gai ikusten, egoera likidoan zegoen. Ez zidan aurka egin; bere begi urdin handiekin tinko begiratu zidan esker onezkoa iruditu zitzaidan isiltasunetik, besterik ez.

Handik aurrera tandem bat osatu genuen: bion artean banatu genituen lanorduak, eta nik hartu nuen larunbatak eta festa-egun konplikatuak aurrera ateratzeko taldea osatzeko erantzukizuna. Hamalau urte bete nituenerako, legez ez baina praktikan biok ginen tabernaren hipotekaren, etxeko gastuen, Atakako eskarien eta langileen ordainketen arduradun. Soldata bera kobratzen genuen. Amak nekatuta jarraitzen zituen nire pausoak, haren nekeak propultsatuta bizi nintzen ni. Hura likidoa izateak ezinbestean solidifikatu ninduen.

Piti deitzen genion bat hasi zen tabernan edalontzi-biltzaile, DJ Santos jarri nuen musika-kabinan, Angel, ama eta hirurok goiko barran. “Katakonba” gaztetxo-entzat zabaltzen genuen, kuadrillako bi mutil guapoe-nek zeramaten barra, musika patxangeroaren erritmora melokotoi-likorea erruz zerbitzatzen zuten nera-been artean. Larunbat bazkalosteko hiruretan Sokoa tabernan elkartzen ginen. Kalimotxo bana edan, eta Piti eta biok Atakara abiatzen ginen gudu-zelaia anto-latzera. Argiak itzaltzen genituen, fokuak pizten, eta bozgorailuak dardarka jartzen genituen gorputz-ada-rrak inarrosten zituen bakalaoarekin. Progressive, techno, house. Trenaren ordutegiaren arabera lan egi-ten genuen, bazkalostean herrian uzten eta 22:00etan herritik eramaten zuen jende oldearen zerbitzura. Bostak alderako iristen zen ama, eta White Label whis-ki txupitoak eta Coca-Cola kamuflatuak edaten geni-tuen lanean ari ginen bitartean. Porroak eskuz esku ibiltzen ziren, errenkan erretzen genituen zigarroak eta biltegian prest izaten ziren speed-arrastoak. Nik ez nuen, lanerako, sudurrik zuritzen. Amak ere ez. Azkar egiten genuen lan. Hasierako urteetan trago txikiak

ateratzen genituen barra-barra: zuritoak, kañak, klarimostoak, kalimotxoak... eta haxix usainak betetzen zuen taberna. Baina, ohartzerako, konbinatuek ordezkatu zituzten ardoa eta zerbeza; anfetaminek eta LSDak, haxixa; eta billeteek, txanponak. Adrenalina eta alkohola izerditzen genituen alienatzeraino. Elkarri ia hitzik egin gabe komunikatzen ginen. Nik atezuan egiten nuen lan, erne, zalu, nor eta non zapaltzen duen badakienaren ziurtasunarekin. Eskuak ezkutatu egiten nituen, azazkalak jateagatik haragi bizitan bainituen hatzak, eta segurtasun falta salatzen zutela iruditzen baitzitzaidan. Ahulezia, autolesioa, urduritasuna, arazoak larru-bistan. Ez. Begira ziezadatela begietara; zeharkaezintzat nituen. Begiratu hutsarekin ulertarazten nien dena lankideei eta bezeroei. *Oraintxe noak; barka, lanpetuta nagon; alde paretik; ez dun hire txanda; bazakiat gustuko nauala; azkena izan dadila; akabatuko haut; ez haiz ordaindu gabe joango; nekatuta nagon; zerbitza iezaiek hik, ez ditiat jasaten; egurra ari gaituk jasotzen gaur; atera txupito bat!; pasa zigarroa...* Gaueko hamarretan bakalaoa kendu eta nire gustuko musika jartzen nuen. Pause.

Umeak etxeratu orduko iristen ziren erroiak, amaren inguruan karraka jarduten zuten gizonak; putreak,

sarraskijale goseti dorpeak, gazterik abandonaturiko dama eder babesgabearen izterrak mokokatu nahian. Alproja hutsak, herriko parrandazale gautarrak, ezkonduak zein ezkongabeak, bakarrik edateko batere konplexurik ez zutenak. Haietariko bat barrara gerturatzen ikusi orduko, lankideak edo ni amaren aurrean jarri eta “zer behar duk?” galdetzen genion, lehor, amak atzegoardian zigarro bat pizten zuen bitartean. Inguratzen zitzaizkion gizonen gaineko epaia ematen nion, oso kontuan hartzen zuena bestalde, eta ez nik bakarrik, nire kuadrillakoek ere hartzen zuten euren inpresio eta usteak azaltzeko lizentzia. Deskuiduan gizajo haietarikoren batekin kateatu eta istorioa gaizki ateratzen bazen, “nolako arrazoia zeneukan” esanez hurbiltzen zitzaidan bildots zauritua, sekula baino likidoago, begirada zopa-zopa.

Liskarrak ere asteroko liturgiaren parte bilakatu ziren. Kale borroka baretzea eta tabernako sesioak areagotzea, dena bat izan zen. 90eko hamarkadaren amaieran suminak lekuz aldatzea erabaki zuen. Edozein erlijiok kudeatu beharreko pultsioak kudeatzen genituen tabernan: desira, amorrua eta beldurra. Guztiek egiten zuten gorantz arratsaldeak aurrera egin ahala. Eskualdeko periferietako maketokumeak elka-

rren kontra oldartzen ziren; Ikastolakoek eta Urruzunokoek ez zuten, badaezpada, elkar ukitzen; mutilek elkar jotzen zuten “euren neskak babesteko”; neskakuadrillek harresi borobilak sortzen zituzten munduari bizkarka; errebaletako motorzaleek tabernatik gertu aparkaturiko BMWak arraiatzen zizkieten mendialdeko aberaskume euskaldunei. Festaren aitzakian, klasea, aberria, sexua eta bestelako lurralde batzuk defendatzen eta erasotzen zituen nork bere posiziotik, eta klasearen, aberriaren eta sexuaren izenean nork bere amorrua katalizatzen zuen albokoaren aurka. Ni ikaragarri berotzen ninduen horrek guztiak. Neure hira propioa sentitzen nuen zainetan borborka, giharrak tenkatuz eta begiak zorroztuz. Asterik aste, bortitzagoak ziren bultzakadak, ukabilkadak, ostikoak... Kristalezko edalontziek hegan egiten zuten airean eta botila hautsiekin mehatxu egiten zieten batzuek besteei. Borrokak hasten zirenean, lankideak biltegira eraman, musika itzali, argiak piztu, eta ostiaka ari zirenak bereiztera ateratzen nintzen barratik. Bi aldiz pentsatu gabe egiten nuen: elkarren aurka oldarturiko gorputzen artean sartu, atzera bultza egin, eta kamisetaren lepotik helduta ateratzen nituen tabernatik. Behin, lankideak despeditu ondoren Ataka ixtear nengoela, labana ba-

tekin mehatxu egin zidan mutil batek, zer eta berak eskatutako musika jarri nahi izan ez nuelako. Barratik irten, tipoari eskumuturretik heldu, sastakaia lurrera bota eta bultzaka atera nuen, euli bat uxatzen duenaren erabakimen berberaz. Garai hartan ez nuen beldurrik, mekanismo hori erabat desaktibatuta neukan. Fisikoki ere indartsu nengoen; kirolik egin ez arren, garaia eta hezurdura handikoa bainintzen ordurako, eta gihartsu nengoen freskagarri eta likore-kutxak kargatzearen ondorioz.

Gogorrena auzoko ile-apaintzailearen senarrarekin izan nuen, Errastirekin. Tipo kankailua, Errasti, lardeariatzaile nazkagarri bat. Neska pila batekin izan zituen arazoak herrian, ukituak egiten zizkien, eta aurre egiten ziotenak astindu egiten zituen. Begitan hartua neukan, baita berak ni ere.

Mozkorkerian aritzen ziren astebururo senaremazteak: Errasti bera, ehun kiloko gorilatzarra, eta ile-apaintzailea, Mirari, apenas lemur bat, emakume ihar txiki-txiki bat. Guk Ataka lauretan ixten genuen, eta gero barruan gelditzen ginen parrandan eta dantzan goizaldera arte. Horiek izaten ziren momenturik onenak.

Taberna itxita zegoela, ateko pertsiana indarrez igo, barrura sartu eta trago bat ateratzeko agindu zidan Errastik.

– Itxita dago –erantzun nion.

Barre-zantzoka hasi zen: ateratzeko. Nik, ezetz. Mirarik lotsatuta begiratzen zidan. Alde egin behar zutela esan nien. Eta astazakilak ezetz, ez zirela handik mugituko.

– Zure ama bezain atzeratua zara –bota zidan.

Bale. Kito. Ero moduan atera nintzen biltegitik. Angelek heldu zidan bizkarretik.

– Nora hoa?

– Akabatu egingo diat.

Benetan sinesten nuen hil egingo nuela. Eta bitartean tipoa dantza-pistatik niri begira, irainka eta barrez. Faborez erregutu nion Angeli uzteko, askatzeko, nire ama iraindu zuela eta tipo hura akabatu beharra neukala. Azkenean askatu egin ninduen. Errasti ordurako tabernatik ateratzen ari zen, baina atzetik joan eta nire indar guztiarekin zaplazteko bat eman nion. Tuntuna. Ez nuen eskua itxi. Angelek eta kuadrillakoek bereizi gintuzten, eta Errastik ertzainei deitu zien, salatu egin behar ninduela. Sekreta bat gerturatu zitzaidan zer gertatu zen galdezka, eta nik “akabatu egingo

dut” baino ez nion erantzuten. Hark ere barre egin zidan. Polizia hari iskin egin orduko, Errastiren atzetik korrika hasi nintzen berriro, eta petril batera igota haren bizkarrera salto egitera nindoala, gainera etorri zitzaidan Angel, eta lurrera bota ninduen. Utzi balit, koskaka akabatuko nuen.

Tabernako almazenera eraman ninduen dar-dar batean, adrenalinak gainez egiten zidala. Lasaitu nintzenean, kordea galdu nuen.

Gertakari hura laster zabaldu zen herrian. Inguruko tabernetako jabeak zorionak ematera etorri zitzaizkidan, ez bainintzen, itxuraz, tipoak tximetaraino zeukan bakarra. Handik aurrera harraskaren gainean eserita egoten nintzen tabernan, atera begira, badaezpada, eta taberna aurretik igarotzen zen bakoitzean lepoa ebakitzeko keinua egiten zidan inuzente hark.

Aitak, Errasti jo nuela jakin bezain azkar, telefonoz deitu zuen tabernara:

– Joder, nik sekula eman ez diodan ostia, heuk eman behar izan dion azkenean.

Etxean eskolako lanak egiten ari nintzen ilunabar batean atariko txirrina entzun nuen. Leihora arrimatu

nintzen, lagunek beti hantxe itxaroten baitzidaten, baina ez nuen inor ikusi. Norbait ate-joka ari zen. Koadernoa utzi eta atea irekitzera presatu nintzen. Hartz erraldoi batekin egin nuen topo; panpina marroi eta potolo bat zen, garaieran ni adinakoa.

– Akordatzen haiz nirekin? –ahotsa lodituz galdetu zidan aitak, peluxearen atzean ezkutatuta.

Atea danbatekoz ixtekotan egon nintzen, baina ez nuen egin. Bi urte ziren haren berririk ez nuela.

– Amak ba al daki hemen zaudela?

– Bai.

– Geratzeko etorri zara?

– Madrilera itzuli behar dinat, baina laster etorriko naun berriz, gauza asko zauzkanat hiri kontatzeko.

Musu ematera hurbildu zen, atzera egin nuen.

– Asko hazi haiz.

Sukaldera joan eta zigarro bat piztu nuen, lehenengoz aitaren aurrean. Nire atzetik etorri eta beste bat isiotu zuen. Isilik erre genuen.

– Zer moduz eskolan?

– Ez naiz intelektuala, baina tuntuna ere ez.

Ni ikustera eta Atakan ondo ari ote ginen egiaztatzera etorri zela azaldu zidan.

– Zu gabe moldatzen gara: bai etxean, bai tabernan.

Inozokeriez berriketan jarraitu zuen, bezperan elkarrekin egun-pasa egin izan bagenu bezain natural.

– Zertara etorri zara?

Isilune luze baten ostean, leihotik begira hitz egin zuen:

– Angelengatik dun.

– Zer gertatzen da?

Bezperan izana nintzen berarekin, eta ez nion ezer apartekorik sumatu.

– Konkor batzuk atera zaizkion besapean. Hiesak eragindako minbizi larria diagnostikatu zioten.

Hitz bakoitza sabelean ukabilkada bat bezala jaso nuen. Konkorrak. Hiesa. Minbizia. Larria. Aulkitik kolpez jaiki eta bultza egin nion aitari.

– Amak eta zuk bazenekiten Angelek hiesa zeukala, ezta?

Bistakoa zen baietz.

Lukak ekarritako liburuaren bidez izan nuen lehenengoz Christine Maggioreren berri. HIES eta FALTSUA hitzak letra larriz ageri zituen azala zabaldu, eta esker-

tze-zerrenda luzearen ostean, “autorearen oharra” atala zetorren. Lehen paragrafoaren aldamenean, Maggioreren beraren argazkia: auto gorri bateko kopilotuaren eserlekuan ageri zen pare bat urteko semea altzoan zuela, atea irekita eta zangoak kanpora luzatuta, mahukarik gabeko elastiko iluna soinean. Irribarreak ñarroturiko begirada alaidun ilaje beltzeko emakumeari lotu nion segidako aitorpena:

“1992an hiesaren proba deitu ohi zaiona egin zidaten. Ez neukan gaixotasunaren sintomarik, ezta inolako arriskurik edota susmo txarrik ere, baina anbulatorioan egokitu zitzaidan mediku berriak errutinazko osasun-azterketen baitan hiesaren proba ere egin behar zela erabaki zuen. Errutinazko tramitetik bizitza bat-batean mehatxupean izatearen sentsaziora igaro nintzen, emaitzak positibo eman zuenean.

“Hiesaren espezialista batengana bideratu nindu-ten orduan, eta hark, nire probari ez zela positiboa iritzi zion, ez behintzat eztabaidaezintzat jotzeko adina. Berriz eginarazi zidan proba eta, harekin batera, era guztietako laborategi-azterketak agindu zizkidan, kolesterol-mailatik T zelulen zenbaketara. Izututa eta nahasita baina, aldi berean, itxaropentsu irten nintzen kontsultatik, eta hurrengo hitzordura arteko egunak

ongizate-adierazpen frenetikoen eta desesperazio sakonenaren artean eman nituen.

“Bigarren probaren emaitza positibo eztabaidaezina izan zen. Espezialistaren arabera, *nahiko positibo*tik *erabat positibo*rako jauziak berriki kutsatu izana adierazten zuen, nire bizi-zirkunstantziengatik halako gertaera ezinezkotzat jotzen nuen arren.

“Harrigarriki osasuntsu nengoela esan zidan, zorteduna izan nintzela gaixotasuna etapa goiztiarrenean antzemateagatik, baina ez zegoela ezer egiterik birus suntsitzaileari aurre egin eta hiesak eragindako heriotza eragozteko. Bitaminetan eta nire immunitate-sistema indartzeko saiakera absurdoetan dirurik alferrik ez xahutzeko ohartarazi zidan eta, sinpleki, gaixotu arte itxaroteko eta orduan AZTa hartzen hasteko aholkatu: albokalte gogorrak eragingo zizkidan eta are gaixoago sentiaraziko ninduen farmako bat. Bost eta zazpi urte bitarteko bizi-itxaropena eman zidan. Medikuaren kontsultatik irten eta nutrizio-denda batera jo nuen zuzenean. Biharamunean, beste espezialista baten bila hasi nintzen.

“Ordura arte bizitako, pentsatutako eta esperotako bizitza bat-batean gelditu ziren. Interesa galdu nuen nire negozioan, hasita neukan unibertsitate-pro-

grama albo batera utzi nuen eta ezkon-eraztun bat erosi nuen senargai posible guztiak nigandik urruntzeko. Nire tragedia ezkutuan gorde nahi nuenez, familiarekin eta, oro har, jendearekin egoteari utzi nion. Adiskide min gutxi batzuk izan ziren salbuespena. Hiesari buruzko mintegietara joaten hasi nintzen, eta bat egin nuen GIB positibodun emakumeentzako laguntza-talde batekin. Astean behin gure beldurrei eta frustrazioei buruzko oharrak partekatzera, edozein sintoma potentzial aipatzera eta bizitzaren jokaldi makur haren erruz negar egitera bultzatzen gintuzten.

“Hiesaren aurkako aktibismorako errekrutatu ninduten, hizlari. Ia berehala eskola, institutu eta unibertsitateetan hitzaldiak ematen hasia nintzen, GIBa sekula gertatu behar izan ez zitzaion pertsona gisa. Entzuleei barre eta negar eginarazi nien; hunkitu eta izutu egin nituen. *Denok gaude hiesaz kutsatzeko arriskuan* esloganaren haragiztatze bilakatu nintzen.

“Nire diagnostikotik eta haren ondorioz neuregaturiko eginbehar publikotik urtebetera, eta dozenaerditik gora espezialistaren ateak jo ondoren (botikak berehala hartzen hasteko aholkatzen zidaten batzuek; mundua ezagutzera joateko, besteek), hiesaren adituen artean arrarotzat jo daitekeen norbait ezagutu

nuen: diagnostikaturiko pertsonak farmako toxikoz eta iragarpen fatalez betetzen ez zituen espezialista bat. Norbanako modura tratatu ninduen, ez berehalako estatistika nekrologiko gisa eta, hala egitean, nire osasun onaz jabetu zen. Ez nuela hiesdun gaixoaren profilarekin bat egiten adierazi zidan, eta beste proba bat egin nezan presatu ninduen. Itxaropenak alferrik haizatzeko beldur, ezetz erantzun nion. Azkenean, beste behin proba egiteko ausardia bildu nuenean, emaitza *osatugabea* izan zen. Proba gehiago egin nituen, diagnostiko kontraesankorrak eta aztoragarriak eman zituztenak: emaitza positibo bat, eta jarraian, negatibo bat eta beste positibo bat.

“Hizlari gisa kartsuki defendatu izan nituen arau guztiak desafiatzen zituen egoera pertsonalak nahastuta, aktibista gisa lanean niharduen taldeetara jo nuen laguntza bila. Erantzunik aurkitu ez, eta nire galderei entzungor egiten zietela ohartu nintzen. Gauzak behin eta berriz zalantzan jartzeak, zentzurik gabeko azalpenak sortzeaz gain, ingurukoen morala suntsitzen zuen.

“Informazio-bilaketa asegaitzak hiesaren erakundetik harago eraman ninduen eta datu-base zientifiko, mediko eta epidemiologikoetara lerratu ninduen. Datu

haiek hankaz gora jartzen zuten hiesaz ikasi nuen guztia, baita nik besteri irakatsitakoa ere. Zenbat eta gehiago irakurri, orduan eta ziurrago nengoen hiesaren inguruko ikerketa okerreko norabidean zihoan tren bat zela.

“Aurkitu nuen informazioa, bizitzaren aldekoa bazen ere, ez zen ondo ikusia izan hiesaren erakundeetan. Horregatik, 1995ean, zenbait kiderekin batera, erakunde propioa sortzea erabaki nuen, GIBari eta hiesari buruzko informazio ezinbestekoa, ohiko erakundeetan aurki ezin daitekeena, zabaltzen duena.

“Nire heriotza-sententzia jaso nuenetik joan diren zortzi urteetan, biktima izutu bat izatetik hiesaren aktibista izatera igaro nintzen, horren ostean GIBaren disidente bilakatu eta GIBari eta hiesari buruz bestelako ikuspuntuak ematen dituen hizlari izatera pasatzeko. Azken bost urteotan nire GIB egoera definitiboki positiboa izan den arren, osasun oneko nago eta tratamendu farmakologikorik eta hiesari beldurrik gabe bizi naiz.

“1996an gizon zoragarri bat ezagutu nuen eta hiru urteko seme eder eta osasuntsu bat dugu, sekula belarriko infekzio txikiena ere izan ez duena.

“Jende gehienarentzat nire istorioaren gauzarik harrigarriena, hain justu, bakana ez izatea da: iragarpenik okerrena jaso eta urteetara bizirik eta osasuntsu dauden ehunka GIB positibo ezagutzen ditut”.

Angel hil ostean Madrildik itzuli zen aita, baina ez zen herrian bizitzen geratu, Bilbora aldatu zen. Amaren izenean gelditu zen Ataka. Aitak ez zuen tabernarako animorik, eta Bilboko Portuan aurkitu zuen lana zamaketari.

Lasalden ere aldaketak izan genituen. Batere espero gabe, etxean bi izatetik hiru izatera igaro ginen. Ama eta biok Atakan geunden iluntze batean xaboi usaina zerion neska gazte bat sartu zen tabernan.

– Angelen laguna nintzen.

Maria izena zuela esan zigun, madrildarra zela, aitaren eta Angelen laguna. Ozta kalkulatu nizkion hogei urte.

– Haiekin iniziatu ginen, Angelekin eta beste alproja zoragarri batzuekin.

“Zoragarri” hitza esatean begiak gorantz itzulikatu eta malkoei eusten saiatu zela iruditu zitzaidan. Hilabete pare bat atzera hots egin zion Angelek. Madri-

len elkartu ziren azken aldian neskak langabezian gelditua zela kontatu omen zion gau etiliko batean, eta haren deia jaso eta oraindik lan bila ote zebilen galdetu zionean harrituta erantzun omen zion baietz.

– Euskal Herrian zeukan tabernan postu bat hutsik gelditu zela esan zidan.

Amak eta biok zurtuta begiratu genion elkarri.

– Handik gutxira jakin nuen hila zela.

Angelek, *post mortem,* haren ordezkoa bidali zigula ulertu genuen. Ninfa zurbil bat, Angelen arreba txikia zirudiena.

Tabernako atearen aurrean utzi zuen maletagatik nora joanik ez zuela ondorioztatu genuen.

Nire gelan sartu zen, xaboi-urrina hedatuz. Armairuaren erdia libra niezaiola eskatu zidan amak. Delikatuki kokatu zituen zeuzkan arropa apurrak. Bainua hartu berri duen umearen traza zeukan, hain zirudien orbangabea eta biguna.

Ustekabeko iritsierarekin, hiru emakume gazte elkartu ginen etxe berean: ama, hogeita hamazazpi urtekoa; Maria, hogeita hirukoa eta ni, hamabostekoa. Ez zen bizikidetza luzea izan, baina bai erabakiorra, emakumeekiko nire harreman-moduen bilakaeran. Ustekabean hezurmamitu zen bakardadean sarritan de-

siratu izan nuen ahizpa nagusia, irudikatu izan nuenaren batere antzik ez zuena. Nire alegiazko ahizpa neure buruaz neukan irudiaren anplifikazio moduko bat zen: beltzarana, begi-zolia, buru-argia, errebeldea eta ihardukitzailea. Maria, aldiz, ilehoria eta barea zen, ahots leunekoa.

Maria iritsi eta lasterrera, hiru ahizpa bezala bizi ginen: eskuz esku egiten genuen lan tabernan, eta etxebizitza partekatzeaz gain, solasaldi luzeak, mozkorraldiak, zigarroak eta etxeko zein tabernako gastu eta irabazi guztiak partekatzen genituen. Koreografia perfektuak osatzen genituen barraren atzean. Nik, zigarroa ahoan eta begirada desafiatzailearekin, sukartuta bezala lan egiten nuen, likore- eta freskagarri-botilak binaka eta hirunaka atzituz eta buruaren garaieratik zerbitzatuz isurkarien turrusta, izotzen klaska eta limoi zukutuekin. Mariak, aldiz, emeki egiten zuen urrats bakoitza, presarik eta oldarrik gabe, delikatuki isuriz likidoak, jela-puskak astiro bilduz, kontinuitate lasai batekin, lurrin infantila eta adats urrekara kulunkatuz bere-berea zuen kadentziarekin. Amak, tristeziaren ederra arrastatzen duten narrastien gisan, galtzailearen xarma zerbitzatzen zuen kopa hotzetan. Halakoak ginen barran eta barratik kanpo.

Berehala ohartu nintzen amaren Mariarekiko liluraz. Gurean aste parea zeramanerako, haren mugimenduak eta hitz egiteko manera imitatzen hasi zen, disimulatzeko inolako asmorik gabe. Maria estetizista zen ofizioz, eta lurrindegi natural bat irekitzea zuen amets. Ama tentatzen zuen etorkizunean biek elkarrekin halako negozio bat martxan jartzeko. Labandaedo kardamomo-esentziaz perfumatzen zen, egunaren arabera. Amak erretzeko keinua findu zuen, ibilera mantsotu, betiko ile-mataza beltza atzerantz bildu, eta arropa argiak erosi.

Gau batzuetan, astegunez, Maria eta ama dantzatzera ateratzen hasi ziren ni etxean utzita, biharamunean institutura joan behar izaten bainuen. Logelatik ikusten nituen orrazten eta aurpegia hautseztatzen. Bere flasko txiki haietako batetik tanta batzuk isurtzen zituen Mariak amaren lepoan. Hortzoiak agerian uzten zizkion irribarre inozo bat ateratzen zitzaion, gehiegi edandakoan izaten duenaren antzekoa. Itzarrik itxaroten nien nik: gaua ondo zukututa iristen ziren, ke usainarekin eta barre txikiak eginez. Zurrumurruka aditzen nituen sukaldean. Gero Maria logelara sartzen zen, eta astiro eranzten zituen arropak. Haren bularrak ikusten saiatzen nintzen, baina leiho aldera jira-

tzen zenean baino ez nituen begiztatzen, ozta-ozta, iheskor eta zuri, eta haien azpian sabel laua farola-argitan, eta urrin-izpi bat, erakarri adina izutzen nindue-na.

Haietako iluntze batean, Maria dutxan zegoen bitartean, amari nire logelara deitu nion eta, galdetu ez bazidan ere, goitik behera aztertu eta nire iritzia eman nion:

– Betiko baserritar otzana izaten jarraitzen duzu.

Gelditzea esperientzia zorabiagarria da inoiz geldi-tu ez denarentzat.

Diagnostikoa baino lehen pasioen mende bizi nin-tzen; deprimitu egiten ninduten emozio moderatuek. Muturreko sentsazioak bilatu eta, aurkitu ezean, fabri-katu egiten nituen: oso maiteminduta egon behar nuen, ideia guztiekin zeharo konbentzituta, proiektue-kin estimulatuta, erabat grinatsu asmo bakoitzarekin, ohean oso bero, kontraesanekin guztiz kontraesankor. Zenbat eta ertzerago, egiatik gertuago.

Kartsuki bizi ezean, ezerk ez zuen balio. Intentsita-tea behar nuen bizitza justifikatzeko, eta antsietateak plazeraren antza zuen. Konbultsioa zenez gauzen be-

netakotasunaren bermea, erradikala izatea zen izateko modu bakarra. Erdibiderik gabeko bizitzan atzeraezinak ziren iritziak, desirak eta konpromisoak. Erlojuaren kontra maitatu eta erosotasunaren aurka borrokatu beharra neukan. Zutik jan eta erne lo egin. Larrua gogor jo. Prest izan edozertarako.

Bat izan ziren gelditzea eta isiltzea. Lehen ez nuen isiltasuna jasaten. Urduri jartzen ninduen hitz egiten ez zuen jendeak. Izan nuen garai bat hitzak eztarrian norgehiagoka sentitzenituena, elkar zapaltzen, bultzaka, irteteko lehian. Arnasa ebasten zidaten. Bizirik zeuden nire mingainean. Listuz eta hortzez betetzen zidaten burua. Ahoa eskuekin estalita ere aterako ziren, ez zegoen haiek geldiarazteko modurik. Hitzak, hitzak, hitzak. Ogi apurrez beteriko lurrera oldartzen ziren txori gosetuak. Txori urduriak. Itsusiak. Hitzek alkandoraren lepotik eutsita eramaten ninduten, lurretik arra betera, eurek nahi zuten tokira.

Ihes egiten nuen astiro eta bigun maitatzen ninduten begietatik. Ternezia nire ahultasunaren ispilu bilakatzen zen. Pasioak apaltzean nire tristura azaltzen zen, azkenerako mundu guztiaren arreta beregana-tzea lortzen duen ume lotsatiaren biolentzia sotilaz, hain diskretuki, ezen inork ez zuen iristen ikusten.

2010eko udazkenean gizonak utzi nituen droga bat uzten den bezala. Lukarekin bizi arren, gizonak utziak nituen kontzeptu gisa. Haien begietan egoteari utzi nion. Harrapariaren lilura hipotetikoa abandonatu nuen: ehizaturikoez gain ehiza nitzakeenek definitzen ninduten garaia bukatua zen. Nekeak polikiago ibiltzera eta lo gehiago egitera behartu ninduen. Sexua ito eta nire baitako ehiztaria tiroz jo zuen diagnostikoak. Lilurarik gabe, urrundu egin nintzen tabernetatik eta bilera jendetsuetatik. Edateari utzi nion. Lagun zalapartatsuak aldendu egin zitzaizkidan pixkanaka, izena galdu zuten ostegunek, ostiralek eta larunbatek. Irratia ixtearekin, militantzia-girotik ere urrundu eta Bilboko giro progrean erreferente izateari utzi nion. Gero eta jende gutxiagori interesatzen zitzaion nire iritzia; niri ere apenas. “Gutarron” burtsan kotizatzeari utzi nion. Nire balioak ez zuen jada gorabeherarik jasaten egiten edo esaten nuenaren arabera. Merkatutik kanporatu nuen neure burua, eta inporta zitzaidan jendeari ez zitzaion nik espero adina inporta izan.

Denbora asko egin nuen etxetik atera gabe, barrurantz kakotuta eta, atzera kalerakoan, jendearekin egoteari beldurra niola ohartu nintzen. Nire bizitzan lehen aldiz sozializatzea arazo bilakatu zitzaidan. Le-

henago besteekiko erlazioan baizik existitzen ez nintzena, piztia izu bat bezala urruntzen nintzen giza figura bat ikusi orduko. Toki jendetsuak eta garraio publikoa saihesten nituen. Alde Zaharrean ibiltzeari utzi nion, ezagunekin topo egiteko beldurrez. Erosketak Internetez egiten hasi nintzen.

Ordura arteko mozorroa erantzarazi zidan diagnostikoak, eta hura gabe ez nekien jendartean egoten. Nire keinuak arrotz zitzaizkidan: ezin nuen irribarrearen neurriarekin eta begiradaren irekitasunarekin asmatu. Ahotsaren modulazioa, bolumena, erritmoa... erabaki gehiegi hartu behar ziren ahoa zabaldu aurretik.

Erosketak egitera irteteko konbentzitu ninduen arratsalde batean ispiluaren aurrean negarrez topatu ninduen Lukak.

– Ez zakiat zer jantzi! –esan nion desesperatuta.

Janzten, hitz egiten, egoten ahaztu zitzaidan. Neure burua berrasmatu beharra neukan.

Interfonoaren txirrinak eten zidan irakurketa.

– Utzi egiten ari haizena eta hator azkar!

Aita zen, bebarrutik. Diagnostikoaren osteko egunsenti fatidiko hartatik pare bat dei trukatu genituen, baina elkar ikusi gabeak ginen ordutik. Etxean ibiltzeko arropen gainetik beroki bat jantzi eta atarira jaitsi nintzen. Beste gizon batekin zegoen.

– Zer egiten duzu hemen?

Portuan behar zuen ordu hartan.

– Ezin al diot alabari bisita egin?

– Egun on! –adeitsu agurtu ninduen aitaren kideak.

Bekainetik odol hari fin bat zerion morroi ezezagunari. Aitak, nigandik pauso bat urrundu, besoa luzatu eta goitik behera “erakutsi” ninduen.

– Zer esan diat? Polita da ala ez da polita?

Behorra saldu nahian ari den tratulariak ez luke hobeto egingo.

– Ez bazaizue inporta, gauza asko ditut egiteko.

– Geldi, Jenisjoplin! Hirekin hitz egin nahi dinagu.

Ez neukan kalera irteteko gogorik. Hotz egiten zuen.

– Zeren zain hago? Goazen!

Zoritxarrez, aspalditik eta kronikoki faltan sumatzen nuen aita, eta nire urguiluaren eta lasaitasunaren aurka, harekin egoteko premia neukan, ahal izatera

bakarka; baina, bistakoa zenez, hori ez zen posible izango.

– Ordu-erdi. Gero lanera joan behar dut.

– Lanera? –asaldatu zen–. Txantxetan?

Azalpen eske begiratu nion.

– Greba orokorra dun, urtarrilak 27. Horrenbeste aldatu haiz?

Egunak neramatzan albistegirik ikusi gabe. *La ciencia del pánico* eta *House of numbers* dokumentalak irentsi nituen, teoria disidenteei buruzko liburuak erosi nituen Amazonetik, eta haietan murgildurik eman nituen azken gauak eta egunak. Ez nion grebari jaramonik egin.

– Zer gertatu zaizu? –galdetu nion aitaren lagunari betondoa seinalatuz.

– Txakurrak piketeen kontra oldartu ditun.

Atarian ilea txukundu eta kalera atera nintzen.

– Nora joan nahi duzue?

Aitak ez ninduen sekula bere etxera eramaten, tabernak itxita zeuden eta kalean hotz egiten zuen.

– Lokalera joan gaitezkek –proposatu zion lagunak–. Giltzak ekarri ditiat.

Ez zen erraza aitarekin bakarka egotea. Beti asmatzen zuen bion artean intimitatea eragotziko zigun

norbait edo zerbait sartzeko modua. Publikoki nire aita izatea gustatzen zitzaion; pribatuan, nahiago zuen kolegarena egin. Bere lagunartera gonbidatu ohi ninduen, poteora, afarietara eta festetara, bazekien arren toki jendetsuek atzera eragiten zidatela.

Mesedeetako zubitik zeharkatu genuen ibaia, Nasa kaletik jarraitu genuen aitaren lagunaren lokalera.

– Hortxe da –esan zuen Bailen kalearen hasieran.

*El balcón de la Lola*ren etxaurre urdina ezagutu nuen, juxtu trenbidearen azpian. Aspaldian izan gabea nintzen, baina behin baino gehiagotan harrapatu izan ninduen egunsentiak kale-izkina hartan bertan. Aitaren kolega aretoaren jabeetako bat izan zitekeen; bazuen gay bilbotarraren jitea. Pareko lokaleko atera jo zuen, ordea, bulego itxurako beiratedun etxabe batera.

– Ongi etorri.

Atea zeharkatzerako ikusi nuen Bizkaisidaren logotipoa: eskua, erpurua gorantz eta, hatz lodian, kondoia. Hiesaren aurkako batzorde hiritarrera eraman ninduten.

– Zaudete momentutxo bat.

Komunera sartu eta bekaineko odol-arrastoa garbitu zuen.

– Hauxe da gure etxea –esan zuen ingurua erakutsiz–. Oraindik ez dinat neure burua aurkeztu: Kike naun.

Hormetan era guztietako afixak zeuden, gehienak ostadarraren kolorekoak eta zuzenean gizonezko homosexualak interpelatzen zituztenak. Ezker-eskuin bi idazmahai handi. Beiratearen kontra landare hostotsu bat eta pilaturiko kartoizko kutxak. Barrualdean bi ate. Aitak esku bat jarri zidan sorbaldan.

– Hik asko lagundu dezaken hemen.

Baiezkoa egin zuen Kikek, eskerronezko begiratuaz.

– Hire aitak kazetaria haizela esan zidan, hitzaldiak emateko prest hagoela. Hi bezalako jende gaztea behar dinagu nerabeekin lan egiteko; programa bat abiarazi berri dinagu eskoletan. Hiesaren militante gehienak gizon helduak gaitun, espero gabe zahartu gaitun, garrantzitsua dun neskek ere berekin identifikatzeko moduko erreferenteak izatea. Hire esperientziatik asko ikas zezaketen. Sare sozialetan ere abila haizela esan zidan aitak: hutsune bat zaukanagu hor.

Aitak saldu egin ninduen: ohi bezala, nire prozesua errespetatu beharrean, nire aurreko bidea ibili behar izan zuen. Baimenik gabe nire diagnostikoaren berri eman zion Kike hari eta ez zen, seguru nengoen horretaz, aitaren ahotik nire egoeraz jakin zuen bakarra izango.

– Ikusiko dugu –ezin izan nuen besterik esan.

– Askoz hobeto sentituko haiz mundu guztiari kontatu eta gero –txaplaka egin zidan aitak bizkarrean–. Armairu barruan ito egiten da bat, ezta?

Kikeri egin zion galdera. Nik aitari ukabilkada bat emateko gogoa sentitu nuen, kapaza zelako jendea armairutik arrastaka eta biluzik ateratzera behartzeko, libertatearen izenean beti, ipurdi bistan zegoena bera ez bestea zela konturatu ere egin gabe.

– Nahikoa da –esan nion ahapeka.

Nire ezinegonaz ohartu zen Kike.

– Ez ezak alaba behartu –esan zion aitari ahots barez, eta ondoren niri–: materiala prestatuko dinat, emaion begiratu bat etxean lasai-lasai.

Gaixotasunari buruzko informazioa, prebentzioari buruzko aholkuak, laguntza-taldeen propaganda... Oihalezko poltsa batean souvenirrak sartu zizkidan:

estigmaren kontrako afixak, pegatak eta koloretako pinak.

– Etxera noa –esan nien.

– Nagore! –geldiarazi ninduen aitak.

Haserre zegoenean nire izenez deitzen zidan.

– Uzteko bakean!

Suminduta atera nintzen kalera. Ibaian behera jarraitu nuen, ahoa hiraz tenkatuta. Ostiko eman nion farola bati eta ozenki madarikatu nuen aita.

Abando parera iritsi nintzenean, eztanda batek atera ninduen nire baitatik. Brastakoan gelditu nintzen. Segituan ezagutu nuen pilotakaden hotsa: hiruzpalau danbateko lehor. Abandoko errotondarantz hartu nuen, istilu-hotsa zetorren tokirantz. Oihuak eta txistuak entzun nituen, txaloak eta aldarriak. Bat-batean aldrak erakarria sentitu nintzen. Jende multzo handia zegoen El Corte Inglesen parean bilduta. Haien aurrean, hogeita hamarretik gora gorila, kaskoz, borraz eta ezkutuz hornituta. Une hartan bertan beste bi furgoi iritsi ziren sirenak martxan, eta dozenatik gora istiluen aurkako polizia jaitsi ziren pilota-jaurtigailuak eskuetan. Jendearen artean toki egin eta lehen lerrora igaro nintzen. Oihuka ari ziren piketeen artean sartu eta amorru kolektiboarekin bat egin nuen. Irainka hasi

nintzen saltegi handien eta txakurren aurka. Irakiten neukan barrua.

– Sasikumeak!

Nire ondoan zegoen adineko gizon bat taldetik atera eta azalpen eske hurbildu zen polizia kaputxadun batengana. Bortizki aurre egin zion hark. Agurea bizkarka erori zen, eta bospasei lagunek txakurren aurka egin genuen, bultzaka. Atzetik multzo handi batek babestu gintuen garrasika. Eztanda batzuk entzun nituen orduan eta, ohartzerako, borra-kolpe bat sentitu nuen bizkarrean, eta ondoren gehiago, saihetsetan eta izterretan. Burua ahal bezala babestu eta irainka jarraitu nuen. Ez dut oroitzen nola atera nintzen handik, tiraka baztertu ninduen norbaitek.

Grebalarien jende multzoa desegiten hasi zen pixkanaka. Izerditan, berokia zabaldu nuen; pijamaren jertsea baino ez neraman azpian. Etxera itzultzea erabaki nuen. Areatzako zubia zeharkatu ahala, lasaiago nengoen. Aspaldi sentitu gabeko poz arraro bat sumatu nuen azaleratu nahian. Mina nuen gorputzean, baina baretzen ari zitzaidan arnasa.

–Odoletan hago-eta! –jauzian jaiki zen Luka sofatik.

Ez ukitzeko agindu nion.

– Oraintxe garbituko diat.

Atzetik jarraitu zidan komunera. Kokotseko zauria gaza batekin estali nuen. Ukondoetako urradurak desinfektatu nituen.

– Zer ostia gertatu zain?

– Piketeen protestetan nahastu nauk.

Sofan esertzean eskuak gerrialdera eraman nituen, sastada batek erasan baitzidan makurtzean. Kuxin batzuk pilatu eta etzan egin nintzen. Buruaren atzean lotu nituen eskuak. Euforiko nengoen.

– Martxa apur bat behar nian. Martxa eta borroka, bai jauna!

– Egingo dun, mesedez, hire emozioak egoerari doitzeko ahalegina?

Kuxina jaurti nion, jolasti.

– Emozioak egoerari doitu? Nondik atera duk hori?

Isilik gelditu zen.

– Eta hik, zer egin duk, ba, emozio moderatuak kudeatzeaz aparte?

– Irudi batzuk hartzera atera naun –erantzun zidan nabarmenki gogaituta–; abisatu dinat goizean.

Atxiki azkar bat eman nion zigarroari.

– Ez nauk konturatu.

– Ja.

Eskuarekin bideo-kamera eusten ari nintzelakoa egin eta eszena sabaian gertatzen ari balitz bezala, harantz zuzendu nuen fokua.

– El Corte Ingles parera etorri behar huen grabatzera: egundoko iskanbila sortu duk. Ero moduan jarri dituk txakurrak, ikusi behar hituen. Lau furgoi bazeudean gutxienez; ni ailegatu naizenerako istiluak hasita zeudean, piketeak sutan...

– Nolatan atera haiz kalera? Hilabetetik gora daraman etxetik mugitu gabe.

Istiluen kontakizunarekin jarraitu nuen, grinatsu.

– Aspaldi ez nian adrenalinarik sentitzen, itzela izan duk!

– Lagunen deiei ere ez dien erantzuten.

– Zer nahi duk esatea? –haserretu nintzen.

– Egia.

Hasperen egin nuen.

– Aita etorri duk.

– Zertara?

Indarrez zanpatu nuen zigarroa hautsontzian.

– Behin pozik egongo eta izorratu egin behar nauk, ezta?

Kolpean zutitu nintzen.

– Ostia! –oihu egin nuen minez eta amorruz.

Oinazeak makurrarazi egin ninduen; sastada zorrotz bat saihetsetan. Lauhazka jarri behar izan nuen. Negargurak erasan zidan. Lukak lepoan jarri zidan eskua.

– Erakutsidan bizkarra.

Elastikoa altxa zidan bular pareraino.

– Joder, Nagore, jipoitu egin haute!

Lukarengana jiratu nintzen.

– Aita mundu guztiari hiesa daukadala kontatzen ari duk.

Sofan eserarazi ninduen, eta kolpeak ukenduz gozatzen zizkidan bitartean dena kontatu niezaiola eskatu zidan. Dramatismorik gabe hitz egin nahi nuen, baina ez nuen asmatu.

– Zergatik ez zidak uzten ahula izaten, e?

Neure infantilismoa deitoratu nuen.

– Oraintxe bertan deitu behar dion.

– Zertarako?

– Hire intimitatea errespeta dezala exigitzeko.

– Badakik? Batzuetan, aitak nahiko lukeen bezala, mundu guztiari kontatuko niokek. Kalera irten eta banaka-banaka esango niekek denei hiesa dudala. Edo prentsaurreko bat emango nikek. Edo telefonoko kontaktu guztiei mezu bat bidaliko. Email kolektibo bat idatzi. Denei kontatu eta akabo. Batzuetan pentsatzen diat benetan arindu itzela litzatekeela.

– Hi eta hire pultsio kamikazeak.

– Ez nazak analizatu.

Ondoan eseri zitzaidan.

– Baina intuizioak inori ez kontatzeko agintzen zidak –jarraitu nuen.

Begiradarekin arrazoia eman zion nire intuizioari.

– Koldarra nauk.

– Eta hala bahintz ere, zer?

– Gainera, orain ez nagok ezertaz seguru. Liburu horiek denak irakurri ditiat. Batzuetan sentitzen diat diagnostikoak berak gaixotuko nauela.

– Ez hintzateke aurrenekoa izango.

– Ez diat hiesari buruzko ezer ofizialik irakurri, teoria disidenteak baino ez. Ez medikuei galdegin zieat nire patuaz, ez nire kasa saiatu nauk informazio bila... Tentaldiren batean Interneten “hiesa gaur egun” edo

horrelako zerbait tekleatu badut, bi lerro irakurtzerako zanpatu diat portatila.

– Beldurra ematen din?

– Haserretu egiten nauk!

– Zertarako beldurra sentitu sumindu bahaiteke, ezta? –adarra jo zidan.

Harritu egiten ninduen Lukak ni hain ondo ezagutzeak. Neure buruari egiten nizkion tranpak desaktibatzen zizkidan.

– Neure burua babestu beharra sentitzen diat instalatu nahi didaten informaziotik.

– Eta zer egingo dun?

– Ez nauk gehiago mediku-kontroletara joango.

– Terapia alternatiboren bat bila zezakenagu.

– Ez diat nahi –moztu nion–. Ez diat ezer jakin nahi.

Galtzak jaitsi eta izterra erakutsi nion.

– Beltzune galanta atera behar zain hor.

Ahalik eta ziurtasunik handienaz hitz egin nion:

– Gaixorik nagoela sinestea arriskutsua iruditzen zaidak. Destino bat sinesten badut, edo beldur bat, edo sintoma bat... akabo. Ez diat inolako predisposiziorik nahi sintoma jakin batzuetarako, patu jakin baterako...

Isilik entzun zidan.

– Ez duk ulertzen, ezta? Ez diat, beldurrez, inoren salbazioa erregutu nahi.

– Zerbait naturala topatuko dinagu.

– Kimikoki beldurtzeak bezain menpeko egingo naik naturalki beldurtzeak.

Buruari eragin nion, ideia gehiegi neuzkan bueltaka.

– Ekologiko jatea bezalakoa duk. Sistema kapitalistaren barruan ekologiko jatea zer da, ba? Engainu polit bat. Xahutuko duk dirua, aberastuko dituk betikoak... Denboraldi batez osasuntsuago sentituko haiz agian... Ez diat medikuntzaren begano izateko asmorik.

– Manta elektrikoa ekarriko dinat.

– Nik jada ez zakiat hiesa existitzen den, eta existitzen bada zein den gaixotasunaren inguruko egia. Zer esan nahi du hiesa edukitzeak?

– Ez zakinat.

– Nik ere ez. Baina bazakiat beldurrez bizitzeak gaixotu egingo nauela. Diagnostikoak berak sortutako barne-gatazkak dituk orain nire problema nagusia.

Sofaren besoan eseri eta ilea laztandu zidan.

– Ezin diat erruduntasuna gainetik kendu.

– Nagore.

– Dena izorratu diat, joder!

– Gogorregia haiz heure buruarekin.

– Aitak arreba eta lagunik onena galdu zitian bitxo puta honen erruz.

– Horrek ez hau ezeren errudun egiten.

– Antsietate konstantean bizi nauk: nerbioetatik jota bukatuko diat. Agian ez naik hiesak hilko, baina erotu egingo nauk.

– Lasaituko haiz.

– Sexualitatearekin daukadan blokeoarekin ez nindukek harrituko umetokiko minbizia garatuko banu.

– Dramatiko jartzen ari haiz.

– Izter artean munstro bat zaukaat orain.

– Nagore, begiraidan! –agindu zidan–. Hortik ez.

– Zer?

– Entzuten al dion heure buruari? “Izter artean munstro bat zaukaat”.

Irribarre etsi bat atera zidan.

– *Vagina dentata* –egin nion txistea.

Gero serio jarri nintzen.

– Alukeria galanta egin zidatek. Eta kasu honetan ederki ekarrita zagok hitza: ezinezkoa duk hau dena ordenatzea.

Bareago nengoen.

– Hiesak ia edozein gaixotasun eragin omen zezakek: pneumonia, minbizia, depresioa, eromena... Gogoratu Puertas doktoreak duela lau hilabete esan zidana: “Adi, edozeri egin diezaioke eraso, edozein momentutan”. Behin diagnostikatuta, behin etiketatuta, izan dezakedan edozein sintoma edo sentsazio, edozein makalaldi, burutazio, hotzikara, eztul... edo intentzio txikiena ere diagnostikoaren perspektibatik irakurriko zidatek. Eta okerragoa dena, argi ez banabil, nik ere hala irakurriko diat.

Dramatismorik gabe ari nintzen hizketan azkenean.

– Hik pneumonia, depresioa edo gastroenteritisa badaukak, horixe daukak, eta horixe tratatuko diate. Ez haiz neurriz gain larrituko. Nik, ordea, beti hiesa izango diat. Hotzeria puta bat ere ezingo diat errukirik piztu gabe igaro.

– Oraindik berria dun diagnostikoa, shockean hago.

Txokolate eta laranjazko gaileta batzuk atera zituen.

– Argaltzen banaiz hiesa daukadalako izango duk, gripea harrapatzen badut hiesa daukadalako izango duk, minbizia badut hiesak eragindakoa izango duk...

– Inurriak beti elefante bat izango din atzean.

– Ikuskera grafikoa daukak.

– Deformazio profesionala.

– Baina halaxe duk: nire kasuan, diagnostikatuta nagoela dakitenek ez ziotek inoiz inurriaren tamainari erreparatuko, denak elefanteari begira jarriko dituk. Eta aldea zagok bizkarrean inurria eraman edo elefantea eraman.

– Heure osasunarekiko konfiantza berreskuratu behar dun.

Beste gaileta bat ahoratu zuen. Itu-ituan jo zuen.

– Ikaragarri onak zauden, nahi dun bat?

Ezezkoa egin nion.

– Hortxe zagok gakoa! Medikuek ez zidatek laguntzen nire osasunean sinesten. Puertas doktorearen kontsultatik nire gorputzarekin etsaituta ateratzen nauk beti. Haren txostenetan nire odola ez duk bizia ematen didan zerbait, alderantziz, kutsatuta, ni hiltzen ari den pozoia duk, besteak pozoitu ditzakeena. Antirretrobiralak hartzeko agintzen zidak behin eta berriro, haietan bai, haietan badik konfiantza. Kinka batean sentitzen nauk. Erabaki egin behar diat.

– Zeren artean?

– Sumisioak ematen duen lasaitasunaren edo neure gorputzarekiko konfiantzaren artean.

Eszeptizismo puntu batekin begiratzen ote zidan sumatu nuen.

– Medikuntzaren eta patuaren artean?

– Kontrolaren eta libertatearen artean, ordenaren eta kaosaren artean, kezkaren eta uste onaren artean... Nik zer zakiat: filosofia kontua duk.

– Susmoa dinat erabakia hartuta daukanala.

– Ondorio guztiekin.

– Beti egin dezaken atzera.

Jarreraz aldatu nintzen sofan. Hortzak estutu nituen minez.

– Ez zakiat otzana izaten –ondorioztatu nuen.

Sofan bihurritu nintzen: kostata hartzen nuen arnasa.

– Horregatik zaukaat saihetsetako mina.

– Nolotil bat ekarriko dinat.

Amaren ordu librean sartu zen aita Atakan, barran Maria eta biok bakarrik geundela. Samur agurtu zuen Maria, ilea apartatu eta masailean musukatuta. Elkar ezagutzen zuten, bistan zenez. Kaña bat atera nion.

Erdiraino erretako porro bat emanez egin zidan proposamena.

– Lagun bat ezkontzekoa dun Bilbon. Ez dinat bakarrik joan nahi.

Etxetik alde egin zuenetik, lehenbiziko aldia zen aitak “bere terrenora” gonbidatzen ninduena. Onartu egin nuen.

Bilboko autobus-geltokian itxaron zidan aitak. Bakero beltzak eta alkandora zuria zeramatzan, amerikana grisa sorbalden gainean, besoak mahuketan sartu gabe. Betaurreko keztatuak eta ilea atzerantz engominatua. Mariaren gomendioen kontra, kanpai-erako galtza zuriak nik, Ramonesen elastiko grisa eta larruzko txupa.

– Hik daukan hik rocka!

Besotik heldu eta, harro, motor bat seinalatu zidan.

– Zurea da?

Ez zen garestietakoa, baina traste dotorea zen. Kaskoa jantzi zidan eta atzean eseri nintzen.

Ospakizuna hiriak izena galtzen zuen aldirietako pub batean zen. Ezkonberriek epaitegian paperak egin eta lokal hartara deitu zituzten lagunak. Mahaietan jatekoa jarri zuten eta barra gainean botilak, itxu-

ra guztien arabera norberak nahierara zerbitzatzeko. Bikote bitxia osatzen zuten. Emaztea ile urdinduko andre garaia zen, mardula, bizkar erdirainoko adats zilarkara solte zeramana ardo-koloreko xal baten gainean. Senarra gazteagoa zen, beltzarana eta txikia.

– Rafa! –diosala egin zioten aitari.

Zalantzan sentitu nituen niri begira.

– Neska-laguna, pentsatzen dut –ausartu zen emakumea.

Barre egin zuen aitak.

– Alaba.

Jendez betetzen hasi zen puba. Gonbidatuek Almodovarren filmetatik erreskatatuak ziruditen: esajeratuki makillatutako emakume kinkiladunak, elkar musukatzen zuten gizon serioak, ilea harro-harro egindako atsoak, errebaletako alprojak, psikiatra-konplexudun aleren bat, kapeladun dandyak, neskatila pekatsuak, patriarka itxurako herren bat...

– Eta zu zer zara, domadorea? –galdetu nion aitari.

Lagun bat aurkeztu zidan. Bere adintsuko gizon guapo bat zen, aitak hots egin zionean barra gainean lerrokatzen ari zen kokaina arrastoa utzi eta besoak zabaldu zizkiona.

– Aspaldikoa! –besarkatu zuen.

– Hau alaba duk –esan zion–. Nagore, Markos.

Kortesiazko bi musuak ematera hurbildu nintzen, eta leun heldu ninduen Markosek gerritik.

– Psikologo-laguntzailea –aurkeztu zuen aitak.

Arrastoari zintz egin zion Markosek, eta barrez hasi zen, erpuruarekin sudur-mintzetan geraturiko hautsari barrurantz eraginez.

– Karrerarik gabea, dena esan behar bada –zehaztu nahi izan zuen morroiak.

– Markosek emakumeak askatzen ditin. Artista hutsa.

– Gizonekin ere aritzen nauk.

Vodka-cola bat zerbitzatu nion neure buruari.

– Sexualki blokeaturiko jende asko zagok –tira nahi izan zion aitak mingainetik.

Ez zirudien Markosek lan-kontuez hitz egiteko gogorik zuenik.

– Terapiara joaten ditun –ekin zion aitak, temati–, baina dibanak ez din inor orgasmora eramaten. Hor sartzen dun hau.

Prostituzioan lan egiten zuela ondorioztatu nuen. Ez nenbilen hain oker, sexu-langile ezohikoa zen baina.

– Psikologo bati laguntzen diot, hark pasatzen dizkit kasuak.

“Hark” esan zuenean emakume ezkonberria seinalatu zuen.

– Lidia da psikologoa.

Egiaz, konfiantza ematen zuen emakume handi hark. Astero, Lidiaren bulegoan biltzen zirela eta paziente bakoitzaren txostena aztertu ondoren, bakoitzarentzako interbentzio egokia diseinatzen zutela azaldu zidan. Pazienteek, jakina, ez zuten maniobra haien susmorik.

– Bidera ateratzen den autoestopista bezalakoa naiz.

Bigarren vodka-colari heldu nion aita eta Markos borroka armatuaren zehar kalte sexualei buruz hizketan hasi zirenean.

– Plazerik gabe bizi ahal izango bagina bezala jokatzen diagu –entzun nion Markosi–. Borrokaren adrenalinaz ordezkatu diagu libidoa. ETA gelditzen denean gainezka egingo ditek psikologo-kontsultek, ikusiko duk.

Topa egin zuten.

– Baina honi buruz ezin duk hitz egin oraindik.

Lidiak ron txupito bat atera zidan, topa egin genuen naufragioaren alde.

Gero, ordu zehaztugabe batean, argiak itzali ziren, eta 70eko musikak likido batetik bestera eraman ninduen, dantza-pistako gorputz intermitenteen artean galtzera, eta azkenean, ozta-ozta neure buruari eusteko gauza nintzela, aitaren besoetara.

– Lotarako ordua –entzun nion esaten.

Goizeko hirurak aldera abiatu ginen etxera motorrez, bi aldiz egin nuen goitika bidean. Txurdinagako auzune berri batean zegoen babes ofizialeko etxebizitza bat zen aitarena. Adreiluzko etxaurrearen parean aparkatu zuen. Atea ireki, argi guztiak piztu eta *hall*a eta egongela erakusten hasi zitzaidan. Pintura usaina zegoen.

– Eta katu hori? –galdetu nion, halletik ihesi alde egin zuen animalia iletsua ikusirik.

Eskuinetara zegoen atea parez pare zabaldu zuen. Neska bat zetzan kulerotan, ohean lo.

– Josune izena din. Berarena dun katua.

Handik urtebetera Bilbon bizi nintzen, aitarenean.

Astelehena zen, arratsaldeko hiru eta erdiak, kafearen ordua. 1997ko urriaren 13a. Ford Transit zuri batek zeharkatu zuen Iparragirre kalea. Aurrez aurre, museo berria, titaniozko barkutzarra, distiratsu udazkeneko eguzkitan. Amaitu berriak zituzten Jeff Koons eskultorearen txakurtxo ingelesa atontzeko lanak. Frank Gehryren etxetxoa zainduko zuen ordutik aurrera Puppyk. Donostian txirrindularitzako mundu txapelketa jokatzen ari ziren, eta Bilbon Guggenheim Museoak egun gutxiren buruan zabalduko zituen ateak. Inguruetako hotelak kultur eta arte-komisarioz mukuru, hurrengo larunbaterako espero zen Espainiako erregeerreginen bisita. *Ven y cuéntalo*. Jose Antonio Ardanzak eta José María Aznarrek hartuko zuten hitza inaugurazio-ekitaldian. Konplexuz beteriko bazter honetara begira mundua, minutu gutxi batzuetan bazen ere.

Museoaren aldamenean gelditu zen furgoneta. *Garde Igorre* errotulua karrozeria zuriaren gainean inprimatuta. Bi langileren artean –lohihartzeko berdez jantzita bata; zira iluna soinean, bestea– loreontziak deskargatzeari ekin zioten: fikusak, filodendroak, garoa. Pisutsuak ziruditen: hainbat kilo lur barnean, harrizko egitura. Aurrealdean, Bilboko Udaleko ezku-

tua, bere San Anton eliza eta zubi, otso, erramu eta koroarekin.

Lorezainetako baten amak hautatu zituen landareak mimoz, semearen baserriko ataurrea apaintzeko zirelakoan. Fikusak, indarraren irudi, hosto iraunkor sendoko zuhaixkak, eguzki erreari bezala mendebalari ere eutsi ziezaioten. Bihotz-formako hostodun filodendroak, seme zaharrenarentzat. Garoa, geure-geurea.

Paperaren gainean, ekintza perfektua zen: loreontzietan, fikusen eta filodendroen azpian plastikoz troxatuta, gerra-gurdien kontrako 12 granada, hurrengo larunbatean Juan Carlos Borboikoaren eta Sofia Greziakoaren iritsierarekin batera aktibatuko zirenak, hain juxtu, lorezainetako batek seinalea egin eta 70 metro harantzagoko gasolindegian kokaturiko kideak botoiari sakatutakoan.

Baina ez zen leherketarik izan. Xehetasun txiki batek atezuan jarri zituen museoa hogeita lau orduz zaintzen zuten poliziak, eta susmagarri bihurtu, lorezaintza-enpresako enplegatuak: matrikula faltsua ez zetorren bat ibilgailu motarekin. Segundo gutxitan, tiro lehor bi. Garoaren dardara ia hautemanezina. Ertzain bat lurrean. Bi gazteek ihesari ekin zioten. Mu-

seotik metro gutxira atxilotu zuten bat. Besteak, pistola eskuan, auto bat geldiarazi zuen Henao kalean. Emakume bat eta haur bat jaitsi ziren ibilgailutik eta autoa martxan jarri zen, Sarrikorantz. Une horretan bertan arte-komisarioetako batek hitzordua zuen ile-apaindegian, gorria zen modako kolorea. Sirena-hotsak Iparragirre kalean. Anbulantzia bat. Polizia-autoak. San Ignazioko merkatuaren parean, ordura arteko ibilgailua bertan behera utzi eta beste auto bat geldiarazi zuen buzodun mutilak, Fiat Marea azula, Ibarrekolandara eramango zuena. Arratsaldeko 18:30ean salaketa jarri zuen gizonezko batek: Galdakaoko ospitaleko parkingean bere burua ETAko kide gisa identifikatu zuen morroi batek autoa uzteko agindu zion. Han galduko zioten arrastoa.

Uda hartan nire haurtzaroa eta nerabezaroa itxitzat ematea erabaki nuen, halako burubidea norberaren eskuetan balego bezala, kito, aski, akabo, sekula berriro irakurriko ez den liburu bat ixten den arindu berarekin.

– Hijos de puta –aditu nuen emakume bat beste bati mintzo, institututik etxera nindoala.

Aste Nagusia aitarenean pasatzeko asmoz joan nintzen abuztuaren amaieran Bilbora, eta hastear ze-

goen ikasturtea bertan egiten utz ziezadan berotu nuen. Herria txikiegi geratzen ari zitzaidala argudiatu nion amari, eta, espero bezala, ohiko isiltasunarekin erantzun zidan. Maria ere alde egin berria zen, inolako azalpenik eman gabe desagertu zen abandonuaren lurrin mikatzarekin. Hala ere, ama ez zen berarekin gera nendin konbentzitzen ausartu.

Matrikulazio-epea itxita egonagatik ere, Txurdinagako institutuan onar nintzaten lortu zuen aitak, asteburuak amarekin ematea eta Atakan lanean jarraitzea, baldintza.

– Baina Adrian utzi behar dun –jarri zidan mahai gainean negoziazioaren azken puntua.

Ez zuen tonu mehatxarian esan; ebidentzia bat argitara ateratzen ari denaren ziurtasunez, gehiago. Urtebetetik gora neraman herriko mutil batekin, eta hori, aitaren ustez, gehiegi zen.

– Probatu egin behar dun, esperimentatu, arriskatu.

– Zoratuta zaude.

Aitaren etxea Josunerena ere bazen. Hasieratik atsegina izan zen nirekin; batez ere, aitaren aurrean. Iritsi nintzenean gonbidatuen logela atondu zidan, eta gau-mahaian konpresak eta tanpoiak utzi zizkidan

otartxo arrosa batean, halako moduz antolatuak –plastiko horiz bilduriko tanpoiak erdian eta salva-slip zuriak inguruan kiribilduta–, konposizio higienikoak bitxilore bat osatzen baitzuen. Gazteagoa izan arren, ama baino itsusiagoa zen Josune eta, garbi esateko, tuntun-aurpegia zeukan. “Espresio barea” zuela esaten zuen aitak, zeharka bere neska-lagunaren zanpan-keinua iradokitzen nionean.

– Eta noiztik interesatzen zaizu zuri baretasuna?

Orduan ohartu nintzen aitak nahita hautatzen zituela bera baino nabarmen gazteagoak ziren neska-lagunak, inozentziarekin kontrastean, bere inteligentzia arruntari distira apur bat egin ziezaioten.

Josune azukrearen erredentzio-gaitasunari atxiki eta, eskura zituen zerrikeria guztiak ekarriz saiatu zen ni sarean harrapatzen: Bollicaoak, Donutsak, txokolatezko palmerak... Loditu egin nahi ote ninduen pasa zitzaidan burutik. Aitari ez zitzaizkion emakume gizenak gustatzen –”loditasuna bera baino, utzikeria hori da atzera eragiten didana”–, eta ni galkatuz paretik kendu nahi ote ninduen otu zitzaidan. Bera 50 kilo zen, gimnasioan egunero egiten zituen bizikletan hogei minutu, pisuak altxatzen, hamar, eta hiru abdominal-serie. Ez gehiago, ez gutxiago. Konstantziaz, ze-

haztasunez, sistematikoki egiten zuen dena, pasiorik gabe. Galdetegiak betetzea atsegin duten emakume horietakoa zen. Ez zuen alferrik lan egiten banketxe bateko leihatilan.

Etxean bakarrik gelditzen ginenetan, laztu egiten zen Josuneren nirekiko jarrera. Irribarre konstantea tenkatu eta ohiko zozo-keinua zorroztu egiten zitzaizkion apur bat, nik igartzeko moduan. Ez zidan zuzenean eraso egiten, ez zegoen parez pareko konfrontaziorik, baina gosaritarako jan ohi nituen jogurtetako azkena eskuan zuela paseatzen zen nire aurrean, edo dutxa hartzen ari nintzen bitartean harrikoa egitea otutzen zitzaion.

Lehia txoro hark entretenimendu gisa balio izan zidan hasierako asteetan, nahiko bakarrik sentitzen bainintzen hiri arrotz hartan. Aitak portuan ematen zuen eguna eta amak, bekaitzak jota, ez zidan deitu ere egiten. Ondo zetorkidan izorratuko ninduen norbait izatea inguruan, harentzat behintzat existitzen nintzela gogorarazten baitzidan aurkari domestikoak. Ez nuen norgehiagoka hura serio hartzen, ez neukan aitaren flirtarekin denbora galtzeko asmorik, eta Guggenheimeko atentatu-saiakerak sentsazio hura berretsi zidan. Errebelazio moduko bat izan zen niretzat,

metafora belikoa, bizitzaren lehen lerrora igarotzeko deia. Gogo txarrez, baina azkenean aitari arrazoia emango niola konturatzen hasi nintzen; berriz ere, hitz-gakoa ebaki baitzuen: arriskatu. Lohihartzekoa jantzi eta lokaztu. Belaunetaraino. Herriko nobioarekin nuen istorioa erosoegia zen. Josunerekiko lehia, erra-zegia. Amarekiko errukia, zaharregia. Beti bezala, hantxe zegoen bera, Rafa Vargas, alabarengandik metro gutxira, detonagailuaren botoia sakatzeko prest. Gainerakoa, denbora kontua baino ez zen. Atze-ra-zenbaketa.

Ama arratsalde-erdian iritsi zen etxera. Luka goizeko irudiak editatzen ari zen ordenagailuan, hedabideren bati saldu nahi zizkion. Nik sofan luze etzanda jarrai-tzen nuen, giltzurrunetako minari neurria hartzen saiatzen. Amak ez zuen, ohi bezala, nire ondoan eseri, eta, solaserako gonbitaren seinale, zigarro bat piztu. Korridoretik diosal azkarra egin eta logelan sartu zen. Ahotsa altxa nuen:

– Bazenekien greba-eguna zela?

Ez zidan erantzun. Haren logelatik zetorren atzera-aurrerako hotsa aditzen nuen.

– Luka, esaiok amari etortzeko, mesedez.

Itxaroteko keinua egin zidan burua pantailatik jiratu gabe.

– Ez pentsa irudi horiek erraz kolokatuko dituanik. Kazetari langabetu guztiak *freelance*-ak dituk orain.

Zigarro bat piztu nuen.

– Norbaitek ekarriko al dit baso bat ur?

Logelatik irten eta nire aldamenetik igaro zen ama. Orpoetatik oin puntekin askatuz erantzi zituen zapatak. Dutxan sartu zen. Ura korritzen hasi orduko Amy Winehouseren *Back to black*en antzeko zerbait kantatu nahian ari zela iruditu zitzaidan. Telebista piztu eta begiak itxi nituen.

Loak hartu behar izan ninduen, begiak ireki nituenean ilea lehortuta eta ezagutzen ez nion soineko beltz bat jantzita ikusi bainuen ama.

– Esnatu zara azkenean!

Hurbiltzeko eskatu zion Lukari. Ama aldamenean eseri zitzaidan.

– Diorissimo?

Ia 60 euro balio zituen flasko txikienak. Lepoa ukitu zuen.

– Gizon bat ezagutu dut. Badira dagoeneko lau edo bost hilabete.

Begiak itxi nituen atzera. Lukak izterra kolpatu zidan belaunarekin. Lehenengo aldia zen amak, nik jakin gabe, harreman bat hasi zuela. Ezagutzen zuen jende guztiaren gaineko iritzia eskatzen zidan, ez baitzeukan abilidaderik hurkoaren intentzioak neurtzeko.

– Beste makarra bat, seguru.

– Hotel txiki baten jabea da, ez zaio gauez irtetea gustatzen.

– Duela lau hilabeteko kontua dela esan duzu?

Amaren azken konkistak diagnostikoaren garai bertsukoa behar zuen.

– Eta non ezagutu zenuen?

– Meetic-en.

Sofan agondu nintzen.

– Udan perfila ireki nuen, ez nuen esperantza handirik... Baina, begira!

Zutitu egin zen. Barrez, besoarekin bizkarra inguratu eta gogor estutu zuen Lukak. Gola ospatzen ari den futbolaria bezain euforiko zegoen.

– Ba, ze ondo! Zorionak, Arantza!

Korridorearen ertzean utzita zeuzkan bi maletak seinalatu zizkigun.

– Apartamentutxo bat dauka hotelean bertan, teilatupean, berarekin bizitzera joateko eskatu dit. Pen-

tsa! Alokairua ordaindu beharrik ez, eta egunero buffeteko gosaria!

– A ze mauka!

– Uste dut lehen aldia dela diru-arazorik gabeko norbaitekin endredatzen naizena.

Kapazu batean nezeserra, ile-lehorgailua eta irrati txiki bat sartu zituen.

– Zuentzat duzue etxea oso-osorik. Ez zaituztet gehiago molestatuko. Faltan hartuko zaituztet, ez pentsa.

Jaiki egin nintzen, eta minezko kexu batek egin zidan ihes.

– Zer duzu?

– Ez da ezer.

– Seguru?

Eskua jarri zidan sorbaldan.

– Beraz, bazoaz –esan nion.

– Bai.

– Ongi.

– Ez al didazu zorte onik opa behar?

Maletei eutsi zien, esku banatan.

– Zorte on, ama.

Bere atzean itxi zuen atea. Hara begira gelditu ginen Luka eta biok.

– Zorionak –esan zidan–, ama independizatu zain.

– Laster duk bueltan. Emaiok astebete.

Sukaldera sartu nintzen beste Nolotil baten bila; giharretako minari burukoa gehitu baitzitzaion. Telefonoak jo zion Lukari.

– Lehen ere alde egin zinan jaiotetxetik –gaztigatu zidan eskegi zuenean–. Ez ezan gutxietsi.

– Itzuliko duk.

– Hori nahi huke?

Jauzi egin eta atzamar erakuslearekin seinalatu ninduen.

– Esadan kolore bat!

– Zer?

– Kolore bat, nahi dunana.

– Beltza.

– Konforme. Afari beltza egingo dinagu ospatzeko.

– Zer ospatu behar duk?

– Hire amak nobioa duela eta erreportajea erosi didatela.

Txori-musua eman zidan ezpainetan.

– Produced by Luka Moretti!

Sorbaldatik zolda astintzeko keinua egin zuen.

– Zorionak.

Hozkailutik zerbeza bat hartu eta ordenagailu aurrera itzuli zen erreportajea eskatu zioten formatuan egokitzera.

Marmar egin nuen:

– *Diorissimo*.

Lengua Castellanako irakasleak 1997ko urriaren 14an, bezperan hildako ertzainaren alde minutu bateko isilunea eskatu zigun. Hilabete baino ez neraman Txurdinagako institutuan, ez nituen ikaskideak ezagutzen, ez behintzat politikoki nora lerratzen ziren segurtasunez jakiteko beste. Inguruari pultsua hartzen saiatu nintzen: ikasle pare batek burua makurtu zuen koadernoetara. Gehienek hitz egiteari utzi zioten, baina solemnitaterik gabe, elkarri keinuka eta paper-pilotatxoak jaurtitzen jarraitu zuten. Ertz batean, zurrumurru batzuk. Orduan, aulki baten hotsa entzun zen, kolpez altxatu zen norbaitena. Jiratu egin nintzen. Gelako mutil bat zen, oraindik izena ikasi ez niona.

– Nora zoaz? –galdetu zion irakasleak.

Ez zion erantzun. Motxila hartu eta atera jo zuen. Atzetik segitu nion.

– Nagore Vargas! –kargu hartu zidan irakasleak.

Azkar zeharkatu nuen ikasgela. Atea itxi, eta neure burua aurkeztu nion korridorean zain neukan mutilari.

– Jokin –erantzun zidan.

Institutuko patioa atzean utzi eta oinez abiatu ginen. Nire bizitzari buruzko zertzeladekikoak egin ostean –nongoa, nolatan Bilbon, zer moduz hirian–, elkarrekin errepasatu genituen bezperako gertakariak, elkarri hitza zapalduz, nork xehetasun gehiago emango. Iheserako enplegaturiko ibilgailu-motei buruz hitz egin nion nik –ez nekien albistegian aditurikoa besterik–, komandokideen jantzien koloreak aipatu zituen berak, eta granaden eta atzemandako gainerako armen inbentarioa egin genuen bion artean. Gertaturikoak “mutilei” ekarriko zizkien ondorioez, Jokinek hitz egin zuen: tortura, isolamendua, sakabanaketa, kartzela.

– Furgoneta nire lehengusuarena zunan.

Jokoz kanpo utzi ninduen.

– Atxilotu egin diten.

“Sentitzen diat” esan nion, baina, egiaz, handiagoa izan zen atxilotuarekiko ahaidetasunak ematen zion –kentzen zidan– autoritateak sortu zidan bekaitza, ezagutzen ez nuen lehengusu harekiko elkartasuna baino. Diskurtso ezkertiarra garatu arren, errebel-

diarako pronto agertu arren, euskaldun peto abertzaleek, nahi gabe ere, behin eta berriz gogorarazten zidaten –euren abizen atabikoekin, euren senide presoekin– ez nintzela beren artekoa, ez behintzat erabat, ez behintzat osoki. Partaidetza-sentimendua baino, jazarriak izateak berak ematen zien xarma eta suminerako eskubidea nituen eskas. Bazen beti odol-loturaren bat, menderakuntzaren zilbor-heste galduren bat nigana lotzen ez zena, etengabe euren liluraren zirkulutik kanpo uzten ninduena.

Belarretan jesarrita geunden, Europa parkean. Gure oinetan, hiria.

– A ze begiak –esan zidan.

Musu eman nion, Txurdinagako bloketzarrak atzeoihal gisa. Arriskatu. Beregana erakarri ninduen, eta zangalatrau eseri nintzaion gainean. Beste bat izatearen sentipena izan nuen. Alteritatearen zirrara. Bularrak ferekatu zizkidan kamisetaren gainetik, luze, erabat kontzentratuta, eskuak elastikoaren azpira eramateko eta beste gorputz atalik arakatzeko zirkinik egin gabe. Dardara bat. Detonagailua. Arrazoi zeukan aitak. Hiri bat neukan deskubritzeko; zenbait iraultza, kokatzeko; eta gorputz bat biolentziaren eta erotikaren arteko plazan jokoan jartzeko.

Ez nuen Adrian utzi, baina Jokinekin egoten jarraitu nuen. Nire bizitzako beste zenbait alorretan bezala, metaketaren alde –gorde, pilatu eta nahastu– egin nuen, ordezkapenaren kaltetan. Berdintsu jokatzen nuen frustrazioekin, alkoholdun edariekin eta etxeko trasteekin. Jokinen bitartez ezagutu nuen Haritz, eta Haritzen bitartez Karra. Denboraldi batez laurekin endredatuta ibili nintzen. Lauretan Adrian zen berarekin harreman monogamoa nuela uste zuen bakarra. Elkarrengandik aparteko munduak ziren niretzat Bilbokoa eta herrikoa, bata ez balitz bezala jokatzen nuen bestean. Ez nintzen gezurretan aritzen, baina eskatu gabeko azalpenak saihesten nituen. Jokinek bazuen Adrianen berri –Haritz eta Karrarekikoaz ez nion ezer esan, baina zerbait susmatzen zuen–, eta Haritzek eta Karrak bazekiten biekin oheratzen nintzela. Bakoitzak zuen bere lekua eta, agian, bere funtzioa.

Adrianekin amaitzen nituen larunbat gauak: Ataka itxi, lokalera joan, zaborretatik erreskataturiko besaulkian biluzi, eta barrako adrenalinari, alkoholari eta gainontzekoei jaisten laguntzen genien. Bakarrik lur hartzeko izutuegi geunden errebaletako paraxutistak

ginen, kale-garbitzaileen kamioia nola, gauak desordutan egunari jaurtiak, zigarroak ketan, bizirauteko inertziara otzan eta zikin errendituak. Taberna itxi ostean, hiru edo lau ordu behar izaten genituen loguraren lehen arrastoak sumatzen hasteko, baina azkenerako, iristen zen, pisu eta ilun, nekea.

Jokinekiko afera klase-tarteetara mugatzen zen. Institutuan gure gisako beste zenbait analista politiko amateurrekin batera komunikatuak idazteaz eta fotokopiatzeaz gain, gelaz gelako erronda egiten genuen Ikasle Abertzaleak-ek antolaturiko protesten deialdiak zabaltzeko, pankartak margotzen genituen plastikagelan eta fanzine bat sortzearekin amets egiten genuen. Baina bakarrik gelditu orduko elkarren gorputzak bilatzen genituen etsi-etsian, sapiens espeziearen kontra inboluzionatuz usnara, milikara, igurtzira. Eskolako patioko ertz batean, inguruko etxepeetan edo Europa parkean aritzen ginen musuka ezpainak handitu eta kokotsa narritatzeraino, eta arroparen gainetik edo jantzien arteko zirrikituetatik ferekatzen genuen elkar, azpiko arropak heze-heze egin arte. Nerabe lotsatiarena egiten nuen Jokinekin, aspaldi galduriko ahalkeak ezarririko mugez gozatzen nuen, ukitu zalantzatiak, fereka neurtuak, oharkabean igurtziriko ha-

ragi-zatiak zeharka eskainiz eta eskatuz, jarrera eta mugimendu deserosoetan zerbait berriaren bila. Gure adinekoek egiten zutena egiten genuen, ez gehiago: begiak itxi eta bigarren batek, urduri eta trakets, norberaren gorputzaren atal ezkutuak eta zirrara ezezagunak bila zitzan utzi. Beste baten baitara abandonatzearen liberazioa sentitu. Harritzera jolastu. Hori besterik ez, eta hori dena. Ez ginen sekula elkarren aurrean biluzi, ezta biluziko ere; nahi gabe bezala lehertzen ziren gorputzak izan behar zuten gureek, lur gogorraren gainean oharkabean barreiatuak, izerdi-, desodorante- eta sexu-usainekoak.

Haritz zaharragoa zen; nire begietara, gizon bat. Bazituen enplegu bat –LABeko liberatua zen–, etxea –beste hiru lagunekin partekatua– eta autoa. Morroi serioa eta neurritsua, sudur zorrotzaren gaineko betaurreko txikiek estudiante atenporalaren itxura ematen zioten. Ordurako amaituta zituen Zientzia Politikoetako ikasketak, eta ezagun samarra bilakatzen ari zen euskal mundutxoko artikulugileen artean. Arduraz irakurtzen zituen egunkarietako nazioarteko sailak eta aldizkari ezkertiarrak. Isila, langilea, apur bat ttenttea, antikapitalistaki elegantea, inteligentea. Begiak erdi itxita izaten zituen ia beti, miopiagatik edo sortzetiko

eszeptizismoagatik zen, ezin nion igarri. Larrua jotzen imajinatzea kostatzen den jende horietakoa zen, ez batere organikoa, ez batere oinarrizkoa, eta hargatik, probokatzailea. Jokinek aurkeztu zidan zenbait eztabaida ideologikoren ostean. Jokinekin liskarrak izan nituen –*konfliktoa, asuntoa, auzia, arazoa*... terminologiaren inguruan ere eztabaidatzen genuen– hark gatazka kokatzeko zeukan modu sinplistaren erruz: erdeinuz hitz egiten zuen espainolei buruz –bereizketarik gabe; gogora ekarri behar izaten nizkion amama Rosa, aitita Manuel eta haien arbaso guztiak–, eta, nire iritziz, barkaberegia zen, aldiz, zaku bakar batean biltzen zituen euskaldunekin. Debate oso pobrea iruditzen zitzaidan, infantila.

– Eta gure oligarkiaz, zer diok? Zapalkuntzak gurutzatzen diren lekuaz pentsatu behar huke.

Antzarak ferratzera bidali nuen ideologikoki. Sexualki, arroparen gainetik elkar haztatzen jarraitu genuen.

Nire diskurtsoaz eta harena etengabe zalantzan jartzeko nuen joeraz enpo, Haritzen eskuetan utzi ninduen Jokinek. Entregatu egin ninduen:

– Hau hireetakoa duk –esan zuen zehazki.

Arratsalde osoa eman nuen Haritzekin Someran poteoan, eta ezagutu nuen egunean bertan erantzi nion “Ni guerra entre pueblos, ni paz entre clases” lemadun kamiseta “iraultzaileen pisuan”, hala bataiatu bainuen Haritzek Karrarekin eta beste bi lagun kalpartsu eta erreboltarirekin partekatzen zuen etxebizitza. Zurito arteko elkarrizketetan bezala, serio eta kontzentratuta iraun zuen larrua jotzen genuen bitartean ere. Une batzuetan faltan sumatu nuen Jokinen naturaltasun dorpea, baina Haritzek nire hitz bakoitzean eta gorputz atalik ahaztuenean pausatzeko zuen modu arretatsua gustatu zitzaidan. Isil eta zehatz, bere artikuluetarako hitz egokienaren bila galtzen zenean bezala gal zitekeen besape baten pleguetan, eta hantxe iraun, zirrara doiaren bila, norberaren zerbitzura baina bere baitara bilduta. Lehen gau hartan, argia piztu zuenean, ezin izan nion barreari eutsi gela hiperordenatuan hormaren kontra handitik txikira antolaturiko zapata-lerroa ikustean: mendiko botak, korrika egiteko zapatilak, olanazko botinak, katu-hankak, txapinak, txankletak.

– Organizazio honekin, laster arreglatuko diagu mundua.

Haritzekin zabaldu nuen askapen borroken zerumuga –Nikaragua, Venezuela, Mexiko, Bolivia, Palestina, Brasil, Kurdistan– eta gorputz atalen kartografian ere aduana bat baino gehiago zeharkatu genuen gauez eta klandestinoki. Geure erara.

Gauez eta klandestinoki. Hala amaitu nuen Haritzen pisukide Karraren ohean, nire maitaleen lagun minekin endredatzeko joera korapilatsu bezain emankorrari hasiera emanez, bidenabar. Karra nire antzeko hibrido bat zen, emigranteen semea eta euskaldun berria, izaeraz alaia eta axolagabea. Haien pisuko besaulkian nengoen, insomnioak jota, Karra goizeko lauretan batzar batetik iritsi zenean.

– Bilera batetik orain?

Hitzik egin gabe itxi genuen tratua: ni beraren ohean sartuko nintzen, eta berak Bilboko ateak irekiko zizkidan. Ezkerreko Bilbo Haritzen eskutik ezagutu banuen, Karra izan zen bertan leku egin zidana eta lagun-kuadrillan integratu ninduena. Karrarekin endredatu eta aste gutxira ezaguna nintzen Someran, kalean oinez nindoala batak eta besteak agurtzen ninduten, zuritoak ateratzen zizkidaten. Harekin sexua hutsal samarra zen, distira berezirik gabea. Ez zuen plazer emateko intentziorik jartzen, eros nagikoa zen,

baina planak egiten zizkidan hirian, bileretara gonbidatzen ninduen, Segiko neskak aurkeztu zizkidan, Irantzu, tartean, eta hilabete gutxiren buruan, haren pisuan jarri nintzen bizitzen.

Beraz, esan dezaket sexuari eskerrak iskin egin niola bakardadeari; hari esker berreskuratu nuela nerabezaro galdua; eta izarapekoak ireki zizkidala militantziaren, taldetasunaren, hiriaren eta autonomiaren ateak. Zerbait zor diot larruari.

Agindutako afari beltza ia sei hilabete atzeratu zitzaion Lukari. Udako iluntze batean, lurrindegitik etxera iritsi nintzenean, kandelekin apainduriko mahaiaren aldamenean aurkitu nuen.

– Hoa gelara.

Mahukarik gabeko soineko beltz bat ohe gainean. Jantzi egin nuen. Oinutsik itzuli nintzen sukaldera, ez baineukan harekin ondo zetorren oinetakorik.

– Madame –eskaini zidan aulkia.

Ahozapia besaurrean tolestuta, frantsesez kantatu zuen menua.

– Tamalez, ez nauk hi bezain poliglota.

– Tamalez, ez naun hi bezain dotorea.

Behar zuena baino handiagoa zen alkandora beltza jantzita, orkestra-kantaria zirudien.

– Nondik jiratu duk?

– Ez dinat esango.

Eztarria garbitu zuen:

– Hasteko, letxuga beltzezko entsalada erremolatxa, hijiki alga, azeituna eta modena erredukzioarekin; arraba beltzez estalitako entsaladilla-tartaletak eta huitlacoche quesadillak. Ondoren, txibiak tintan eta, bukatzeko, txokolate eta masusta tarta. Dena, Errioxako ardo beltzak lagunduta. Afalondorako, kafe hutsa, eta Ferneta.

– Frantsesez bezain ondo gelditu zaik.

Entsalada zerbitzatu zidan.

– Gure alde.

– Etorkizun beltza izango dugula zirudik!

– Hik aukeratu huen kolorea.

– Elegantea duk.

– Isiltasunaren, neguaren, iluntasunaren, infinituaren, misterioaren eta energia femenino pasiboaren kolorea dun.

– Energia femenino pasiboa?

– Nik hik baino garatuago zaukanat.

– Heriotza ere beltza duk.

– 50 beltz diferente zauden.

– Argienaren alde egingo diagu topa.

Zutik jarri zen:

– Beltz argiaren, ia urdin ilunaren alde!

Topa egin genuen.

– Ahal dugunean Parisera joango gaitun, eta proba errepikatuko dinagu.

Maggioreren liburuak zioen GIBa antzemateko erabiltzen ziren Western Blot probak, zehaztugabeak izateaz gain, estandarizatu gabe zeudela. Ez zegoen nazioartean emaitza positiboa definitzeko irizpide bateraturik. Estatu beraren barruan ere, laborategi batetik bestera aldatu egiten ziren estandarrak. GIB probetako tresneria-fabrikatzaileek eurek aitortzen zuten ez zela existitzen giza odolean GIB-1 eta GIB-2 antigorputzen presentzia edo absentzia ziurtatuko zuen estandarrik. Hala, posible zen pertsona bera herrialde batean GIB positiboa eta aldamenekoan GIB negatiboa izatea. Emaitza, interpretazioaren araberakoa zen: proba zalantzazko bat positibo eztabaidaezin bilaka zitekeen norbanakoaren sexu-hautuaren, osasun historialaren edo posta-kodearen arabera.

– Zerenak dira arrabak?

Tartaleta baten erdia ahoratu nuen.

– Pobreen kabiarra esaten zieten.

– Egokia, guretzat.

– Korrokoiarenak ditun.

Ahozapira hustu nuen ahoratu berri nuen mokadua.

– Ez duk egia!

– Zer ba?

– A ze nazka!

– Asian estimatuak ditun. Urte berriarekin opari ematen ditizten, aberastasunaren eta oparotasunaren seinale.

– Hik ez dituk gure herriko korrokoiak ikusi: zaborrez elikatu eta, itsaso txarrarekin, ibaian gora igotzen dituk lodi-lodi...

Ardoa eskaini zidan.

– Zer dion Parisekoaz?

Maggiorek baieztatzen zuen hiesa ez zela gaixotasun bat, ezpada kategoria bat. Estatu Batuetan, Eritasunen Kontrolerako Zentroek 1981etik hiru aldiz zabaldu zuten hiesaren definizioa. 1993ko definizio-aldaketaren ostean, sintomarik gabeko jendea ere izan zitekeen hiesdun, baldin eta T zelulak 200en azpitik bazituen. Definizio berriaren ondorioz, urte hartako kutsatze-kopuruari 21.000 kasu gehitu zizkioten egun

batetik bestera, haietatik 20.000 baino gehiago inolako sintomarik gabe.

– Ez diat zakur-ametsik egin nahi.

– Negatibo emango bahu, dena ahaztu eta hutsetik hasiko gintuzken.

Txipiroiak atera zituen lurrezko kazolan.

– Amukoak. Arratsalde osoa eman dinat garbitzen.

– Ez diat sinesten.

– Ondo egiten dun.

– Bikainak. Norena duk errezeta?

– Irantzuren amona getariarrari lapurtu zionat.

Hies etiketaren barnean biltzen zuten egoera fisikoen multzoa ezberdina zen herrialde batetik bestera. Kanadako Eritasunen Kontrolerako Laborategi Zentralak, esaterako, ez zuen T zelulen zenbaketarako irizpide estatubatuarra onartzen eta, hortaz, AEBetako 182.200 hiesdunek ez zuketen hiesik izango Kanadan.

– Ezin duk hain erraza izan: Parisera joan eta dena amesgaizto bat izan dela egiaztatzea atzean Tour Eiffel dugula.

– Film erromantiko baten amaiera zirudin: Montmartreko lorategietan izozkia jango geniken ilunabarrean.

– Azukre gehiegi.

– Asmatuko dinat amaiera orekatuago bat.

– Hiria aldatu behar huke.

– Bartzelona?

– Hori gure estatu berean zagok oraingoz.

– Londres?

– 1992tik ez ditek han Western Blot-ik erabiltzen, aski fidagarria ez dela iritzita.

– Hire ustez, egia izango al da Afrikakoa?

– Diagnostikatzeko moduarena?

– Bai.

– Ez harritu.

Munduko Osasun Erakundeak Afrikan hiesarentzat bi definizio erabat diferente erabiltzen zituela argitzen zuen *House of numbers*ek, eta haietarik bat ere ez omen zen doitzen irizpide estatubatuar edo europarretara. Afrikan gehien erabiltzen zen diagnostiko-definizioak ez zuen GIBaren probarik eskatzen, nahikoa zen gaixoak, gorputz osoko azkurarekin edo gongoilen hanturarekin batera, hiru sintoma kliniko garrantzitsuenetarik bat azaltzea: pisu-galera, sukarra edo eztula.

– Afrika beltza.

Lukak platerak erretiratu zituen; txokolate- eta masusta-tartatik bi puska ebaki zituen.

– Irakurri dun Malagako umearena?

– Ez.

– Malagan jaiotako haur bati, ospitalean, ilegalki, GIBaren proba egin ziotenan eta positibo eman zinan. Kontrara, aitari eta amari egindako testek emaitza negatiboa izan zitenan. Teoria kritikoak ezagutzen zituen lagun batek interpretazio-kriterioak herrialde batetik bestera aldatu egin ohi zirela gaztigatu zienan eta gurasoek Gibraltarreko ospitale ingelesean proba errepikatzea erabaki zitenan. Negatibo eman zinan. Malagako ospitalean proba hura baliogabetzat jo zitenan, hain zuzen, ez zelako territorio espainiarrean egina. Zorionez, osasuntsu zagon haurra.

Botilaren hondarrak hustu nituen.

– Bordele?

– Zer?

– Bordele izan litekek hiria.

– Noiz joan nahi dun?

– Emadak denbora.

Platerak bildu eta musika jarri zuen.

– Miles Davis?

– *Kind of blue*. Kaferik?

– Ferneta, zuzenean.

Bi txupito zerbitzatu zituen. Zurrut egin genion likoreari.

– Bordeleren alde –esan zuen.

Agondu eta gerritik heldu nion.

– Dantza egingo diagu?

Zakur-ametsak, pobreen kabiarra.

– Hi, Luka.

– Zer?

– Eta urdina aukeratu izan banu beltzaren ordez?

– Hire begiak afalduko genizkinan.

2011ko urriaren 20ko arratsaldeko 19:00etan bezero bat agurtu berri nuen aurpegiko masajea eman ostean. Hari musikalean sintonizatuta neukan irratiko albistegian ETAk jardun armatua behin betiko uztea erabaki zuela entzun nuen. Adierazpenak emakume-ahotsa zeukan. Harritu egin ninduen, eta ez: armak uztearen ideia feminitateari lotua. Aitari deitzeko bulkada sentitu nuen lehenbizi, amari, Irantzuri, Lukari eta Karrari hots egitekoa, ondoren. Banan-banan baztertu nituen. Bakoitzarekin nituen esperientzia eta emozio konpartituak borroka armatua, nolabait, tarteko zela: ni-ETA-aita; ni-ETA-ama; ni-ETA-Irantzu... Hiruko bakoi-

tzak mundu bat osatzen zuen. Gatazka politikoa bere pasio, min eta kontraesan guztiekin sartu zen gure intimitateen muinean. Grinatsu eta deseroso, eszena jakin batzuk grabatu zituen eta kode desberdin bat hartu zuen harreman bakoitzaren garapenean: azaldutako emozioak eta isildutakoak; elkarri esandako egiak eta gezurrak. Albisteaz galdetuta, bakoitzak erantzungo zidana imajinatu nuen: nori hartuko zion gain pozak; nori nostalgiak; nori nekeak, ilusioak, kezkak, asperdurak. Nork hitz egingo zuen tentuz eta ahots apalez; nork askatuko barrenak kontentziorik gabe. Bakoitzaren erreakzioak oihartzun desberdina sortuko zuen nire baitan, durduza originalaren kontra talka eginez edo harekin nahastuz, errelato kolektiboen ozeanora jaurtitako lehen harri-koskorren uhinen gisan.

Denda itxi eta eseri egin nintzen. Albisteari nigan interferentziarik gabe dar-dar egiten utzi nion. Eskertu egin nuen momentuak lekukorik gabe harrapatu izana: badira bakardadea exigitzen duten notiziak.

Tentsio zahar bat askatzeak eragindako arintze-sentsazioak arnasa sakon harrarazi zidan. Nekea identifikatu nuen biriken atzeko aldean. Zauriak eta erruduntasun-sentimendu lausoa, akzioen eta inakzioen

zama. Tentsioa luze mantentzeak eta garraiatzeak gogorturiko anatomia. Lagunen zein etsaien heriotzak, iragarritakoa izanda ere, sortzen duen zirrararen antzeko zerbaitek hartu ninduen: zenbait gauzatarako beranduegi zen; beste hainbatetarako, goizegi. Zer esan, nori deitu, nola ordenatu braustaka zetozen imajinak.

Borroka armatuak ia haizeak bezain natural zeharkaturiko haurtzaroak eta nerabezaroak izan ziren gureak. Xalotasuna eta biolentzia ez ziren bereizten ahal: lehen letrak juntatzen ikasi orduko torturak salatzen zituzten pintadak ozenki irakurri genituen haurrak ginen; begien aurrekoa mihi-puntara ekartzeagatik errietan egin zigutenak. Eskolako patioan azaldu zidaten bonba-auto bat zer zen; izebari txute bat zer zen azaldu zioten patio berean. Azalaren azpian bizibizirik nuen pertsona batek beste bat hil zezakeela imajinatzeak zauri iniziatikoa eragin zidan, zarakar lodiz estalia, gertuko eta urruneko biolentzia atergabearen erruz.

Nire baitan zeuden erdi-maketoa izatearen lotsa eta ezkertiarra izatearen harrotasuna; poliziarekiko herra hasieran intuitiboa eta gerora ezinbestean justifikatua; historiako liburuaren babes-orrian GORA ETA (m)

idatzi nuen eguna; parentesi arteko m-ak zer esan nahi zuen jakiteko premia eta inori galdetzeko ahalkea; parkean negarrez ari zen neska, ETAk osaba hil ziola oihukatzen zuena; Perurekin izandako solasaldiak; pegata klandestinoak; atentatuei ekintza deitzen hasi ginen eguna; *alguien debe tirar del gatillo... ETA, ETA, ETA, ETA!*; izerdi-usain konpartitua, talde-sentipena; lagun maketoekiko maitasun barkabera; Miguel Angel Blanco erail zuten egunaren bezpera eta biharamuna; abertzale puruekiko mesfidantza eta espainolista ezkertiarrekiko errukia eta auzo-lotsa; manifestazioen amaieran *Eusko gudariak gara* kantatzeak sorturiko erridikulu-sentsazio errepikaria.

80ko eta 90eko hamarkadetako krispazio-giroak guztiz egiten zuen bat nire egitura emozionalarekin: justizia-grina, biolentziarako predisposizioa, autoritatearen kontrako jarrera, gainezka egindako amorrua, territorioaren defentsa hil edo bizikoa, arbasoak mendekatzeko premia, ausardiaren gorazarre soziala eta gatazkak zuzenean eta pertsonalki interpelatua sentitzea hain zen naturala nire kasuan, barne- eta kanpopultsioen arteko sintoniak normalitate-sentsazio ia etxekoia sortzen baitzidan.

“Denok eman behar dugu zerbait gutxi batzuek dena eman ez dezaten”. Gaztetxotan ebidentziaren adibiderik argiena iruditzen zitzaidan. Oraindik ere, sektore gogorrenaren gain-esfortzua justifikatzeko eta, atzerapenez bazen ere, kobratzeko gogoa identifikatu arren, hiperkulpabilizazioaren estrategiari erpeak ikusiagatik ere, lurrindegiko aulki etzangarrian eserita, kontuak eskatzen nizkion neure buruari. Nire egitura emozionalaren parte zen erruduntasuna ere.

Gure mundua banatzen zuen ardatzetako bat desagertu berria zen. Ezinbestean lerratzeak edo bestek lerratua izateak zekartzan tentsioa eta segurtasuna bukatu ziren. Listua irenstea. Etsaitasunaren adrenalina. Taldetasunaren sehaska. Eztarrian, GORA ETA isilduek oihukaturikoek adinako marranta sortzen zidaten. Sufrimenduaren kontzientzia zabala, luzea eta poliedrikoa zen. Identitateen berreraikuntzaren garaia hasi zen arratsaldeko 19:00etan. Lausoturik gelditu ziren herriaren, norberaren buruaren eta aldamenekoaren imajinak berriro fokuratzen hasiko ginen nor bere kasa, binaka, hirunaka, saldoan. Egia berri baten bila. Garai berrietara egokituriko arrazoiaren eta moralaren araberako gezur gaurkotuen xerka. Hiztegia, begirada eta jarrerak erregulatu beharko ziren. Hamarkadetan

honekin edo harekin puzturiko edo abortaturiko iritziak doituko genituen, doitzen hasiak ziren jada, nire baitan. Tristura izpi bat identifikatu nuen: ez zen nostalgia, ezpada dolua. Eta zalantza izan nuen: umezurtz-sentimendua sakonagoa ote zen ETAren aldekoen artean aurkakoen artean baino? Ez nengoen seguru.

Zutitu nintzenean lanbrotu egin zitzaidan begirada. Ardatza galtzearen zorabioa zen, identitatearen biguntzea. Giharra galtzea. Esklerosia. Zahartuta eta bakarrik sentitu nintzen: historiaren parte. Gertaera, neke, min eta ikara zaharrei katigatuta. Nire bizitzan lehen aldiz, hurrengo belaunaldiekiko bereiz. Une hartan zedarritu zen sigla hark, ETAk, kontzientziaren geruza guztiak iragan zizkigunon belaunaldietan azkena.

Berehala hasi zen erreakzio-soka: “aspaldi zen beranduegi”ren bariazioak. Aurrez prestaturiko esaldiekin mintzo ziren beren buruaz seguruegi zeuden gizonezko ahotsak. Errendizio femeninoaren aldeko pultsio maskulinoak bete zituen uhinak. Bortxaren aurrako bortxak. Damu emeak, herra arrak.

Noraino du batek bere territorioa defendatzeko eskubidea? Zein bitartekorekin, eta noiz arte?

ETAk markatutako erritmoak, airearen dentsitatea, zikloak, etenak; ETAk gidaturiko emozio kolektiboen

sistole-diastoleak isildu ziren. Gorpua bero zegoen oraindik. Inguruan, alargunak, etsaiak eta adiskideak, oinordekoak, erostariak eta putreak. Poza ez zen garbia. Zikina zen tristura.

Noiz utzi behar zaio borroka egiteari?

Kanpoan iluna zen.

Nork daki zein den une egokia?

Etxerako bidean otoitz isil bat, agnostikoa.

Hurrengo udaberriko goiz batean, gosaltzen ari nintzela, atean kolpeka hasi ziren. Jaten ari nintzena mahaian utzi eta iheserako aukerak aztertzeko erreflexua izan nuen. Segundo pare bateko paralisiaren ostean, halako ernegu eszeptiko batek hartu ninduen: zer arraiogatik atxilotu behar ninduten? Erabakimenez, atea zabaltzera presatu nintzen.

Otso amorratua bezala sartu zen aita. Atearen kontra ostikoka eta ukabilka aritu ostean, brastakoan gelditu zen korridorean, amorruz gorrituriko begiekin. Izterretan bermatu zituen eskuak.

– Hi, hi, hi... –bazirudien hirak ez ziola aurrera egiten uzten.

– Ze gertatzen da?

– Noiztik ez haiz kontroletara joaten?

– Ni zelatatzen aritu zara?

– Ze joko-klasetan ari haiz? Badun urtebete ospitalera agertu ez haizela.

– Ezin dut sinetsi.

Buelta-erdia hartu nuen, baina elastikotik tira eginez geldiarazi ninduen.

– Ez dakit zergatik harritzen naizen –esan nion sututa–: zelatan aritu zara. Oso dotorea, bai jauna!

– Ez ezan kontua desbideratu.

– Eta non gelditzen da pazienteen intimitate-eskubidea? Nor arraio zarela uste duzu?

Askatu egin ninduen.

– Hire aita, eta gauza bat esango dinat: kontroletara joaten ez bahaiz, ahaztu hadi nirekin.

– Nahi duzun bezala.

Hain zegoen bere onetik irtenda, une batez jo egingo ninduela uste izan bainuen.

– Emadan motibo bat! Motibo puta bat! Ze ostiagatik ez haiz joaten?

Korridoretik egongelarantz jo nuen, eta handik sukaldera. Ahalik eta sosegatuen hitz egin nion:

– Disidentea naiz.

Lehenengo aldia zen nire burua hala definitzen nuena. Atzetik jarraitu zidan aitak. Algara kirrinkari bat atera zitzaion, histerikoa. Nire gainera etorrita, bere kokotsa nire parietalaren kontra, erdeinuz galdetu zidan:

– Disidentea? Zeren disidentea?

Ez nion erantzun.

– Ba al dakin zenbat jende hiltzen den antirretrobiral-tratamendua jasotzeko aukerarik ez duelako? Aberaskume europar mimatuaren pribilegioetatik leziatzen hasi behar al dun?

Esku-ahurra aitaren bularrean jarri eta, indarrik apenas egin gabe, nigandik urrundu nuen. Dardarka atera zitzaizkidan hitzak:

– Errespetatu nire espazioa.

Ikara eragin zidan aitari sekula santan eskatu ez niona eskatzeak.

Eta gehien beldurtzen ninduena gertatu zen: isilik gelditu zen. Arnasa sakon hartu, jiratu eta ez mehatxu ez danbateko, desagertu egin zen.

Bordele ez zen berehalakoan iritsi. Bi alditan iraungi zitzaidan poltsan tren-txartela, azken momentuan

atzera eginda. Halakoa zen arrazoiaren jabe izateko neukan premia, hura galtzearen izua jabetu baitzen nitaz. Eta zer, zientziak, bigarrenez, gaixo nengoela berresten bazidan? Kontrolik eta proba berririk ezean nire eguneroko gorputzaldia nuen neurgailu bakar. Diagnostikoa baieztatuz gero, haren menera jarri beharko nuen; porrota onartu eta sumisioaren bideari obeditu. Edo posible ote zen berriro ihesari ematea? Beste norabideren batean beharko zuen.

Azkenean, 2013ko uztailean hartu genuen Bordelerako trena. Larunbat goizean Hendaiatik abiatu eta astelehen eguerdian itzuliko ginen. Lukaren lagun baten bitartez klinika pribatu batean GIBaren proba egiteko txanda hartua neukan astelehen goizerako, baina asteburu osoan gai hura ez aipatzeko tratua egin genuen.

Tren-geltokia zapaldu orduko itxura ona hartu nion Bordeleri. Eguraldi ederra egiten zuen, eguerdiko eguzkia brisa finak freskatua, ia kresala aditzeko eran, portu-hiriak bai baitzuen zor zitzaion itsasoa erreklamatzeko eskubiderik.

Hiruzpalau hilabete ziren Luka telebista-ekoiztetxe batean kontratatu zutela, eta lehen soldatarekin apartamentu txukun bat alokatu zuen hiriaren alde zaha-

rrean. Tranbiaz gerturatu ginen Borgoinako Ateraino eta oinez egin genuen Camille-Jullian plazara ematen zuen teilatuperako bidea. Kale-musikariek zipriztintzen zituzten bazterrak.

St Pierre elizatik gertu, doinu gipsyak jotzen zituen gazte-banda batek erakarrita, inguruan zuten jende-zirkulura bildu ginen. Neska eta mutil, zortzi lagunek osatzen zuten taldea: gitarra, ukelelea, saxoa, biolina, kriskitinak, bateria, erritmo-kaxa, ahotsa... Iraingarriki gazteak iruditu zitzaizkidan. Oinutsik, ongi kalkulaturiko utzikeria lotsagabea zerabilten, hippy berrien eta hipsterren arteko zerbait: xanpuz berriki igurtzitako ilaje nahasiak, bigarren eskuko arropak eta musika-tresnak, biltzeko tabakoa eta, ia seguru, ikusten ez zen arren, usaindu nezakeen unibertsitate-beka bana, aski alaiki bizitzen uzten ziena. Abeslariari koruak egiten zizkioten moduak ere espontaneoa eta anarkikoa zirudien, motots deseginak bezain ongi kalkulatua izango zen baina. Energia ozar progrea zerien, ez dakit zergatik, kontzertua amaitu orduko elkarren artean larrua jotzera erretiratuko zirela iragartzen zuena.

– Zein gustatzen zain gehien?

Luka ere harrapatu zuen taldearen aura sexualak.

– Saxoa.

– Hori guapoa delako jarriko zitenan hor, ze...

Lukak nik baino gehiago zekien musikaz.

– Txarra al da?

– Gu bion artean –xuxurlatu zidan amaitu berri zuten piezari txalo jotzen genion bitartean–: Hotzeriak jotako elefantea zirudin.

Barre egin nuen.

– Taldearen pisu guztia erritmo-kaxak eta ahotsak zeramaten, gainerakoak dekoratiboak ditun.

– Jeloskor hago ala iruditu egiten zaidak?

Ahate-ibilkeraz eta, saxoarenak bainoago, bonbardino zaharrarenak ziruditen soinu lodi haiek imitatuz egin zuen apartamenturainoko bidearen zati bat.

Igogailurik gabeko laugarren pisu batean zegoen atikoa. Arnasa berotuta eta izerditan iritsi nintzen gora, baina merezi izan zuen ahaleginak: logelako egur argiak tonu beroa hartzen zuen sabai-leihoetatik sartzen zen arratsaldeko ordu bietako eguzkitan, eta zuriz jantzitako oheak bertan etzatera gonbidatzen zuen. Trasteak utzi, telefonoan musika leuna jarri eta ohea desegin gabe etzan ginen bertan, gazazko xal bat soilik jarrita gorputz erdi-biluzien gainean.

Ia bi orduz egon ginen lo gozoan. Esnatu ginenean etzalekua argi-itzaletan zegoen. Dutxatu eta dotore jantzi nintzen: Lukak afari beltzerako oparitu zidan soinekoarentzat orkatiletara kordelez lotzen ziren zola altuko espartinak erosi nituen. Ilea harrotu eta garondoan erdizka bildu nuen. Nire harridurarako, Luka ez zen gutxiago izan: orkatiletarainoko galtza mostaza-kolorekoak, lihozko elastiko zuria eta koadrodun amerikana iluna soinean itxaron zidan logelan zutik. Irteterakoan, lastozko sonbreroa bururatu zuen.

Camille-Jullian plazan bertan zegoen Utopia kafezineman zerbait hartzea proposatu zidan. Antzinako eliza eraberrituan zirkuitu alternatiboko filmak proiektatzeko zinema zegoen orain, bere jatetxe, kafetegi eta kultur elkartrukerako guneekin. Terrazan eseri eta kafe bana eskatu genuen. Inguruetako karriketan galdu ginen gero: Parlament plazan gintonik bat edan eta Fernand Philippart kalean afaltzeko leku posible pare bat fitxatu genituen. Norako jakinik gabe paseatu ostean, Cailhauko Atearen aldameneko kantoian aurkitu genuen ardandegi baten alde egin genuen azkenean. Frantsesen afalorduari buruzko nire iruzkin espainiarrak gorabehera, eskertu egin genuen zazpietarako mahaira eseri ahal izatea. Gosetuta geunden.

Lokala ez zen merkea, baina eskualdeko ardoa eta hestebete- eta gazta-taula prezio politean eskaintzen zituzten. Ez geunden geure buruari luxu haiek baimentzera ohituta, baina diruzorroa eta konbikzioak apur bat askatzeko ituna egina geneukan.

– Okerrenera, kale ertzean euskal kantak abes zitzakenagu.

– Lastozko sonbreroarekin?

Cremant bana atera ziguten aperitibo gisa.

– Dena dela, St Pierre-eko musikariek ez zeukatean diru falta handirik.

– Nola dakin?

– Prekarietatetik estetika bat egin nahi denean, erreala ez den seinale. Benetan pobrea denak ez dik zapatarik gabe kantatzen. Haien pobre-itxuran bazegoan halako bozkario bat, zerbait ospatzen ari balira bezala –kriskitin egin zuen eskuekin–; Irantzuri ere gertatzen zaiok.

– Nolatan?

– Kariño guztiarekin, baina, prekarietatea eta aszeta-itxura kapritxo pertsonala ditun haren kasuan.

– Hautu ideologikoa?

– Ideologikoa, estetikoa... Koiunturala.

Algara batek ihes egin zion.

– Ez dakik, ala? Irantzuren amaren baserriak armarria ere bazaukak, euskal leinu aristokrata bateko oinordekoa duk; eta alaba bakarra.

– Ez zionat sekula halakorik aditu.

– Lotsatu egiten duk: horregatik bizi duk proletarioen alaba balitz bezala. Aukera duen guztietan esango dik alokairuko pisu partekatuan bizi dela eta ozta-ozta heltzen dela mileurista izatera. Inori ez ziok Getariako opor-etxeaz txintik esaten. Karrera amaitu zuenean aitak Vectra berri bat erosi nahi izan zioan, baina nahiago izan zian hirugarren eskuko Corsa erosi; erabaki behar izan zian autoa bizimodura doitu edo bizimodua autora.

– Jatorra dun, hala ere.

– Maitagarria.

Hestebeteen taularekin batera, bertako chateau bateko beltz bana atera ziguten.

– Gauza bera gertatzen zuan *goraetaka* aritzen ziren matxoekin: sekula arma bat ukitu gabeak denak.

– Post-iraultzaileak?

– Zergatik post?

– Harrikoa amaituta dagoenean sukaldea txukuntzeko beren burua eskaintzen duten lagunen modura: post-inplikatuak, post-eskuzabalak..., post-izoak.

Tragoa jo genion beltzari.

– Hiperkulpabilizatutako jendea duk; erruduntasuna zagok arrandiaren atzean: burgeskumea izatearen kulpa, armak hartzeko koldarregia izatearen lotsa, lagunak preso eraman eta libre geratu izanaren ausikia...

Hestebeteei laguntzeko ogi pixka bat gehiago eskatu nion zerbitzariari.

– Hara ba!

– Zer?

– Benetako burges batek ez zinan ogi gehiago eskatuko.

– Ezta goseak balego ere?

Azken ogi puska eta saltxitxoi zati bat ahoratu nituen.

– Hire ustez guri igartzen al zaigu diruz justu antzean gabiltzala?

– Dudarik ez: aberatsa izan behar, aldeaz jabetzeko.

– Harrigarria duk klasearekin batera oinordetzan hartzen den guztia. Ez duk klaseagatik bakarrik izango, garaiak ere halakoak zituan, baina nik desordena, inpuntualitatea eta diziplina falta kronikoa heredatu nitian, eta diru-zorroa berdindu arren, ezin ditiat ajeok

gobernatu: beti zor txikiren bat, beti geroagoko utzitako egitekoren bat... Etengabe zuloak tapatzen eta barkamena eskatzen aritu beharraren sentsazio akigarri hori. Hi ez haiz horrelakoa.

– Gu nomadak gintunan, ez pobreak.

Zerbitzaria etorri zen gazta-taularekin.

– Nahita ere, zaila duk norberaren sehaska disimulatzea. Hiri arrastorik utzi al dik amarekin hara-hona bizi izanak?

– Bistan dun baietz.

– Adibidez?

– Ez dinat alferrikako trasterik pilatzen eta, konpainia onean bada, berdin zaidan zer ordutan afaldu.

– Marka sakonagorik ere utziko zian.

– Hori baino sakonagoa? Ez dinat uste.

Segituan errenditu genituen gazta-taula eta ardohondarrak. Animatzen ari zen gau epelera atera ginen.

– Hemen propinarik uzten al da?

Ardandegitik hogei bat metrora geunden ordurako.

– Utzi dun zeozer?

– Ez.

Ahazteko keinua egin zidan. Place de Bourse zeharkatu eta Garona ertzean paseo bat ematea erabaki genuen. Urezko ispiluan, burtsaren eraikinak ibaiaren gainean flotean zirudien. Garonan behera, nabarmenkeriarik gabe argiztaturiko Pont de Pierre. Harantz jo genuen.

– Bilbon ez dinagu sekula eskutik helduta paseatzen.

Lurrean eserita telefonoetara konektaturiko bozgorailuetatik musika entzuten ari ziren nerabe batzuen aldamenetik igaro ginen.

– Dantza egiteko gogoa diat.

Pixka batean ibili, eta alde zaharreko kale artera jo genuen berriro. Parlament plazatik ez urrun, musika kubatarra jarrita zeukan pub batekin egin genuen topo.

– Autentikoa zirudin.

Neoizko argiz eta foku apurrez argiztaturiko lokal estuak barra gainean prest zeuzkan menda freskoz hornituriko edalontziak, limoi-puskaz beteriko baldeak eta ron botilak. Atzeko apaletan, ron gehiago eta whiski botila batzuk. Barra jendez gainezka zegoen. Hondoan, barne-patio moduko batean, terraza loretsu bat. Hutsik zegoen mahai bakarrean eseri ginen.

– Nik eskatuko diat, hik zaindu mahaia.

– Topera zagon.

Pintadaz jositako horma zaharretan afixak, ispiluak, argazki zaharrak eta banderatxoak elkarren gainean. Fidel, Che, Cienfuegos, 26-Julio, auto errusiarrak, palmondoak eta postal-sorta osoa. Bero egiten zuen. Barraren atzeko apalategien gainean bi haizagailu biraka. Taburete bat eskuratu nuen.

– Dantza egin nahi?

Ez nuen gerturatzen sumatu, nire aurrean zegoen zutik. Saxorik gabe ere ezagutu nuen. Bizar sarria, mototsean bildutako ile luzea eta bigarren eskukoa behar zuen alkandora. Eskua eman zidan eta, nik ahal dakit zergatik, jaiki egin nintzen. Ezin izan nuen haren oinetara begiratzea saihestu: sandaliak jantzita zeuzkan. Ulertu ez nion zerbait esan zidan belarrira eta besoak eta izterrak sentitu nituen oilo-larrutzen. Ahazturiko aztoramen hura: plazeraren memoria. Usainetik berretsi nuen baietz, unibertsitate-bekaren bat izan behar zuela eta, akaso, gurasoek babesturiko kontu korrontea. Nori axola zitzaion. Atzamarrekin lepoaren atzean laztandu ninduen. Ez zegoen apenas dantzan egiteko tokirik eta jendetzak elkarren kontra arrimatzera behartu gintuen. Patiora begiratu nuen. Kanta

bat. Dantza bat eta mojitoen bila itzuliko nintzen. Gerritik heldu eta barre egin nion. Nire ardatzaren bueltan birarazi ninduen, soineko nasaia puztuz eta aire beroz betez. Bizkarrean jarri zidan eskua. Begietara begiratu genion elkarri. Irribarre egitean begiak ñarrotu zitzaizkion. Neoizko argien erdi-ilunpean, atzamarpuntekin mantso-mantso zeharkatu zizkidan besabarrenak eta esku ahurrak, eta berriro birarazi ninduen. Oreka berreskuratzeko eskua gerrira eraman nionean, erdi askaturiko alkandoraren azpitik azal beroa ukitu nion. Hatz-mamiekin sabelaldea laztandu nion galtzen gerriaren mugan. Dantzan jarraitu genuen. Beste zerbait esan zidan belarri ertzera. Sorbaldak hormaren kontra bermatu eta musu eman nion leun eta heze. Gorputzaren azalera osoa sentitu nuen esnatzen, urtzen eta zoratzen, nerabezarotik sentitu gabeko indarrez. Abestia amaitu zenean ireki nituen begiak, burua mutilaren bularrean etzan nuen une batez, eta alde egin nuen.

Mojitoekin itzuli nintzen terrazara.

– Izerditan hago.

Zurrut luzea jo nion mojitoari. Terrazako giroa animatuz joan zen pixkanaka: goitik behera zuriz jantzitako lau gizon kapeladun agertu ziren bat-batean tron-

peta, maraka, gitarra eta tres kubatarrarekin. Ez ginen ohartu ertz batean kokatuta zegoen mikrofonoarekin. Musikariek lehen notak eman orduko, tabernak propio kontratatua izango zela apustu egin genuen bikote kubatar bat atera zen dantzara sekulako erakustaldia emanez. Hiru edo lau kantaren ostean animatu ziren autoktonorik ausartenak. Kubatarrek bikoteak trukatzeko proposamena egin zieten, karibetar-kontinental bikote asimetrikoak osatzearren.

– Aterako al gara?

Terrazako ertz bat hartu genuen, gure mahaiaren ondoan, eta Lukaren pausoei nahiko baldarki jarraituz son kubatarraren erritmoan dantzan hasi ginen.

– Ahaztu pausoak, utzi joaten.

Elkarrekin abestu genuen:

– *Cuando Juanica y Chan Chan en el mar cernían arena, como sacudía el jibe, a Chan Chan le daba pena...*

Lotsatzen nintzenean mojitoari heltzen nion. Lukak, sonbreroa jantzita eta trebeki dantzan, beneta-ko kubatarra zirudien.

– Ez nekian hain ondo dantzatzen huenik.

– Total erreprimiturik eduki nauzue.

Musikariek jotzeari utzi arte aritu ginen dantzan. Oinetako minez erretiratu ginen, gerritik helduta eta *píntate los labios, María!* kantuan.

Biharamunean berandu esnatu nintzen, baina, giharretako eta buruko mina gorabehera, egun berriari ekiteko gogoz eta energiaz beteta. Dutxatu, jantzi eta bi espreso prestatu nituen apartamentuko kapsula-makinan. Oraindik ohean zetzan Lukaren gainean zangalatrau jarri eta belarrira kantatuz esnatu nuen:

– *De Alto Cedro voy para Marcané...*

Kafea eta toalla garbi bat eraman nizkion.

Irteteko prestatu zenean Saint-Michel aldera joatea erabaki genuen. Arkitektura Saint-Eloi eta Saint-Pierre ingurukoaren antzekoa izanagatik, bazuen auzoak egiazkoagoa egiten zuen zerbait. Etxaurre hondatzen hasiek, kebabek, janari arabiarra saltzen zuten dendek, frutategiek eta igandeetako merkatuak ukitu arimaduna eta kosmopolita ematen zioten. Clare kalearen amaieran merkatu erraldoi eta zaratatsu batekin topo egin genuen. Marché des Capucins-eko denda artean galdu ginen. Zazpi euro eta erdian dozena-erdi ostra eta ardo zuri kopa eskaintzen zituen postu bat aurkitu zuen Lukak.

– Jarri bi –esan zion saltzaileari.

Jende-aldrari begira itsas jaki zaporetsuak zurrupatzeari ekin genion.

– Gazta, ardoa, mojitoak, ostrak..., bizi litekek honela!

– Jende-pilaketei ere izua galdu dien: pentsa zertarako gai den luxua.

Ostra mamitsu bat ahoratu zuen Lukak.

– Ez zakiat gaixorik nagoen edo ez –lehenengo aldiz atera nuen gaia Bordelen–, baina honek edozein sendatuko likek.

Isiltasun-ituna hautsi nuela gogorarazi zidan Lukak begiradarekin, baina ildo beretik jarraitu zuen.

– Seguru Christine Maggiorek ostrak jaten dituela Ingalaterran.

– Yankia duk. Chicago.

– Seguru?

– Begira ezak nahi baduk!

Telefonoa atera eta emaitzaren zain gelditu zen. Bat-batean zurbildu egin zela ikusi nuen.

– Ondo hago?

Urdail sentikorrekoa zen, eta ostraren batek kalte egin ote zion... Putz egin zuen eta eskua bekokira eraman.

– Ezin liteken.

Eskuetatik kendu nion telefonoa. Orduan irakurri nuen Wikipediako orrian: “Christine Joy Maggiore (Chicago, 1956ko uztailak 25-Los Angeles, 2008ko abenduak 27)”

Eredutzat hartu nuen lider disidentea hilda zegoela jakitea zaplazteko umiliagarria izan zen. Hildako baten heriotzaren aurkako borroka izan nuen bizitzarako esperantza-bazka. Hil izanak larriki zauritzen zituen haren ideia negazionistak. Aski izan nuen Wikipedian kontsulta azkar bat sareak Maggioreren bizialdiari egiten zion epaiaz jabetzeko: erruduna. Lerroartean, bere burua heriotzara eraman izanaren errudun jotzeaz gain, beste pertsona askoren bizia jokoan jartzea leporatzen zioten: ziurtatzen zuten Hegoafrikako presidente Thabo Mbeki-k Maggioreren ideiei jarraituz eten ziela osasun-tratamenduaren finantzaketa emakume seropositibo haurdunei, eta amentzako AZT tratamendua blokaturik egon zen aldi horretan 330.000 pertsona hil zirela hiesaren infekzio berrien ondorioz. Hala ere, bere alaba propioaren heriotza eragin izana zen zorrotzen egozten ziotena. Sarearen arabera, Christine Maggioreren alaba, Eliza Jane Scovill, hies ka-

suetan gertatu ohi den pneumonia berezi batek hil zuen hiru urte baino ez zituela. Haren amak ez zuen GIBaren transmisio-arriskua gutxitzeko botikarik hartu nahi izan haurdunaldian, eta ez zion alabari, bizi zela, GIBaren probarik sekula egin.

Ama txarrari egiten zioten epaiketa emakume disidenteari egiten ziotena adinakoa edo are gogorragoa zen: alaba heriotzara eraman izana ezelako arrazoirekin justifikaezina zen, aberrazioa. “Eliza Jane” azpisarrera ez zegoen epaiketa morala izatetik urrun: “Christine Maggiorek bere haurdunaldietan antirretrobiralik eta GIBaren transmisio-arriskua murrizten duen bestelako medikaziorik ez hartzea erabaki zuen. Seme-alabei bularra eman zien, edoskitzeak GIBaren transmisio-arriskua handitzen duela dioen ebidentzia zientifikoaren kontra. Alabari ez zion sekula mediku-azterketarik egin, eta ez Elizak ez haren neba nagusiak, Charliek, jaso zuten haurtzaroan gomendaturiko txertorik.

“2005eko apirilean Eliza Jane gaixotu egin zen. Artatu zuten bi medikuek pneumonia diagnostikatu zioten. Haurrak hobera egiten ez zuela ikusita, Philip Incao lagunarengana eraman zuen Maggiorek. Medikuntza antroposofiakoan aditua eta Maggiorek berak sorturiko Bizirik eta ongi, Hiesaren alternatibak elkar-

te negazionistako kide zen Incao. Makalalditxo bat baino ez zela ondorioztatu zuen hark, eta amoxizilina errezetatu zion ustezko belarriko infekzio arin batentzat. 2005eko maiatzaren 16an, kolapsatu eta arnasa hartzeari utzi zion Elizak. Valley Presbyterian ospitalera eraman zuten urgentziaz, eta, hainbat suspertzeahaleginen ostean, hildakotzat jo zuten. Autopsiak ezagutarazi zuenez, Eliza Jane ez zen bere adineko batez besteko pisura eta garaierara iristen; timoa eta beste zenbait organo linfoide atrofiatuta zeuzkan eta haren birikak *Pneumocystis jirovecii* patogeno oportunistak infektatuak, zeina haur hiesdunen heriotzakausa ohikoena den. Mediku forentsearen iritziz hies aurreratuak eragindako pneumoniak hil zuen Eliza.

“Maggiorek uko egin zion autopsiari eta berrazter zezan eskatu zion albaitaritzan doktore zen Mohammed Al-Bayati negazionistari, gizakien medikuntzan inolako egiaztagiririk ez zuen arren. Haren arabera, amoxizilinaren kontrako erreakzio alergiko baten ondorioz hil zen Eliza. Maggiorek ontzat eman zuen bigarren ondorio hori.”

Urezko ispilu faltsua, Bordele.

–3–

Kaioen txilioek esnatu ninduten. Irantzuren toalla hutsean, irakurtzen ari zen nobela tripaz behera irekita. Urrunean begiztatu nuen oinez, urertzean, biluzik, lastozko pamela horia buruan. Zutitu eta harantz abiatu nintzen, laguna atzitzeko presarik gabe. Egunsentiko hodei altuak desegiten ari ziren zeruan. Irantzuk hondar hezean utzitako oinatzei segika ibili nintzen tarte batean. Bizkar zabala eta gerri estua zituen, ipurmasail eta izter gihartsuak. Gutxi bezala, politagoa zen biluzik jantzita baino.

– Hemen borobila dun zeruertza –esan zidan harrapatu nuenean.

Ez zitzaidan iruditu.

– Hain dun txikia irla, puntu altu xamar batean kokatuz gero, ezerk ez din itsasoaren eta zeruaren arteko lerroa eteten.

Ia bakarrik geunden hondartzan, iraileko azken egunak ziren. Goiz zen oraindik; ez aspaldi kaioena zen itsasbazterra.

– Zer ordu ote da?

Muino arrokatsu baten atzean lokatz iluneko putzu batzuk aurkitu genituen. Hara makurtu zen Irantzu. Esku bete buztin hartu eta bularrean zabaldu zuen. Sabela eta izterrak lohitu zituen. Lokatz pixka bat zabaldu nion bizkarrean behera, eta gauza bera egin zuen hark nirekin.

– Burua.

Aurrez aurre jarri eta buztin berunkaraz estali genion ilea elkarri.

Eguzkitan etzan ginen, lehortzera. Lokatzak, idortu ahala, arrakalatu eta azala atximurkatzen zigun. Eskua eman nion.

– Hementxe geldituko ninduken betiko.

Irantzuren besoan gora ausartu zen karramarro txiki bat.

– Oporrek bukatzea diten baldintza.

Uretara sartu ginen azalberritzera. Plazer eman zidan murgiltzeak, aspaldi zen biluzik bainatzen ez nintzela. Burua sartu nuen urpean. Sentsazio atsegin hartara bildu nituen zentzumenak: ilearen kulunka uretan, itsas kurkuilu bilakaturik belarriak. Mundua atzean uztearen irudipen iragankorra. Arnasa ahitu arte jarraitu nuen urpean igeri, atzean utziz lohia.

Plantxan etzan nintzen ur-azalean. Itsasoaren marmarra eta eguzki errea betazaletan taupaka. Uhin leunak sumatzen nituen besapeetan eta izterren artean.

Hilarena egitea, hala esaten genion umetan itsasoan etzateari. Arrain batek zangosagarra ukitu zidan.

– Itzuliko al gara?

Toallara iristerako lehortuta geunden, gatz ezkatatxoak azalean.

– Etzan ahuspez.

Olatuek pirritan ekarritako harri borobilez ingurututa geunden. Nire bizkarraren gainean puzzle bat osatu zuen Irantzuk haiekin. Pixkanaka bizkarralde osoa eta besoak estali zizkidan harri handiz eta txikiz. Larru pisutsu eta beroa azalaren gainean.

– Itxi begiak; ea asmatzen dunan noiz kentzen dinadan azkena.

Banaka, harriak erretiratzeari ekin zion. Arindua senti nezakeen handi bat kentzen zuenean; luma baten fereka doia ziren txikiak.

– Listo –esan nion, denak erretiratu zizkidala uste izan nuenean.

– Bat, bi, hiru...

Hamabi harri zenbatu zituen, nabaritu gabe gainean neuzkanak.

Lucía y el sexo filmarengatik eraman ninduen Irantzuk Formenterara, film hartako argiarengatik, zehazki. Irla garestian aire zabalean lo egitea zen gure asmoa, eta hala egingo genuen lehen gauean bertan guardiek iratzarri eta hondartzatik modu zakarrean bota izan ez bagintuzte. Zortez, bere etxeko terrazako hamakak erabiltzen utzi zigun gurekin kupitu zen emakume batek, eta hantxe eman genituen gainerako gauak. Terrazako gasezko su txikia erabiltzen utzi zigun kozinatzeko, eta mahuka bat geure burua garbitzeko. Egunez eguzkiak tutua berotzen zuen eta iluntzetan epel irteten zen ura.

Lucíak alokatzen zuen bezalako motorra alokatu genuen irlara iritsi berritan.

Gorputz biluzien gainean soineko arinak jantzi, toallak bildu eta Calo de Sant Agusti aldera jo genuen. Azpiko arroparik gabe motorrez bidaiatzea estimulatzailea eta hunkigarria zen. Haizeak soinekoak eta ilea astintzen zizkigun, eta motorraren dardarak gure izaera sexuala berresten.

Calo de Sant Agusti arrantza-portu txiki bat da, *snorkel* egiteko egokia. Hutsik aurkitu genuen ontziraleku tradizional bateko ipuruzko estalpean eserita sandia zatikatua jan genuen. Adinean gora zihoan arran-

tzale bat ikusi genuen txalupatxoa ontziralekuko errailetan behera uretara arrastatzen.

– Arrainik saltzen al duzu?

– Arrantzatzen dudanaren arabera.

Iluntzean elkartzekotan gelditu ginen.

– Ez dizuet ezer agintzen.

Gomazko sandaliak, betaurrekoak eta tutua hartu eta ur-bazterrera gerturatu ginen. Haitz batean utzi genituen soinekoak. Arrokatsua zen hondoa. Sakonera gutxiko uretan, eguzkiak haitzen formak eta koloreak nabarmentzen zituen. Arrain beltz txiki batzuk urduri aldendu ziren nigandik. Trikuak, arroka-zokoetan. Ikusi ez nuen olagarro batek izutu ninduen, hondarra harrotu eta ihesi atera zenean. Aurrerago, itsas belar luzanga kulunkariek estaltzen zuten zorua. Irantzu haien gainean ari zen igeri, kamera geldoan bezala. Muxarrak eta barbarinak ikusi nituen, eta ezagutzen ez nituen beste hainbat arrain. Nigandik metro batzuetara, ur-azaletik gertu, puxika baten antzeko zerbait begiztatu nuen, azpialdean orban nabarrak zituen burbuila horixka bat: marmoka bat agian, edo alga espezie bitxiren bat. Urrundu egin nintzen. Irantzu bilatu nuen. Arroka artean zebilen. Sentitu ninduenean, nigana hurbildu eta itsas izar laranja bat jarri zidan eskuetan.

Hozkia eragin zidan izaki hark. Askatu egin nuen erreflexuz. Mantso-mantso hondoratu zen.

– Erakarpena adinako ikara sortzen zidan itsaspeko munduak –esan nion lehorrean–. Izendatzen ez dakidan hainbeste zomorro zauden!

– Ni seguru sentitzen naun.

Umetan Getarian igarotzen zuen uda, eta aitonaren txibitarako txalupan itsas zabalera joanda, batel azpitik igarotzera jolasten zirela kontatu zidan.

– Dena beltz ikusten zunan, zirrara eragiten zinan, bertigoaren antzeko sentipen bat. Senak ihes egiteko agintzen zigunan, baina senari kontra egitean zegonan gakoa.

Bazkaltzeko txoko bat topatu genuen, egurrezko mahai bat kala baten gainaldean. Ogitartekoak eta zerbezak atera genituen. Behean, hondarretan, bi mutil eguzkitan.

– Irlak larrutarako gogoa pizten zidan –esan zuen Irantzuk kalara begira.

Pentsatu nuen, ez aspaldi, honezkero behean nengokeela, Irantzuri aurrea hartuta. Alde batera, pisu ederra kendu nuen nire burua lehiatik kanpo utzita.

– Hoa –animatu nuen.

– Orain ez.

Hiru belaontzi zenbatu genituen. Guretzat iritsezinak ziren kala ezkutuetara joan eta bertan aingura-tzen ziren.

Kafeak ekarri nituen ehun bat metro aurrerago errepide ertzean izozkiak saltzen ari zen furgonetatik. Bero-lainoak ari ziren eratzen.

– Segituan natorren.

Kalara zihoan bidexka malkartsuan behera egin zuen, bizkarra agerian uzten zion lihozko jantzia soinean. Mutilengana hurbildu zen. Agondu egin ziren, eskuak bekokian begi-babes. Zerbait esan zien Irantzuk; besoa ukitu zion bati. Algarak aditu nituen. Elkar agurtu zuten eta itzuli egin zen.

– Goazen –esan zidan.

Hegoaldeko kala bat hautatu genuen arratsalderako: Calo des Mort. Hildakoen kala. Ezinezkoa zen haraino motorrez iristea. Errepide nagusitik desbideratu eta beste kamio bat hartu genuen, eskuinera. Bidea amaitu zenean, motorra bertan utzi eta zuhamuxken artean oinez jarraitu genuen amildegiaren ertzeraino. Zidorra amaitzen zen tokian soka bat aurkitu genuen. Hari helduta jaitsi ginen kalara harkaitzean zizelkaturiko eskaileratik.

Harea zuriko ilargi-erdi formako kala txiki bat zen, ertzetan harkaitz lau eta ilunak zituena. Haietan etzan ginen. Gero eta kargatuago zegoen zerua. Kaioek zirkulutan hegan egiteari utzi eta haitzetan pausatu ziren. Erabaki genuen irakurriz itxarotea euriari, eguzkiak bizkarra erretzeko beldurrik gabe. Pixkanaka hustu egin zen kalatxoa, eta bakarrik gelditu ginen. Urezko mingain turkesa berunezko badia bilakatu zen. Toallen azpian babestu genituen liburuak.

Lehen euri-tantekin sartu ginen uretan. Leporaino murgildu eta begiak itxi nituen. Hostoen firfiraren antzeko hots sotila zen, apenas zurrumurru bat. Harraldearen usaina, hozten ari ziren arrokena eta goroldioarena. Zarra-zarra hasi zen. Begiak irekitzean tanta lodiak ikusi nituen ur-azala zulatzen. Perdigoien erako milaka tanta, itsasoaren azal leuna harrotzen. Epel zegoen ura. Murgildu egin nintzen. Urpetik aditu nuen zaparradaren marmarra, leihoz bestaldera nola. Plantxan etzan nintzen berriz, euria aurpegian, sabelean, izterretan. Ahoa zabaldu nuen.

Atertu arte egon ginen uretan.

– Laster dun oskarbi.

Lehen eguzki-izpiak agertu ziren lainoen artean. Egunsentiko argi zuriaren aldean, tonu beroagoak

hondarretan. Arratsaldea aurrera zihoan. Bidezidorretik abiatu ginen motorra utzia genuen lekurantz. Erromeroa eta ezkaia eguzkitan lehortzen usaintsu. Kardu zuri puntazorrotzak.

Calo de Sant Agustira itzuli ginen hitzartutako ordurako. Hantxe zegoen arrantzalea, ontziralekuaren aurrean barrika txiki batean eserita zigarroa erretzen, oinen artean zumezko saskia zuela. Hurbiltzen ikusi gintuenean tapa ireki zion.

– Otarraina?

Halakorik arrantzatzea debekatuta zegoela esan zigun, baina kontrabandoko bat ekarri zigula.

– Baduzue parrila erabiltzeko aukerarik?

Etxean bazen bat, baimena eskatu beharko genuen.

– Egiozue ebaki bat trabeska, zatitu gabe. Tripaz gora jarri eta zukutu limoia. Gatza, eta parrilara. Bost minutuan, listo. Otarra ere eraman dezakezue, ekarriko didazue bihar.

Hamar euro eskatu zizkigun, gastuak berdintzeko adina.

– Mutil koskorra nintzenetik irteten naiz itsasora. Ez dut diruagatik egiten.

Eskerrak eman genizkion. Jiratu ginenean, ahots apalez, bere kolkorako bezala hitz egin zigun:

– Kontuz sugeekin.

Aditu genuen kondairaren berri: antzinatik, suge pozoitsuen lurra omen zen Formentera. Pareko irlan, Ibizan, ez omen zegoen herrestari haietarik batere, baina uharte txikira joanez gero, azti ibili behar zen haien hozkadatik libratzeko. Patrikan Ibizako lur eskukada bat zeramana pozoiaren eraginetik salbu zegoela esaten zen.

– Arretaz zapalduko dugu.

Etxera bidean, ukondoko tolesturan kateatuta neraman saskiaren tapapetik antenak atera eta mugitzen hasi zen otarraina. Motorra gelditzeko agindu nion Irantzuri.

– Eraman ezan hankapean, kariñoa hartuko zionateta.

Limoiak, izozkia eta zuri botila bat erosi genituen Sant Ferranen.

Etxekoandreak ez zigun parrila erabiltzeko eragozpenik jarri. Txingarra egindakoan labana handi bat eskatu zion Irantzuk eta, ezkerrarekin bizkarretik eusten zion bitartean sast sartu zion otarrainari tripan. Zan-

goak eta antenatxoak mugitzen jarraitu zuen. Aldendu egin nintzen. Tripaz behera etzan zuen parrilan.

Arrantzalearen errezetarekin otarraina prestatu eta hamaken aldameneko mahaitxora atera genuen ardo-kopekin.

– Lagunen alde –topa egin genuen.

Otarraina zoragarria zegoen.

– Gauean Llevant kalan gelditu naun.

Baiezkoa egin nion buruarekin.

– Ez al dun etorri nahi?

Otarrain-hanka bat xurgatu nuen.

– Ez.

Hatzak zupatuz jan genuen itsas eta limoi-zaporeko kutixia. Zigarroarentzat erreserbatu genuen azken ardo-kopa.

– Izozkirik?

Terrinatik bertatik jan genuen koilaratxo banarekin. Iluntzen hasia zen.

– Hoa –esan nion.

Harizko jertse bat jantzi eta alde egin zuen. Motorraren hotsa aditu nuen urruntzen.

Mahaia jaso eta dutxa hartzea erabaki nuen. Azaleko eta ileko gatza garbitu nituen. Toallarekin lehortu

eta almendra-olioz igurtzi nuen azala. Hamakan etzan nintzen.

Izartsu zegoen gaua. Ezagutzen nituen konstelazioak bilatu nituen: Andromeda, Kasiopea, Hartz Handia, Orion. Poema baten zatia oroitu nuen: “jarri konstelazio bat; gustukoen dunana; denak ditun onak; jaitsi ezan apur bat; utz nazan bakarrik...”. Alfonsina Storniren azkena, itsasoan ito aurretik idatzita utzi zuena. Loak hartu ninduen.

Eguna argitzen hasi zenean esnatu nintzen. Hamakan uzkurtuta nengoen, toalla sorbalden gainean. Freskatu egin zuen gauean. Ez nuen oroitzen haren bila jaiki izana.

Irantzu falta zen. Agondu eta etxaurrera atera nintzen oinutsik. Motorra ere ez zegoen. Etxearen atzealdean begiratzekotan nintzenean aditu nuen tar-tar ezaguna. Kamioan barrena zetorren.

– Larritu egin naun.

Kaskoa erantzi eta musu eman zidan.

– Egun on.

Hondar-aletxoz josita zeukan azala. Ile nahasian itsas belar gorrixken arrastoak.

– Hondartzan igaro duzue gaua?

Besotik heldu zidan eta terrazara sartu ginen.

–Terik nahi?

Baietz esan zidan. Biontzako adina ur jarri nuen berotzen. Irakitean te-poltsatxoak gehitu nizkion. Epeltzen utzi nuen. Katilu banatan zerbitzatu eta hamakara eraman nion.

Lo gozoan zetzan. Toallarekin estali nuen.

Bi orduren buruan esnatu zen, indarberrituta.

– Barkatu itxaronaraztea.

Tea berotu nion berriz, eta bezperako ogia txigortu zuen.

– Gose naun.

Gosaltzen amaitu zuenean dutxa hartzeko biluzi zen. Gauean hoztu egin zen tutua, eta txilio txiki batek egin zion ihes urak sabela busti zionean. Azala oilo-larrutu zitzaion. Besoak eta zangoak igurtzi zituen bizi-bizi, eta txorrotaren azpian sartu zuen burua, arnaska.

– Beste bat naun.

Errepide zuzen batean barrena abiatu ginen, Irantzu gidari. Burua etzan nuen haren bizkar freskoan. Haizeak eta motorraren tar-tarrak belarriak buxatu zizkidaten. Hegoalderantz gindoazen. Aztarnategi bat erakusten zuen bide-seinalea igaro eta bidean aurrera egin genuen.

– Begira! –deiadar egin zuen Irantzuk.

Itsasargia errepide zuzenaren amaieran. Haraino gidatu genuen.

Motorra aparkatu eta itsasargira jo beharrean, eskuinera hartu zuen Irantzuk.

– Nora hoa?

Ez zidan entzun. Atzetik segitu nion. Itsasargitik berrogeita hamar bat metrora eta labarretik beste hainbestera, zulo bat seinalatu zidan lurrean. Metro beteko diametroa izango zuen. Sakona zirudien. Makurtu eta burua sartu zuen bertan. Zuloaren ertzean eseri zen.

– Kontuz.

Ohartu nintzenerako desagertu egin zen. Egurrezko eskailera zahar bat topatu nuen harpearen kontra. Jaitsi egin nintzen.

– Halako ehunka zulo zagon.

Haitzulo ilunean oinez jarraitu genuen labarraren erdian itsaso gainera ematen zuen balkoi batera iritsi ginen arte.

– Handik sartzen dun eguzkia.

Ostertzeko puntu bat seinalatu zidan. Malkarraren ertzean eserita egon ginen pixka batean. Kaioak altu ari ziren hegan. Eguzkiak ez zuen artean jotzen eta

hozkirri egiten zuen. Atzera kanpora atera ginen satorzulotik. Itsasargirantz abiatu ginen.

Indartsu zebilen haizea lurmuturrean, eta ozen hitz egitera behartzen gintuen.

– Hoa haitz bazterreraino eta ikusi!

Amildegiaren gainean, itsasoaren urdin iluna eta zeruaren argia elkartzen ziren lerroari jarraitu nion.

– Egia dun! Borobila dun zeruertza!

Bira osoa egin nuen nire ardatzaren bueltan.

– Hago, erretratu bat egingo dinat.

Besoak zabaldu nizkion haizeari.

Urriaren hasieran, Formenteratik itzuli eta gutxira hasi zitzaidan ilea erortzen. Mototsa tenkatuz gero esku bete ile askatzen zitzaidan. Ikaratuta aztertzen nuen burkoa goizetan, aspaldi hennaz tindaturiko ile gorri-beltz kizkurrek herstura eragiten zidaten. Abisurik, minik eta espanturik gabeko galera isil hark aieru ilunak zekarzkidan. Asko argaldu nintzen eta, nekatuta, lanerako baino ez nintzen etxetik irteten. Laster arnasarik gabe gelditzen hasi nintzen eta azaroaren 6an erretzeari utzi behar izan nion biriketara oxigeno apurrik iristen ez zitzaidalako. Azaroaren 24an sukarra igo

zitzaidan, eta okerrera egin nuen egunez egun. Baja hartu nuen.

Nire gogoz kontra, aitari deitu zion Lukak. Hiru edo lau aldiz etorri zen etxera ni medikutara joateko konbentzitzera. Ezetz erantzun nion aldiro, uzteko sukarrari bere lana egiten, atsedena behar nuela. Amak lanetik bueltan bisita egiten zidan, eta zapi heze bat jartzen zidan bekokian. Niri eskua emanda, isilik egoten zen loak hartzen ninduen arte.

Abenduaren 2an, berrogeiko sukarra eta arnas hari bat nituela, liskarra izan nuen aitarekin. Berriro uko egin nion medikutara joateari.

– Ez naun nola galtzen haizen begira egongo.

Nire ondotik jaiki eta gelatik irten zen. Eztulka, arnasestuka hasi nintzaion oihuka. Ez neukan jaikitzeko indarrik.

– Aita, ez joan!

Ez itzultzeko alde egin zuela sinetsi nuen. Baina itzuli egin zen.

– Goazen nahi duzun lekura –amore eman nuen–; baina ez haserretu, mesedez.

Ospitalera eraman ninduen. Ozta-ozta nintzen ito gabe oinez ibiltzeko gauza. Mediku batek hartu gintuen eta, hatsanka, azken egunetako sintoma guztiak

kontatu nizkion ahalik eta xeheen. Plakak egitera bidali ninduen berehala, eta bueltan, itxarongelan, aitaren muturrarekin egin nuen topo.

– Zergatik ez dion seropositiboa haizela esan?

Ez zitzaidan beharrezkoa iruditu.

– Oraintxe daukadan gaixotasuna senda diezadan nahi dut: sintoma guztiak kontatu dizkiot.

Medikuak deitu zigun.

– Plakan ez da ezer larririk ikusten.

Antibiotiko arrunt bat errezetatu zidan.

– Lehen ez dizut gauza bat esan –aitortu nion orduan–: Seropositiboa naiz.

Sutan jarri zen. Errieta egin zidan.

– Adarra jo didazu.

Suminduta, etxera bidali ninduen.

Baina arrazoi zuen: plaka arruntetan ikusten ez den *Pneumocystis jirovecii* pneumonia neukan; Maggioreren alaba hil zuen huraxe bera.

Beste lau egun egin nituen etxean sukar-eldarniotan eta abenduaren 6an aitak ospitalera eraman ninduen ostera. Sartu orduko aitortu nion harrera egin zigun medikuari:

– Seropositiboa naiz.

Laztan egin zidan.

– Ez dizut galdera gehiago egingo.

Eskumuturrekoa jarri eta boxen gelara bidali nin-duen.

Bi ospitaleratze luze izan nituen: 2013ko abenduaren 6tik 30era, lehena, eta 2014ko urtarrilaren 3tik 28ra, bigarrena. Lehen ospitaleratzea, Espainiako Konstitu-zioaren egunekoa, atxiloketa bat bezala bizi izan nuen. Aitari ez zioten boxetara sartzen utzi: bi erizai-nen artean biluzi eta jantzi zidaten txabusina; ohean oxigenoa jarri zidaten berehala. Unean bertan hasi zi-tzaizkidan zainetik kortisona eta pneumoniarentzako antibiotikoa ematen. Ez nintzen hitz egiteko gauza. Ospitalean sartu berritan beste infekzio bat izan nuen zitomegalobirus baten ondorioz, eta haren aurkako beste antibiotiko bat ere ezarri zidaten. Pneumoniaren aurkako medikazioak arazoak sortu zizkidan: lehen antibiotikoak alergia eragin zidan, bigarrenak ahoko eta hestegorriko ultzerak, hirugarrenak anemia la-rria... Zazpi antibiotiko desberdin eman zizkidaten guztira. Ospitalean sartu nindutenerako hamar egune-tik gora neramatzan sukar altuarekin, hebain-hebain eginda nengoen. Apenas dut lehen egunetako kon-

tzientziarik. Lorik egin ezinak eragindako inpotentzia eta desesperazioa bakarrik oroitzen ditut.

Atseden hartzea obsesio bilakatu zitzaidan. Erotzeraino. Kortisonaz goraino, insomnioak ernegatuta, alde guztietatik tutuz josita, ia ezinezko nuen begiak biltzea. Baina okerrena loak hartu orduko esnatzea zen. Propio egiten zuten irudipena nuen. Zaindaria, erizaina, garbitzailea, medikua, merienda ekartzera zetorrena, aldameneko gaixoaren senideak... Ez zegoen atseden hartzeko modurik. Goizean eta iluntzean kortikoideak ematen zizkidaten, pneumoniarentzako antibiotikoa lau orduan behin, eta zitomegalobirusarentzakoa, sei ordutik behin. Zainetik denak. Poltsa bakoitzak ordubete inguru irauten zuen eta amaitu orduko txistuka hasten zen tantaz tantakoaren makina. Etengabe irekitzen zen atea. Etengabe ahotsak, kirrinkak, orratzak, pertsianak, danbatekoak. Behin eta berriz deitzen zidaten. Siesta egin nahi nuen eta botika-poltsa aldatzera sartzen ziren. Lo hartzea lortzen nuen eta maindireak aldatzen zizkidaten. “Mesedez ez dezatela atea ireki” errepikatuz uzkurtzen nintzen ohean. Atea zabaltzen zen bakoitzean negarrez hasten nintzen.

– Itxi atea! –oihukatzen nuen.

Loa ebakitzen zidaten, erauzi, eten, mila puska egin. Lorik egin ezean hil egingo nintzela sinetsi nuen.

– Akabatu egingo nauzue.

Desesperazio fisiko eta psikologiko erabatekoan sartu nintzen. Ohiko zaratez gain, gauetan korridore berean zeuden gaixoen oihuak entzuten nituen. Agure bat lau egunez egon zen amari deika. Oinazezko garrasiak entzuten nituen, eta eldarnioenak. Beroa izugarria zen. Neguaren atarian egonagatik ere, logela barruan ia 30 gradu. Ez zidaten leihoa irekitzen uzten aldameneko ohean izarekin leporaino estaliriko atsoa hoztuko zen beldurrez.

Lukak nire aldamenean igaro zituen lehenengo hamar gauak, hamar gaurik okerrenak. Ohearen aldamenean zutik sentitzen nuen. Negar egin nahi nuen, baina herpes bat atera zitzaidan eta ahoa handituta, zauriz eta ultzeraz josita, ezinezkoa zen. Zotinka hasten nintzen bakoitzean, ezpainei tira eta odoletan hasten zitzaizkidan.

– Ez negarrik egin –esaten zidan Lukak.

Lotarako zerbait eman ziezadatela erregutzen nien. Ez nuen ulertzen drogaz leporaino nindukaten haiei zer kostatzen zitzaien lotarako pilula bat gehiago ematea.

Bosgarren edo seigarren egunean hies kasuez arduratzen zen mediku bat etorri zitzaidan. Bisitarien aulkian eserita harrapatu ninduen, etzanda itomensentsazioa areagotzen zitzaidalako. Nire gainbeheraren unerik okerrenean nengoen, kontrako eskuko atzamarrekin besoa inguratzeko bezain argal, lorik egin gabe, sukartsu, ahoa puztuta eta zarakarrez desitxuratuta. Hitz egin ezin nuenez, mezuak koaderno batean idatziz komunikatzen nintzen. Deseginda nengoen. “Eman zerbait: lo egin behar dut”, idatzi nion.

Koadernoa eskuetatik kendu eta oihuka hasi zitzaidan:

– Ospitalera lehenago ez etortzeagatik zaude orain horrela, medikaziorik hartu ez zenuelako. Garbi esango dizut: tuntuna, arduragabea eta harroa izan zarelako.

Kaiera berreskuratu nahi izan nuen.

– Begiraidazu! –agindu zidan–. Ez dakit hemendik bizirik atera ahal izango zaitudan: zure egoeran % 40 hil egiten da.

Hezurrak aulkian barreiatuta, begiak itxita zotinka jarraitzen nuen.

– Odol-analisiak oso txarrak dira: plaketak behea jota dituzu, transfusioa egin beharko dizugu.

– Ez! –aurka egin nion.

– Hori ez duzu zuk erabakiko.

Zorabiatzeko zorian nengoen.

– Gero etorriko naiz eta ekarriko dizut lotarako pilula bat.

Erizain batek esku bat jarri zidan sorbaldan.

Baina ez zidan inork pilularik ekartzen. Nirekin errukitu zen erizaina medikuaren bila joan zen azkenean. Ordu bata eta erdiak ziren, eta ordu bietan bukatzen zuen erronda. Burumakur itzuli zen.

– Alde egin du.

Garrasika eta astinaldika hasi nintzen. Zainetara loturiko tutuak eta oxigenoaren zunda erauzi nituen. Ezpainetako zauri guztiak ireki zitzaizkidan. Lasaigarri bat eman zidatela uste dut, lelotuta utzi bai, baina lokarrarazi ez ninduena.

Ez ninduten ukitzen. Ez Lukak ez aitak ez amak. Lehen bi asteetan ez nuen beste inor ikusi nahi izan. Lukak nirekin ematen zituen gauak eta goizean goiz alde egiten zuen lanera. Aitak oporrak hartu zituen, goizeko bederatzietarako etortzen zen. Amak eguerdian egiten zidan bisita, denda itxitakoan. Baina hiru-

retan inor ez zen nigana gerturatzen, ez nik haiek sentitzeko adina. Aldamenean esertzen ziren, niretzat iritsezina zen distantziara.

Aita haserre zegoen tratamendua onartzen ez nuelako.

– Antirretrobiralik gabe ez haiz bizirik irtengo.

Buruarekin ezezkoa ematera mugatzen nintzen. Korridorean aditzen nuen biraoka, baina ez zuen alde egiten: niri hitzik egin gabe eta bizkarra emanda, baina ospitalean gelditzen zen eguerdira arte.

Babesgabe nengoen nire gorputzaren barruan. Izeba Karmenekin oroitzen nintzen, nola eskatzen zigun, hilzorian zegoela, estuago besarka genezala. Amama eta biok haren gorputzaren barrura sartzeko ahalegin desesperatua orduantxe ulertu nion. Haren ohearen barruan nahi gintuen, azalaren barruan ezin gintuelako.

Amak eta Lukak ezer gertatu izan ez balitz bezala jokatzen zutela iruditzen zitzaidan. Egunkaria irakurtzen zuten nire ondoan, musika jartzen zuten, telesailen bat ikusi, laneko kontuak aurreratu... Nobioarekin elkartu aurretik komuneko ispiluaren aurrean ezpainak margotu zituen behin amak.

– Ezer behar duzu? –galdetzen zidaten–. Eroso zaude? Beste bigungarri bat jarriko dizut bizkarrean?

Laztan egiten zidaten ile maskalduan. Musu ematen zidaten bekoki izerdituan.

Ezer ez zen nahikoa. Ezinezkoa eskatzen nien: nire azalaren barnetik eutsi nintzatela.

“Badakin nik ezin dudala hire mina sentitu, ezta?”. Aspaldi ohartarazi zidan aitak.

Jan ezinaren inpotentzia gehitu zitzaion loezinaren asaldurari. Otorduro ekartzen zidaten janari-erretilua, baina ezin ezer ahoratu. Urik ere ezin nuen edan. Ez zidaten azaldu, ahoa neukan bezala edukita, nola elikatu nezakeen neure burua. Ahal izan nuen gisan moldatu behar izan nuen. Bi xiringa handi eskatu nituen; bata urez eta bestea txiki-txiki egindako janariz bete eta aho-zirritutik sartzen nituen pixkanaka.

Xiringako jogurta irentsi nahian ari nintzen erizain laguntzailea sartu zenean.

– Erretilua!

Aldamenean nuen atsoari ere agirika egin zion mantsoegi jateagatik.

– Ikusi ditut azkarragoak!

Auxiliarrari erretilua esku dardartiz entregatu aurretik, postrerako sagarra izarapean ezkutatu zuen atsoak.

Gau hartan triste sumatu nuen Luka. Iluntzero bezala, musu eman zidan iritsi berritan, eta kaleko arropak eranztera eta galtza laburrak janztera sartu zen komunera. Ondora etorri zitzaidan.

– Euria ari din hor kanpoan.

Aldameneko gaixoak hedatuta zeukan errezela, eta nire ohetik ez zen leihoa ikusten.

Arratsero, aldamenean eseri eta egunaren berri ematen zidan. Kontuak kontatzen zizkidan, eta bere pentsamenduak, kontu txikiekin nahasian.

– Etorkizuna beleena ere ba omen da –esan zuen.

Egunkariko orri bat erakutsi zidan, titular huraxe zekarrena.

– Albiste zientifiko bat dun, titular poetikoagatik ez balitz irakurriko ez nukeena.

Ondo hitz egiten zuen, presarik gabe, polit. Ahoa bortxaz itxita eduki nuen arte, ez dut uste Lukari taxuz aditzen asmatu nuenik. Gau hartan, animoaren iluntasuna itsasten zien hitzei.

– Beleekin esperimentatzen aritu ditun: egiaztatu diten, esperientzian oinarrituta, etorkizuna planifikatzeko gai direla.

Isilik gelditu zen. Eskumuturra laztandu zidan.

– Hitchcockez geroztik, izua zienat beleei.

Niri, une hartan, artegagarriagoa zitzaidan etorkizunaren ideia beleak eurak baino.

– Janariarekin tentatu ditizten: aukeran jarri zizkieten janari pittin bat ala etorkizunean janari askoz hobea emango dien giltza bat, eta belatzarrek nahiago izan diten giltza.

Aitarekin pentsatu nuen, eta hark bezala presentzia korbidoa zuten pertsonengan.

Arnas hari bat neukan, betazalak pisu.

– Sentsazio bitxia izan dinat gaur –esan zuen Lukak–, armairuak txukuntzen aritu naun. Ez zaukanat apenas aldarririk gabeko kamisetarik. Armairu-zokoan nahaspilan zeudenan eta ohearen gainera aterata banaka tolestu ditinat: porroten inbentarioa egitea izan dun... Gogorra egin zaidan denak batera ikustea, borroka galduak, hemengoak eta atzerrikoak, eraitsitako asmoak, debekaturiko hitzak, pertsonak, ideiak... Ez zakinat pozari eustea beti ona ote den.

Burkoko ileak ekarri zizkidan gogora, galeraren paisaia egunsentian.

– Hik ere ez daukan itxura onik.

Eskua emateko eskatu nion.

– Asko maite haut –esan nion.

Ikaraz dar-dar egin zion kokotsak.

– Oso ahul hago.

Haren begietan arakatuta jabetu nintzen errealitateaz: hiltzeko arriskuan nengoen. Distira azkar bat izan zen, txori beltz bat, Lukaren ninietan posibilitate beltzenaren aztarna.

– Hartuko ditiat.

Ezustean harrapatu nuen.

– Antirretrobiralak onartuko ditun?

Ez zen hausnarturiko erabakia izan, ni ere ezustean harrapatu ninduen pentsatu gabeko errendizioak.

– Ezin diat gehiago.

Beti ahal da gehiago, kontra egin zidan pentsamenduak.

– Onena dun.

Negarrez ari zela ikusi nuen: nik amore ematean, amore emateko baimena eman zion bere buruari. Lukaren nekeari erreparatu ahal izan nion.

Tinko besarkatu ninduen: Lukaren arnasa, azala, beroa. Minik gabe, bigun zetorren errendizioaren negarra.

– Deitu aitari.

Sorbaldetatik heldu zidan.

– Konturatu naun: aita aurka izanda, ezin dun aurrera egin.

Bere bularraren kontra estutu zidan burua. Hunkitu egin ninduen Lukaren bihotzaren taupadak aditzeak.

– Porrotaren eta garaipenaren kontzeptuak erlatiboak ditun.

Telefonoa ekarri zidan.

– Zer gertatu da?

– Medikatzea erabaki dut, aita.

Ez zuen ezer esan. Isilik gelditu zen eskegi gabe eta, akituta, haren hatsean etzan nintzen ni. Eta lo egin nuen, lo egin nuen behingoz.

Kazetaritzako karrera hautatu nuen hemezortzi urterekin, banekielako tabernarako, militantziarako eta sexurako aski denbora libre utziko zidala.

Hirugarren urteko udako oporraldian Nazioarteko Bake Brigadekin Venezuelara joatea erabaki nuen 2003an. Askapenako internazionalistekin iraultza bolivartarra bertatik bertara ezagutzea nuen amets, baina poltsikoak ez zidan bidaia ordaintzeko ematen eta kooperazio beka jaso zain gelditu behar izan nuen. Haritzek Garako politika saileko arduradunarekin harremanetan jarri ninduen, hark zenbait kontaktu pasa zizkidan, pare bat errefuxiatu euskaldun elkarrizketatzeko iradoki zidan, eta taxuz egiten banuen egunkarian argitaratuko zizkidala agindu.

Hegazkinetik ezagutu nuen Petare auzoa: Caracasen barruan, errepidez inguraturiko muino malkartsu bat, elkarren gainean pilaturiko adreiluzko txabolaz estalia.

Jeep batek mendixkaren magalean utzi ninduen, eta oinez egin nuen etxean hartu behar ninduen mojaren bizilekurainoko bidea. Aldapan gora, kamio ertzetan pilaturiko zabor-poltsen aldamenean futbolean ari ziren mutikoek hatzaz seinalatzen ninduten. Bizkar-zorroaren pisuak uzten zidan bezain bizkor nindoan kale eta zidor estuetan barrena, ziurtasuna entseatuz. Etxaurre kalamastretan, arropak zintzilik; leihoetan, antena parabolikoak; teilatuetan, ura biltzeko bi-

doiak; hamaika kablez zamaturiko elektrizitate-poste okerrak, uralitaz edo plastiko hutsez estaliriko txabolak, luiziek azpian harturikoak. Azpirakuntzaren konglomeratua. Petareko pobrezia bortitza zen, amorruz eraikia eta mantendua.

Petare. Karibe hizkuntzako “pet” –aurpegia– eta “are” –ibaia– hitzekin osaturiko toponimoa zela irakurri nuen gidan. Guaire ibaiaren aurrean hiriko bazterjendeak metatzeko ustiatua. Lehen aldiz Euskal Herritik urrutira alde egin, eta antipodetako Lasalderekin egin nuen topo.

Agindutako helbidera iritsi nintzenean bi dobermanek egin zidan ongietorria. Urrunetik entzun nuen zaunka, etxetik irteten ikusi nuen, korrika bizian. Bidearen erdian tupustean gelditu, zaunkari utzi, burua jaitsi eta barrurantz egin zuen atzera, batere interesik piztu ez banio bezala. Haren atzetik atera zen moja, hirurogeiren bat urteko emakume zimur luzexka, suposatu nion abituaren ordez, galtzak eta alkandora urdina soinean.

– Zuriei ez die zaunkarik egiten.

Gabriela izena zuen moja yanomamiak, ez ziren gutxi katolizismoak doktrinaturiko indigenak. Jaiotze-izena ere aldatua izango zuen, ziur, amazoniarraren

basati-konplexua gainetik kendu eta zibilizatuago azaltzeko. Zaintzapeko zeuzkan bi neska-mutilekin bizi zen: Alejandra, bederatzi urtekoa, eta Nandú, nire adinekoa.

Etxera sartu eta motxila lurrean utzi orduko, goitik behera begiratu zidan mojak, eta atsekabezko hasperena egin zuen, batere disimulurik gabe. Une batez desagertu, eta mahuka luzeko zenbait kamisetarekin itzuli zen.

– Hemen ezin duzu tatuajerik erakutsi, malandroa zarela pentsatuko dute.

Alejandra ezpainetan eta sudurrean nituen piercingei begira gelditu zen.

– Horiek ere kendu egin beharko dituzu.

Mojak ekarritako elastikoarekin estali nituen besoko hiru izarrak.

– Zer esan nahi dute? –galdetu zidan Alejandrak.

– Nire hildakoak dira.

Gabrielak arroza zerbitzatu zidan lapiko batetik.

– Nandú, ekarri egiozu ura.

Mutila segituan itzuli zen pitxar batekin, eta mahaian esertzeko keinua egin zion Gabrielak. 800.000 biztanleko “auzoan” egin beharko nuen lanaren jakinaren gainean jarri ninduen.

– Arazo handia dugu haurdun gelditzen diren neska gazteekin. Asko euren etxeetan bertan bortxatzen dituzte, aitek, osabek, lehengusuek. Beste asko bikotekideek abandonatu egiten dituzte sabela hazten hasi orduko.

Sexu-abusuak jasandako neskatoek, haur jaioberriekiko lanetan desesperatuek, haurdunaldia ezkutatu edo eten nahi zutenek Gabrielarengana jotzen zuten babes eske, eta ardura haietan laguntzea zegokidan niri.

– Nandúk eskoltatuko zaitu.

Gau hartan bertan aditu nituen lehenengo tiroketak. Hasieran ez nuen hotsa identifikatu. Benetako tiroak aditzen nituen estreinako aldia zen, eta gezurrezkoak iruditu zitzaizkidan, jostailuzkoak. Filmetakoen antzik ez. Eldarnio moduko batean hartu ninduen loak, auzoko zalapartak eta Gabrielak une oro piztuta izaten zuen irratiaren zurrumurrua ametsekin nahasian. Katakume baten marrakak esnatu ninduen zenbait aldiz, baina segituan errenditu nintzen bidaiaren nekera.

Eguna argitu aurretik jaiki nintzen, goizeko seiak aldera, sukaldera jo nuen kafea egitera. Ordurako han zen Gabriela. Bizkarka ikusi nuen, fardel bat besoetan.

Ni sumatu eta jiratu zenean, haur jaioberri bat kulunkatzen ari zela ikusi nuen.

– Gauean utzi dute.

Umea lo zegoen. Une batez eutsi niezaiola eskatu zidan Gabrielak.

– Zilborra desinfektatu behar diogu.

Beldurrez heldu nion zapietan bilduriko haurrari, ez zuen ia pisurik. Ilea gantzatsu eta umel zeukan, begiak handituta. Animalia usaina zerion. Ordu gutxi batzuk izango zituela kalkulatu nuen. Zimiko desatsegin batek estutu zidan zintzurra. Atzamar txikia eraman nion eskutxora, eta heldu egin zidan, senez. Azazkal luzeak zituen. Eguna argitzen hasi zen leihoen bestaldean. Haurrak, lo, keinu txiki bat egin zuen, irribarrearen antzekoa.

Aste gogorrak izan ziren. Ia egunero eramaten nituen neskatoak auzoan *Misión Barrio Adentro* kanpainari esker muntatu zituzten osasun-etxoletara. Mediku kubatarrek artatzen zituzten. Batzuek gogor eusten zidaten, beren alde zerbait egin nezakeela sinetsita; askok begirada galdua izaten zuten, gorputza zurrun, osasun-zentrora bidean. Errudun sentitu nintzen nire azalaren koloreaz, eta laguntza eskaini izanaz lotsa; biolentziari boterearen goiko eskaileratik begiratzeaz,

zikin. Ate-joka etorri zitzaigun hamalau urteko neskatila batek, Gabrielak bakarrik utzi gintuen orduko, abortatzeko laguntza eskatu zidan.

– Quítamelo! –oihukatzen zuen.

Angustiaz bizi izan nuen hura guztia, sekula ez bezala egin nuen negar; eta, kontrastean, gogotik barre egiteko inoiz baino premia handiagoa sentitu nuen. Barre egiteko urgentzia. Eskerrak Nandú beti inguruan nuen. Hark bazekien desgraziari ere umore-puntta ateratzen, artea zuen horretarako, entrenamendu luzea biziraupenaren sokan, eta nik biziki eskertzen nion.

– Jendea salbatzera hentorrela uste huen? –burla egin zidan.

Errukiz zuzendu zitzaidan. Min egin zidan hark nire kontraesanetan hazka egiteak, elkartasunez mozorroturiko harrokeria ageri-agerian jartzeak, baina nire haserrearen aurrean kikildu ordez, ukabila luzatu eta korrika hasi zen etxaurreko patioan, Supermanena eginez.

– Gelditu hadi, baboa!

Baina han jarraitu zuen, buelta eta buelta, aldian behin “Suuuuuper-Nagore!” oihukatzen eta jauziak

egiten. Zakurra ere aztoratu zuen bere teatroarekin. Ez zen gelditu algaraka hasi nintzen arte.

– Ergela –esan nion, karkailaka.

Maitasun-istorio bat izan genuen, nahiko polita, Petareko bortizkeriaren erdian. Gauetan, Gabriela oheratzean, Nandúren logelara joaten nintzen ebaska, eta larrua jotzen genuen gauero, poliki eta leun. Gabrielaren zurrunga geldoa eta Alejandraren arnasa barea aditzen genituen ohetik. Gauak epelak izaten ziren, parez pare zabalik uzten genuen leihoa. Euskal Herritik eramandako biltzeko tabakotik erretzen genuen lastairaren gainean eserita. Tiroketak eta auzokoen liskarrak aditzen ziren kanpoan, eta guk elkarri eusten genion. Biluzik gelditzen ginen elkarren ondoan, nire izter zuriak haren izter beltzekin korapilatuta.

Abenduaren erdi aldera etorri zen Irantzu bisitan ospitalera. Okerrena pasata hots egin nion; makalalditxo bat izan nuela kontatu nion, errekuperatzen ari nintzela.

– Alferrik galduta hago!

Disimulua ez zen inoiz Irantzuren bertutea izan.

Durangoko azokan erositako Joxe Azurmendiren *Barkamena, kondena, tortura* liburua ekarri zidan opari.

– Ez zakinat egokiena den...

– Hik ez dun errukirik.

Ordurako ia sendatuta neuzkan ahoko zauriak, eta neure kasa hartzen nuen arnasa. Irantzuk izarak altxatu eta bistan utzi zizkidan izterrak.

– Nolatan ez didan lehenago deitu?

– Gauza asko gertatu ditun.

– Zer daukan?

– Pneumonia... eta konplikazio txiki batzuk.

Oinez hasi zen gelaren alde batetik bestera. Txamarra erantzi eta ilea mototsean bildu zuen.

– Baina hau –ahotsa jaitsi zuen–, hiesagatik al da?

Bekokian itsatsita neukan ile-xerloa apartatu zidan.

– Badakin niretzat korapilatsua dela erantzuna.

Errezela korritu eta aldameneko atsoa lo zegoela egiaztatu zuen hizketan hasi aurretik.

– Begira, Nagore, disidentziaren kontu horrekin urrunegi joan haizela uste dinat. Orain dela hiru urte hiesa heukala esan higun, eta goizetik gauera, hiesa

ez zela existitzen. Eta akabo kontua. Ezer gertatu ez balitz bezala jokatu dun, eta guk jokoa egin dinagu.

Tantaz tantakoari heldu zion.

– Zer da?

– Antibiotikoa, ustez.

– Horixe zunan errazena! Ez daukanala ezer? Ba, denok pozik!

Esajeratuki ireki zituen begiak.

– Benetan uste dun hiesa ez dela existitzen?

Zehar-begiratua egin zion atsoari.

– Lasai, egun osoa lo pasatzen din.

– Uste dinat kasu honetan ez daukanala arrazoirik.

Barre egin nuen.

– Zer gertatzen zain?

– Kontra egitera ausartu haiz.

– Zer erremedio.

– Jende oso gutxik egiten zidan kontra.

Eskua eman nion.

– Harro ustel bat haizelako.

– Medikatzea onartu dinat.

– Antirretrobiralekin?

– Errenditu egin naun: urtarrilaren lehenean hasiko naun, pneumoniatik errekuperatutakoan.

– Suposatzen dinat gaixotzeko arriskua asko txikituko dela botikekin.

– Auskalo.

– Ez dun federik?

– Nik ez dinat kaka horretan sinesten, are gehiago, izua zionat, AZTA hartu zuten ia denak zuloan zauden. Baina esker ona antzeztu beharra zaukanat. Nire egiak zuenarekin talka egitean sortzen zaidan konfliktoa latzagoa dun teatro honek sortzen didana baino.

– Ez ditun gauza bera errenditzea eta noiz gelditu jakitea.

– Nik ez dinat alderik ikusten. Zalantzarik gabe, amore eman dinat, ezin nuelako besterik egin. Antirretrobiralak hartzea erabaki nuenean nire pentsamendua ez zunan “horrela sendatu egingo naun” izan, “horrela borrokatzeari utziko zionat” baizik. Barrua arintzen didana ez dun itxaropena, atsedena baino. Nire usteen eta autoritatearen artean borrokan jarraitzeak hilko nindinan. Ahalegin handiegia zunan.

– Hire mugak onartu ditun.

– Gaixotasunek beren kabuz hitz egiten diten.

– Gaitzen sinbologiaz ari haiz? Gorroto dinat belarriko minez hagoenean “zer da entzun nahi ez duzuna?” galdetzen duen jende tipoa. Medikuen autorita-

tea birrintzen diten, zer eta denok sasimediku bihurtzeko. Harriak giltzurrunean? Beldurrez hagoen seinale. Anginak? Zerbait ezin irentsita habil... Ikustekoa dun azken urteotan zenbat mediku eta psikoanalista graduatu den unibertsitaterik zapaldu gabe!

– Ba, nire ustez ez zaien arrazoirik falta... Onar dezagun gaixotasuna existitzen dela, baina bazauden faktore gehiago. Ez dun alderdi emozionalaz hitz egiten, eta gaitz guztietan, baina hiesarenean bereziki, zerikusi erabatekoa din. Baina horrek bost axola orain.

– Sekta horretakoa egin al haiz? –purrustada egin zuen–. Esan, zer esan nahi din pneumoniak?

– Heriotzari beldurra.

– Eta hiesak?

– Gehiegizko erresistentziaren ondorioz defentsa eta babes falta; desbalorizazio konflikto latza; defentsa psikikoaren hipergarapena babes immunologikoaren kaltean; kulpa sexuala, maitasun erreprimitua...

– Ondo ikasita daukan. Zer dion, orduan, birusaz?

– Demagun baietz, birusa existitzen dela. Nik ez dinat sinesten harekin kontaktuan egote hutsagatik kutsatzen garenik, kontaktu konfliktibo bat izan dugulako baizik.

– Ja. Eta nola neurtzen da hori? Zer den konfliktiboa eta zer ez?

– Uztan. Ez dun garrantzitsua. Zerbait ulertu badut, zera dun: nire gorputzean gertatzen dena ezin dudala buruaren bidez kontrolatu. Disidentzia modu batetik edo bestetik, arrazoia izan nahi ninan. Ezta arrazoia izateak heriotzatik libratuko bagintu ere! Lizuna iruditzen zaidan arrazonatzea bera. Nahiago dinat drogatu egingo naizela onartu eta gatazka neutralizatu.

– Ez zakinat zer esan.

– Emozionalki, ez naun disidentzian bizirauteko gauza.

– Ez naun harritzen.

– Baina ezin dinat jasan medikuekiko subordinazio infantila.

– Hi umetzeko botererik ezean, ezingo hindukete sendatu. Gurasoekin bezala dun: seme-alaben gainetik egon behar diten derrigor; azpitik jartzean guraso izateari uzten zioten.

Amarengan pentsatu nuen.

– Zein dun hire salbatzaile ideala?

Erridikulua zen ideia bera.

– Zahartzeko premia sentitzen dinat, errenditzearen plazera dastatzeko.

Txistuka hasi zen tantaz tantakoa.

– Ez haut sekula aditu horrela hizketan.

– Ezinezkoa dun errenditu gabe zahartzea. Pentsatu al dun horretan? Edo alderantziz dun, agian: errendi al daiteke zahartu gabe?

Azurmendiren liburuarekin bekokia kolpatu zuen Irantzuk propio:

– Seguru hago tantaz tantakoan dagoena ez dela aiahuaska?

Barre egin genuen.

– Gauza bat izan din ona hire erorialdiak: behin bada ere, militantzia, mutilak, familia, lana eta kristo guztiak albora utzi eta heure buruari begira jarri haiz.

Erizain bat etorri zen antibiotikoaren poltsa erretiratzera.

– Sukarra hartu dizute?

– Ez.

Termometroa jarri zidan. 37. Ondo.

– Garaipena eta porrota kontzeptu erlatiboak direla esaten din Azurmendik.

– Gauza bera esan zidanan Lukak.

Eskura eman zidan liburua.

– Ez dun hain aukera desegokia izango, azkenean.

Aliritzira ireki nuen:

– Garaipena nahi duenak gerra nahi du –irakurri nuen–; bakea nahi bada, aldiz, ezin da garaipenik nahi izan.

– Arrazoia ematen din Azurmendik ere!

Algaraka egin genuen barre. Itomenak gelditu ninduen.

– Kontuz, hala ere –ohartarazi zidan Irantzuk–. Modan zagon porrotak garaipen itxuraz kapitalizatzea.

– Galtzailearen azken jokaldia dun. Funtzionatzen din batzuetan.

Loezinak lehengoan jarraitzen zuen, baina desesperaziotik onarpenerako urratsa eman nuen. Suspertzen hasi nintzenean, Luka, nirekin afaldu ostean etxera erretiratzen hasi zen, balda-balda eginda uzten baitzuten infekziosoen saileko gauek. Ia gau osoa esna igarotzen nuen. Drogen eraginpean, ez nintzen lasai etzanda edo patxadaz irakurtzen egoteko gai. Speedgauak ziruditen. Urte hasieran estreinatu zen *Utopia* telesailera kakotu nintzen. Aitak utzitako Ipadari kaskoak lotuta ikusten nuen dramatismo esponentzialeko

thriller politiko-paranoiko bikaina. “*Utopia* ikustea gominolak jatea bezala izatea nahi nuke: gozoa, kolorez betea... baina goragalea sortzen duena”, irakurri nion zuzendariari.

Egunsentia baino lehen, seiak aldean, dutxatu, eta bisitarien aulkian eserita itxaroten nion erizainen lehen errondari. Tentsioa eta tenperatura hartzen zizkidaten.

– Ez zenuke bakarrik dutxatu behar: tentsio honekin edozein momentutan zorabia zaitezke.

Zazpietan aitaren mezua iristen zitzaidan zer moduz lo egin nuen galdezka. Partea bidaltzen nion: “Bi ordu eta sukarrik gabe”.

Bederatziak alderako etortzen zen, *El País* besapean. Ohitura bihurtu zitzaigun gurutzegrama elkarrekin osatzea. Behin errenditzen hasita, nik baino laukitxo gehiago bete zitzan uzten nion apropos. Gustua hartu nion galtzera jolasteari; gero eta gutxiago kostatzen zitzaidan.

Aitak korridorean paseatzera behartzen ninduen: goizero osteratxo bat, bezperakoa baino metro batzuk luzeagoa. Gogoz kontra ateratzen nintzen gelatik. Lehenengo ibilaldietan, gorputzaren ahulezia baino are eramangaitzagoa zitzaidan oxigeno falta. Metro gutxi

batzuk egin orduko eseri beharra izaten nuen. Beste gaixoek eta haien senideek ni hain argal ikusteak ere lotsatu egiten ninduen.

– Zer duzu, ume? Anorexia? –galdetu zidan kamisoidun atso batek, aitaren besotik nindoala–. Janik ez zenean denok gose, eta jana soberan dagoenean, jan nahi ez...

Aurrera tira zidan aitak.

Nire bizitzan diziplina ezartzen zidan lehen aldia zen, eta horretara jarrita, ez zen inola ere malgua.

– Bihar haraino –agintzen zidan.

Eztabaidatu egiten genuen, dueluaren eta sedukzioaren artean beti.

– Damu dinat Karmen azken etapan albora utzi izana –aitortu zidan–. Ihes egin ninan, eta hi utzi berarekin. Ez nindunan arreba hiltzen ikusteko gauza, eta hiregan delegatu ninan hari heriotzaraino laguntzeko ardura.

Aitaren “une sakonek” ez zuten inoiz bi minututik gora irauten.

Logelan grazia egiten ziguten bideoak eta gustatzen zitzaizkigun kantak jartzen genizkion elkarri. Amy Winehouserekin txoratuta zebilen: 27rekin hildako emakumeen fana zen.

Erorketa absurdoen bideo baten ostean Ipada eskatu zidan.

– Kanta bat jarriko dinat.

Antonio Molinaren ahotsa ezagutu nuen. Aitak gustuko zuen gurasoen iragana gogora ekartzen zion musika. Abisurik eta aurreprestaketarik gabe jarri zidan *La hija de Juan Simón* abestia, eta gitarra arraspariaren gainetik, negarraren antzeko kantu hura:

Cuando acabé mi condena
Viví muy solo y perdido
Ella se murió de pena y yo
Que la causa he sido sé que murió siendo buena
Ella se murió de pena y yo
Que la causa he sido sé que murió siendo buena.

La enterraron por la tarde
A la hija de Juan Simón
Y era Simón en el pueblo
Y era Simón en el pueblo ay
El único enterraor

Él mismo a su propia hija
Al cementerio llevó
Y él mismo cavó la fosa
Y él mismo cavó la fosa murmurando una oración.

Y como en una mano llevaba la pala
Y en el hombro el azadón
Sus amigos le preguntan
Y todos le preguntaban ay
De dónde vienes Juan Simón

Soy enterraor y vengo
Soy enterraor y vengo
Soy enterraor y vengo ay
De enterrar mi corazón.

"Ella se murió de pena y yo, que la causa he sido, sé que murió siendo buena". Arnasa bera ere ebatsi zidan. Aitaren bularrean ezkutatu nuen burua, eta halaxe egon nintzen abestia amaitu zen arte.

Zotina kontrolatzea lortu nuenean, nire burua haren paparretik apartatu eta esku bat jarri zidan sorbaldan.

– Drogek blandiblu jartzen haute, Jenisjoplin.

Petaren, Gina izeneko neska baten lagun egin nintzen. Gurearen aldameneko txabolan bizi zen, harekin igarotzen nituen eguneko ordu hilak. Ni baino zaharxeagoa zen, hogeita lau urte, eta oihal-puskekin panpinak egiten zituen auzoko merkatuan saltzeko.

– Ze pena, hi neska izatea –esan zidan arratsalde batean–. Mutila bahintz, ni haurdun uzteko eskatuko ninake.

Arraza hobetu nahi zuen. Beltz-beltza zen Gina, eta Gabrielaren dobermanak ez zuen bakean uzten. Zaunka hasten zen neska usaindu orduko. Txantxetan ari zela pentsatu nuen, baina ez, bene-benetan ari zen arrazaren kontuarekin. Adarrik ez jotzeko agindu nion.

– Utziko al didan hire azala usaintzen?

Bere sudur zapala nire lepora gerturatu eta usnaka hasi zitzaidan.

– Ikusten?

Nire usaina berea baino askoz hobea zela sinetsita zegoen.

– Zurion izerdi-usaina desatsegina zitzaizuela uste ninan nik.

– Nik nahiago dinat zuri-usaina.

– Xaboiarengatik izango dun.

Sinesgogor begiratu zidan. Etxera igo eta nire xaboi-potoa jaitsi nion.

– Hiretzat.

Ume bat bezala hasi zen pozez saltoka. Baina ez zion luzaz iraun. Biharamunean burumakur hurbildu zitzaidan potoa eskuan. Dutxa hartu berria zen.

– Ez dun gauza bera. Beltz-kiratsa dinat oraindik.

Aste Santuan, Euskal Herrira itzuli aurretik, Choroníra joateko gonbidapena neukan. Euskal errefuxiatu batzuk bizi ziren han, eta haien etxera joateko asmoa nuen egun batzuk pasatzera. Nirekin etortzeko animatu nahi izan nuen Gina. Banekien zer erantzungo zidan, ez zeukala kuleroak erosteko ere dirurik; baina musutruk ostatu emango zigutela eta gainerako gastuak neuk ordainduko nituela agindu nion.

Urduri igo zen autobusera, leihotik begira egin zuen bidaia osoa. Lehen aldia zen jaio zen auzotik ateratzen zena. Choroníra iritsi ginenean, etxean hartuko gintuzten lagunentzat, esker onez, opariren bat erostea erabaki nuen, baina motxilan sartu nituen ehun dolarrak desagertu zirela ohartu nintzen.

– Ez naun ni izan.

Eskuak altxa zituen Ginak.

– Bazakinat –erantzun nion haserre.

Esku-hutsik jo genuen aberrikideen atea. Etxe dotorea zen, aurrealdean lorategi eta guzti. Beso zabalik hartu gintuzten Ramonek –ez zen haren benetako izena izango– eta Almak. Diruarekin gertatu zitzaidana kontatu nien, eta buruarekin ezezka eta eskua aurpegiaren aurrean astinduz adierazi zidaten trankil egoteko, ahazteko kontua.

– Hemen ez duzue dirurik behar.

Gina txunditurik zegoen. Ez zuen ulertzen bikote hark etxean nolatan hartu gintuen, trukean ezer eskatu gabe eta nahi adina denborarako, lehenago sekula elkar ikusi ez bagenuen.

– Herri bitxia, hirea.

Laurok elkarrekin bazkaldu genuen: marmitakoa eta cachapak, talo venezuelarrak. Ardoa ere atera zuten. Galdera batzuk egiteko aprobetxatu nuen eta ohar batzuk zirriborratu nituen.

– Nik ez dut edaten –uko egin zion Ginak Ramonen eskaintzari.

Kaferako, Fernan izeneko beste euskaldun bat bildu zitzaigun, Ramon baino gazteagoa. Gauez hondartza aldera joateko gonbita egin zigun, itsasertzeko

taberna batean aritzen zen zerbitzari, eta bertako gaugiroa goraipatu zuen.

– Etorri behar duzue, dantza pixka bat egitera.

Handik bi egunera egin genuen joateko plana. Iluntze aldera dutxa hartu, gorputzak nire xaboiarekin goitik behera igurtzi, eta festarako prestatu ginen. Soineko zuri bat utzi nion Ginari.

– Ez al da laburregia?

Niri belaunak estaltzen zizkidan, baina Ginari izterren erdialdera iristen zitzaion.

– Bai zera! –animatu nuen.

Txirikordak egin nizkion ilean, eta buruaren gainean bildu.

Taberna hondartzaren gain-gainean zegoen, oholez osaturiko egitura zabal baten gainean. Ertz batera, barra, aurrean, terraza, zintzilikako argi txikiz inguratua. Terrazaren albo batean mahai batzuk, eta bertan eserita jendea, daikiriak eta kremazko pontxeak edaten. Beste aldean, dantza-pista. Iritsi ginenean bikote pare bat baino ez zen ari dantzan, mahaietako batean jesartzea proposatu zigun Ramonek. Fernan ere gurekin eseri zen. Ron botila eta edalontzi bana atera zituen anfitrioiak. Gina alde guztietara begira ari zen, liluratuta. Zer edango zuen galdetu zioten.

– Tira! Behingoagatik!

Azkenean chicha pixka bat onartu zuen. Bitartean, ron-botila hustu ahala, Euskal Herriko egoera politiko-az aritu ginen hizketan Ramon, Fernan eta hirurok, egoera hartan soinu erabat erridikulua zuten hitzak harilkatuz: hitzarmena, negoziazioa, prozesua, kon-ponbidea... Bigarren ron-botila ireki zuen Fernanek, hi-tzak mingainean itsatsi zitzaizkigun: *eszenategia*, bake-akordioa...

Niri ziztuan igaroak zitzaizkidan, baina aise paseak izango ziren bizpahiru ordu isildu gabe berriketan. Gina gogaitzen hasia zela ohartu nintzen.

– Horrela dibertitzen zarete benetan?

Ahapeka galdetu zidan, baina entzun egin zioten, eta algaraka hasi ziren denak. Almak, Ginarekin bat eginez, baietz argitu zion, *horrela* dibertitzen ginela. Fernanek, berriketari utzi, eta dantza egitera atera zuen Gina. Ramonek eta Almak erretiratzeko ordua zutela esan zuten.

– Gelditu lasai. Aprobetxatu!

Gaua pixka bat luzatzea erabaki genuen. Fernan lanera itzuli zen, eta Gina, nirekin errukituta, dantza-pistatik mahaira itzuli zen. Barraren ertzean zegoen mutil bat jo nuen begiz.

– Ikusten dun?

Bizkar zabaleko mutil gihartsu bat zen, beltzarana. Ile luze nahasiak ukitu basatia ematen zion. Adoretuta, gugana hurbiltzeko keinua egin nion. Mahaipetik ostiko jo zidan Ginak.

– Gurekin edan nahi al duk? –gonbidatu nuen.

Ron pixka bat onartu zidan, aldamenean eseri zitzaidan.

– Alex –aurkeztu zuen bere burua.

Gina lotsatuta sentitu nuen, eta dibertitu egin ninduen horrek. Beste mutil bat ere albora etorri zitzaigun. Alexen laguna zela pentsatu nuen. Ginaren ondoan eseri zen, hizketan hasi zitzaion. Ginak gustura zirudien. Ni ere sorginduta bezala nengoen ronaren kulunkapean eta gero eta gertuago neukan mutil eder haren konpainian. Ginari belarrira hitz egiteko jiratu zen batean, sorbaldaren atzealdean tatuaturik svastika bat ikusi nion haren solaskideari.

– Eta hori? –galdetu nion zakar.

Damu-aurpegia jarri zuen.

– Gaztetan, badakin...

Sinetsi egin nahi izan nion. Petaren, umeek svastikak margotzen zituzten paretetan eta lurrean. Askotan hurbildu nintzaien zer arraiotan ari ziren galdezka,

eta zer pintatzen zuten arrastorik ere ez zutela jabetu nintzen. “Erria, Nagore!”, esan nion neure buruari, “lasaitu...”. Nekatuta nengoen une oro dena kontrolpean eduki beharraz. Beti atezuan, beti erne. Aroak ere, bero, umel, biguntzeko eskatzen zuen; ronaren usainak, zer esanik ez. Gozatu. Utzi gozatzen. Etxera gonbidatu gintuen Ginaren lagun berriak. Ginari iritzia eskatu nion begiradarekin, baiezkoa egin zidan.

Txoko hura paradisua zen. Itsasondoan zegoen, olatuak entzuteko bezain gertu. Terrazan, kokondoak; enbor batetik bestera hedatuta, hamakak. Edanean eta barrez jarraitu genuen. Musukatu egin ninduen Alexek. Mowgly deitu nion. Tarzan. Bero-beroa zuen hatsa, fruta-zaporekoa. Arbolapeko koko bat hautsi zuen aihotz batekin, eta edatera eman zidan. Halako batean, aparte hartu ninduen Ginak.

– Birjina naun.

Besoetatik heldu eta lasai egoteko eskatu nion, nahi zuenean alde egingo genuela handik, une hartantxe bertan, nahi bazuen. Ez zeukala ezer egin beharrik.

– Ondo nagon.

Alex eta biok gero eta beroago geunden, kokoesnea nire sabelera isuri eta bertatik edaten hasi zen.

Zorabio karibetarra. Lika. Azukrea azalpean. Giharrak deseginda. Eztia. Berriro hurbildu zitzaidan Gina.

– Honekin noan.

Zain zeukan etxejabea.

– Seguru? –galdetu nion.

Baietz egin zidan buruaz. Alexen mihia sentitu nuen zilborrean. Alde egin zuten.

Nik ere etxera sartu nahi ote nuen galdetu zidan Alexek. Zalantza egin nuen, hamakan bertan, gauaren azpian biluzik larrua jotzeak erakarrita, baina baietz esan nion azkenean, erosotasunaren alde. Nahikoa edanda nengoen, hobe nuen ohean luze etzatea. Eskaileretatik aditu genituen lehenengo oihuak eta kolpeak. Korrika hasi nintzen garrasiak zetozen lekurantz, estropezuka, Alexi begiratu ere egin gabe. Lehenengo pisuko gela bat zen. Atea krisketaz itxia zuten.

– Kabroia! Ireki!

Ateari ostikoka hasi nintzen; Ginak oihuka jarraitzen zuen. Alexek, nire ondora etorri, eta indarrez bota zuen atea. Ohol eraitsiaren aurrean tente ikusi nuen Gina. Odoletan zegoen. Ezkerreko eskuarekin eskuinekoari eusten zion, turrustaka ari zitzaion odola soineko zuria zikintzen. Begiratu egin zidan. Heldu egin

nion. Tipoak aiztoa eskuan zeukan oraindik. Alexek morroiaren kontra egiteko keinua egin zuen, pistola batekin apuntatu zion hark. Korrika jaitsi genituen eskailerak; gure atzetik etorri zen Alex ere. Terrazara atera ginen, etxaurreko hesia itxita zegoen. Ezin ginen atera jabeak ireki ezean. Hesia gainetik pasatzen ahalegindu nintzen; altuegia zen, Ginak ezin zuen eskua erabili. Erdi biluzik nengoen, amorruak eta beldurrak gorputz-adarrak tenkatzen zizkidaten. Atalondoan ikusi nuen Ginaren erasotzailea, esku batean aiztoa eta bestean pistola.

– Ireki atea! –garrasi egin nion.

Nire aurreikuspen guztien kontra, poliki eta zaratatsu, hesia zabaltzen hasi zen.

Besotik heldu nion Ginari. Lasterka atera ginen handik, noraezean. Eskuinera hartzeko aholkatu zigun Alexek; ezkerrera, aurrerago. Han ez zen osasun-etxerik.

– Utz gaitzak bakarrik!

Bidearen erdian gelditu zen, kamisetarik gabe eta beso gihartsuak soinaren alde banatara zintzilik. Gu urrundu egin ginen. Zerbait bilatu behar nuen, ospitale bat, laguntza-zentro bat, komentu bat, komisaria,

zerbait. Anbulatorio txiki batekin topo egin genuen, zortez.

Ginak odol asko galdu zuen, zorabiatzen hasia zegoen, zurbil. Zauria josi zioten, esku-ahurrean alderik alde. Ebaki sakona zeukan. Mutilak aiztoarekin mehatxu egin zionean, bere burua defendatu nahian, erreflexuz, sorbatzari eutsi zion.

Hurrengo egunean itzuli ginen Petarera. Ez nuen errefuxiatuei buruzko erreportajerik idatziko, ez nion inori Choronín izan nintzenik aipatu ere egingo. Autobusean hala adosturik, lapurreta egin zigutela kontatu genuen, eta ni babestearren zauritu zutela Gina. Maingu, ezin izan zuen, hilabetetan, panpinarik josi; eta uko egin behar izan zion bere diru-iturri bakarrari. Ginak bazekien bere burua babesten: hogeita lau urtean ez zuen inork bortxatu, ez kolpatu. Nire gurasokeria zuria izan zen hura pobreziaren eta bere burua-rekiko gorrotoaren eskaileran maila bat beherago jaitsarazi zuena. Biharamunean itzulerako hegazkina hartu nuen.

Egunkaria ekarriko ote zidan eskatu nion goizeko errondako erizain atsegin bati. Ohituraz, gurutzegrama egin nuen lehenbizi, ia osorik, bi hitzen faltan.

Abenduaren 15a igandea zen. Luka Madrilen zegoen bezperatik bere amarekin. Elkarrekin eman zuten izena James C. Scottek *Menderatuak eta erresistentziaren artea* liburuan oinarrituta eman behar zuen hitzaldirako, kitzikatuta zeuden. Euren lagunen etxean hartu zuten ostatu eta mintzaldiaren ondoren afaltzera joango ziren gustuko jatetxe thailandiar batera. Gurasoek ere planak zituzten: biek hots egin zidaten konpromisoak bertan behera utziko zituztela esateko, baina uko egin nien.

Korridoreko osteratxoa egitera jaiki ala ez zalantza egin nuen, baina, entrenatzailearen faltan, *Utopia*ren bosgarren kapitulua ikustea erabaki nuen. Argi-ilunetan, soinu-bandaren lehen notek erne jarri ninduten.

Gela ilun bat: oholez estalitako leihoen zirrikituetatik, eguzki-izpiak eta, aurrean, argi kontra, konspirazioaren buruetako bat. Musika txistu bat, burmuinean instalatzen zena.

– Honezkero zazpi mila milioi gizaki bagara planeta honetan. Ni jaio nintzenean ez ginen bi mila milioira iristen. Elikagaien prezioa gora doa, petrolioa ahi-

tzen ari da. 20 urte barru gure baliabideak amaitzen direnean, eta gure espezieaz dakiguna jakinda, benetan uste duzue elkarbanatu egingo ditugula?

Wilson, Becky eta Ian daude gelan. Becky ari da galdezka:

– Eta horren aurrean, genozidioa da zure erantzuna?

– Ez. Ez da genozidioa. Gure erantzuna Janus da.

Planoa ixten ari da.

– Janus proteina batez eta aminoazido batez osatuta dago. Elkarrengandik aparte, kaltegabeak dira. Baina subjektu berean batzen direnean kromosomak bereiztea eragozten duen prozesu genetiko bat abiarazten dute. Zelula hautatua ezin da bitan zatitu eta alferrikako bihurtzen da. Aldaketa behin betikoa da. Eta hereditarioa.

– Eta... zeintzuk dira hautaturiko zelulak?

– Ugalkortasuna kontrolatzen dutenak, Becky. Janusen helburua giza arraza antzutzea da.

Planoa aldatu da. Etxaurrea eguzkitan. Ahotsak jarraitu du:

– Janusek hogeitik bat baino ez du ugalkor utziko.

Barruan, berriro: aitorlea eserita, argi kontra. Zutik, bizkarrez, beste hirurak:

– 100 urte baino gutxiagoan populazioa 500 milioi biztanletan egonkortuko dela uste dugu. Ordurako, jaiotza-tasak leheneratuta behar luke... baina hutsik sentituko den planeta batean.

– Erotuta zaude!

– Ba al dakizu nor izan zen ingurugiroan eragin positiboena izan zuen morroia? Gengis Khan: 40 milioi pertsona masakratu zituelako. Lurra lantzeko inor gabe, basoak hazi ziren berriro, atmosferako karbono dioxidoak behera egin zuen. Munstro hura existitu izan ez balitz, gutako bilioi bat gehiago ginatekeen orain, planeta honetan espazio minimo bat lortzearren elkarri bultzaka.

Puertas doktorea sartu zen gelan.

– Zurekin hitz egin behar dut.

Irudia gelditu nuen.

– Transfusioa egin beharko dizugu, Nagore.

– Ez! –aurka egin nion tinko.

– Beharrezkoa da, anemia handiegia duzu.

– Ez dut transfusiorik nahi, esan nizun.

Ez nekien arrazionalki argumentatzen, ez nengoen beste baten odola onartzeko prest. Gainerako bataila guztiak galduta, egoskor, erabaki nuen ez niela nire zainetan sartzen utziko. Nire odolean, ez. Konbikzio

guztiak eraitsita, ideiak birrinduta eta gorputza botika arrotzez beteta, nire odolarekin identifikatu nintzen. Azken tantaraino zukutu nahi nindutela sentitzen nuen. Nire-nirea zen guztia kendu nahi zidatela. Odolari eustea lurralde konkistatuan azken eremu askea defendatzea zen. Ekintza ia espirituala. Nire azken borrokatxoa.

Pantailari begiratu zion.

– Paranoia larregi ikusten dituzu.

– Itxaron bihar arte, mesedez, ea emaitzak hobetzen diren.

Leihora joan zen. Lo zetzan atsoari begiratu zion. Bizkarka esan zidan:

– Janus ez da existitzen.

Ipadari begiratu nion. Conran bilauaren bisaje begi-zulotsua.

– Bihar arte itxarongo dugu; emaitzak hobetzen ez badira, ez dizut beste aukerarik emango.

Konbentzitu egin nuen, mirariz.

Joan zenean, itzarrik, hizketan hasi zitzaidan aldamenekoa.

– Gaixoa... Beldurra ematen al dizute transfusioek? –oinak bistan zituen–. Niri ere bai. Edozer kutsa-

tzeko ere... Pentsa hiesdun baten odola sartzen dizutela!

– Zuri, honezkero, berdintsu litzaizuke.

Egunkariarekin orri-pasan baretu nahi izan nuen amorrua.

Espero ez nuen albiste batekin topo egin nuen: egun hartan bertan ari zen jokatzen Euskal Herriko bertsolari txapelketako finala, nengoen ospitaleko gelatik kilometro eskasera, hain zuzen. Ilusioa egin zidan. Ez nintzen bertsozale porrokatua, horretan ere ez nintzen sartzen abertzale inbentariatuaren soslaian, baina ospitaleko igande anestesiatu baterako plan hoberik ez zitzaidan bururatzen. ETB1en zuzenean emango zuten buruz burukoa.

Eguerdian, Irantzuri deitu nion:

– BECen al hago?

Bertsolariak aditu nituen atzean. Eskegi egin zidan.

Antzutzearen gaiaz hausnarrean aritu nintzen. Ustekabeko durduza eragin zidan jendartea propio antzutzeko konspirazioarenak. Banekien sarritan praktikatu izan zirela antzutze behartuak: Alemanian eskizofrenikoak, epileptikoak, itsuak, gorrak eta alkoholikoak antzutu zituen Hitlerrek; Suedian ijitoak izan

ziren jomuga eta Perun emakume indigenak. AEBetan ere, “akats” fisiko eta mentalen bat zutenez gain, amerindiarrei eta andre afroamerikarrei erauzi zieten ugaltzeko gaitasuna. Bistakoa zen kartzeletan eta psikiatrikoetan itxita zeuzkatenei ere ez zietela ondorengoak izatea errazten.

Jakin-mina piztu zitzaidan, eta susmoa, GIBarekin kutsaturiko jendea inon, inoiz behartuta antzutu ote zuten. Ez zitzaidan asko kosta aierua baieztatzea: Mexikoko hainbat emakume seropositibok tronpen lotura egitera hertsatu zituztela salatzen zuen. Hondurasen, El Salvadorren eta Nikaraguan ere ugalkortasuna eragotzi edo estuki mugatu zieten GIB eramaileei.

Luzea zen, eta harrigarria, halako praktikak eginarazi zituzten estatuen zerrenda: Australia, Norvegia, Finlandia, Estonia, Islandia, Suitza, Erresuma Batua, Errumania, Errusia...

Aparailua itzali nuen.

Nik ez nuen sekula ama izaterik desiratu. Pentsatu ere ez nuen egin. Baina datu haiek giza zaborraren kategorian sailkatzen ninduten. Ugaltzea galarazi behar litzaiekeenen taldean. Diagnostikoaz geroztik inork ez lidake haurdunaldirik aholkatuko eta, posible izatera, oztopatu egingo lidakete ugalkortasuna. GIB

positiboa nintzela esan zidatenetik genitaletan eta obulutegietan pairaturiko arazo amaigabeek izango zuten zerikusirik antzutze sinbolikoarekin ere.

Eguneko bigarren dutxa hartzea erabaki nuen.

Bazkalostean, ohetik jaiki eta armairuan zintzilik zegoen berokia jantzi nuen pijamaren gainetik.

– Alta eman dizute? –galdetu zidan atsoak.

Errukitu egin nintzen. Ez zitzaion asko gelditzen.

– Ez, kafetegira noa. Nahi al duzu zerbait ekartzea?

– Txokolatezko madalenarik balego...

Arazorik gabe iritsi nintzen igogailura. Hormari helduta egin nuen kafetegirainoko bidea. Hatsanka iritsi nintzen. Madalenak, patata frijituak, goxokiak eta alkoholik gabeko zerbezak erosi nituen.

– Gela-zerbitzurik baduzue? –galdetu nion txantxetan zerbitzariari.

Ahul ikusiko ninduen, gelaraino laguntzeko eskaini baitzidan bere burua.

– Igogailura bakarrik –onartu nion.

Poltsa esku batean hartu eta beste besoa eskaini zidan.

– Zer duzu?

– Pneumonia.

Poliki-poliki joan ginen igogailuen aretora. Estraperloko fardela entregatu zidan. Ezin nuen pisuarekin.

– Goraino lagunduko dizut.

– Konforme.

– Zer ospatuko da?

– Txanpionsa.

Harritu egin zen, baina ez nion azalpenik eman.

– Onenak irabaz dezala –esan zidan.

Armairuan sartu zuen poltsa.

– Azkar osatu.

Zurrungaka ari zen nire gelakidea. Gau-mahaian utzi nion madalena. Nekatuta, etzan egin nintzen ni ere. Begiak itxi eta arnasa bere onera etorri zain gelditu nintzen.

Erizainak antibiotikoa jartzeko iratzarri nindue-nean ohartu nintzen lo hartu nuela.

– Zer ordu da?

– Zazpiak.

Ordurako iluna zen kanpoan.

– Nola ez nauzue lehenago esnatu?

Mespretxuz begiratu zidan.

Telebista piztu nuen. Hastear zen buruz burukoa. Alkoholik gabeko bat eta patatak ireki nituen. Gatzak erre egin zidan eztarrian. Zaborretara bota nituen. Lu-

janbioren lehen plano itxi bat erakutsi zuen kamerak. Kontzentrazioaren begitarte beltzuria.

– Nork irabaziko du? –galdetu zidan atsoak.

Beste madalena bat eskaini nion.

Bederatzietan, txapelduna izendatu baino lehenago, telebista itzalarazi zidan erizainak, hainbeste irudirekin atsoa urduritzen hasia zela eta.

Handik gutxira atea ireki zen berriz.

– Zer gertatzen da orain? –kexatu nintzen erretxinduta.

– Nagore, esna al hago?

Agondu egin nintzen.

– Zer egiten dun hemen?

Isilka sartu zen Irantzu.

– Ospitalea etxera bidean gelditzen zitzaidanan eta gabon esatera pasatzea otu zaidan.

Txispatuta zegoela iruditu zitzaidan.

– Nork irabazi du?

– Ametsek.

– Ondo egon da?

– Itzel. Erromak heroiak maite ditin.

Bekokian musu eman zidan, eta alde egin zuen.

Diagnostikoarekin sexualitatea, erotika eta sedukzioa kastratu zizkidaten kolpez. Puertas doktoreak 2010ean haren berri eman zidan unean bertan ulertu nuen sexua niretzat amaitua zela. Lortuko nuen, akaso, hartara jarriz gero, saiatuta, mekanikoki orgasmora iristea, baina jolasa, axolagabetasuna eta, batez ere, espontaneitatea ez nituen berreskuratuko. Ez zen gehiago naturalki, gauza batek bestera eramanda, ia ohartu gabe larrutarako okasiorik sortuko. Ez ninduen begirada bihurri batek etzango. Ez nuen ezezagunik limurtuko. Are gutxiago lagunik: diagnostikoaren berri zekitenentzat ez nintzen jada ohekide posible bat. Errukiak ezinbestean hilko zuen eszitazioa. Azala azalaren kontra igurzteko jaidura basa iraganeko kontua bihurtu zen. Ezingo nuen sexua erabili maitasun, onespen, autoestimu, konplizitate, abentura, dibertsio bila. Sexuak beharko zuen izan planifikatua, kontu handiz egina, mugatua eta problematikoa.

Sekula inork desiratuko ez ninduen izuak hartu ninduen: nire egoeraren berri zekitenentzat erotikarik gabeko lagun jatorren multzo hitsera igaro nintzen eta desiratuko nindutenei ezingo nien desiraz erantzun.

Ezezagunen irritsezko begiradez gozatu nahi banuen, hurkoa berotzeko gaitasun primitiboaz plazer

hartzeko asmo hutsez, ezkutuan mantendu beharko nuen nire egoera. Larrua jotzeko intentziorik gabe seduzitzea zen egin nezakeen gehiena. Ingurukoek ezeren berririk ez zuten bitartean, jolasten jarraitu ahal izango nuen, fribolitatea bizitzen ez baina arinkeria antzezten. Emakume erakargarriaren gudu-zelaian gau-jantziz paseatu ahalko nuen kontua isilpekoa zen bitartean. Kontrara, territorio hori galduko nuke. Kastrazio erdia bazen diagnostikoa, hura publiko egitea, kastrazio osoa.

Sexua alde batera utzita sozializatzen ez nekiela ohartzea izan zen bigarren kolpea. Besteekiko harremanetan bazegoela nigan beti sexualetik zerbait. Larruaren bidez iristen nintzen samurtasunera, batasunsentimendura, eta are onarpen intelektualera. Tabernetara sartzean igartzen nuen, gizonezkoen bileretara azaltzean, begiz begiko elkarrizketa hutsalenean. Indar sexuala itzalita, ez nekien nola jokatu. Horregatik bakartu nintzen, eta itxi. Mundu txiki bat osatu nuen Lukarekin, non sexu problematikoaren bidez maitasuna eta intimitatea trukatzea posible zen.

Espero gabe, emakumeengana ireki ninduen egoera berriak. Gizonezkoen begiradentzat, gizonezkoen iritzientzat, haien presentziarentzat eta oniritziaren-

tzat gorde izan nuen gainezkako arretak ez zidan ahizpatasun apurrik praktikatzen utzi. Bortxaz fokua aldatuta, lehen lehiakideak edo, presentzia kasik ikusezinak hautematen nituen lekuan konplizeak ikusten hasi ahal izan nuen. Urteetan jaramonik egin ez nienengana nola gerturatu ezin nuen asmatu, ordea.

Lehen ehizari eskaintzen nion dedikazioa neuretzat hartzea ahalbidetu zidan kastrazioak. Konkistan xahutzen nuen indarra neure burua zaintzeko erabiltzea. Inor sorgintzeko lanak albora utzita, energia-soberakin dezentekoa gelditu zitzaidan, nire gorputz hebainduarentzat hil edo bizikoa. Beti erne egon beharraren zamaz, harrapariaren alerta-egoeraz libratu nintzen eta, lehenago ez bezala, harreman monogamo egonkor samar bat elikatzen ausartu nintzen. Leialtasunaren berme irreala, interdependentziazko oreka eta bidean aurrera egiteko bidaide eta emoziokide baten babesa sentitu ahal izan nituen.

Geroztik saiatu naiz pausa, baretasuna, patxada eta androfiliatik askatu izana ospatzen. Gutxien espero dudanean, baina, azalaren azpian sentitzen dut, taupaka, erpeka, otsemearen inertzia.

Goizeko seietan, dutxa hartu aurretik, eskura neukan guztia jaten nuen analitikak hobetze aldera. Bitaminak eta barratxo energetikoak ekartzeko eskatu nion amari; banana eta ahuakatearekin batera gosaltzen nituen. Egunero ateratzen zidaten odola plaketakopurua aztertzeko.

Eszeptiko zegoen Puertas doktorea.

– Apur bat hobeto daude. Oraindik oso baxu.

Abenduaren 20an berriro etorri zen Irantzu. Transfusioaren gerra irabazi nuela kontatu nion, ukabila goratuz.

– Hire bulkada belizistek ez diten mugarik! –asaldatu zen.

– Zer moduz iritsi hintzen etxera?

– Someran gelditu nindunan zerbait hartzen beste bertsozale batzuekin. Saio osteko komentarioak eta... oheratzerako goizeko bostak.

– Zer moduzko saioa joan zen?

– Interesatzen zain, ala?

– Ni ere finalari begira egon nindunan. Heroiei buruzko zerbait esan hidan gauean.

Poltsan ekarri zuen fardel bat eman zidan. Kartoizko liburu eder bat, *Nire sekretuen zuhaitza.* Musu eman nion.

– Oraindik kultura epikora kakotuta gauden. Guardia zibilak, presoak, Sarri, ama totala... Geure heroiak eta bilauak behar ditinagu. “Aro berrian” ere epikaren inertzia hor zagon. Maialenekin deskolokatu xamar egon nindunan: hozka egiteko grina falta zuela iruditu zitzaidanan hasieran, amorrua eskas, baina, hain zuzen, aipatutako epika horretatik ihesi ez ote zebilen... Ez zitinan gaiak gertaera heroikoak balira bezala abordatu, txikitik aritu zunan. Baina hori dun joera oro har, ezta? Ez bertsolarietan bakarrik. Interesgarria dun epikaren kulturarena: hamarkada batean ikuspegi belizista nola diluitu den. Orain dela gutxi belaxkatzat hartzen zunan epikara hurbiltzen ez zena, eta orain boladaz kanpo zagon guztiz, zabar irizten zionagu edo, okerrago, kitsch, purpura. Begira, bestela, musikariei. Baina egiaren ordua iristen denean... hiletetan, adibidez, epika behar dinagu. Arbuiatu ditinagu ikuspegi erromantikoa eta gerrazalea, baina besterik eraikitzea kostatzen ari zaigun...

– Ni ere halaxe nabilen.

– Ahaztu egin al zain transfusioaren gerrarena?

– Guztiz demode nagon, bai.

Armairua seinalatu nion.

– Zerbezak eta litxarreria batzuk dauzkan, nahi badun.

Lata bat ireki zuen.

– Teoria berriak ari ditun sortzen: ahultasunaren kultura defendatzen hasi ditun batzuk. Zaurgarritasunaren aitortza defendatzen diten, bai pertsonalki bai kolektiboki; baina, aldi berean, azpimarratzen ditizten gatazkaren kudeaketa, askatasunaren aprendizajea, disidentziarako eskubidea...

– Disidentziarako eskubidea esan dun? Niri ez didazue, ba, aitortzen.

– Disidentzia estilo heroikoan praktikatu dunalako: etsitzeko edo zalantzarako tarterik gabe, eta beti bakarka, autosufizientzia hutsez. Geure buruarekin mesfidati izatea dun zaurgarritasunaren kulturaren ardatzetako bat.

Aldameneko atsoa iratzarri egin zen.

– Ez duzu beste madalena bat edukiko, ezta?

Bat eman zion Irantzuk.

– Jainkoak bedeinka zaitzala, ume.

– Hauentzat errazagoa dun –esan zidan–. Jainkoak betetzen zien hutsune existentziala. Guk geure jainkotxoak fabrikatu behar izan ditinagu. Erlijioaren faltan ideologietan hartu dinagu babesa.

Pentsamendu haren norabidearen arriskuaz jabetu nintzen.

– Baina, joder, zein da alternatiba: bertan goxo egitea? –Irantzu ere mesfidati zegoen–. Terapiara joan eta norberaren traumak aztertuz zirkulu zentripetuak egiten bizitzea? Orekan egongo dun gakoa... Ezin dun ukatu norberaren ezinetatik ideologia egitea kontu zabaldua denik, ezinen analisitik doktore-tesi freudiar reichiar gestaltiar homeopatikoak egitea bezain zabaldua bai behintzat. Edozeren alde edo kontra sutsuen aritzen diren pertsonengan antzeman liteken errazen zehar-eskaria. Normalean, arrazoia eskatzen diten, eta arrazoiaren bitartez maitasun apur bat.

– Ezagutzen dinat dinamika.

– Ez nindunan zuzenean hitaz ari... Baina bazagon amorru bakoitzarentzat ideologia bana. Hutsune bakoitzaren neurriko pentsamendua. Umezurtz bakoitzarentzako lider ideologikoa. Hala ere –erakuslea altxa zuen–, guk ideiak geure faboretan erabiltzeak ez zien ideiei berezko funtsik kentzen, ala? Norbaitek defendatu beharko ditin!

Isiltasun une labur bat egin zuen. Tonua baretu zuen.

– Kontua izango dun nork defendatzen duen zer: pertsonak ideia ala ideiak pertsona. Hik... –tragoa jo zion zerbezari– benetan medikuntzaren kontra hagoelako egin dun borroka ala borroka egiteko beharra huelako egin dun medikuntzaren kontra?

– Bietatik zerbait, suposatzen dinat.

– Zaurgarritasunaren kulturaz ari direnek identitate finkoak desegin eta identitate estrategikoak eraikitzeko deia egiten diten. Jantzi-erantziko identitateak.

– Barruko arropa ondo hautatzea inportantea izango dun.

– Dudarik ez.

Korridorera atera ginen. Solairuaren hegal bateko itxarongelara joatea proposatu nion. Eguneko bigarren paseoa.

– Lehendabiziko aldian honaino iritsi nindunan.

Nire gelatik hamar metro eskasera zegoen atea seinalatu nion.

– Asko aurreratu dun.

Itxarongelan, igogailuko botoiari sakatu nion.

– Nora joan nahi dun?

– Kafetxo bat hartzera.

– Uzten al dute?

– Emadan berokia.

Igogailuan sartu ginen. Berokiaz gain lepoko zapia ere utzi zidan Irantzuk, eta buruan jarri nuen turbante eran.

– Dotore.

Barran eseri ginen. Keinu egin nion zerbitzariari.

– Ez haut ezagutu! –barran makurtu zen hitz egiteko–. Zer moduz doa pneumonia hori?

– Hobetzen.

Eskatutakoak atera zizkigun. Harrituta begiratzen zigun Irantzuk. Finalaren egunean ezagutu nuela kontatu nion.

– Gelaraino lagundu zidanan.

– Badaki zer daukanan, ala?

– Pneumonia. Entzun dion.

– Ja, baina...

– Ez dinat inork jakiterik nahi. Nire ahultasuna onartzen ez dakidalako izango dun.

– Ezkutatu nahia aitortzea badun aski onarpen.

Katilua bi eskuen artean helduta, kafetegiko mahaietan eserita zegoen jendeari begira jarri nintzen.

– Pertsona elbarriak, herrenak, begi-okerrak, mainguak... ergelagoak edo gaiztoagoak direla uste din jendeak, eta hiesaz diagnostikatuak alferrik galduak direla, giza hondakinak. Guk geuk ere bai. Merezitako

zigorra pairatzen ari direla pentsatzen dinagu, drogazale izateagatik, behar ez zutenekin behar ez zuten moduan endredatzeagatik, zoriaren beste aldera erortzeagatik, gu baino pobreagoak, biziotsuagoak, txortara emanagoak, gautarragoak izateagatik.

Ontzi-garbigailua ireki zuen zerbitzariak, lurrun bero desatseginak eten zidan jarioa.

– Erridikulua dun: beti aritu naun borrokan baztertuen alde, baina ni bazterrean kokatzen nautenen aurka oldartzen naun.

– Lehen heure bizitzaren gaineko kontrola handitzera eramaten hinduten jarrerek berek eramaten haute orain kontrola galtzera. Jarrera bati luzaroegi eusteak maskaldu egiten gaitin. Norberaren ahultasunarekin zintzo izatearen prezioa ditun kontraesanak.

– Aitzakia ederra, hipokrisiarako.

Ezpain-gaina seinalatu nion, aparrez zikindua zuen.

– Diagnostikoa zenbat eta jende gehiagok jakin, orduan eta errealago bilakatzen dun, bazirudin besteek jakiteak egiten duela egiazko.

– Hala dun, nolabait.

– Nik ez dinat *horrela* begira diezadaten nahi. Kutreena dun neure burua ikusten dudala normalitatea-

ren baitan ustez dagokidan tokia defendatzen –eserita nengoen taburetearі heldu nion–; kritikatzen dudan gizartearen parte izateko eginahalean nabilen, giza kategoria defendaezin horren barruan ahalik eta denbora gehien iraun nahian.

– Eta nor ez da horretan saiatzen? Periferiakoek ere normalak izan nahi diten periferian.

Barraren beste ertzean tea hartzen ari zen rastadun bikoteari begiratu eta bekainak makotu zituen.

– Estigmak lehengoan jarraitzen duela uste dun?

– Egin aproba: aukeratu kafetegi honetako pertsona bat, edozein, eta begiratu ongi.

Ingurua miatu zuen Irantzuk.

– Orain pentsatu pertsona horrek hiesa duela, eta begiratu berriz. Ez al da ezer aldatu?

– Nik lehen bezala ikusten haut.

– Ez.

– Jakina baietz.

– Orain kontra egiten didan, aholkuak ematen dizkidan, zaindu egiten naun.

– Hori ona dun.

– Baina nire gainetik jarri haiz.

– Baita zera ere.

– Eta gustatu egiten zain.

Loaren zain egoteaz aspertzen nintzenean egunsentiaren zain igarotzen nuen gaua. Zenbat eta indartsuago ni, orduan eta itogarriago ospitalea. Kortikoideek ez zidaten hiruzpalau ordutik gora lo egiten uzten, luzea eta ernegagarria zen denbora. Alfonsina Storniren obra irentsi nuen. Itsasoaren mira eta heriotza limurtzeko obsesio zoroa. Emakume burutsuei iragartzen zien maitasun-porrot ekidinezina.

Youtubeko bideoak kateatuz iristen nintzen argibegira. *Adikzioa* bideoarekin egin nuen topo goizaldeko hiruretan. Atsoa ahoz gora lo. Aurikularrak jantzi nituen.

“Zerk sortzen du heroinarekiko adikzioa? Galdera inozoa dirudi. Heroina da heroinarekiko adikzioa sortzen duena. Hogei egunean heroina kontsumitzen duenari hogeita batgarrenerako gorputzak basatiki eskatuko dio droga, abstinentzia-sindromea izango du, substantziak berak kontsumitzailea hartara katigatzeko gako kimikoak baititu. Horixe da adikzioa. Eta... hala ez balitz?

“Demagun aldaka puskatu dugula. Ospitalera eramango gaituzte eta diamorfina mordoa zaineratuko

digute zenbait astez. Diamorfina heroina da. Izan, jonki batek kalean aurkitu lezakeena baino askozaz heroina puruagoa. Une honetan bertan hainbat lagun ari dira, gugandik gertu, luxuzko heroina kontsumitzen. Beraz, adikzioari buruz aurresuposaturikoa zuzena balitz, haietako batzuek, gutxienez, substantziarekiko menpekotasuna garatu behar lukete... Baina ez da gertatzen. Zergatik ez?

"Gaur egun hedatuena dagoen adikzioari buruzko teorizazioa, neurri handi batean, XX. mende hasieran eginiko zenbait esperimenturi zor zaie. Sagu bat sartzen zuten kaiola baten barruan bi ur-botilarekin: botiletako batean ura zegoen; bestean, heroinarekin nahasturiko ura. Esperimentu hau egin zen ia kasu guztietan sagua heroinadun urarekin obsesionatu zen, gehiago eta gehiago edan zuen zerraldo geratu arte. Baina 70eko hamarkadan Bruce Alexander izeneko Psikologia irakasleak esperimentuaren ezaugarri jakin bati erreparatu zion: sagua beti bakar-bakarrik sartzen zuten kaiola hutsaren barruan, ur pozoitua edan beste zereginik gabe.

"*Sagu-parkea* eraiki zuen: luxuzko kaiola bat, koloretako pilotaz, tunelez, pasabidez eta, batez ere, sagu gehiagoz hornitua, elkarrekin jolas egin eta nahi adina

sexu izan zezaten. Aurreko esperimentuetan bezala, bi ur-botila jarri zizkien: heroinaduna eta ur hutsezkoa. Emaitza: sagu-parkeko saguek oso gutxitan hautatu zuten heroinadun ura; sagu bakar batek ere ez zuen konpultsiboki edan hartatik; bakar bat ere ez zen gaindosiz hil”.

Tantaz tantakoari begiratu nion: eskerrak nik ez nuen aukeratu beharrik. Nire *sagu-parkea* ez zen ez Woodstock ez BBK Live, esku bakarreko hatzekin zenbatu zitezkeen bisitan zetozen lagunak, sexuaz zer esan, eta drogak, medikuek aukeratuak, zainetik.

Bederatzi eta erdietan iritsi zen aita gurutzegramarekin. Hamar minutuan osatuta geneukan. Erruti-nazko osteratxorako jaikiarazi ninduen. Kale usaina zerion.

– Autoz etorri zara?

– Bai.

Txapazko kapsula ia indibiduala. Ihes egiteko makina perfektua.

– Eraman nazazu buelta bat ematera.

– Erotuta hago?

– Gutxi falta zait. Arnasa hartu behar dut. Ez dakit zenbat egun daramatzadan hemen sartuta –alkandoratik heldu nion–: Gauzak ikusteko beharra daukat.

Erizainen gelaren aurretik igaro ginen.

– Gauzak? Zer gauza? Nahi dun El Corte Inglesera eramatea soinekoak begiratzera? Ala nahiago dun Someran poteatzera joan?

– Autotik atera gabe: buelta bat. Ordu-erdi eta itzuli.

Arrastaka zetorren agure bat, serum-poltsari lotuta.

– Ahaztu, Jenisjoplin.

– Zubi esekiraino.

Begira gelditu zitzaidan. Amarekin batera zeharkatu genuen umetan, autoz, oraindik oinezkoentzako pasabiderik ez zenean. Inpresio ikaragarria egin zidan, nerabetan Eiffel Dorreak eragin zidana baino handiagoa.

– Hartu berokia, hotz egiten din.

Korridorean itxaron zidan. Ohiko martxan egin genuen igogailura arteko paseoa, elkarren aldamenean oinez. Barruan jantzi nuen txamarra. Hamabigarren pisutik seigarrenera ez ginen inorekin gurutzatu. Seigarrenean bi erizain sartu ziren. Diosal egin zidaten. Ez nengoen ziur artatu nindutenetakoak ote ziren. Zorionez, laugarren pisuan jaitsi ziren. Hilabete batzuk lehenago egin zuten parkingerako sarbide zuzena, eta

ataria zapaldu gabe jaitsi ginen aparkalekura. Segituan aurkitu genuen aitaren auto zaharra. Kalatu egin zitzaion lehen saiakeran. Bigarrengoan arrankatu zuen. Kalean ginen.

Etxebizitza-blokeen artetik gidatu genuen. Dendariek ataurreetara aterata zeuzkaten salgaiak, arrandegiak eta harategiak mukuru zeuden. Gizon bat agirika ari zitzaion patinetearekin zebra-bidea alboetara begiratu gabe zeharkatu zuen haur bati. Erosketa-poltsekin zamaturiko emakumeak bizi-bizi zebiltzan, aldamioan gizon beltzaranak lohihartzekoa jantzita. Gonbitoka ari zen metroaren ahoa. Loteriako azken dezimoak erosteko ilaran jubilatuak eta langabeturen bat. Bi ile-apaintzaile kafea zutik hartzen. Semaforo batean gelditu ginen. Zirrikitu bat zabaldu nuen leihatilan.

– Itxi hori.

Obeditu egin nion. Pozik zihoan, bolanteari heltzeko moduan nabaritzen nion, gorputza atzerantz etzanda, besoa luze.

– Itsututa ere gidatuko niken hemendik.

Lanerako bidea zuen. Sekula elkarrekin egin gabeak ginen bide hura.

Sestao gurutzatu eta erriberara atera ginen. Ibaiertzean paseatzen zakur-jabeak eta korrikalariak.

Eskuinetara, beste garai batekoa zirudien paisaia: ontziratu gabeko hondakin solidoak deskargatzeko garabi herdoilduak, txatarra-mendi gorrixkak, txirbil metalikoa ketan, burdinazko hagak eta zilindroak. Ibaizabalen beste aldean Areetako etxeak. Ezkerrera hartu zuen.

– Itxi begiak.

Abiadura moteldu zuen. Motorraren eta berogailuaren burrunba. Eskuinera. Autoa gelditu zuen.

– Orain.

Begiak ireki nituen. Ezustekoa hartu nuen, ibaia espero bainuen parez pare. Maria Diaz de Haroko etxarte ilunean geunden, zubia zeharkatzeko auto-ilararen aldamenean aparkatuta. Bizkaia Zubiak munstro bat zirudien etxe-blokeen artean, burdinazko egituratzar gorrixka, kableetatik pendulua bezala eskegitzen zitzaion plataformarekin.

– Ezin dinagu zeharkatu.

Zubiaren oinetaraino hurbildu zuen autoa. Gora begiratu nuen. Behetik ere bertigoa sortzen zuen haga gurutzatuz eraikitako estrukturak. Lau zangoko animalia kolosala, burdinazkoa bezainbat airezkoa. Erraldoiari begira gelditu ginen isilik.

– Egunen batean oinez igaroko dinagu. Orain ospitalera.

Ikasketak amaitu eta urtebetera, 2005ean jarri genuen Libre martxan. Karra zen irratian esperientzia zeukan bakarra. Saio internazionalista bat gidatu zuen zenbait urtez beste irrati libre batean esatari, gidoigile eta teknikari lanak bere kasa eginez. Zuzendari izendatu genuen: berak kontrolatzen zituen parrila eta beste irrati batzuekin elkarlanean osatzen genuen albistegia. Irantzuk kultur saioa eta tertulia politikoa gidatzen zituen, eta ni kanpo-erreportari lanetan hasi nintzen han-hemenkako protesten, greben eta itxialdien albiste ematen. Ildo ideologikoa hiruron artean eztabaidatzen genuen txiklea bezala luzatzen ziren asanbladetan.

2006ko urtarrilean grebara jo zuten Bilboko Portuko zamaketariek. Ontzi-enpresa handiei merkantzien karga eta deskarga euren kabuz antolatzea ahalbidetuko zien zuzentarau berriak iritsi ziren Europatik, portuetako aktibitate-maila arriskuan zegoen, ehunka kaleratze espero zituzten zamaketarien artean. Espai-

niako 5.000 zamaketarietatik 1.700 Estrasburgon izanak ziren protestetan, aita haien artean.

Ez ginen gertakariak unean bertan jasotzeko bezain azti ibili, ihesi joaten zitzaigun ia beti egunerokotasuna, baina liskarrak apaldu ostean bazen ere, portuko zamaketarien lana ezagutarazteko erreportaje bat egitea adostu genuen.

Aitaren bitartez lortu nituen portura sartu ahal izateko baimenak. Haren izaera ihardukitzaileak izango zuen zerikusirik izapide haiek behin eta berriz atzeratzean. Azkenean, otsaileko goiz baterako eman zidaten hitzordua.

Autoz joan nintzen kontainerren terminalera. Identifikazioa eta akreditazioa aurkeztu nituen sarrera-kontroleko leihatiletako batean. Nire datuak eta autoaren matrikula erregistratu zituzten. Handik metro gutxira, Guardia Zibilen aduana-kontrola igaro behar izan nuen. Zokoratuta eduki ninduten autoa miatzen zuten bitartean.

Etengabea zen joan-etorria. Sarreran, kamioi-ilarak eskanerretik eta material erradioaktiboen detektagailutik igarotzeko zain. Baimendurikoak nasa erraldoirantz abiatzen ziren kontainer-multzo eskergen artean. Portutik ateratzeko ere kamioi-lerroak aduana-

ren beste aldean. Ezkerretara, merkantzia-tren bat kargatzen ari ziren. Dena zen handia, pisutsua, zaratatsua.

Kontrola atzean utzita, agindutako lekuan aparkatu nuen. Langile-etxola bateko erregistroan nire izena egiaztatu eta txaleko islatzailea eta kaskoa eman zizkidan bulegariak. Dei bat egin zuen. Nasarako ate automatikoa zabaldu zidan. Hantxe neukan aita zain.

Lan-jantzi laranja soinean ikusten nuen aurreneko aldia zen. Ezagutzen ez nion itxuraren atzean ezagutzen ez nituen kideak, kezkak eta egitekoak. Pausajea ere aldatua sumatu nion, apalagoa. Barman-arima –trebea, lotsagabea, korbidoa– erori zitzaion. Nasako trafikoa eta makina mugikorrak kontrolatzen egiten zuen lan, hiru errelebotara.

Kaskoa erantzi zuen diosal egiteko. Ikaragarria zen terminaleko burrunba. Ordu-erdi eman zioten niri portuko instalazioak erakusteko. Kontainerren arteko etorbide batean zehar gidatu ninduen. Albo bietara, elkarren gainean pilaturiko koloretako edukiontziek hiru eta lau pisuko blokeak osatzen zituzten. Lurreko errailetan atzera-aurrera, portiko-garabi higikor batek alde batetik bestera lekualdatzen zituen lego-pieza eskergak. Orga jasotzaileek pilatik hartu eta kamioien

bizkarraldean zamatzen zituzten banaka. Makinen txistuek langileak ohartarazten zituzten. Oinez jarraitu genuen. Grabagailua piztu nuen portuko hotsak jasotzeko. Aurrerago, zamalanetarako kaian, bi garabi erraldoi *Conmar Gulf* ontzia deskargatzen ari ziren, 121 metro luzeko munstrotzarra. 20 metroko garaieran zintzilikaturiko kontainerren azpian, bi langile ñimiño oinez. Garabi guztiak pertsonek kontrolatzen zituztela azaldu zidan aitak. Zortzi orduz aritzen ziren kabina barrutik edukiontziak jasotzeko eta zegokien tokian kokatzeko aginduak ematen.

– Portuko langileok ez zakinagu edukiontzietan zer datorren. Zama antolatzea dun gure lana.

Kontainer arruntek 25 eta 28 tona artean pisatzen zuten, milatik gora garraiatzen zituen merkantziaontzi bakoitzak. Gai kimikoak eta siderurgikoak, kontserbak, etxetresnak, ardoa, erregaiak, eraikuntza-materiala, papera... Askotarikoa zen deklaraturiko merkantzia-sorta. Urtean 800.000 edukiontzi deskargatzen zituzten Bilboko portuan.

Segurtasun-sistemez eta azken istripuez hitz egin zidan. Bi egun lehenago langile bat hil zen zamaketako makina frontal batek zanpatuta.

– Vargas, zure tokira.

Arduradunak hatzaz seinalatu zion tokira zuzendu zen aita, esaneko. Langilezaina arduratu zen ni irteerara laguntzeaz. Terminalaren bikaintasuna goraipatu zidan, eta sekula porturaturiko zamaontzirik handienaren tamaina asmarazi. Urrutitik begiztatu nuen aita bloketzarren artean zamaturiko kamioiei bidea erakusten. Kontainer urdin bat igaro zitzaion gainetik.

Aztoramen apur bat sumatu nuen aduanan. Txalekoa eta kaskoa itzultzera joandakoan jakinarazi zidan bulegariak 50 kilo kokaina atzitu zituztela atun-lataz beteriko hondo bikoitzeko kontainer batean. Pabiloi bat seinalatu zidan: nazionalak droga-fardelak antolatzen ari ziren.

Portuko tabernan bazkaltzekotan gelditu nintzen aitarekin. Ordubete zeukaten gosea berdindu eta euren postura itzultzeko. Barran eserita egon nintzen zain, zurito bat edaten eta koadernoan erreportajerako oharrak hartzen. Ordu batean hasi zen jantokia betetzen. Lohihartzeko laranjaz jantzitako hamarnaka gizon sartu ziren zalaparta batean. Kaskoak eta lanjantzien zamarrak aulkien bizkarraldeetan utzi, mahaietara eseri, pitxarreko ardoa zerbitzatu eta zigarroak piztu zituzten. Bigarren tropelean iritsi zen aita.

Beste bi zamaketarirekin partekatu genuen mahaia. Ardo merkearekin nahasteko gaseosa pixka bat eskatu nuen. Leka-patatak sardexkarekin txiki-txiki egiten zituzten bitartean lan-baldintzei buruzkoak izan zituzten mintzagai: errelebo traketsen kalte-galera pertsonalak, azpikontraten miseria, patronalaren tratu mespretxuzkoa... Telebista ozenegi jarrita zegoen, pantailara begira ari ziren batzuk, distraituta. Ke-lainotan bilduta geunden. Ehun langile inguru ari ziren bazkaltzen, gizonak denak. Mahaikideek Estrasburgora eramandako eskakizunen berri eman zidaten etsitu antzean. Hitz batzuk grabatu nizkien jantokiko gizonahotsezko marmar guturalaren gainean.

Kafearekin, zutitu egin zen aita.

– Mutilak, hauxe da nire alaba!

Harrabotsaren erdian, besoarekin bizkarra inguratu eta sorbaldatik helduta musu eman zidan masailean. Iskanbila sortu zuen. Edalontziak jaso zituzten airera eta barre tristeak trukatu zituzten.

– Ez genekian alaba bat heukanik –kasu egin zidaten erretiroaren atarian behar zuten bik.

Sirena-hotsarekin jaiki egin ziren denak. Trago bakarrean hustu zituzten kafeak eta txupitoak. Samaldan atera ziren, tabako eta izerdi lehorraren usainare-

kin. Zerbitzari gona estukoek platerak biltzeari ekin zioten. Bazihoazen buzodunak nasarantz. Langile pila bat kontainerrak pilatzera. Martxan jarri zen merkantzia-trena. Gainerako zamaketarien artean bistatik galdu nuen aita.

Gabon egunez hil zen aldameneko oheko emakumea. Bezperan sedatu egin zuten eta lozorro eman zituen azken orduak. Bi seme izan zituen alboan, buruan laztan egin eta azken hatsean eskutik heldu ziotenak.

Hutsik gelditu zen ohera aldatu ninduten, leiho ondora. Hotzikara eragin zidan atsoa hil berri zen ohean etzateak. Bisitarien aulkian eseri nintzen irakurtzera. Amak lurrindegitik ekarritako eukalipto-tanta batzuk jarri nituen lurrin-barreiatzailean. Ospitaleko ohatze gehienetan hil izango zen norbait: izara-aldaketa batez uxatzen zen gorpuaren memoria.

Leihoa ireki nuen. Barne-patio heze batera ematen zuela jakin nuen ia hogei egunen ostean. Oraindik mantentzen zituen 80ko hamarkadan jonkiek beren buruaz beste egin ez zezaten ezarritako barroteak. Patioan solasean ari ziren bi erizain gazte.

Egun hartan ez zuten beste gaixorik ekarri, Lukak ordura arte nirea izandako ohean igaro ahal izan zuen Gabon gaua. Atun eta arrautzazko sandwichak eta txokolatezko tarta afaldu genituen. Lokartu aurretik, *Utopia*ren lehen denboraldia amaitu genuen. Gomino-la-poltsa okaztagarri brutala.

Eguberri egunean bazkalaurretik igaro zen Puertas doktorea. Astebete bakarrik falta zen antirretrobiralen tratamenduarekin hasteko adostu genuen egunerako.

– Bi farmako hauen artean hautatu beharko duzu.

Lehen aldia zen medikazioa aukeran ematen zidatena. Albo-ondorioak irakurtzera jo nuen zuzenean, bi koartilatan zerrendatu nituen. A: goragalea, beherakoa, buruko mina, giharretako mina, zorabioak, amesgaiztoak. B: nekea, loezina, depresiorako joera, suizidiorako tendentzia.

– Ongi pentsatu –aholkatu zidan.

Ez nuen erabakia geroratu. Arriskutsua iruditzen zitzaidan barrua jan ziezadakeen tristeziaren erantzule medikazioa egitea. Bajualdietan utzikeriaren errudun botika eginez gero, neure burua salbuetsiko nuen zoriona edo haren suzedaneo ohikoagoak bilatzeko lan neketsutik. Etsipena albokaltetzat onartzen ba-

nuen, ez nion iskin egingo. Gainera, banuen loezinetik nahikoa. Fisikoagoak ziruditen kalteak hobetsi nituen.

“Opari” haren kontraprestazio modura, ezustekorik ezean, Urtezaharretarako alta emango zidala zin egin zidan Puertasek.

Gurasoei deitu nien.

Josuneren baserrian zegoen aita, atarira ihes egin-da harrapatu nuen.

– Barraskiloak jaten ari ditun: nazkagarria.

Josuneren familia osoa urteroko barakuilu-zurrupan ari zen.

– Eskerrak deitu didanan.

Menua kantatu zidan:

– Baratxuri-zopa, karakolak, aza, intxaur-saltsa, konpota.

Konbentzituta zegoen markaketa gastronomikoa propio egina zela euskaldunak eta maketoak ongi bereizteko.

Ama bainuetxe batean zegoen Patxirekin, kostata konbentzitu genuen pare bat egun libre hartzeko. Igerileku klimatizatuko hamaka batetik hitz egin zidan. Masajea ematen ari zitzaizkion oinetan. Umetako zigorrek eta urteetako zutikako lanak itsusturiko amaren zango meharrak irudikatu nituen. Hunkitu egin nin-

duen esku ezezagun batzuk oin haiek goxatzen irudikatzeak.

Egun gutxi barru alta emango zidatela jakinarazi nien. Beharrezko ausardia bildu nuen ospitaletik aterako nintzela jakin nuenetik desio nuena eskatzeko: Urtezaharra elkarrekin igaro genezan nahi nuen. Lehen eta azken aldiz nire bizitzan. Antirretrobiralen teatroa onartu nuen nik; gau baterako jokaleku faltsua presta ziezadatela eskatu nien haiei.

Nire gaixoaldira arte aldenduta egon ziren gurasoak, baina izu komunak eta kezka partekatuek, medikuekin izaniko elkarrizketek eta ospitaleko korridoreko larritasun-uneek samurtasun minimo bat erne zien elkarrenganako.

Errieta egin zidan Lukak.

– Familia batuaren ameskeriak gainditurik behar hituzke.

Neurea lortu nuen, egoskor.

Abenduaren 30eko goizean baldintzapeko askatasuna eman zidan Puertas doktoreak: sukarra igotzen bazitzaidan, dezima gutxi batzuk izanagatik ere, ospitalera itzuliko nintzela hitzeman behar izan nion.

Ospitaleratu ninduten eguneko arropak jantzi nituen: beste batenak ziruditen. Kalean arrotz nintzen.

Jendea azkar zebilen ospitale-atarian, bazen eskailerak korrika igotzen zituenik. Autoek bigarren ilaran aparkatzen zuten, autobusek ziztuan uzten eta jasotzen zituzten bidaiari presatuak. Lurpean baretu nintzen, aparkalekuko sabaiak sosegatuta. Babestuta sentitu nintzen espazio mugatu estalian. Autoan eseri eta irratia piztean ezin izan nion emozioari eutsi. Istant hartan irrati-kate hura entzuten ari ginen milaka herritarren artean bat gehiago izatea zen, adibidez, normalitatea.

Gabonetako argiak, saltokiak, erosketa-poltsak, banatzaileen kamioien joan-etorria..., karranka bisual desatsegina zitzaizkidan. Ez nengoen kanpoko munduan lur hartzeko tenplean.

Aitaren etxera gidatu zuen Lukak. Negua zen eta gure pisua hotz egongo zen, ez zeukan igogailurik eta, batez ere, nik ez neukan hara itzultzeko barrurik.

Aitak etxeko atea zabaldu zigunean zoriontasunkolpe itzela sentitu nuen. Josunek baserrian igaroko zuen Urtezaharra ere. Bakarrik egongo ginen.

Sofara lagundu eta tapaki iletsu bat ekarri zidan Lukak. Laranja-lore usaina zeukan. Etzan egin nintzen. Lo-suma, etxeko isiltasunean eta giro lasaian atsegin hartu nuen. Ez zen ate-hotsik. Ez zegoen gutaz aparte

inor. Aitaren eta Lukaren ahotsak sumatzen nituen sukaldean. Euria kalean. Laztan bat ilean.

Lotarako bere ohea utzi zigun aitak, eta ospitalean ezinezkoa zen intimitatean uzkurtu nintzen Lukaren kontra.

Goizeko bederatzi eta erdietan esnatu gintuen. Atea jo zuen, kolpez igo zituen pertsianak. Egunkariarekin zetorren. Kamiseta jantzi eta zutitu egin zen Luka. Gauerako erosketak egitera bidali zuen aitak. Nire ondoan eseri zen. Boligrafoa txandaka elkarri pasatuz osatu genuen gurutzegrama.

– Orain, txukundu hadi.

Ahaztuta neukan aitaren mania: ez zitzaion inor etxean pijametan ibiltzea gustatzen. Gorroto zituen etxeko zapatilak eta sinbolizatzen zuten biguntasuna eta erosotasuna.

Irakurtzen eta telebista ikusten igaro nuen eguna. Gosetzen nintzenean hozkailura jaiki eta gogoak emandakoa hartzen nuen. Zazpiak aldera dutxatu eta ospitaletik Internetez erositako soineko berria jantzi nuen. Metro eta hirurogeita hamahiruan zekenki banaturiko 50 kilo eskas nintzen.

Zortzietan iritsi zen ama. Ez zitzaion erosoa gertatuko aitaren eta haren neska-lagunaren pisura etor-

tzea. Hallean gelditu zen aitak sukaldera pasarazi zuen arte. Zeharka begiratzen zien hormetako argazkiei. Sukaldeko mahaian pronto zeuden sarrerakoak. Zerbeza-botilak ireki zituen aitak. Egongelan edan genituen, amak eta biok sofan eserita eta bi gizonek zutik.

Banekien ama jeloskor zegoela ospitaletik irten berritan aitaren etxean babes hartzea erabaki nuelako, baina errealitatea zena zen: amak Patxirekin partekatzen zuen teilatupean ez zegoen niretzako logelarik.

Mahaira eseri ginen, Luka eta biok alde batean eta aita eta ama aurrez aurre. Jertse baten bila jaiki nintzen. Lukak segituan sumatu zuen sukarra igotzen hasi zitzaidala. Irribarre egin nion lasai zedin, baina komunera jaiki nintzenean nire atzetik etorri zen. Bekokia ukitu zidan.

– Sukarra daukan.

Komunean eseri nintzenean zeramika hotzak azala oilo-larrutu zidan. Dardarizoak neuzkan. Tenperatura igotzen ari zitzaidan.

– Oraintxe hartu diat antibiotikoa. Itxaron eragina egin arte.

Mahaira itzuli ginen. Arrautza beteak atera zituen aitak. Ardoa zerbitzatu zigun. Zoriontsua nintzen. Zoratzen nengoen. Maite nituela esateko beharra neukan, eta antibiotikoaren ostean irentsitako kortikoidepilularen bultzadatxoarekin esan egin nien. Aitak adeitsu hartu zuen ama, momentu batez dibertitzen ari zirela iruditu zitzaidan. Atakako irudiak berritu zitzaizkidan, Hertzainak-en kamiseta tarratatuekin eskuz esku lanean aritzen zirenekoak, nik barraren bestaldean eskolako lanak egiten nituen bitartean. Hantxe zeuden hogei urteren ondoren: berrogeita hamarretik hirurogeira bitarteko aroan, gainbeheraren hasieran duin; aita farfail eta kalpartsu, ama, serio eta eder. Bikote ona egiten zuten oraindik.

– Diz-diz egiten dinate begiek –ohartarazi zidan aitak.

Ardo kopa ia betea seinalatu nion. Komunera jaiki nintzen berriz aurpegia freskatzera. Tenperatura hartu nuen. 39,2.

Bizkaitarren erara prestaturiko bakailaoa afaldu genuen. Ondoren, limoizko sorbetea.

Aita eta ama balkoira atera ziren erretzera. Aitak seinalatzen zion puntu urrun batera begira ari zen ama.

– Ikusten al dituk bi horiek?

Gaitzespen-keinua egin zidan Lukak. Musu eman nion.

– Sutan dauzkan ezpainak!

– Ondo nagok, benetan.

Aitak mahats-aleak balkoian jatea proposatu zigun, auzoko elizako kanpaikadekin. Mahats-platertxoak prestatu zituen amak. Elizako ordulariari begira ari zen.

– Orain!

Lehen kanpai-hotsa entzun genuen. Bigarrena. Aurreneko aleak irentsi genituen. Inguruko pisuetan gero eta handiagoa zen harrabotsa, bolumen ozenean jarrita zeuden telebistak. Laster hasi zitzaizkigun mahats-aleak ahoan pilatzen. Elkarri begira, barrez ahoratu genituen azkenak. Aitak irentsi zituen denak lehenbizi. Harro erakutsi zigun mingaina.

– Urte berri on! –esan nien ahoa beteta.

Pareko etxebizitzatik su artifizialak jaurtitzeari ekin zioten, ia balkoiraino iritsi zitzaizkigun txinpartak. Suziri, petardo eta kantuen zalaparta lehertu zen. Inguruetako terrazaren batetik tronpeta-doinuak zetozen. Xanpain-botila ireki zuen aitak, aparretan geunden.

Sukartsu eseri nintzen aitaren etxeko sukaldeko mahaira. Isilik zegoen pisua, isilik kalea. Aita eta Luka lo zeuden, ama bezperan joana zen, taxia eskatu genion goizeko ordu biak aldera. Harraskaren ondoan pilatutako xanpain, ardo eta zerbeza botila hutsak, edukirik gabeko edukitzaileak, xahututako pozaren bodegoia izan zitezkeen. 2014ko egutegi estreinatu berria horman zintzilik.

Ospitaleko farmaziako poltsa opakotik hiru kutxa atera nituen. Banaka zabaldu, txiki-txiki egin, eta zaborretara bota nituen azalpen-orriak. Erabakita neukan botikak sustantzia neutro gisa hartzea, haien mesede eta kalteekiko esperantzarik eta kezkarik gabe. Mahai gainera baso bete ur atera eta edalontziaren aldamenean kokatu nituen lerroan: Truvada urdina, Novir zuria, Precista gorria. *Liberté, égalité, fraternité.* Kortikoide-pilula eta pneumoniarentzako antibiotiko likidoa gehitu nizkion ilarari. Denak irentsi, txabusina lotu eta balkoira atera nintzen.

On egin zidan haize hotzak. Eguna argitzen ari zuen, zaborren kamioia euforiaren hondakinak biltzen ari zen gainezka egindako kontainerretatik, agure bat

urte berriari urrats nekatuak lapurtzen taka-takari bultzaka. Barrura itzuli nintzen.

– Hasi haiz –aitak eskuetan zerabilzkien antirretrobiralen kutxak–. Ongi egina.

Galtza bakeroak soinean, kamisetarik gabe zutik zegoen sukalde erdian. Bezperako egunkaria atera zuen mahai gainera. Interes handirik gabe orriztatu zuen.

– Hoa etzatera, baliteken hasieran desatsegina izatea.

Atzetik segi zidan egongelara. Leonard Cohenen disko bat jarri zuen, kantua aukeratu: *Chelsea Hotel*.

Tapaki bat eman zidan eskura, eta sofaren aldameneko besaulkian eseri zen.

– Janis Joplini eginikoa dun, ba al hekien?

Musikarien abenturen zalea zen, haien istorio idealizatuetan zapore berezia hartzen zien amodioari, sexuari, heriotzari.

– *Ongi gogoratzen haut Chelsea Hotelean / hain ausart eta gozo hitz egiten hidan / zakila miaztu bitartean ohe deseginean / eta limusina hire zain kalean...*

Irribarre nostalgikoa egin zuen.

– 1968an elkartu zitunan Chelsea Hoteleko igogailuan, goizeko hiruretan. 424. gelan zegonan Cohen;

411.ean Joplin. White Horse Tavernetik zetorrenan Cohen, Dylan Thomasen bila joan omen zunan, hura hila zela jakin arren. Joplin nondik zetorren, auskalo.

Bere lagunak balira bezala mintzo zen.

– “Norbaiten bila al habil?”, galdetu zionan Cohenek. “Kris Kristoffersonen bila”, erantzun Joplinek. “Zorteko hago, neska txiki: neu naun Kris Kristofferson”. Grazia egin zionan neskari. Elkarrekin igaro zitenan gaua.

Atsegina zen aitari istorio hura aditzea Cohenen ahotsak hondotik oihartzun egiten zuen bitartean.

– Handik 20 urtera kontatu zinan kontzertu batean –Cohenen ahotsa itxuratu zuen–: “Bera ez zebilen nire bila, Kris Kristoffersonen bila baizik; ni ez nenbilen haren bila, Brigitte Bardoten bila baizik. Baina elkarren besoetan amaitu genuen halako eliminazio-ariketa baten bidez”. Gizon ederrak maite zituela esan zionan Joplinek, baina berarekin salbuespena egingo zuela.

– Zenbat urte zituzten?

– Leonardek 33, Janisek 25.

Begiak itxi nituen.

– Goragalea?

– Bai.

– Laster ohituko haiz.

Luka jaiki zenean aita zaborra jaistera atera zen. Sukarra hartu zidan.

– Ez zaidak jaisten, arraroa duk.

– Ospitalera joan behar dinagu.

Ezetz egin nion.

– Gaur jaieguna duk, Puertas ez duk egongo. Itxaron egingo diagu.

Sukartsu nengoen, baina ondo sentitzen nintzen. Gorputzari atseden ematen ari nintzaion, eroso eta babestuta nengoen aitaren etxean. Amak goiz-erdian deitu zidan, antirretrobiralekin hasi ote nintzen galdetzeko.

– Zangoak sorgortzen zitzaizkiolako kexatzen zen Karmen.

– Oraingoz ez dut ezer nabaritu.

Arratsaldean etortzekotan gelditu zen ama. Tokia egin nion Lukari sofan. Haren izterretan etzan nuen burua.

– Kontaidak zerbait.

Aitak Janis Joplin eta Leonard Coheni buruz esanak berritu nizkion.

– Chelsea Hotel-en hartu zitenan ostatu Bukowskik, Burroughsek, Arthur Millerrek eta Kerouacek ere. Hantxe mekanografiatu zinan *On the road.*

– Ez ditiat ezagutzen.

– Sid Vicious?

– Hori bai.

– Chelsea Hoteleko 100. gelan hil zinan Nancy Spungen. Odolustuta aurkitu zitenan komunean erdi biluzik, Viciousen labana sabelean sastakatuta. Okerrena dun jende gehiagok egiten duela Nancy gajoa Sid heroinara lapatu izanaren eta Sex Pistols taldea banatu izanaren errudun, Sid Nancy erail izanaren hobendun baino.

– Zenbat urte zituen?

– 20.

Inpresioa eta miresmen halako bat eragiten zidaten hain gazterik hildako emakume haiek.

– Garaiko martiriak.

Dardarka hasi nintzen, izerdi hotzez hezetu zitzaidan bekokia.

– Antirretrobiralengatik duk.

Lukak ospitalera deitzea erabaki zuen. Dardarak eta goragalea tratamenduaren ohiko albokalteak zirela esan zioten, baina sukarrarenak beste motiboren bat behar zuela. Hartzen ari nintzen antibiotikoarengatik izan omen zitekeen. Badaezpada, pneumoniaren tratamendua eteteko agindu zioten, eta handik hogei-

ta lau ordura sukarrarekin jarraitzen banuen ospitalera eramateko zuzenean.

Berrogeita zortzi ordu itxaron genuen, baina sukarra ez zen jaisten, hamarren batzuk igo zitzaidan. Animoz maitekor eta bare sentitzen nintzen, bigun.

Urtarrilaren 3ko iluntzean bisitan etorri zen ama. Aitarekin hizketan sumatu nuen sukaldean. Musika zoragarria egiten zuen bien ahotsen konbinaketak.

– Ospitalera eramango zaitugu –esan zidan amak albora etorrita.

– Ados.

Harrituta utzi nituen batere erresistentziarik gabe eta are gozoki eman nielako baiezkoa.

Hirurek lagundu zidaten: aitak, amak eta Lukak. Erizainak atseginak izan ziren nirekin. Ahots apalez egin zizkidaten galderak, plakak egitera bidali nindu-ten. Kontsultara pertsona bakarrak lagun ziezadakeela esan zuen medikuak. Ama jaiki zen, eskua eman zidan eta barrura sartu ginen.

– Pneumonia errepikatu duzu. Hutsetik hasi behar dugu berriro, Nagore. Beste 21 egunerako ingresatuko zaitugu, gutxienez.

– Ondo da –erantzun nion.

Gurpildun aulki batean eserarazi eta igogailuan sartu ninduten. Hilabete atzeragoko prozesua errepikatu zen: oxigeno-maskara, antibiotikoa eta kortikoideak zainetik. Erizainek alde egin zutenean sartu ziren gurasoak eta Luka gelan. Irribarre egin nien.

– Ia-ia Cohenen gela eman didate Chelsea Hotelean.

422.a zen.

Lehenengo ospitaleratzeak kartzelaldiaren traza izan bazuen, bigarrenak monasterio batekin izan zuen antzekotasun handiagoa. Pneumonia kontrolatu zidatenean sukarrak behera egin zuen, eta kortikoideen goraldia drogekin izan dudan esperientziarik liluragarrienetakoa izan zen. Barne-oreka gozatsuan nengoen, sekula ez bezalako irekitasun emozional eta buruargitasun barearekin. Gertakari guztiak logika abstraktu baina, aldi berean, oso sinpleen arabera ordenatzen nituen ia ahaleginik egin gabe. Denari bilatzen nion zentzua, ordena kosmikoarekin bat eginda sentitzen nintzen, existentziaren sekretuetatik gertu. Denbora eta heriotza ulertzera irits nintekeela iruditzen zitzaidan. Azaltzen ez nekien hura guztia nire baitan ze-

goen instalatuta. Isilik eta ezer egin gabe egon nintekeen ordu luzetan, izatearen plazer hutsa dastatzen. Nire baitan zegoen dena. Ez zitzaidan arnasa hartzea baino ariketa atsegingarriagorik bururatzen.

Arrazoia, ideologiak, eztabaida, teoriak, azalpenak... garatu gabeko gogoaren adierazle ziren, ezbairik gabe. Hala ere, ingurukoak arrazoitzen eta eztabaidatzen entzutean ez nuen odol txarrik egiten; alderantziz: giza ahuleziaren ederra kontenplatzen nuen nire ohetik. Loezina opari bilakatu zen: gauez, zentzumenak zorrozten zitzaizkidan eta, mundua lo zegoela, bat egiten nuen haren pultsuarekin. Ez neukan hitz egiteko premiarik, maite nituenen presentziak biltzen ninduen, ez nuen harmonia hura hitzez kirrinkatu nahi.

– Sartzen dinaten horretatik pixka bat eman behar didan –esaten zidan aitak.

Imajina gozagarriak, emeki mugitzen zirenak, eratzen ziren nire baitan. Haizeak laztanduriko belar-soro bat izan zitekeen, zehaztasun sinesgaitzez ikus nezakeena kulunka, eta begi eman nola argi-tonua hotzetik berora mudatzen zen eguzkia beheratu ahala. Irudi errepikariak izaten ziren, ez berdin-berdinak, imajina biziak izaki, bariazio sotilak izaten baitzituzten, edo aurrez erreparatu gabeko xehetasunen batek berega-

natzen baitzidan arreta. Haietako batean igerilekuan ikusten nuen neure burua. Ur urdin argiz betetzen zitzaidan gogoa, argi-izpiak iragazten ziren bristada azkarretan, eta irudiaren erdian igerian ni. Luzaz eusten nion plano bakarreko filma zirudien begitazio hari. Sentsazio guztiak erregistratzen nituen: uraren tenperatura doia; besoen inklinazioa, erritmoa eta indarra; argiaren distira; hatz-puntaz ur-azala zeharkatzearen sentsazioa; giharren berotasuna; uraren pisua; urak bilduriko soinaren osotasuna eta gorputz atal bakoitzaren sentipen partikularra; soinua; plano osoaren kadentzia; perfektuki koordinaturiko gorputzaren eta desplazaturiko likidoaren mugimendua; oxigeno-burbuilen ihesa... Ospitaletik ateratakoan igeri egiten hasiko nintzela erabaki nuen.

Izeba Karmenekiko loturak bigarren ospitaleratzean jo zuen goia. Ahaztutako edo sekula oroitu gabeko eszenak gogoratu nituen, akordu txiki eta politak, irribarre egiten zuenean betertzean sortzen zitzaizkion izurren forma zehatza edo haren barrearen soinua bezalakoak. Garbi-garbi entzuten nuen. Izebaren usaina aditzera iritsi nintzen, haren azalarena, eta haren ilearen ukipena berbizitzera.

Itzarrik baina begiak itxita nengoen gau batean betazalak kolpez zabalarazi zizkidan nire baitan ustekabean sorturiko eszena batek. Imajinan, besoetatik zintzilik nindukan Karmenek, bere ardatzaren bueltan biratzen ninduen bizi-bizi. Hegan ari nintzen. Irudi argia zen, kasik errea. Nire barreak aditzen nituen bueltak eta bueltak ematen nituen bitartean. Ez zen ikusten, baina banekien gure atzean trenbidea zegoela, errailen herdoila usaindu nezakeen. Izebaren eskuen presioa sentitzen nuen nire esku txikietan, airea zangoetan, soineko hegaldatuaren azpitik. Bat-batean, biratzeari utzi eta besoetan hartzen ninduen Karmenek. Une horretan garbi aditu nuen nire ahotsa: “ama!”. Agondu egin nintzen. Begiak itxi nituen atzera. Karmenek airean biratzen ninduen, soinekoa neraman nik eta gerri altuko galtza bakeroak berak. Ile harroa biok, nik solte eta motots altuan bilduta izebak. Besoetan hartzen ninduen: “Ama!”.

Eldarnio moduko hartan, joaten utzi nion irudimenari: beti esan izan zidaten nire ama haurdun gelditu berritan sartu zutela Karmen desintoxikazio-zentroan, eta Valentziako Cortijo de Santa Elenan ingresatuta zegoela jaio nintzela ni 1982ko martxoan. Nire jaiotza eta izebaren desintoxikazioa bat eginda egon ziren fa-

miliaren errelatoan, batak bestea eragin zuela ere iradoki izan zidaten...

Karmen Vargas haurdun zegoen kartzelatu zutenean. Haur baten esperoan zegoela jakin zuenean erabaki zuen desintoxikatzea, eta erditu berritan eraman zuten El Patriarcara. Etengabe galdetzen zuen jaioberriaz bere gutunetan, eta niniak bizitzeko indarra ematen ziola adierazten. Bitarte horretan Karmenen anaia Rafa Vargas eta haren emaztea egin ziren jaioberriaren kargu. Nola-hala moldatzen ziren tabernako ordutegi traketsekin, baina zor zion hainbeste Rafak arreba gazteari. Heroina utzi eta garbi itzuli orduko itzuliko ziren gauzak bere onera: amak alaba berreskuratuko zuen, alabak ama. Haurrak bi urte betetzerako bueltan zen Karmen. Hemezortzi urte zituen. Umea besotan hartu eta negar egin zuen lehortu arte. Distiratsu zegoen ama gaztea, garbi eta osasuntsu. Zaintza-lan guztien ardura hartu zuen: jaten eman eta jantzi egiten zuen, egurastera atera, loarazi. Baina gauzak okertu egin ziren: Karmeni hiesa diagnostikatu zioten laster, eta hur-hurreko heriotzara kondenatu. Zetorkienaren aurrean, ez zituzten ama-alabak bereizi, elkarrekin utzi zituzten azken unera arte, baina egia isilpean gordetzea adostu zuten denen artean.

Nagore Vargas, Rafa Vargas eta Arantzazu Alkortaren alaba izango zen handik aurrera. Zorte pixka batekin, amak ez zion GIBa transmititu izango, kutsatze-bideen inguruko ikerketak garatu gabe zeuden oraindik. Osasuntsu eta babestuta haziko zen izeba hilaren gomuta triste baina heroikoarekin.

Loak hartu ninduen, eta bestondoaren antzeko gorputzaldiarekin esnatu nintzen handik gutxira.

Goizean, nire gustuko ogi integrala eskuetan zuela sartu zen ama gelan. Begiratu egin nion: igual-igualak ginen. Amarenak nituen zango luze argalak eta metro eta hirurogeita hamarretik gorako soina. Begi urdin handiak, ia identikoak, ederragoak harenak.

Lehenengo ospitaleratzean izuak hartuta egon zen gajoa, erreakzionatzeko giharrik gabe. Urtezahar gauaz geroztik, ordea, gertuko eta zaintzaile izan nuen.

– Haluzinazioak dauzkat.

– Dosia jaisteko agindu behar diegu.

Gauean kortikoideen eraginpean izandako ameskeria kontatu nion. Txundituta entzun zidan.

– Zesarearen orbana erakutsi behar al dizut?

– Barkatu, ama, oso kolokatuta nago.

– Utzidazu zatitxo bat, neska.

Errudun sentitu nintzen. Aitaren eta bion artean osatu genuen mundu zentrokide-gatazkatsu-edipikotik kanpo utzi izan genuen beti.

– Kutsatu izanaren arduraz libratzeko koartada ideala zen.

Ilea laztandu zidan. Beti isilik baina metro gutxiko distantziara, eskua luzatu eta atzitzeko moduan izan nuen emakumeari begiratu nion. Haren presentzia lausoari. Haren begi urdin tristeei. Haren izatearen arintasuna jasanezinari. Gurasotasun difuminatu samarreko andrea, ahizpa, pisukidea, sozioa, bidaidea, laguna. Ama.

Alta eman zidaten egunean penaz hartu nuen albistea. Ospitalean seguru sentitzera iritsia nintzen. Bertigoa ematen zidan handik irteteak.

Agurtzera etorri zitzaidan Puertas doktorea.

– Asko arriskatu dut.

Pneumonia ondo sendatu gabe antirretrobiral-tratamendua hasteaz ari zen, besteak beste.

– Nork bere eran arriskatzen du.

26 egun eman nituen ospitalean. Aita, ama eta Luka ondoan izan nituen. Inoiz ez ditut hainbeste egun segidan igaro deus ere faltan sumatu gabe.

Balkoiko egurrezko leihateak zabaldu nituen parez pare eta etxeraino sartu zitzaidan itsasoa. Teilatuen gainetik hedatzen zen apar eta argi bristadekin. Igeldoko gaztelua urrunean; atzean, Jaizkibel. Etxaurreetan zintzilikaturiko maindireak kulunkatzen zituen brisak, hondartzako toallak lehortzera jarrita zeuden eskudeletan. Hareharrizko eliz dorreko pinakuluetan, kaioak eguzkitan.

Irantzuren amonarena izandako etxea hutsik zegoen ia. Altzari zaharrak erretiratu zituen, zuriz margotu hormak.

– Formentera behar dunanean, eskatu giltzak –esana zidan.

Itsasaldeko gelako ohe zabala, desegina, ipar-ukituko haizearekin egurasten ari zen. Arrain errearen usaina zetorren kaletik. Elizpeko tuneletik irteten ikusi nuen Luka, egunkaria besapean. Txistu egin nion goitik.

– Buongiorno mio caro amico!

Mantso igo zituen eskailerak, binaka eta hirunaka igotzen zituen ez hain aspaldi. Gertuko bebarru batetik etxepeko jatetxera mihi-arrain garraio zihoan emakumearekin egin zuen topo. Sorbaldan kanabera zeraman neska kozkor bat agurtu zuen alaiki. Elizaren kontrako plazatxoan eseri zen nire zain.

– Zer moduz lo egin dun?

– Hamar ordu jarraian. Ez zakiat noiz izan zen azken aldia.

Kalean behera abiatu ginen. Itsaski-haztegiko arduradunarekin hitzordua lotu zigun Irantzuk han lan egiten zuen osaba baten bitartez. Irrikan zegoen Luka, gero eta gehiago gustatzen zitzaizkion plan gastronomikoak.

– Esnatzean izutu egin nauk pixka bat, falta hintzela-eta.

– Nora joan nintekeela uste izan dun?

Elizako kanpaiek hamabiak jo zituzten.

– Gramsci irakurtzen aritu haiz?

– “Arrazoiaren ezkortasunez pentsatu behar da, baina borondatearen baikortasunez jokatu”.

– Horretara etorri gaituk, bigarren partea praktikatzera.

– Itzela izan dun egunsentia: itsasoak ez zinan izur bakar bat ere.

Kizkurrago zegoen ordurako, haize-olatu zurixkek zipriztindua.

– Dena bare dagoenean urduri jartzen hasten nauk.

– Horregatik atera al haiz balkoira? –gerritik heldu zidan–. Eta ni zeruertzari begira hengoelakoan.

– Tira, bide batez.

Adokinezko aldapan barrena beste tunel bat igaro eta ezkerretan aurkitu genuen haztegia. Dendan elkartu ginen Pedrorekin, une hartan ez zegoen bezerorik. Karga-jasogailuan jaitsi ginen pabiloietara. Izterretarainoko katiuskak eta uretako eskularruak zeramatzaten langileek, oinetarainoko amantalak. Zorua blai eginda zegoen, labainkor, hormetan behera ur-tantak. Jertsea janzteko aholkatu zigun. Oxigenazio- eta hozte-sistemen motorren hotsa aditzen zen.

Krustazeoak eta moluskuak espezieka sailkatuta zeuden asketan: otarrainak, abakandoak, izkirak eta zigalak; txangurroak, buiak eta nekorak; lanpernak, txirlak, ostrak eta karrakelak.

Karrakelen bahe-sistema azaldu zigun.

– Lurrean barreiatzen ditugu denak. Panel bertikal batzuk jarri, aska itxi eta hiru aldiz igotzen eta jaisten dugu ur-maila. Itsasgora eta itsasbehera artifizialak eragiten dizkiegu eta magurio onak paneletara itsasten dira. Lurrean gelditzen direnak zaborretara botatzen ditugu.

Otarrainen putzura hurbildu nintzen.

– Halako bat jan genian Formenteran –esan nion Lukari.

Irri egin zuen Pedrok.

– Hori hutsik dago.

Eskua putzuan sartu eta otarrain-oskol hutsa atera zuen.

– Oraintxe ari da amaitzen emeen muda-garaia.

Oxigenazioaren pasoko giltza itxi zuen urak baretzeko.

– Zortea izan duzue; normalean gauez egiten dute. Begira han.

Otarrain ertain bat seinalatu zigun, ezer arrarorik nabaritu ez geniona. Urrats txikiekin mugitzen ari zen aurrera eta atzera. Saiheska etzan eta zangoak eta antenak inarrosi zituen. Hala iraun zuen tarte batean. Pixkanaka irekidura bat egin zitzaion bizkarraldean. Oskolaren kontra bultzaka ari zen zomorroa, uzkurdu-

raka, erditze itogarrian, armadura zaharra utzi nahian. Estura eragiten zuen. Aurreko hankak eta burua oskoletik askatzea lortu zuenean, bizkarreko irekiduratik atera zen animalia, eta azal zaharraren aldamenean gelditu zen akituta. Salabardoarekin harrapatu eta beste putzu batera aldatu zuen Pedrok.

– Arriskutsua da besteekin uztea: eraso egin diezaiokete.

Mudatu berritan mami biguneko otarrainaren aurka oldartu ohi dira gainerakoak.

Txangurro hankabakarren aska erakutsi zigun.

– Horiek, merkeago.

Konpartimentu txikitan banatutako kutxetatik pintzekin zigalak ateratzen ari ziren bi langile. Hiru zentimetro karratuko gelaxkatik atera, bizirik zeudela egiaztatu eta lehengo tokira itzultzen zituzten.

Moluskuen pabiloira sartu ginen. Ostren konpartimentura eraman gintuen. Sastakai txiki batekin bi kusku zabaldu eta probatzera eman zizkigun.

– Ez limoi ez piperbeltz ez ezer. Hauek gordinik jan behar dira.

Tolestura delikatuko mami zuri-ubela ahoratu genuen guri. Ostren aska aurrea ez zen ostrak dastatze-

ko tokirik egokiena: bakantasunaren xarma galtzen zuten.

Bisita amaitutzat jo zuen Pedrok. Egositako karrakela poltsa bat erosi genuen dendan, orratz txiki bana eman ziguten, haztegitik magurioak janez irten ginen.

Arrantzaleen lonjen artetik igaro ginen, itzaletik. Usain sarkor batek erdi irekitako ate batera eraman gintuen. Lurrean, hamar kiloko latetan, gatzetan jarritako antxoak. Gizon txiki bat begiztatu genuen bizkarka. Antxoa poto batzuk zeuzkan apaletan.

– Kontrabandokoak dira –ohartarazi zigun jiratu gabe–. Etiketadunak nahi badituzue, *delicatessen* dendetan begiratu, badira lauzpabost.

Bi poto erosi genizkion. Hautsa kendu zien trapu batekin.

Bazkaritarako leku bat aholkatzeko eskatu genion. Moila zaharraren aldameneko etxabe zahar bat seinalatu zigun begiak ñarrotuta:

– Fidatzekoak. Hemendik dena ikusten da.

Arraunlari talde bat itsasoratu aurreko berotze-ariketak egiten ari zen korroan jarrita. Gorputz gazte sendoak. Dozena bat neskamotzen artean trainerua sorbalda gainera jaso eta moila txikira eraman zuten. Arranplan utzi, ur-botilak eta toallak tostartean gorde

eta uretara arrastatu zuten. Nola itsasoratzen ziren begira gelditu ginen.

Kontserbagile xaharrak gomendaturiko etxabera gerturatu ginen. Portuko jatetxe familiar eta abegikorra iruditu zitzaigun. Itzalpeko mahaia eskaini ziguten. Kartarekin hurbildu zen zerbitzaria.

– Eska ezak hik, ni nahastu egiten nauk eta gaizki aukeratzen diat.

– Ez dun hain zaila, ba.

– Aukera zabalegia.

Karta ireki zuen.

– Plater nagusiarekin asmatzea dun gakoa. Zer arrain jan nahi dun?

– Hik argi daukak?

– Erreboiloa.

Ardo-karta eskuratu zuen.

– Arrainarekin zuria gomendatzen diten, baina niri beltza gustatzen zaidan.

– Aristokrata dirudik.

– Ni gutxi eskatzearen aldekoa naun.

– Entsalada?

Zerbitzaria etorri zen. Eskaria egin genion.

– Ez dizuet esan: sarrerarako, kokotxak eta txibiak ere gelditzen dira.

Lukari begiratu nion, zalantzati.

– Entsalada eta erreboiloa birentzat, eskerrik asko.

Ardoa ekarri ziguten.

– Txibiak freskoak izango zituan hemen.

– Dena batera ezin dun. Probatu ardoa.

– Ederra.

Entsalada-plater hutsa erretiratu zigun zerbitzariak.

– Lasai zagok herria.

Kofradiarako igarobidea itxita zegoen, portuan urria zen autoen joan-etorria.

– Uda aurreko azken asteburu baketsua zela esan zinan Irantzuk.

Erreboilo-erretilua ekarri eta zati bana zerbitzatu ziguten. Kopa bete zidan Lukak.

– Jende atseginarekin egon, toki ederrak ikusi, jan, poliki bizi...

Eroso jarri zen aulkian.

– Eta sozialismoa?

– Plazerari uko egin gabe.

Erreboiloaren masailak bereizi zizkidan.

– Dastatu, xamurrena dun.

– Bai gozoa.

– Zer esan nahi du hiretzat ondo bizitzeak?

– Batez ere, hargatik errudun ez sentitzea.

– Saiatu zehatzago izaten.

– Arropa gutxi eta denbora libre asko izatea.

– Gustatzen zaidan.

– Lan ere egin beharko diagu.

– Ahalik eta gutxien.

Mahaitik altxa gineneraco arratsaldeko bostak ziren.

Mutil kozkorrak saihetsak bistan ari ziren altxirrian bainatzen, bularralde oraindik infantilekin elkarren kontra tope egin eta atzerantz erortzen ziren beso zabalik. Hirunaka eta launaka jauzi egiten zuten uretara, airean elkarri bultzaka, uretan elkar zapalduz. Batzuk besteei itolarriak egitera eta galtzak jaistera jolasten ari ziren, erotikaren eta borrokaren artean. Ikusi gintuztenean txanpon bat botatzeko eskatu ziguten uretatik. Ahalik eta urrunen jaurti zien Lukak hogei xentimokoa. Lepoak biratu zituzten denek batera. Ziztuan atera ziren igerian sardan. Murgiltzen ikusi genituen.

Erretegi zaharraren aldameneko eskaileretan gora, San Anton mendirako bidea hartu genuen. Udaberriari eroritako loreak galtzadan maskalduta, umotzen ari ziren pikuen usaina airean. Itsasotik, kresala eta goroldioa.

– Oraintxe ditun egunak luzeen.

– Txibitara zoazak batelak.

– Lehen honaino iristen zituan baleak.

Garaiera irabazi ahala, ikusgarria zen Getariako bista. Mahasti berdeen magalean alde zahar txikia: teilatu gorrien artean lau kale, eta bi aldeetara hondartzak eta itsasoa. Nahita ere gehiago hazi ezin zen herria. Etxeek zintzilik ziruditen labarraren gainean.

Cenere, *acero*, *nocciola*, *agrifoglio*, *lauro...* Luka bideko zuhaitzak izendatzen ari zen amak mutikotan erakutsi eta ordutik esan gabeko hitzekin, nire haurtzaro industrialean existitzen ez zirenekin. Bidezidor usaintsuetan galdu ginen, bideko bankuetan eseri. Haizea aditzen zen hostoetan.

Oinez jarraitu genuen itsasargiraino. Iparraldeko mazelan, begiralekuko barandan amildegirantz okertu genuen soina. Han behean, olatuak lehertzen ziren hormatik gertu, hegan ari ziren kaioak. Goian espero dena behean aurkitzearen zirrara.

Mendiko talaiarik altuenera iritsi arte paseatu ginen. Egitura abandonatu bat topatu genuen, talaieroaren txabola edo gerra-begiralekua izandakoa. Pintadaz josita zegoen barrualdea: *Sonia eta David*

(2013-07-16); *Amnistia osoa*; *Hemen jo zuten larrua Anek eta Martinek.*

Handik irten eta belarretan etzan ginen itsasoaren eta zeruaren artean.

– Bertakoek jakingo al dute hau estimatzen? Drama lukek edertasunera ohitzea.

– Saihetsezina: denera egiten dun bat.

Azkura egin zitzaidan bizkarrean.

– Hatz egidak.

Ahuspez etzan nintzen. Kamisetaren azpitik sartu zidan eskua. Gerri aldean hasi zitzaidan hazka.

– Gorago –eskatu nion–, eskuinera, pixka bat beherago, ezkerrera... Hortxe.

Hasperen egin nuen.

– Puntu horretan hatz egitea behar nian zehazki.

Hodei altuei begira gelditu ginen.

– Zaila izango duk orain baino hobeto egotea.

Hegazkin bat igaro zen hegoalderantz. Lukari begiratu nion:

– Isilik hago.

Mendiaren beste aldetik jaitsi ginen herrira. Arbolak izendatzen jarraitu zuen: *betulle, ciliegio*, *pino marittimo*...

Abiatzeko prestatzen ari ziren baporeak portuan. Sareginak lurrean eguzkitakopean lanean; ezkata solteak, arrain zatiak eta itsasbelar lehorrak sarean kateatuta. Gizon buruzuri bat bost urte eskaseko bilobarekin eskuko aparejuarekin arrantzan ari zen. Moila ertzean zutik, hatz erakusletik zintzilik zuen pitari begiratzen zion kontzentratuta. Biloba bere amuan york urdaiazpiko zati bat lotu nahian zebilen.

– Heldu dio!

Ertzera arrimatu zen neskatoa.

– Zer da?

– Lapatxa.

Amutik askatu eta aitonak plastikozko poltsan sartu zuen astinaldika ari zen arraina. Eskua jarri zion gainean bilobak.

– Gelditu da.

Nerabe-kuadrilla bat ikusi genuen kai ertzean jolasean: amarratutako arrantzontzi batera igarotzen ari ziren natural-natural, moilatik karelerako saltoan segundo erdirik galdu gabe. Mutil kaskailu bat brankako mastara igo zen arin-arin, eta besaurretik eskailerara zintzilikatuta, karkaxa bota zion kubiertan geldirik zegoen lodikote bati. Kaioak madarikatu zituen mutiko gizenak.

– Zahatoa! –hots egin zion goikoak.

Beti Piedad, irakurri nuen barkuaren izena.

Bi morroiengandik apartatu genuen bista: neska bat zutik zegoen brankan. Oinak eta izterrak itxita, gerria doi bat atzerantz tolestuta, begirada zuzen finko. Txaloka hasi ziren denak. Besoak zabaldu zituen. Kokotsa goratu zuen doi bat. Zin egingo nukeen segundo batez airean geldirik iraun zuela. Aingeruaren jauzi perfektua.

Pantalaira jaitsi ginen. Behera zetorren eguzkia. Bi ume zaparro txalupa zahar bat txikatzen ari ziren. Tostapeko panelak altxatu eta gilan pilaturiko ura ateratzen zuten Cola-cao poto banarekin. Euri-ura ala itsasokoa ote zen eztabaidan ari ziren. Ahora eraman zuen nagusienak potoa.

– Euria.

Portu gaineko etxe zuri-urdinak seinalatu zizkidan Lukak.

– Biziko al hintzateke han?

– Eta nor ez. Teilatupea gustatzen zaidak gehien. Hiri?

– Lehenengo pisua, balkoi luzeduna.

Zerbeza bana hartu genuen etxeratu aurretik. Bi botilatxo erosi eta mendebaldeko talaiara eraman ge-

nituen. Ortzimugara hurbiltzen ari zen eguzkia handi eta gorri. Hondartzan hiru haitz-lerro gelditu ziren bistan itsasbeheran, balea erraldoi baten hezurdura iluna antzo. Karramarroak zebiltzan haitzartean. Harea, heze eta leun. Itsasoan surflari bat taula gainean eserita, iristen ez ziren olatuen zain. Igerilari bat begiztatu genuen urrunean, kostako lerroari jarraika.

– Balkoian afalduko dugu?

Gazpatxoa prestatu nuen. Sukaldeko mahaia ez zen balkoian kabitzen, eta hiru aulki eraman genituen, bat mahai gisa. Foku indartsuek argitzen zuten elizaren hareharrizko horma. Antxoak oliotan atera zituen Lukak.

– Ez zaukanagu ardorik –esan zidan.

Txakolin-botila erakutsi nion.

– Irantzuk utzi zian guretzat.

Ardoa eta kopak atera genituen balkoira. Gaugiro zegoen. Etxepean bi gaztetxo ari ziren, trakets eta eder, ezkutuan elkar haztatzen.

– Igandea, bihar.

Urrunera begiratu nuen. Farola bakanak uretan islatzen ziren dardarti. Hegazti bat pausatu zen terraza batean. Luka zen galdezka:

– Zer egingo dugu hemendik aurrera?

– Beleen trebezia nahi nikek etorkizunarekin.

Teilatuek ebakitzen zuten zeru zatiari erreparatu nion.

– Ez duk ia izarrik ikusten.

– Nik buruz zakizkinat hire azaleko konstelazioak.

Haize epelak laztandu gintuen. Han nonbait kantuz ari zen jendea. Txalupen klin-klin hotsa aditzen zen portu aldean. Baporeak itsasoan ziren. Ura ilun. Lasai eta bakarti zegoen hondartza. Txibitara aterataako batelak portura zetozen, izarren antzeko argitxoekin. Laster izango ziren denak etxean.